

**JOSEBA SARRIONANDIAREN *KARTZELAKO POEMAK*
LIBURUAREN KRITIKA GENETIKOA**

Ane Arandia Morgaetxebarria

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako Masterra
Lourdes Otaegiren zuzendaritzapean egindako lana

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
1.1. Planteamendu orokorra.....	2
1.2. Lanaren helburuak eta lan hipotesiak.....	3
1.3. Aurrekariak eta gaur eguneko egoera.....	5
2. Marko teorikoa.....	6
2.1. Sorrera.....	7
2.2. Helburua.....	9
2.3. Kritikak.....	14
2.4. Aurrekariak.....	16
3. Joseba Sarrionandiaren eta <i>corpusaren</i> aurkezpena.....	17
3.1 Biografia.....	17
3.2. <i>Corpusaren</i> aurkezpena.....	19
3.2.1. “ <i>Intxaur Azal Baten Barruan</i> ” eta “ <i>Eguberri Amarauna</i> ”.....	20
3.2.2. <i>Izkiriaturik Aurkitu ditudan ene poemak</i>	21
3.2.3. <i>Susa</i>	22
3.2.4. <i>Marinela</i>	22
3.2.5. <i>Marinel Zaharrak</i>	24
3.2.6. <i>Kartzelako poemak</i>	25
3.2.7. <i>Hnuy illa nyha majah yahoo</i>	26
3.2.7. <i>Hau da ene ondasun guzia</i>	28
3.2.8. <i>XX. mendeko poesia Kaierak: Joseba Sarrionandia</i>	29
3.3. Sarrionandiaren poesia estiloaz bi hitz.....	29
3.4. Justifikazioa.....	34
4. Argitalpenez argitalpen eta edizioz edizio egondako aldaketak.....	36
4.1. Urratsei jarraituz ibilbidea (berr)eraikiz.....	36
4.1.1 Olerki intermitenteak.....	39
4.1.2. <i>Marinel Zaharrak</i> liburutik <i>Gartzelako Poemak</i> liburura gehitu diren poemak.....	41

4.1.3. <i>Kartzelako Poemak</i> -eko 2011ko edizioan baino ez dauden poemak.....	41
4.1.4. “Post Scriptum” atala.....	43
4.1.5. <i>Hnuy illa nyha majah yahoo</i> liburuan gehitutako olerkiak.....	44
4.1.6. Antologietarako poema hautatuak.....	44
4.2. Argitalpenez argitalpen egilearen aldaketak.....	47
4.2.1. Orokortasunak.....	48
4.2.1.1. <i>Kartzelako Poemak</i> eta <i>Hnuy illa nyha majah yahoo</i> -k komunean dituzten olerkiak	49
4.2.1.2. <i>Hau da ene ondasun guzia</i>	56
4.2.1.3. Koldo Izagirrereren <i>XX. mendeko poesia kaierak: Joseba Sarrionandia</i>	57
4.2.2. Hizkeran antzeman daitezkeen aldaketak.....	59
4.2.3. Ibilbidean zehar burututako aldaketak.....	63
4.2.3.1. Gehiketak.....	63
4.2.3.2. Posesiboak ezabatzeko joera.....	66
4.2.3.3. Singularretik pluralera.....	67
4.2.3.4. Indefinitutik definitura.....	68
4.2.3.5. Baieztapenen kuestionamendua.....	69
4.2.3.6. Denboran aldaketa.....	70
4.2.3.7. Pertsona aldaketak.....	71
4.2.3.8. Zehar estiloa.....	73
4.2.4.9. Esaldien berregituraketa.....	74
4.2.4.10. Sinonimoak.....	75
4.3. Urteetan zehar antzeman daitezkeen ikuspuntu aldaketak.....	76
4.3.1. Pertsona izenordainen bilakaera.....	76
4.3.1.1 <i>Gu</i> vs. <i>besteak</i>	76
4.3.1.2. <i>Ni</i>	80
4.3.2. Emakumearen irudia.....	81
4.3.3. Metaforak.....	84
4.3.3.1. Itsasoa.....	85
4.3.3.2. Harresia/Horma.....	87

4.3.4. Gaiak.....	87
4.3.4.1. Hizkuntzarekiko/poesiarekiko mesfidantza.....	87
4.3.4.2. Urtaroen aldaketa/denboraren igarotzea.....	89
4.3.4.3. Funtzionarioen ankerkeria.....	90
4.3.5 Kartzelako zeldatik literatura unibertsalera.....	91
5. Ondorioak.....	98
6. Bibliografia.....	109
7. Eranskinak.....	113
7.1. Poemen ibilbidearen taula.....	115
7.2. “Belengo Albisteak” olerkia.....	117
7.3. <i>Kartzelako Poemak</i> liburuko olerkien bertsio argitaratuen edizio kritiko-genetikoa.....	119

Laburpena: Lan honek Joseba Sarrionandiaren *Kartzelako Poemak* liburua osatzen duten poemen kritika genetikoa egitea du helburu, irizpide metodologiko honi jarraituz idazle iurretarrarengan antzeman daitezkeen joera eta bilakabideak azalatu nahi dira. Lana burutu ahal izateko, lehenik eta behin, bilketa lana egin da, zeinaren bidez *corpusa* osatzen duten olerkien bertsio argitaratu guztiak lortu diren. Lanak bost atal nagusi izango ditu:

Hasteko, lehenengo atalean, planteamendu orokorra; lanaren helburuak eta lan hipotesiak; eta aurrekariak eta gaur egungo egoera zertan den azalduko da (1).

Bigarrenik, marko teorikoan kritika genetikoari buruzko informazioa aurkeztuko da (2). Jakinaenez, korrante horren arabera, idazkuntza prozesu amaigabea da, eta idazleak hilabeteetan/urteetan egindako aldaketei erreparatuta ibilbide bat antzeman daiteke, zeinak autorearen erabakien, manien, ohituren eta aldaketen berri ematen duen. Hortaz, hautatutako *corpusean* egindako aldaketei erreparatuz Sarrionandiaren joerak azalarazi nahi dira.

Hirugarren atalean (3), Sarrionandiaren bizitza (3.1.) eta hautatutako *corpusa* (3.2.) aurkezteaz gain, autorearen idazkuntzari buruzko informazioa (3.3.) labur ekarriko da lanera, baita kritika genetikoaren metodologia aztergai izango dugun *corpusean* aplikatzeko justifikazioa ere (3.4.).

Hurrengo atalean (4), argitalpenez argitalpen eta edizioz edizio emandako aldaketetan jarriko dugu arreta, batez ere hiru motatako aldaketak aztertuko ditugu: alde batetik, bilduma bakoitzerako hautatutako eta baztertutako olerkietan, eta aukeraketa horren zergatian (4.1.). Beste aldetik, olerki bakoitzak edizio zein argitalpenetan jasandako aldaketetan (4.2.). Eta, hirugarrenik, urteetan zehar gai jakin batzuei erreparatuta, antzeman daitezkeen ikuspuntu aldaketetan zentratuko gara (4.3.).

Azken atala ondorioek osatuko dute (5), bertan, laneko punturik garrantzitsuenak berriro ekarriko dira, eta hausnarketa sakonagoa eskainiko zaie.

Hitz gakoak: Sarrionandia | Kritika genetikoa | ibilbidea | aldaketak | bilakabidea

1. SARRERA

Lehenengo atal honetan lanaren planteamendu orokorraren (1.1.), helburuen eta lan hipotesien (1.2.), eta, aurrekariei eta gaur eguneko egoerari (1.3.) buruz arituko gara.

1.1 Planteamendu orokorra

Lan honen helburua Joseba Sarrionandiaren *Kartzelako Poemak* bildumaren kritika genetikoa egitea da. *Kartzelako Poemak* 1992. urtean argitaratu zen lehen aldiz, eta espetxeko esperientziak biziberritzen dituzten poemak dira, gatazkaren ondoriorik gordinenak azaleratzen dituztenak: atxiloketak, torturak etab. 2011. urtean liburu honek edizio berri bat izan zuen *Susa* argitaletxearen eskutik. Bi edizio hauen arteko aldaketarik nabarmenen artean, grafia eguneratzeaz gain, bildumari sei poema gehitu izana aipatu beharko litzateke. *Kartzelako Poemak* (2011) liburua osatzen duten olerkiak izango dira lan honetako oinarri eta iparrorratz, nahiz eta besteren bat ere *corpusean* agertuko den, bildumaren batean *Kartzelako Poemak* liburuko olerkiekin batera agertzen delako.

Aipatutako bilduma osatzen duen poema bakoitzak ibilbide autonomo eta beregaina izan du: olerki batzuk lehenago argitaratu dira beste liburu/aldizkari batzuetan, beste batzuk ondorengo bildumetan ere argitaratu dira etab. Guztira, hamairu iturritatik (liburu beraren argitalpenak aintzat hartuta) eskuratutako olerkiek osatuko dute gure *corpusa*. Hori horrela, lanaren lehenengo urratsa *Kartzelako Poemak* liburua osatzen duten olerki guztien bilketa lana egitea izan da.

Poema bakoitzaren ibilbideaz gain, olerki bakoitzean ere aldaketak soma daitezke, liburuetan zein liburu beraren edizioetan ere. Beraz, lan honetan Sarrionandiaren *Kartzelako Poemak* osatzen duten olerkien aldakiak izango ditugu hizpide, guztiak argitaratutakoak, hau da, berridazketa edo birmoldaketez arituko gara, ez dossier genetikoaren zirriborro, zuzenketa, informazio bilketa etab.-ez.

Kritika genetikoak idazkuntza etengabeko prozesu gisa ulertzen du, eta testu “amaitua” baino lehenagoko lana eta prozedura ditu aztergai. Beraz, denbora da ardatza, denboran zehar testuak izan duen bilakaera aztertzen duen heinean. Kritika testualak (eskuizkribuak materialki ikertzen eta argitzen dituenak) eta kritika genetikoak (argitzeak dakartzan ondorioak interpretatzen saiatzen denak) helburutzat dute testua fabrikatzeak dauzkan sekretuak eta testuaren originaltasunaren arrazoiak

eskuizkribuetan nola aurki daitezkeen aztertzea (Arkotxa 2008).

1.2 Lanaren helburuak eta lan hipotesiak

Lan honen xedea bildumatik bildumara eta ediziotik ediziora poemek izan dituzten aldaketak eta etengabeko berridazketak aztertuz Sarrionandiaren eboluzioaren edota joeren berri ematea izango da. Bestela esanda, argitalpenen arteko konparazioa eginez bilakaeran antzeman daitezkeen konstanteak azalarazi nahi dira.

Helburu hori lortzeko asmoz, lehenik eta behin, bilketa lana egin da, non Sarrionandiaren lanetan gerora *Kartzelako Poemak* liburuan agertuko diren poemak bildu diren. Honen bidez, poema bakoitzaren ibilbidearen berri eman nahi da, baita aldaerak aurkitu ere. Beraz, lan honen lehenengo helburua poema bakoitzak izan duen ibilbidea argitzea izango da. Eranskin gisa, lanaren amaieran atxikita doa olerkien ibilbidea erakusten duen taula (1. eranskina); taula inprimatzea gomendagarria da lanaren mamiari hobeto jarraitu ahal izateko. Aipatu beharrekoa da olerki batzuen izenburua aldatu egiten dela argitalpenetik argitalpenera. Hori horrela, *Kartzelako Poemak* (2011) edizioako izenburuak lehenetsiko dira. Halere, bilduma konkretu bati buruz dihardugunean bilduma horretan duen izenburua erabiliko da, eta oin-oharren bitartez zehaztuko da zein den *Kartzelako Poemak* (2011) edizioan duen izenburua. Horretaz gain, eranskin gisa (3. eranskina), olerki guztien aldaera argitaratu guztiak ere aurki daitezke, edizio kritiko-genetiko itxuran. Javier Lluch-Prats-ek horrela azaltzen du edizio mota hau:

La edición crítico-genética es un tipo particular de recuperación textual en el que se conjugan los datos reconocidos por el autor, cuantos registran las ediciones sucesivas del texto y los materiales resultantes, excluidos o no por el autor, de fases precedentes (esbozos, apuntes, borradores o galeradas). Tal edición expone el devenir de la escritura y ofrece el trabajo del editor con una visión de conjunto, de manera que **el lector dispone de todas las redacciones del texto** (Javier Lluch-Prats 2010: 43¹).

Helburu hori lortu ostean, olerki bakoitzean argitalpenez argitalpen aurki daitezkeen aldaketen nolakotasuna aztertuko da, aldaketen norabidea edota konstanteak agerrarazteko asmoz.

1 Letra lodia ez da testuarena.

Abiapuntuko hipotesi nagusia denboran aurrera egin ahala biolentzia areagotzeko/agerikoago egiteko joera dagoela izango da, bai poemen gaiagatik bai poemen baitan egiten diren aldaketak direla medio. Bestalde, hizkuntzari dagokionez, badirudi urteen poderioz garbizaleagoa dela, erdal maileguak euskal ordainez ordezkaten dituela eta euskara batura hurbiltzeko joera duela. Beraz, lan hipotesizat dugu literatur hizkuntzaren lizentzia poetikoak alde batera utzita, hizkera estandarraren bidez zuzenago komunikatzea bilatu duela.

Lanaren egiturari dagokionez, bost atal nagusi izango ditu lan honek: Lehenik eta behin **sarreran** ikergaia aurkeztu da, planteamendu orokorra zein den adierazi, baita lortu nahi diren helburuen berri eman ere (1).

Hurrengo atalean lan hau aurrera eramateko erabiliko diren **irizpide metodologikoak** zeintzuk izango diren argituko da. Esan bezala, lan honetan **kritika genetikoaren** ikuspuntua erabiliko da. Ondorioz, sorkuntza prozesua amaigabetzat joko da, eta testuaren beraren mugimendua denboran zehar aztertuko da sorkuntza prozesuari buruzko informazioa lortzeko asmoz (2); Hori horrela, metodologia honen sorrerari (2.1.), helburuei (2.2.) kritikei (2.3.) eta aurrekariari (2.4.) buruzko informazioa ekarriko da lanera.

Hirugarren atalean (3), Joseba Sarrionandiaren **biografiari** (3.1.) buruzko daturik aipagarrienak gogora ekarriko dira; eta **corpusaren aurkezpena** egingo da (3.2.). Horretaz gain, autore iurretarraren **idazte estiloaz** bi hitz esango dira (3.3.), baita kritika genetikoaz aztergai izango dugun **corpusean** erabiltzeko **justifikazioa** (3.4.) ere egingo da.

Laugarren atalean aldiz, argitalpenez argitalpen eta edizioz edizio emandako aldaketetan jarriko dugu arreta (4). Horretarako, lehenik eta behin, bilduma bakoitzerako **hautatutako eta baztertutako olerkiei** erreparatuko diegu, eta aukeraketa horren zergatia asmatzen saiatuko gara (4.1.). Bigarrenik, **olerki bakoitzak** edizio zein argitalpenetan **jasandako aldaketetan** zentratuko gara, aurki daitezkeen aldaketen artean behin eta berriro errepikatzen direnak, hots, konstanteak diren aldaketak identifikatuz (4.2.). Laugarren atalarekin amaitzeko, urteetan zehar gai jakin batzuei erreparatuta, antzeman daitezkeen **ikuspuntu aldaketei** emango zaie garrantzia (4.3.).

Lanaren azken atala ondorioek beteko dute (5). Bertan, hasierako hipotesiak egiaztatzen diren ala ez esateaz gain, laneko punturik garrantzitsuenak berriro ekarriko

dira lanera eta hausnarketa sakonagoa eskainiko zaie.

1.3. Aurrekariak eta gaur eguneko egoera

Joseba Sarrionandiari buruzko lanei dagokionez, bi dira berari buruzko tesiak: lehena Aiora Jaka Irizarrek 2011n aurkeztutako *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*, eta bigarrena Eider Rodriguezek 2013an aurkeztutako *Joseba Sarrionandiaren "Lagun izoztua" eleberriko hiru itsasoak. Irakurketa proposamen bat*.

Horretaz gain, oso ugariak dira idazle bizkaitarrari buruzko lanak, ondorengoak dira horren erakusgarri: Iñaki Aldekoaren *Joseba Sarrionandiaren poesia: itsaso gartzelatua* (1989), Aitzpea Azkorbebeitiaren *Joseba Sarrionandia: irakurketa proposamen bat* (1998), Lourdes Otaegiren *Joseba Sarrionandia: marinel zaharraren kantua* (2000) eta Jon Kortazarren *J. Sarrionandiaren ipuingintza: zuhaitz erromesa* (2005).

Ikerketa genetikoari buruzko lanei dagokionez, asko izan dira mundu mailan metodologia honi jarraituta aztertu diren idazleak: James Joyce, Balzac, Stendhal, Heine, Hugo, Flaubert, Zola, Proust, Valéry edo Sartre dira horren adibide. Euskal literaturan kritika genetikoaren inguruko interesa Ipar Euskal Herriko unibertsitatearen esparruan sortu zen duela hogeit bat urte (Ayerbe 2016: 37). Hala ere, kritika genetikoaren alorrean egindako lanei dagokionez, hutsune nabarmena dago. Bi izan dira gehienbat alor honetan aritu diren ikerlariak: bata, Joana Pochelu da. Asko izan dira metodologia kritiko honi buruz egin dituen lanak: 2010ean Atxagaren *Soinujolearen semea*ri buruz egin zuen tesia; Sarrionandiaren *Akordatzen* saiakera landu zuen; Eñaut Etxamendiren lanak ere genetikoki aztertu zituen "Testuen genetika. Lau dossier genetikoren azterketa, Eñaut Etxamendi-ren testu argitaragabe batzuen trapuetan oinarriturik" eta "Etude de génétique des textes à partir des textes d'E. Etxemendi" artikuluetan ikus daitekeenez. Horretaz gain, testu genesisia azaleratu eta ikustarazteko MEDITE (Machine d'Étude Diachronique et Interprétative de Travail de l'Écrivain) programa aurkeztu zuen "Où on parle (toujours) de génétique textuelle..." artikuluan. Amaitzeko, aipatutako programa informatikoa erabiliz, *Soinujolearen semea* liburuko "Obabako lehen amerikanoa"-ren testu genesisia aztertu zuen.

Beste ikerlariak, Mikel Ayerbek, 2007an EHUUn DEArako egin zuen *kritika*

genetiko eta idazketa-prozesuaren berreraiketa izeneko lana. Horretaz gain, ildo honi jarraituz tesia aurkeztu du aurtengo uztailean, *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai* izeneko. Aipatutako bi ikerlari hauetaz gaiz norabide honek ez du jarraitzaile gehiegirik izan (Olaziregi 2009: 291).

Ikerketa genetikoaren alorrean euskal literaturan egindako lanak urriak direla eta interesgarria litzateke beste obra batzuetan ere irizpide metodologiko hauek aplikatzea. Gainera, lan honetarako erabilitako *corpus* osoa argitaratutako olerkiak izan arren, aldaera asko dituzte, etengabeko berridazketen lekukoak dira, eta horrek egoki bihurtzen ditu aztarnei jarraituz, ibilbidearen noranzkoari buruzko informazioa lortzeko.

2. MARKO TEORIKOA

Un poema con variantes es un escándalo
para la opinión ordinaria y vulgar.

Para mí, es un mérito.

La inteligencia se mide por el número de variantes.

Paul Valéry, *Ego scriptor*.

Kritika genetiko eta edo genetika testuala duela hogeita hamar bat urte Frantzia sortu zen mugimendu kritikoa da (Pastor 2008: 9). Azterbide honek testu moderno eta garaikideen ezagutza berritzea du helburu, obra jakin baten zirriborro edo aurre-testuak ikertuz. Aurre-testuak argitaraturiko (edo bazterturiko) testuaren aurrekari diren lekukotasun idatzi guztiak dira. Aurre-testuen azterketa zehatzari esker berreraikitzen den *dossier genetikoak* idazketa prozesua azaleratzeaz gain, testuaren inguruko informazio eta interpretazio bide eraginkor ugari eskaintzen ditu (Ayerbe 2016: 1). Emilio Pastor Platerok (2008: 10) dioenez, mugimendu honek ikertzailearen arreta kritikoa aldatzea du xede: interes gunea autoretik idazlearengana, idatzitakotik idazketara, estrukturatik prozesura, obratik genesira aldatuz. Bestela esanda, “amaituriko” testu ekoitziari baino, “jardunean” ekoizten den testu sorkuntzari erreparatzen zaio. Ondorioz, “amaituriko” testuaren ordez “*in fieri*” (Pastor 2008: 10), “*in statu nascendi*” (Hay 1979: 236; Grésillon 1994 apud Ayerbe 2016: 6) edota sortze

bidean mugimendua adierazten duten ekintzek hobeto islatzen dute ikerketa honen aztergaia.

2.1. Sorrera

Kritika genetikoaren hasierako lanak 1950-1960ko hamarkadetako eraldaketa eta sistematizazio epistemologikoaren ondorioztat jo behar dira (Ayerbe 2016: 7). Aurre-testuaren ideiak estrukturalismoak zuen testu itxi, egituratu eta beregainaren ideia apurtu zuen.

Pastorrek (2008: 18) azaltzen duenez, XX. mendearen erdialdetik aurrera testuen ikerketa genetikoaren kontzepzio berri baten lehen zantzuak antzematen hasi ziren. Baina, lan horiek idazle edo obra jakin batzuetara murriztu ziren. *Nouvelle critique* ren sorrerak eta estrukturalismoaren goratzeak genetika testualaren (gaur egun ezagutzen dugun zentsuan) sorrera ekarri zuten.

Kritika genetikoaren sorreran Louis Hay alemaniarra dago. Bera izan zen *kritika genetikoa* termino edo izendapena lehen aldiz erabili zuena 1979an *Essais de critique génétique* lanean (Grésillon 2012: 35). Aipatutako lan honek ikasketa literarioen barruan ikerlerro berri bat zabaldu zuen.

Louis Hay H. Heinerri buruzko tesi doktora egiten ari zen 60ko hamarkadan. Lanean ziharduela, poeta alemanaren eskuizkribu gehienak aurkitu zituen, eta Charles de Gaulle errepublikako presidentea konbentzitu zuen Estatu Frantsesak bereganatu zitzan. Behin eskuizkribuak eskuratuta, Hay, beste ikertzaile batzuekin batera, eskuizkribuen katalogazioaz, ikerketaz eta edizioez arduratu zen.

Hala ere, Pastorren (2008: 19) esanetan, kritika genetiko frantsesaren sorrerari data bat jarri beharko balitz 1972a izango litzateke; urte horretan Jean Bellemin-Noël-ek argitaratutako *Le texte et l'avant-texte. Les brouillons d'un poème de Milos* liburuari esker. Liburuak egiten duen poemaren azterketak zein gogoeta teoriko eta metodologikoak garai hartako panorama erabat aldatu zuelako.

Aipatutako liburuan agertu zen lehen aldiz *aurre-testu* kontzeptua, eta Ayerbek (2016: 6) dioenez, aurre-testua kritika genetikoa gauzatzeko ezinbesteko kategoria deskriptiboa bihurtu zen momentu horretatik aurrera. Horretaz gain, testuaren genesiaren azterketa burutu ahal izateko metodologia zehatz bat ezarri zen. Orduz geroztik, eskuizkribuek balio berri bat bereganatu zuten; erakusten, irakurtzen hasi ziren

baita ikertzen ere, horrela, hainbat autoreren idazketa prozesua dokumentatu ahal izan zen.

Kritika genetikoaren sorreraren datetan nolabaiteko adostasuna egon arren, eztabaida dago noren berrikuntza izan ote zen. Kontuan hartzekoa da XX. mendean sortu zela, eta garai hartan liskarrak zeudela Modernisten eta Antzina-zaleen artean.

Batzuek kritika genetikoaren sorrera filologiari esker izan zela dioten bitartean beste batzuek estrukturalismotik sortu zela diote (Grésillon 2012: 35). Grésillonek dioenez, kritika genetikoa filologiatik sortu zela diotenez ahaztu egin dute Frantzian filologiak nolabaiteko tradizioa antzinako zein Erdi Aroko testuekin izan arren, testu modernoekin ez zuela. Hala ere, tradizio falta hori ezinbestekoa izan omen zen kritika genetikoaren sorrerarako (ibid.: 36).

Bestalde, Grésillon (ibid.: 36) esanetan, kritika genetikoaren atzean ezkutatzen den benetako oinarri teorikoa (lehen itxuran ezetz dirudien arren) estrukturalismoa da, printzipio epistemologikoen bere sorrera lagundu zuten heinean. Gainera, estrukturalismotik hainbat termino hartu eta erabili ziren: Derrida-ren «arrastoa»; Šaumjan eta Kristeva-ren «genotestu/fenotestu»; Bakhtine-ren «polifonia» eta Chomsky-ren «eraldaketa/transformazio» dira horren adibide (Ayerbe 2016: 7).

Oinarri teorikoa estrukturalismotik sortu arren kontuan hartzekoa da, Grésilloek (2012: 36) gogorarazten duen bezala, kritika genetikoaren eta estrukturalismoaren ikerketa objektua ez dela bera. Kritika genetikoak denboran zehar emandako aldaketak aztertzen ditu.

Hayk 1994ko “Critiques de la critique génétique” artikuluan idazle batzuek beren zirriborroekiko/eskuizkribuekiko erakutsi zuten atxikimendua kritika genetikoaren aurrekari nagusietakoa izan zela esan zuen (Ayerbe 2016: 8). Kontuan hartzekoa da hainbat autorek beraien eskuizkribuekin dituzten harremanak anbiguoak direla eta, batzuetan, paradoxikoak. Askoren ustez, aurre-testuek ez dute inolako baliorik ikerketarako. Are gehiago, kaltegarriak direla uste dute (Pastor 2008: 12). Horren adibide da T. S. Eliot, zeinak “The Frontiers of Criticism” artikuluan esaten duen poemara heltzeko mekanismoak ikertzeak ez dakarrela, halabeharrez, ezagutzarako laguntzarik.

Beste autore batzuk, ordea, eskuizkribuen destinoaz kezkatu ageri zaizkigu. Azken hau Victor Hugo-ren kasua litzateke. Idazle honek bizitza osoan zehar gorde,

zaindu eta sailkatu zituen bere eskuizkribu eta zirriborroak, azkenean, Pariseko Liburutegi Nazionalari emateko. Hugoren hitzak zuzenean hartuz: “Je donn e tous mes manuscrits, et tout ce qui sera trouv e  crit ou dessin e par moi   la Biblioth que Nationale de Paris, qui sera un jour la Biblioth que des Etats-Unis d'Europe” (Gr sillon 1994: 94-95 apud Ayerbe 2016: 11). Beste adibide bat E. A. Poe-rena da. 1846an emandako “Filosof a de la Composici n” hitzaldian “The Raven” poemaren sorkuntzan zehar egindako pausu guztiak azaldu zituen (Pastor 2008: 13).

Beraz, hau ikusita autoreak bere eskuizkribu, zirriborro, aldaera edo berridazketez duen kontzientziak edota usteek genetistaren lana erraztu, oztopatu edo ezinezko bihur dezaketela ondorioztatu daiteke.

Kritika genetikoaren sorrerari egotzi zaizkion kritiken artean, filologiarekin eta testu kritikarekin dituen antzekotasunek eragindakoa izan da nabarmenena (Ayerbe 2016: 7). Izan ere, Ayerbek (ibid.: 7) dioenez, hainbat adituk (Falcorner, Molino eta Espagne) aldarrikatu dute kritika genetikoaren metodologia filologiaren baitako metodologia eraberrituen esparrukoa dela.

2.2. Helburua

Ikerketa objektuari dagokionez, prozesu amaigabetzat ulertzen du kritika genetikoak idazkuntza, eta lehenago “kritikariek bazter uzten zituzten *zirriborro, aldaketa, zuzenketa*, edo *proba zuzenketak* kontuan hartzen dira” (Olaziregi 2009: 2). Ez da ahaztu behar idazlea arrazoi askok eraman dezaketela bere obra gainbegiratzera: borondate perfektionistak, idazlearen eboluzio artistiko edo ideologikoak, editoreak hala eskatuta etab. (Arcocha et al. 2010: 12).

Idazleak hilabeteetan/urteetan egindako aldaketei erreparatuta ibilbide bat antzeman daiteke; estilo jakin baten aztarnak aurkitu; erabakiak; maniak eta ohiturak antzeman daitezke (ibid.: 12). Horien berri ematea da, hain zuzen ere, kritika genetikoaren helburua. Ondorengo hitzak erabiliz azaltzen du Bellemin-No lek kritika genetikoaren helburua:

(...) se trata de mostrar en qu  medida *el poema se escribe* a pesar, incluso contra el que cree administrar todos sus gestos de escritor; buscar qu  fuerzas incontroladas, quiz  incontrolables, se han movilizado sin que el autor lo sepa para conseguir una *estructuraci n*, reconstruir las operaciones gracias a las que *algo se ha transformado*

para formar un todo formando ese foco de transformaciones de sentido que denominamos *texto*. (Bellemin-Noël 1972: 12 apud Pastor 2008: 20).

Hayk (1986-1987) esan zuen bezala, eskuizkribuak ikertzean literaturan dimentsio berri bat zabaltzen da (dimentsio tenporala, alegia) ikasketa literarioetan *dinamika* kontzeptua sartzearen/erabiltzearen ondorioz. Azken hori izango da, hain zuzen ere, kritika genetikoaren ikerketa objektua. Beraz, ikerlerro honetan obraren sorkuntza progresiboak du garrantzia. Idazketa literarioa prozesua da eta obra geniaren ondorio (Pastor 2008: 10). Prozesua da, beraz, testuaren beraren mugimendua, axola zaiguna, eta mugimendu honek ez du helburu teleologikorik (Olaziregi 2009: 291). Hori horrela, genetistek literatura ulertzeko era berri bat asmatu zuten. Grésillonon hitzak zuzenean hartuz:

Ils ont remplacé la notion de structure par celle de processus, celle d'énoncé par énonciation, celle d'écrit par écriture, et ils ont enrichi le texte par «l'avant-texte», en entendant par ce nouveau terme l'ensemble des documents écrits qui portent témoignage de la lente élaboration d'une oeuvre littéraire (Grésillon 2012: 35).

Horretaz gain, obra “definitiboa” edo “azken lana” metamorfosiaren ondorio dela eta bere genesi propioaren memoria duela hipotesizat hartzen dute genetistek. Baina, ezin da ahaztu, ikerketa objektu bilakatu ahal izateko obra jakin baten geniariak “aztarnak” utzi behar izan dituela. Bestela esanda, obraren eskuizkribuak edo zirriborroak egon behar dira sorkuntza prozesuaren bilakaera antzeman ahal izateko. Beraz, ikergai nagusia izango dira idazketa urratsak dokumentatu eta interpretatu ahal izateko denboran zehar garatzen eta testu bihurtzen joan diren idazkiak. Material hauek *eskuizkribu modernoak*² dira. Baisik (2011: 12) “nozio hibrido” bezala definitu zituen. Izan ere, objektu berri bati egiten diote erreferentzia (eskuizkribuaren estatus eraberritu bati) eta errealitate enpiriko baten mugarri historikoa markatzen dute.

Eskuizkribu motek tipologia zabala osatzen dute, eskuizkribuen kopurua eta mota kontuan hartuta. Izan ere, garaiaren, autorearen eta obraren arabera asko aldatzen dira. Dokumentu horiek obraren sorkuntzarako izan duten garrantzia aintzat hartuta,

2 *Eskuizkribu klasikoa* unean uneko sorburu edo jatorrizko eskuizkribuaren gainean eginiko kopistaren bertsio partikularraren emaitza bezala ulertu behar da (Ayerbe 2016: 10).

genetika testualak (zeinak eskuizkribuak aztertzen dituen, sailkatzen dituen eta deszifratzen dituen) eta kritika genetikoak (zeinak aurrekoaren analisiak interpretatzen dituen) sorreratik hasita, urratsez urrats, testuaren garapen/sorkuntza prozesua berreraikitzen saiatzen dira; idazketaren prozesua argitzeko asmoz (Pastor 2008: 11). Beraz, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, testu “definitiboaren” atzean ezkututzen den guztia azaleratzea, idazketa prozesua osatzen duten argitaratzeko asmorik gabe sorturiko zirriborro eta lekukotasun idatziak modu ordenatu eta ulergarri batean eskaintzeko aukera izatea (Ayerbe 2016: 26).

Esan bezala, kritika genetikoan zirriborroak eta aurre-testuak, hots, *aztarnak*, izatea ezinbestekoak da. Ondorioz, kritika genetikoaren metodoa aplikatzeko eskuizkribuaren mundura lerratu beharra dago, bere hizkerara. Genetista orri inprimatuaz bestelako materialez baliatzen da: testua gauzatu den materiala (koadernoa, orri solteak, filigrana etab.); idazketarako erabili diren instrumentuak (tinta, boligrafoa, koloretako boligrafoak, arkatza, pluma etab.); idazlearen eskuak egindako zirriborroak (taxoiak) etab. (Grésillon 2012: 37). Kontuan hartzekoa da, Almuth Grésillonek gogorarazten duen bezala, aurre-testuaren bidez denbora dimentsioa alde batera uzten dela, nahiz eta mugimenduan dagoen idazketa prozesuaz informazio baliagarri/interesgarri asko lortzen den: lerroak, aldaeren kokagunea, marginaliak, etab.

Hala ere, eskuizkribuak ez ezik argitaratutako lanak ere alderatu daitezke, horretarako *aldaera* terminoa erabiliz. Izan ere, Olaziregik dioenez, aldaerez mintzo garenean, egileek eurek literatur lan “beraren” *berridazketa/laburtze/moldatze...* eragiketen ondorioz atontzen dituzten argitalpenei egin diezaiekegu erreferentzia³ (Olaziregi 2009: 290). Gainera, kontuan hartzekoa da filologiaren esparrutik eratorritako aldaeraren kontzeptua argitalpen garaiaren osteko obra baten edizioen arteko aldaketak zehazteko soilik mugatzen duela kritika genetikoak (Ayerbe 2016: 23).

Ikasketa genetikoaren sorreratik hogeita hamar urte igaro diren arren, Almuth Grésillonek (2012: 39) dioenez, terminoak definitzeko orduan ez dago adostasunik. Beste batzuen artean, galdera hauek planteatzen ditu: zer da dokumentu genetiko bat? Nahitaez eskuizkribu bat izan behar du? Zer da zehatz-mehatz edizio genetiko bat? Zer

3 Horren adibideak ematen ditu Olaziregik “Testuak mugimenduan. Iruzkin laburrak egungo euskal literatur lan zenbaitez” artikuluan. Beste batzuen artean Iban Zalduaren adibide bat ematen du. Idazle honek egunkari batean kaleratutako ipuin laburra ipuin luzeago baten oinarri izan zen. Edota eleberri baten berrargitarapena dela eta egileak testua birmoldatzea aukera dezake. Hori da hain zuzen Saizarbitoriak *Egunero hasten delako* liburuaren 2007ko berrargitalpenean egin zuena. (Olaziregi 2009: 290).

da aurre-testu bat? Ayerbek (2016: 67) dioenez, sorkuntza-prozesu baten bilakaera jarraitzeko batzuetan edizioak erabiltzea zilegi izan daiteke. Izan ere, askotan testu baten lehen edizioa ez da definitiboa izaten eta ondorengo berrargitalpenetan idazleak berak zuzenketak edota moldaketak eginda bertsiio eraberrituak egiten dira.

Kritika genetikoak obraren testua berraurkitzea proposatzen du, forma “definitiboa” lortu aurretik egindako zirriborro eta idazlanen bidez. Flaubert, Valéry edo Ponge-k zioten bezala, “fabrikan” edo “harrobian” sartzea. Horrek helburu argi bat duelarik: obra hobeto ezagutu ahal izatea, egituraketa ulertzea, idazlearen asmoak, bere prozesuak, asmatzeko dituen erak, zer ezabatzen duen eta zergatik, zein elementu mantentzen eta garatzen dituen, jakin ea hasieratik planak egiten dituen ala idazten hasten den plan jakinik gabe etab. Testuaren genetikak idazlearen “laborategi sekretuan” murgiltzeko aukera ematen du, idazketaren espazio intimoan (Pastor 2008: 11). Daniel Ferrer-ek esan bezala, detektibe baten lanarekin konpara daiteke genetistaren lana: testuen aztarna, zantzu, markak... aztertzen ditu eta azalpen bat ematen (Olaziregi 2009: 290).

Lan egiteko eran arreta jarrita, genetistarentzat filologia ezinbesteko lan tresna da, ez da printzipio teoriko huts bat, bitartekari bat da, ez helburua. Filologiak testua du helburu, kritika genetikoak testuaren sorreraren prozesua (Grésillon 2012: 37). Bi ikerketa lerro hauen aldea, beraz, helburuan datza.

Filologiak eskuizkribuen artean jatorrizkoa eta autorearen asmoetatik hurbilenekoa litzatekeen *urtext* edo *arketipoa* den testua ezartzea du helburu, Lachmannek proposaturiko *stemmaren* metodologia egituratu eta kopien arteko aldaerak ikertu eta gero (Ayerbe 2016: 8). Beraz, *testua* ezartzea da bilatzen dena. Kritika genetikoaren xedea, ordea, beste bat da. Ikerlerro honek (eskuizkribu modernoek ari garelarik) “behin betikotzat” hartzen den testua kolokan jarri eta aurrekariak aztertzea du helburu, idazketaren garapen/bilakaera nola gauzatu den azaltzeko asmoarekin (ibid.: 8).

Helburu bera ez izateaz gain, Ayerberen (ibid.: 8) esanetan, metodologia ere ez da bera: ez da ekintza bera kopista apografo baten jatorrizkoaren erreprodukzio lana edota idazle garaikidearen obra autografo baten sorkuntza ariketa. Ikergaien artean ere aldea dago, batean testu baten kopiak aztertzen diren bitartean, bestean jatorrizko zirriborroak.

Aurre-testua finkatu ostean (dossier genetikoa sailkatu, ikertu eta editatu ostean) genetistak bere benetako lana has dezake: obra baten sorreraren prozesua ulertzen hasi; ikuspuntu filologikotik menderaezina dena identifikatu eta sailkatu; burutu gabeko alternatibek berri izan; bat-bateko inpultsuak identifikatu; edozein testu zatiri atxiki ahal zaizkion nota testualak hauteman; testu bilakatu zitekeen edozer, baina bilakatu ez dena ikusi etab. Beraz, martxan jartzen da konparazio guztiak ahalbidetzen dituen prozesu bat, zeinetan interpretearen/genetistaren begiak idazketa prozesuaren pausuak antzemateko aukerak dituen (Grésillon 2012: 38).

Idazketa prozesua eta esanahi testualak ikuspuntu kritiko jakin batetik aztertu behar dira (Pastor 2008: 21): poetikoa, psikoanalitikoa (literaturan fikziozko testuetako pertsonaien jokamoldea eta bestelako xehetasunak aztertuz egilearen inkontzientearen aztarrenak bilatu eta interpretatu nahi ditu), linguistikoa (hizkuntzalaritza eta teoria linguistikoaren esparruko hainbat ekarpen eta kategoria kontzeptual ezinbestekoak dira kritika genetikoaren sorrera eta bilakaera teorikoan: zirrimarra, gehiketa, ordezkatzeta etab.), soziokritikoa (obra baten idazketaren unearen garai historikoaren eta gizartearen arteko harremanak aztertzeaz arduratzen da), testuartekotasun loturak nabarmentzen dituen azterketa etab. Kritika genetikoaren anbizioa ikuspuntu orokor bat ematea da, hainbat metodo bere baitan hartuko lituzkeena, posible diren ikuspuntu guztietatik prozesu genetikoaren berri emateko. Ikuspuntu horretatik, kritika genetikoa ikerketa lerro berri bezala aurkezten da, zeinetan espezialitate bat baino gehiago elkarlanean aritzen diren. Halere, kontuan hartzekoa da *dossier* genetiko bakarria interpretazio aukera anitzetatik aztertu daitekeenez, interpretazioaren emaitzak ere aukeraturiko ikerketa lerroaren arabera izango direla (Ayerbe 2016: 27).

Emilio Pastor Platerok (2008: 22) diotenaren arabera, narratologoaren eta poetika linguistikoko adituen artean lortu dira kritika testualaren eta kritika genetikoaren arteko harreman interesgarrienetarikoz batzuk. Alor honetan, R. Debray-Genettek egindako lana erabakigarria izan da. 1988ra arte egin zituen lan gehienak *Métamorphoses du récit. Autour de Flaubert* izeneko bilduman daude. R. Debray-Genettek helburua poetika genetiko bat sortu eta garatzea da, Flauberten gordetako aurre-testuak abiapuntutzat hartuta. Testu hauetan idazketa fenomenoak eta testualizazio fenomenoak bereizi behar dira, testua idazketaren produktu historikotzat jotz. Autore honen aburuz poetika genetiko baten sorrera posible da. Izan ere, genesi dokumentuek aldaerak

emateaz gain, arau sistemetan antolatuta dauden aldaera sistemak ere ematen dituzte. Idazketaren poetika ikertzeko bitartekariak aintzat hartzea garrantzitsua da. Testuaren poetikak ez bezala, idazketaren une jakin batean hartzen den erabaki batek ondoren etor daitekeen guztia baldintza dezake, eta idazketaren poetikak xehetasun horien berri eta obraren poetika noa egituratu den azal dezake (Ayerbe 2016: 27).

2.3. Kritikak

Genetistei egindako kritikei dagokionez, bi izan dira jasotako kritika nagusiak: alde batetik, neofilologo hutsak direla esan izan da, eta beste aldetik, berrikuntzatat aurkezten dituztela aspalditik hainbat kritikarik erabilitako metodoak, hots, aurrekariak egon badaudela (Pastor 2008: 14). Aurrekari horiek ondorengoak lirateke: Antoine Albalat, Gustave Lanson, Gustave Rudler, Pierre Audiat eta Gianfranco Contini besteak beste.

Lehenengo kritikari erantzunez, Grésillonek (1994) esan zuen genetikaren eta ekdokteren helburuak oso bestelakoak direla. Ekdokteren helburua (lachmanniana zein bedierista) testu zaharren edo klasikoen edizio kritikoa egitea da, autoreak egin zuen testura ahalik eta gehien hurbiltzea. Eskuizkribuak testua ahalik eta zuzenen zehazteko erabiltzen dira, baina gehienetan, zuzenketak ez dira egilearenak izaten, obra horren tradizio testualarenak baizik. Genetikaren kasuan ordea, aurre-testuekin lan egiten da, edizio baten aurreko testuekin. Kasu honetan, autoreak berak errebisatu eta zuzendu du testua inprentara bidali eta argitaratu aurretik. Beraz, sorkuntza literarioaren fase dokumentatu guztien azterketa egiten da. Ondorioz, edizio genetikoaren helburua ez da edizio kritikoa hobetzea edo ordezkatzeta (Pastor 2008: 15).

Korrante honi egin zaion bigarren kritikari erreparatuta, aurrekariena alegia, kontua korapilatsuagoa da. Lebravek aurrekaritzat jo zitezkeen hainbat ikerlariren lanak aztertu zituen (Lansonen, Albalatena eta Couseinena), eta eskuizkribu modernoekin lan egiten bazuten ere, haien helburuak kritika genetikoaren oso bestelakoak zirela ondorioztatu zuen (Ayerbe 2016: 8).

Albalatek *Le travail du Style enseigné par les corrections manuscrites des grands écrivains* obran eskuizkribuetan arreta jarri zuen, teknika literarioen kurtso bat egiteko bere garaiko idazleentzat, baina ez zuen teoriarik edo konstante estilistikorik atera ikertutako idazleez. Interes genetiko gutxi du, azken zuzenketak baino ez zituelako

aintzat hartu, ez geniari dokumentuen osotasuna albo batera utzita. Gainera, ez zuen inolako interesik ikertutako autore bakoitzaren askotariko geniari metamorfosiez teorizatzeke, eta are gutxiago metodologia orokor bat aurkitzeke (Pastor 2008: 15).

Aipatutako bigarren autorea G. Lanson da. Kritika genetikoaren aurrekaritzat jotzeke arrazoi nagusia 1908an egindako *Un manuscrit de Paul et Virginie* artikulutik dator. Azken ikerlari honentzat eskuizkribuak aztertzeke arrazoi garrantzitsuena “gaitasun nagusia⁴” aurkitzea da, zeinaren bidez idazlearen talentuaren eta genioaren seinaleak eta ezaugarriak lortuko diren. Bestela esanda, Lansonen aburuz, eskuizkribuak ikertzeak idazlearen psikologiaren berri emango liguke (ibid.: 16).

Ustezko hirugarren aurrekaria G. Rudler genuke. 1923an argitaratu zuen *Techniques de la critique et de l'histoire littéraire*. Autore honen ustetan, eskuizkribuak ikertzea autoreak obra sortzean egindako lan mentala erakustea da, eta hortik dagozkion arauak aurkitzea. Horretarako bi geniari ikerketa bereizten ditu: *kanpoko kritika*⁵ (obraren sorkuntzaren alderdi biografiko eta historikoak, lekukotasunak, iturrien kritika etab.) eta *barne kritika*⁶ (autore baten konstanteak aurkitzea du helburu). Rudlerrentzat, geniariaren ikerketa sorkuntzaren psikologia genetikoak litzateke. Izan ere, eskuizkribuaren balioa idazlearen bigarren burmuina izatetik letorke, zeinaren bidez sormenezko joerak erakutsiko liratekeen (ibid.: 16). Ayerbek dioenez (2016: 8) Biasik (2011: 37-53) Rudlerren lana aztertu eta ondorio bera atera zuen: kritika genetikoak eta Rudlerren lanak ez dutela helburu bera.

Audiatek 1924an argitaratutako *La Biographie de l'oeuvre littéraire* lanean zuen helburua geniari dokumentuen bidez idazlearen bizitza mentala berreraikitzea izan zen. Audiaren ustez, ikerlariak hori lortzen badu idazlearen gogoa/adimena modu perfektuan ulertu ahal izango du, eta horrela idazlearen obra modu perfektuan ulertu (Pastor 2008: 17).

Pastorrek (ibid.: 18) aipatutako azken autorea Contini da. Azken honek aldakien kritika asmatu zuen. 1937tik aurrera garai, estilo eta genero ezberdinetako autoreen obraren idazlanek interesatu zuten. Halere, haren analisiak normatiboak izan ziren, eta arreta batez ere azken eskuizkribuak jasandako aldaketetan jarri zuen, prozedurari garrantzirik eman gabe (ibid.: 17). Lebravek ere ondorioztatu zuen aldakien kritikak eta

4 Gazteleraz “facultad dominante”.

5 *Critica externa*

6 *Critica interna*

kritika genetikoak ez dituztela helburu eta azterketarako metodo berak (Ayerbe 2016: 8).

2.4. Aurrekariak

Ikerketa genetikoari buruzko lanei dagokionez, asko izan dira mundu mailan metodologia honi jarraituta aztertu diren idazleak: James Joyce, Balzac, Stendhal, Heine, Hugo, Flaubert, Zola, Proust, Valéry edo Sartre dira horren adibide. Euskal literaturan kritika genetikoaren inguruko interesa Ipar Euskal Herriko unibertsitatearen esparruan sortu zen duela hogeit bat urte (Ayerbe 2016: 37). Hala ere, kritika genetikoaren alorrean egindako lanei dagokionez, hutsune nabarmena dago. Bi izan dira gehienbat alor honetan aritu diren ikerlariak: bata, Joana Pochelu da. Askok izan dira metodologia kritiko honi buruz egin dituen lanak: 2010ean Atxagaren *Soinujolearen semea*ri buruz egin zuen tesia; Sarrionandiaren *Akordatzen* saiakera landu zuen; Eñaut Etxamendiren lanak ere genetikoki aztertu zituen “Testuen genetika. Lau dossier genetikoren azterketa, Eñaut Etxamendi-ren testu argitaragabe batzuen trapuetan oinarriturik” eta “Etude de génétique des textes à partir des textes d'E. Etxemendi” artikuluetan ikus daitekeenez. Horretaz gain, testu genesisia azaleratu eta ikustarazteko MEDITE (Machine d'Étude Diachronique et Interprétative de Travail de l'Écrivain) programa aurkeztu zuen “Où on parle (toujours) de génétique textuelle...” artikuluan. Amaitzeko, aipatutako programa informatikoa erabiliz, *Soinujolearen semea* liburuko “Obabako lehen amerikanoa”-ren testu genesisia aztertu zuen.

Beste ikerlariak, Mikel Ayerbek, 2007an EHUUn DEArako egin zuen *kritika genetiko eta idazketa-prozesuaren berreraiketa* izeneko lana. Horretaz gain, ildo honi jarraituz tesia aurkeztu du aurtengo uztailean, *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai* izeneko. Aipatutako bi ikerlari hauetaz gaiz norabide honek ez du jarraitzaile gehiegirik izan (Olaziregi 2009: 291).

Amaitzeko, edizio kritiko zenbait ere aipagarri dira kritika genetikoaren hasikin moduan, esate baterako, Jean Haritschelharrek eginikoa Etxaunen obraz edota Lourdes Otaegik Lizardiren obren bertsioak alderatuz buruturikoa.

3. JOSEBA SARRIONANDIAREN ETA *CORPUS*-AREN AURKEZPENA

Atal honetan zehar Joseba Sarrionandiaren biografiako daturik esanguratsuenak ekarriko ditugu lanera. Hau egin ostean, lanean zehar mintzagai izango dugun *corpusa* aurkeztuko dugu. Horretaz gain, hainbat adituk idazle iurretarraren poetikari buruz esandakoak labur ekarriko ditugu, eta kritika genetikoaren metodologia aztergai dugun *corpusean* aplikatzeko arrazoiak emango.

3.1. Joseba Sarrionandiaren biografia

*Nekez uzten du bere sorterrria
sustraiak han dituenak*
J. Sarrionandia

Joseba Sarrionandia Uribelarrea Iurretan jaio zen 1958eko apirilean. Bere gaztaroak frankismo amaierarekin egin zuen bat, eta hamasei urterekin ia ahaztuta zuen euskara ikasten hasi zen gaueskolan. Ordurako bazituen gauza txiki batzuk idatzita gaztelaniaz filosofiari buruz eta narrazioak idazten hasi zen. Euskaraz alfabetatu ahala, euskaraz egiten eta *Argiara* bidaltzen hasi zen. Ondoren, zinema kritikak idatziz eta argitaratuz joan zen, hala nola, Berlolucci, Huston eta Fassbinder zuzendarien filmei buruz.

Euskal Filologian lizentziatu zen Deustun eta euskara irakasle izen zen Bergarako UNEDen eta Udako Euskal Unibertsitatean.

70. hamarkadako bigarren erdialdean ugariak izan ziren Sarrionandiak argitaratutako zinema eta literatur lanak *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Ibaizabal*, *Pott*, *Jakin* eta *Oh Euzkadi* aldizkarietan.

Ezaguna denez, Pott Bandako kide izan zen Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Joxemari Iturralde, Manu Ertzilla eta Jon Juristirekin batera.

Euskaltzain urgazlea, *Ibaizabal* aldizkariaren sortzaileetako bat ere izan zen. Lan originalenez gain, literatura unibertsaleko autoreak euskaratu ditu, batez ere ingelesezko literaturakoak, tartean Samuel Taylor Coleridgen *The Rime of the Ancient Mariner* (*Marinel Zaharraren Balada*) poema narratibo luzea, poesia erromantikoaren gailurretako bat. Euskaratutako beste autore batzuen artean T.S. Eliot, Manuel Bandeira edo Fernando Pessoa idazleak aipatu litezke.

Lehenago aldizkarietan zinema kritikak zein literaturaren inguruko lanak argitaratu bazituen ere, Sarrionandiaren lehen literatura lanak 1980koak dira: *Maggie, indazu kamamila; Enperadore eroa* eta *Izuen gordelekuetan barrena*. Hirurak argitaratu ziren sarrituak izan zirelako kartzelan zegoela bitartean.

Jakina denez, 1980. urtean atxilotu eta 28 urteko espetxe zigorra ezarri zioten ETAko kide izatea egotzita. Hala ere, espetxetik idazten eta argitaratzen jarraitu zuen. Hainbat espetxetan egon zen preso: lehenik eta behin Caracanchelen (zortzi hilabete), ondoren Puerto de Santa Mariara eraman zuten (bi urtez egon zen bertan) eta gero Martutenen egon zen (beste bi urtez). Sarrionandiaren poemetan asko dira espetxe horiei egindako erreferentziak.

1985eko uztailaren 7an, Sarrionandiak Iñaki Pikabearekin batera Martuteneko espetxetik ihes egitea lortu zuen, Imanol Larzabalek kartzelan eskainitako kantaldiaren ondoren bafle batean ezkutaturik.

San Fermin egun ospetsu hartaz geroztik ezkutuan bizi izan da *besterririk besterrira* eta, klandestinoki bada ere, literatura lanak argitaratzen jarraitzen du idazle bizkaitarrak. Kondena preskribituta dagoen arren, ez da egundo Euskal Herrira itzuli.

Sarrionandiak hogeita bost liburu baino gehiago argitaratu ditu, genero guztiak landuaz: poesia, narrazioa, nobela, saiakera, haur literatura eta itzulpena. Gainera, Sarrionandiaren liburu gehienak berrargitaratu dira. Ondorengoak dira poesiaren alorrean egindako lanak:

- Izuen gordelekuetan barrena* (1981)
- Intxaur azal baten barruan/Eguberri amarauna* (1983)
- Alkohola poemak* (1984)
- Marinel Zaharrak* (1987)
- Gartzelako poemak* (1992)
- Hnuy illa nyha majah yahoo (poemak 1985-1995)* (1995)
- *Hau da ene ondasun guzia* (1999). Disko-liburua.
- XX. mendeko poesia kaierak: Joseba Sarrionandia* (2002). Koldo Izagirrek egindako antologia.

3.2. *Corpus-aren aurkezpena*

Lan hau burutzeko erabilitako testuak hamahiru iturritatik jaso dira, betiere ardatz gisa *Kartzelako Poemak* (2011) liburua hartuta. Izan ere, bilduma horretan daude erabiliko ditugun olerki gehienak. Gainontzeko iturriak liburu/aldizkari horietan *corpuseko* olerkiren bat bertan egoteagatik erabili dira.

Ezaguna denez, Sarrionandiaren lan gehienak berrargitaratuak izan dira, itzulpenak salbu (Rodriguez 2013a: 88). Hogeita bi urte inguru zituela argitaratu zuen bere lehen poesia lana (*Izuen Gordelekuetan barrena*), eta ordutik argitaratzen jarraitu du. Ez kartzelak ez erbesteak ez du bere sorkuntza eten, eta horren erakusgarri dira *Marinel zaharrak* (1987), *Gartzelako poemak* (1992/2011), eta erbesteko urteetan idatzitako poemak *Hnuy illa nyha majah yahoo* (1995/2013) liburuko olerkiak.

Esan bezala, lan honen *corpusa* *Kartzelako Poemak* liburuko olerkiek osatzen dute. Lehenik eta behin, bilduma honetako poema bakoitzaren arrastoari jarraitu zaio, bai lehenago bai beranduago izan dituen argitalpenak bilduz, horrela poema bakoitzaren argitalpen guztien lekukotasuna izateko. Ondorioz, poema guztiek izan duten ibilbidea eta bilakaera ikusi ahal izango da.

Corpusa osatzen duten liburu eta testuei buruzko zehaztapen batzuk egiteari beharrezko deritzot.

Hasteko, bi itzulpen liburu daude: *Izkitaturik aurkitu ditudan ene poemak* antologia eta *Marinela*.

Lehenengoan badago idazle iurretarraren “Afrika Iparraldean” poema, gerora *Kartzelako Poemak* bilduman agertuko dena. Aipatutako liburuan Sarrionandiak irakurri eta bere sentitu dituen hainbat poema euskaratu ditu baina, horien artean, egileak berak sortutako testu originalak ere badaude. Aiora Jakaren (2012: 264) ustetan, sasi-itzulpenak egiteko arrazoia sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko bereizketa garbiaren ideia tradizionalarekin apurtzea izango litzateke. Bereak diren poema batzuk itzulpen liburuetan sartuz (eta beste mekanismo batzuk erabiliz), itzulpena birsorkuntza edo sorkuntza den bezala, berez sorkuntzakotzat jotzen diren poemak ere itzulpenak besterik ez direla aldarrikatuko du Sarrionandiak.

Bigarren liburuan, idazleak berak aitortzen duenez, Pessoren liburua itzultzen zuen bitartean idatzitako “Malkorik isurtzeko lotsatu dira”⁷ poema dago, hau ere gerora

7 *Kartzelako Poemak*-etan “Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik”.

Kartzelako Poemak liburuan agertuko da.

Aurrerago bi liburu hauetako olerkiak aztergai dugun liburuan agertuko direnez, eta argitalpen guztien lekukotza jaso nahi denez, zilegi iruditu zaigu *corpusean* liburu hauek sartzea.

Horretaz gain, badira *Kartzelako Poemak* (2011) liburuan ageri ez diren hiru olerki, HINMY liburutik hartuak: “Esnaerak”, “Bainera” eta “Bake Beltza”. Hiru poema hauek *corpusean* sartzeko arrazoia *Hnuy illa nyha majah yahoo* bilduman *Kartzelako Poemak* liburuko poemekin batera agertzetik dator. *Hnuy illa nyha majah yahoo* bilduman “hutsik geratu ez ziren zeldak” izeneko atalean ageri dira *Kartzelako Poemak*-eko olerkiekin batera. Poema hauek atal autonomo eta beregaina osatzen dute, kartzelako gaia ardatz hartuta. Bestela esanda, hiru olerki horiek *Kartzelako Poemak* liburuko beste batzuekin batera batasun berezi bat osatzen dute, eta hori izan da *corpusean* sartzeko arrazoia.

Ondorioz, aztertuko dugun testu-bilduma 89 olerkik osatuko dute, bakoitza bere aldaerekin.

Corpusa osatzen duten poemak ondorengo liburu eta aldizkarietatik lortu dira: *Intxaur azal baten barruan/ Eguberri amarauna*⁸, *Izkiriatutik aurkitu ditudan ene poemak*⁹, *Susa 14/15, Marinela, Marinel Zaharrak*¹⁰, *Gartzelako poemak* (1992)¹¹, *Hnuy illa nyha majah yahoo* (1995)¹², *Hau da ene ondasun guzia*¹³, *XX. mendeko poesia kaierak: Joseba Sarrionandia*¹⁴, *Kartzelako poemak* (2011)¹⁵ eta *Hnuy illa nyha majah yahoo* (2013)¹⁶.

Ondorengo lerroetan *corpusa* osatzen duten liburu/aldizkarien berri laburra emango dugu.

3.2.1. INTXAUR AZAL BATEN BARRUAN/ EGUBERRI AMARAUNA (1983)

Amnistiaren Aldeko Batzordeak 1983an argitaratutako liburua da. Bertan ez da egilerik agertzen. Are gehiago, liburuan lan horiek *anonimoak* direla esaten da. Hala ere,

8 Aurrerantzean IABB.

9 Aurrerantzean IADEP.

10 Aurrerantzean MZ.

11 Aurrerantzean GP.

12 Aurrerantzean HINMY 1995.

13 Aurrerantzean HDEOG.

14 Aurrerantzean XXPK.

15 Aurrerantzean KP.

16 Aurrerantzean HINMY 2013.

liburua Puerto Santa Mariatik heldutako lana dela zehazten da.

Azalean izenburua dago: *Intxaur azal baten barruan/Eguberri amarauna*. Eider Rodriguezen (2013a: 140) aburuz, izenburuaren lehenengo parteak Shakespearren *Hamlet* lana dakar gogora. Izan ere, azken lan honetan aurki daitekeen esaera zati bat honako hau da: “Intxaur azal baten barruan ere espazio amaigabeen erregetzat nengoke, amets goibel hauek ez banitu”. Horretaz gain, Conraden *Ilunbeen bihotzean* lanaren oihartzuna ere badatorkigu (ibid.: 140) ondorengo esaldiaren bidez: “Marinelaren kontakizunek badute sinpletasun zuzen bat, beren esanahi guztia intxaur kraskatu baten oskolaren barruan sartzeko modukoa”. Shakespeareren poema bat aipatuz, gauzarik txikienetik abiatuta gauzarik unibertsalena ere adierazteko gaitasunari erreferentzia egiten dio.

Liburuaren lehen zatia hitz lauz idatzita dago eta bigarren zatia, berriz, poesiek osatzen dute. Gainera, hitzaurrean azaltzen denez, liburuan zehar “kartzelako fauna eta hornidura” islatzen duten ilustrazioak daude.

Amaitzeko, hitzaurrean galdera bat ageri da, MZ liburuaren “Irakurleentzako abisua”-n ageri den bera. F. Holderlinen ondorengo galdera da: “... baina zertarako egin poesia aro gaitz hauetan?”. Lourdes Otaegik *Joseba Sarrionandia. Marinel Zaharren kantua* (2000) liburuan dioen moduan, egileak “poesia egiten dihardu baina aro gaitz horrekiko kontrajarpa etengabea da”. Sarrionandiaren lan gehiagotan aurkitu ahal izango dugu aipu bera edo poesiaren antzutasuna gaitzat hartuta egindako poemak.

Esan bezala, liburu honetan gerora KPean agertuko diren lau olerki argitaratu ziren lehen aldiz: “91¹⁷”, “119¹⁸”, “134¹⁹” eta “235²⁰”.

3.2.2. IZKIRIATURIK AURKITU DITUDAN ENE POEMAK (1985, 1993, 2006)

Liburu honen lehen argitaraldia 1983an izan zen, bigarrena 1995ean, eta argitalpen berria 2006an. Itzulpen liburu honetan hainbat autoreren poemak biltzen dira, eta itzulpenari buruzko hausnarketak ere aurkitu daitezke. Esaterako, hitzaurrean Harold Bloom-en gogoetak bereganatzen ditu, itzulpena edozein poemaren baitan aurkitzen dela esanez, eta edozein poema aurreko poema baten erantzuna dela argudiatuz (Jaka 2012: 93). Edozein poetaren edozein sorkuntza beste baten “translazioa” den era berean,

17 KPean “Urte giroak ene begietan”.

18 KPean “Epaiketarako bidaia”.

19 KPean “IV. galdera”.

20 KPean “Esperantza”.

Sarrionandiarentzat edozein itzulpen ere jatorrizko testu baten birsorkuntza da (ibid.: 93).

Idazle iurretarrak garai, leku, tradizio eta ideologia ezberdinetako hainbat egile euskaratu ditu, eta Jakak (ibid.: 94) azpimarratzen duenez, hori da Sarrionandia itzultzaile gisa aurreko euskal itzultzaileengandik bereizten duen ezaugarri nagusia. Izan ere, XX. mendeko itzultzaile gehienek literatura “handi” eta “prestigiotsuak” euskaratzen zituzten, berak aldiz, testu anonimoak, herrikoiak, egile sekretuagoak itzultzen ditu handien ondoan. Gainera, Aiora Jakak dioenez (ibid.: 99) liburu honetan autore ezagun eta ezezagunen poemen euskal itzulpenen artean Sarrionandiaren beraren hainbat poema ere badaude, egiletza beste norbaiti esleitzen dion arren. Mohammed Al-Kali horietako bat litzateke. KPko poema bakar bat dago bilduma honetan, “Afrikako Kartzelan²¹” izenekoa, alegia.

3.2.3. *SUSA* ALDIZKARIA

1980an sortu zen *Susa* aldizkaria eta 1994ra arte egon zen martxan. Urte horietan zehar 30 aldizkari argitaratu ziren, 33 zenbaki (hiru zenbaki bikoitzak izan ziren). Lehenengo bost urteetan Mikel Antza, Mikel Hernandez Abaitua, Josu Landa, Xabier Montoia, Eneko Olasagasti, Pablo Sastre eta Iñaki Uria izan ziren eragile nagusiak. Euskal Herri osoko idazle izenak plazaratzen ziren *Susa* aldizkarian.

1983an *Susa* argitaletxe bilakatu zen eta lehenengo lau urteetan indar handiz aritu zen (34 liburu argitaratu ziren).

Azken zazpi urtean Gorka Arresek eta Iñigo Aranbarririk gidatu zuten, eta *Susaren* 31, 32 eta 33 zenbakiak Lubaki Bandak burutu zituen (Asier Serrano, Harkaitz Cano, Gari Berasaluze etab.).

Sarrionandiaren lan batzuk *Susa* aldizkarian argitaratu ziren: 14-15, 22 eta 29 aleetan hain zuzen ere. KPko lau poema argitaratu ziren aldizkari honetan 14-15 alean lehen aldiz: “Esklabu erramintaria”, “Zuziak eta Aizkorak”, “Hilarri izkribua I” eta “Lau bost sei harresi”.

3.2.4. *MARINELA* (1985)

Aurretik esan bezala, liburu hau ere itzulpen lan bat dugu. Sarrionandiak

21 KPn “Afrika Iparraldean”.

Fernando Pessoa idazle portugaldarraren *O Marinheiro* izeneko lana euskaratu zuen 1985. urtean. Euskaratutako liburuaren hitzaurrean obraren hainbat datu errazten dira. Esaterako, horrela ematen ditu generoari buruzko xehetasunak:

Teatroa da, baina egitura arras berezikoa, gertaerarik gabea; poesia moldekoa ez bada, hagitx poetikoa da; narrazioa ere bada, narrazioaren antsia dario behintzat; eta filosofia tratatua ez bada, gogoeta metafisikoa besterik ez da lehen arnasetik azken silabara arte. Orduan, sailkatzekotan, autoreak berak imini zion azpтитuloa haintzat hartzea besterik ez dago, «drama estatikoa» dela esan zuen Fernando Pessoa (Sarrionandia 1985: 3).

Pessoaren lana itzultzeaz gain, Sarrionandiak hogeita zazpi ohar erantsi zituen. Batzuetan hitz edo esaldi konkretuen iruzkinak egiten, eta beste batzuetan idazle portugaldarraren testu zatiak argibide eta osagarritzat ematen. Azken oharrean, ordea, Sarrionandiak berak asmatutako olerki bat dago “Malkorik isurtzeko lotsatu dira ene begiak”²² gerora KPn ere agertuko dena. Honela dio hogeita zazpigarren oharra: “Obra amaitu eta gurdi kexati eta xirrinkaria aditzean izkiriaturiko poema” (Sarrionandia 1985: 50). Gurdiarena oso aipamen esanguratsua da eta Victor Hugoren aipamen batetik dator: la charrete bizcaien. Olerki honen ondorengo argitalpenetan aipatutako Victor Hugoren aipua irakur daiteke. Ondorengo da Victor Hugoren Pirinioetako bidaia baten memorietaik hartutako zita:

« C’est le 27 juillet 1843, à dix heures et demie du matin, qu’au moment d’entrer en Espagne, entre Bidart et St-Jean de Luz, à la porte d’une pauvre auberge, j’ai revu une vieille charrette à bœufs espagnole. J’entends par-là la petite charrette de Biscaye à deux bœufs, et à deux roues pleines qui tournent avec l’essieu et font un bruit effroyable qu’on entend d’une lieue dans la montagne. Ne souriez pas, mon ami, du soin tendre avec lequel j’enregistre si minutieusement ce souvenir. Si vous saviez comme ce bruit, horrible pour tout le monde, est charmant pour moi ! Il me rappelle les années bénies. J’étais tout petit quand j’ai traversé ces montagnes et quand je l’ai entendu pour la première fois. L’autre jour, dès qu’il a frappé mon oreille, rien qu’à l’entendre, je me suis senti subitement rajeuni, il m’a semblé que toute mon enfance revivait en moi, je ne saurais vous dire par quel étrange et surnaturel effet, ma mémoire était fraîche comme une aube d’avril, tout me revenait à la fois, les moindres détails de cette époque heureuse m’apparaissaient nets, lumineux, éclairés comme par le soleil levant. À mesure que la charrette à bœufs s’approchait avec sa musique sauvage, je revoyais distinctement ce ravissant passé, et il me semblait qu’entre ce passé et aujourd’hui il n’y avait rien. C’était hier. Oh ! Le beau temps ! Les douces et rayonnantes années ! J’étais enfant, j’étais petit, j’étais aimé. Je n’avais pas l’expérience, et j’avais ma mère !
(Hugo V. Voyage aux Pyrénées. In: Œuvres complètes, tome VI, ([10], p. 868)

22 KPean “Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik”.

3.2.5. MARINEL ZAHARRAK (1987)

1978-1986 bitartean idatzitako poemak aurki daitezke liburu honetan. “Irakurleentzako abisua”-n azaltzen denez (1987: 7-9), hasieran editoreek egin zioten proposamena *Izuen gordelekuetan barrena* berrargitaratzea izan zen. Baina, egileak dioenez, nahiago izan zuen hango poema batzuk moldaturiko poemekin batera argitaratu. Gainera, Sarrionandiaren esanetan, 1978 eta 1980 arteko gehienak *Izuen gordelekuetan barrena* liburuan argitaratu ziren. Kartzelan egindako poema asko eta asko liburu honetan agertzen dira lehen aldiz, *Eguberri amarauna* testuan, edo *Susa* aldizkarian argitaratutako gutxi batzuk salbu. Laburbilduz, MZ liburuan *Izuen Gordelekuetan barrena* liburuan argitaratutako gaien erreposoa egiten du, eta kartzelatze eta ondorengo poemekin osatzen. Iñaki Aldekoak (1993: 135) dioenez, liburu horretan lehendik idatziak zituen hainbat bertso berridatzi ditu.

Izenburuari dagokionez, lehenengo poesia liburuan bezala, honekin ere bidaiaren *leit-motiva* agertzen zaigu (Azkorbebeitia 1998: 71). Hala ere, bidaia hori ez da lasaia, plazerezkoa. Aldekoak (1989: 8) esandakoa errepikatuz: “ez du idazten itsaso zabaletan zehar nabigante inkontzienteak egingo zukeen eran, sofrimenduak ernarazten duen kontzientzia argitik baizik”.

Liburua hiru ataletan antolatuta dago: lehenik eta behin, “Tren luze eta bustiak (1985-1986)” atala, zeina ihes egin ondorengo poemek osatzen duten. Bigarrenik, “Gartzelako poemak (1980-1985)” atala, kartzelan egon bitartean idatzitako poemek osatzen dute, eta guztira 35 olerki aurki daitezke. Horietako batzuk IABBN eta *Susa* aldizkarian argitaratu ziren eta gainontzekoak liburu honetan eman ziren ezagutzera lehen aldiz. Liburuaren azken atala “Izuen gordelekuetan barrena (1978-1980)” izenekoak osatzen du, eta bertan *Izuen Gordelekuetan Barrena* bildumatik hartutako 41 poema daude. Iñaki Aldekoak (1989a: 69) dioenez, MZ liburuan lehenago poetarentzat diametralki kontrajarriak izango liritekeen bi leku eta tonu – itsasoa eta kartzela – ahots bakarrean biltzen dira, eta ahots horrek poema bilduma osoan zehar kutsu neketsua du.

Aztertzen ari garen *corpuseko* poema gehienak *Gartzelako Poemak* atalean daude. Hala ere, beste batzuk *Tren Luze eta Bustiak* izenekoan aurki daitezke: “Preso egon denaren gogo”, “Joseba Asensio”, “Defenda ezazue zuen bake beltza”, “Itsas hegiko gogoeta” eta “Lagun presoak”. Horietatik hiru hurrengo bilduman “Post Scriptum” atalean agertuko dira (“Preso egon denaren gogo”, “Joseba Asensio” eta

“Lagun presoak”). Espetxetik ihes egin ostean idatzitako olerkiak direnez, baliteke horregatik agertzea “Tren Luze eta Bustiak” atalean.

3.2.6. *KARTZELAKO POEMAK* (1992, 2011)

Liburu honen lehenengo edizioa 1992ko urrikoa da. Orduetik lau aldiz berrargitaratu den arren, 2011ko urrian izan du liburuak azken edizioa.

Espetxeetako egonaldietan idatzitako liburua da, hango gordintasun eta krudelkeriaren lekuko. Poetak bere egoera konkretua adierazi nahi izan du, haren testigantza utzi iragaten den espazioan eta denboran (Juaristi 1992). Horretaz gain, Joxemari Iturralde (1992) dioenez, liburu hau ezin da poesia generoan, besterik gabe, sailkatu. Izan ere, liburu honek genero eta azpigenero askotako zantzuak ditu. Poesiaz gainera, historia, autobiografia, memoria eta testigantza ere bada Iturralderentzat.

Eider Rodriguezek (2013a: 170) dioenez, espetxeko bizitzari estuki lotutako gaiak dira agertzen direnak: epaiketa, gutuna, kartzela batetik besterako bidaiak, gose greba, presoan borroka eta ihesari buruzko gogoetak ere bai.

Aldaketa nabarmenak egon dira lehenengo ediziotik bigarrenera, bai itxuran bai edukian. Hasteko, bi edizioen azalari begiratuta, aldeak erraz antzeman daitezke. Lehen edizioko azaleko irudia Josu Morenoren da *Momias culturales* sailekoa, Monterrosoko kartzelan egina 1990eko martxoan. Azalean giza irudi bat agertzen da oihuka. Eider Rodriguezek (2013a: 166) esan du irudi horrek Munch norvegiarraren XIX. mende bukaerako “Garrasia” dakarkigula gogora. Bigarren edizioko azala, ordea, Lander Garrorena da eta arkatz bilakatutako giltza bat dago.

Horretaz gain, lehenengo edizioan paratestuak daude eta bigarrenean ez. Paratestuak ere Josu Morenorenak dira, *Cabezas cortadas* sailekoak eta hauek ere kartzelan eginak (Herrera de la Manchan 1989ko urtarrilean). Ilustrazio guztiak erretratuak dira.

Gainera, 1992ko edizioaren hitzaurrea Ruper Ordorikarena da, 2011ko edizioan ordea, hitzaurreak Jose Luis Otamendiren sinadura darama. Hala ere, edizio berri honetan, liburuaren amaieran, Ruper Ordorikaren eta Joxemari Iturralderen testuak daude.

Aldaerei dagokionez, 2011ko edizioan grafia eguneratuta dago. Gainera, sei poema berri daude: “Ipuina”, “El palomar”, “XI. galdera”, “Alturaren neurria”,

“Inozenteen eguna” eta “Vis a vis”. Olerki horiek ere kartzelan egondako garaian idatzitakoak dira. Sei poema berri dauden arren, poema bat desagertu da 1992ko ediziotik 2011kora: “Leonardo da Vinci”.

Rodriguezek (2013a: 169 apud Ayerbe 2016: 114) KPko eta MZko olerkiak alderatu zituen, eta ondorengo ondorioztatu zuen: egileak hainbat poemari izenburua aldatu die (“Não es tu faculdade de sentir” > “O sentimento do mundo”, “Hierofania II” > “Itzulera”, “Oroitzen zaitudanean” > “Presoen amak”); izenburu batzuk moldatu egin dira (“Urtaroen aldakera” > “Urte giroak ene begietan”, “Ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik” > Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik”), beste zenbaitetan izenburua aldatzearekin batera poemaren edukia ere moldatu da (“Hierofania I” > “Hau da udagoiena”, “Oroitzen zaitudanean” > “Presoen amak”); batzuetan izenburua aldatu gabe poemaren edukia aldatu da (“Krabelin gorriak arma kanoietan”); beste batzuetan aldaketek ez diote edukiari ia eragin (“Gartzelako Goiza”); eta azkenik, garai berrietara moldatzeko ahalegina ere nabari da (“Bakardade gogoeta”).

Horretaz gain, GPtik KPra egindako eraldaketak direla eta, izenburuetan aldaketa txikiak egon dira: “Armen kanoiak haien gorputzen aurka” > “Armen kanoiak”; “Itzulpena I” > “Itzulpen literala I”, “Itzulpena II” > “Itzulpen literala II”, “Itzulpena III” > “Itzulpen literala III” (Ayerbe ibid.: 116).

Berrargitalpenean ez dago epigrafe aldaketarik. Eskaintza bakar bat gehitu da, gainontzekoak berdin dirau. “Oroimeneko portuan” izeneko olerkian “Imanoli, eskerrekin” irakur daiteke KPn.

Liburua bi atalek osatzen dute: alde batetik “Kartzelako Poemak” daude eta bestetik, “Post Scriptum”-ak, espetxetik ihes egin eta gero idatzitakoak. Lehenengo atala hirurogeita hamahiru poemek osatzen dute, eta bigarrena, aldiz, zortzik.

3.2.7. HNUY ILLA NYHA MAJAH YAHOO (POEMAK 1985-1995) (1995, 2013)

Liburu hau ere behin baino gehiagotan argitaratu da. Lehen edizioa 1995eko abenduan izan zen, 1996ko otsailean berrinprimatu eta edizio berritua 2013ko abendukoa da.

Edizio batetik bestera aldaketak egon dira. Bai liburuaren forma/itxurari zein edukiari dagokionez.

Itxurari/formari erreparatuta, lehen edizioa ohikoa baino handiagoa da eta

cartoné azala du. Marroiz margoturiko zaldi baten irudia ikus daiteke eta gainean liburuaren izenburua: *Hnuy nyha majah yahoo*. Aitzpea Azkorbebeitiak (1998: 78) azaltzen duenez izenburua Jonathan Swift idazlearen *Gulliverren bidaiak* liburutik dator, eta “Zaindu zure burua, gizontxo” esan nahi du.

2013ko alean berriz, liburua arrunta da, ohiko tamaina eta azala du. Hala ere, edukia bera da, honetan ere zaldiak ikus daitezke eta izenburu bera du.

Hamar atal daude bi edizioetan. Horietatik hiru ipuinak dira eta gainontzekoak poemek osatzen dituzte. Poesia lantzen duten atalak zazpi dira, eta bakoitzak gai bat jorratzen du: lehena “Tren luze eta bustiak” izenekoa da, eta bertan erbesteaz mintzatzen da; bigarrenean, “Gure arbasoak” deiturikoan, historiari eta erreferente literarioei buruzko hausnarketak ageri dira; “Marinel korapiloak”-en itsasoaz, marinelez eta bidaietz ari da; laugarrenean, “Merkatu beltza” izenekoa, gizartearen inguruko gaiak/hausnarketak daude, eta poesiak gizarte horretan izan dezakeen lekuaz mintzo da egilea; hurrengo atalean, “Monogamo inperfektoak”-en, maitasunaz mintzo zaigu, gehienetan ironiaz; seigarrenean, “Hutsik geratu ez ziren zeldak” atalean, kartzelako gaia agertzen da; azken atalean, “Gure hilak” delakoan, heriotzaren inguruko hausnarketak aurki daitezke (Azkorbebeitia 1998: 79).

Hala ere, atal bakoitzeko poemen artean aldaketak ikus daitezke edizio batetik bestera. Esate baterako, “Tren luze eta bustiak” izeneko atalean, lehen edizioa berrogeita bat poemak osatzen dute, eta 2013koa hogeita batek.

Horretaz gain, edizio berrienean Sarrionandiak berak egindako abisu bat dago (“Edizio berrirako abisua”) zeinetan egileak “Bereterretchen kanthorea”, “Nere etchea” eta “Tiro hotsak” poemen interpretaziorako bideak argitzen dituen, egin izan diren “irakurketa bereziki makur batzuk” saihesteko asmoz (Sarrionandia 2013: 6-7).

Antologia honetan, “Hutsik geratu ez ziren zeldak” izenburupean daude KPak. Bi edizioetan poema berberak osatzen dute atal hau: “Aspaldian utzitako zelda”, “Preso egon denaren gogoa”, “Esnaerak”, “Kirofanoa”, “Joseba Asensio”, “Bainera”, “Mikel Lopetegi”, “Bake beltza”, “Aberriaren astuna paparrean²³”, “Egunen batean” eta “Lagun presoek gutuna²⁴”. HINMY liburuko atal hau “Post Sciptum” ataleko poemek, aurreko liburuetan ageri ez diren bi poema berrik (“Esnaerak” eta “Bainera”) eta MZtik erreskatatutako olerki batek (“Bake Beltza”) osatzen dute. Beraz, HINMYko “Hutsik

23 KPean “Lagun presoak”

24 KPean “XI. gutuna”

geratu ez ziren zeldak” atalean olerki argitaragabeak lehenago argitaratutako poemak errebisio eta berridazketarekin nahasten dira. Testuak aldatzearekin batera, testuingurua ere aldatu du, poemak eta atalak berrantolatuta dauden heinean (Ayerbe 2016: 120).

Ayerbek (ibid.: 122) dioenez, liburu honetan epigrafeek jasan dituzten eraldaketak ugariak bezain esanguratsuak dira. Ayerberen hitzak zuzenean hartuz:

poema askotako jatorrizko epigrafe, aipu eta azalpen laburrak aldatu egin dira edizio berrituan eta horren adierazgarri da atalen izenburuarekin batera txertatzen diren aipuetan egon diren eraldaketak; nolabait, poemetan ere gertatuko diren aldaketen erakusle bihurtzen diren heinean (ibid.: 122).

Aztertzen ari garen atalari dagokionez, “Hutsik geratu ez ziren zeldak” atalari, hain zuzen ere, Ciaran Nugentek aipua mantentzen da, eta, Antonio Gramscirek “Giro nella cella come una mosca che non sa dove morire” txertatzen.

Horretaz gain, Ayerbek (ibid.: 124) dioenez, poemetako testu aldaerei dagokionez, moldaketa eta aldaera asko aurki daitezke, gainontzeko poema liburuetan baino gehiago. Kontuan hartzekoa da kantu bihurtutako abestiek izan dutela aldaketa gutxien.

3.2.8. *HAU DA ENE ONDASUN GUZIA* (1999)

Liburu musikatu honen 8000 ale baino gehiago argitaratu ziren eta agortuta dago. Txalapartak eta Esan Ozenkik argitaratutako poesia antologia hau 1999an kaleratu zen.

Liburu musikatuan jorratzen diren gaiak erbestea, kartzela eta iraultza dira. Hala ere, deserrotzearen sentimendua ere badago. Kulturaren hondamendi eta degradazioaren hizkuntza, eta horrek errealitatearekin duen lotura ere antzeman daiteke. Amaitzeko, metaliteraturari buruzko poemaren bat ere badago: “Amodio protopoema” esaterako.

Bertako poemak lau hizkuntzatara itzuliak izan dira. Ondorioz, euskaraz gain, gazteleraz, frantsesez, ingelesez eta alemanez ere irakur daitezke poemak. Atarikoan Ruper Ordorikak idatzitako testu labur bat dago, eta disko-liburu honetan KPko hamabi poema daude: “Não es tu facultade de sentir”, “Hau da ene ondasun guzia”, “Besamotzaren besoa”, “Territorio librea”, “II. Galdera”, “Ene begiek²⁵”, “III. galdera”,

25 KPean “Gure begiek ez dute malko isurtzeko gogorik”.

“Oroimeneko portua”, “Amodio protopoema”, “Preso egon denaren gogo”, “Kaleko kronika” eta “Lagun presoei gutuna²⁶”.

Musikatu diren egilearen testuen portzentajea altua dela kontuan hartuta, badirudi egilearen irudi publikoa kartzelako esperientziarekin lotzen dutela irakurleek. Gainera, liburuko hainbat testu herri honen imajinario kolektiboaren parte bilakatu direla ere esan daiteke. Izan ere, asko izan dira poema hauetako mezuei doinua jarri eta betikotu dituzten autoreak: Mikel Laboa, Imanol Larzabal, Ruper Ordorika, Mikel Markez, Bittor Aiape, Deabruak teilatuetan, Dantzut, Naun etab.

3.2.9. XX. MENDEKO POESIA KAIERAK: JOSEBA SARRIONANDIA (2002)

Koldo Izagirrek XX. mendeko 40 euskal poetaren antologiak apailatu zituen 2000-2002 urteetan, horietako bat Joseba Sarrionandiaren testuez osatua da.

Sarreran Sarrionandiaren bizitzaren datuak aipatzen dira, baita bere poesiaren etapak eta ezaugarriak ere. Idazle bizkaitarraren hogeita zortzi poemak osatzen dute antologia hau. KPko poemei dagokionez, honakoak aurki daitezke: “Lau bost sei harresi”, “Preso egon denaren gogo”, “Palestinar preso”, “Gose grebako hogeigarren egunean”, “Beste mundua”, “Aspaldian utzitako zelda” eta “XI. gutuna”.

3.3. Joseba Sarrionandiaren poesia estiloaz bi hitz

Autore bizkaitarraren lehenengo liburua eta idazle bezala ezagutzera eman zuena, *Izuen gordelekuetan barrena* (1981), guztiz aipatua eta jarraitua izan da bere ezaugarrietako batzuk direla eta, hala nola kosmopolitismoa, estetizismoa eta erreferentzia kultural anitzak.

Asko izan dira Sarrionandiaren lehen liburuari buruz idatzi duten adituak. Iñaki Aldekoak (1997: 322) esaterako, liburuak bidaiarik arketipikoenaren eskemari jarraitzen diola esan zuen. Olaziregik, (2006) estilo aberastasuna, testuen musikaltasuna eta erabilitako irudien ugaritasuna azpimarratzen ditu. Gerardo Markuletak “Sarrionandiaren samurra zertan den” artikuluan, liburuaren hiru ezaugarri nagusi aipatu zituen: “Europarekiko zabaltasuna, baliabide poetiko erabilien aniztasuna eta hizkera propial baten guraria” (Markuleta 1990). Amaitzeko, Iñigo Barbanchoen ustetan, (2009) *Izuen Gordelekuetan Barrena* liburuan Sarrionandiak tradizioaren barruan

26 KPean “XI. gutuna”.

kokatzen du bere obra, eta hitzaurrean bildumaren hiru ezaugarri ematen ditu aditzera: lehenik eta behin, poemen intertestualitatea, tradizioarekin elkarrizketan diharduena; bigarrenik, autoreak dioenez, poemen iturriak ez dira literarioak soilik: bizimodu arrunteko egoeretan ere sor daitezkeelako ideia literarioak; eta, azkenik, Pott bandan ikasitakoa ere badago.

Lehenengo liburu horrek identitate literario propioa eman zion idazleari, eta konstante bihurtu ziren bertako hainbat ezaugarri: trebetasuna, haren literaturaren fintasan estetiko sensoriala eta munduak eta egoerak sortzeko gaitasuna. Azken hauek sakontasunez zein erliebez aurkezten dira, tentsio narratiboa sortzeko beharrik gabe, sakontasun eta anplitudean aurrera eginez soilik (Otaegi 1998: 16). Lourdes Otaegik (ibid.: 19) dioenez, Sarrionandiak erabiltzen dituen teknika narratiboak anitzak dira:

La obra de Sarrionandia destaca sobre todo por su capacidad descriptiva, por presentar las situaciones en su detalle, escenificándolas, ampliando su dimensión poética a través de la métrica y los símbolos hasta lograr una atmósfera determinada en la que el sobrecogimiento, la melancolía o la nostalgia sea honda, profunda, pero reflexiva (Otaegi ibid.: 19).

Horretaz gain, Otaegik (2000: 20) azaltzen duenez, liburu hau argitaratzean, irakurleek nahiz idazleek idazle iurretarrarengan ondo definitutako nortasun literario bat identifikatu zuten.

80ko hamarkadan poesia berri baten sorrera gauzatu zen, eta Sarrionandiak eragina izan zuen hasikinetan. 70 hamarkadan euskal literatura eta kulturaren panorama desolagarria zen. Produkzioa urria zen eta, batez ere elizaren, euskaltzaletasun itsuaren eta probintziakeriaren testuinguruan kokatzen zen produkzioa. Hori horrela, Pott Bandaren helburu nagusienetakoa literaturaren autonomia aldarrikatzea eta produkzioa zabaltzea izan zen (Azkorbebeitia 1998: 90). Modernitatearen aldeko apustua ere badago guzti horren oinarrian, eta testuak erreferentzia kultuz bete zituzten. Horretaz gain, Azkorbebeitiak (ibid.: 92) dioenez, kulturalismorako joera garaiko kultur ofizialari aurre egiteko modua ere bazen.

Mendigurennek eta Izagirrereren ustetan, Sarrionandia 80ko poesiaren berritzaile eta inspiratzaile nagusietakoa da. Markuleta (1990) berarentzat eta bere hainbat kiderentzat *Izuen gordelekuen barrena* liburuak “manifestu” balioa izan zuela

baieztatzen du, Jon Kortazarrek balio hori jasotzen du “Joven poesía vasca. Un acercamiento” artikuluan. Kortazarrek artikulua horretan dioenez, Atxagak argitaratutako *Etiopia* poema liburua mugarri nagusia izan arren, Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa* liburuan bildu ziren poesia berriaren oinarri teorikoak.

Poesia berri horren ezaugarriei dagokionez, bost dira, Jon Kortazarrek azpimarratzen dituenak: lehenik, mendebaldeko kultura bere horretan onartzeari uko egiten zaio. Bigarrenik, mende amaierako mugimendu eklektikoaren zantzuak nabarmentzen dira, jatorri eta joera anitzetako poemak, sentimenduak eta eskolak erabiliz. Hirugarrenik, komunikazioa da gehien axola zaiena, baina, estetikari lehentasuna ematen diote. Laugarrenik, egiten duten olerkia Niaren Poesia da. Azkenik, metaforen lanketa guztiz metikulosoak da, eta espresionismorako itzulia nagusitzen da.

Otaegiren (2000: 25) ustetan, Sarrionandiaren estiloak euskal literatura klasikoarengan jartzen ditu sustraiak, eta Miranderen errefinamendu estetikoarekin moldatzen du.

Sarrionandiaren hurrengo poesia liburuko, **IABB**ko, poemek euskal poeta kartzelatuak zigor ziegetan sentitutakoa biltzen dute eta horien lekukotza eskaintzen. Poesiaren eta poema horren iturburu den egoera latzaren arteko binomioa da liburu osoko estiloaren ardatza (Otaegi 2006).

Kritikariek azpimarratu dutenez, **MZ**tan nabarmena da jarrera militantearen areagotzea: liburua ezkorra eta iluna da. Dekadentziatik eta estetizismotik urrundu, eta ordura arte ezezaguna zen zakarkeriarantz jotzen du, kontzientziaren eta sufrimenduaren ondorioz: desengainatuta dago; ahotsa gogorra, heldua eta bakartia da. Zalantza ugariak Bertold Brecht gogorazten digute. Izan ere, metaliteraturaren eragina txikiagoa da, eta ironia, berriz, zailduagoa da. (Otaegi 2006). Iñaki Aldekoaren iritziz (1993: 135), Sarrionandiak liburu horretan, sufrimenduak ernarazitako kontzientzia garbitik idazten du. Gainera, aditu beraren ustetan, testuinguruak markatzen du irakurketa, eta “lehen liburitik aukeratutako poemek ere ez diote ihes egiten poetak ezarritako ahots eta ordena sareari” (ibid.: 135). Felix Ibargutxik (1987: 2) *Izuen Gordelekuetan Barrena* liburutik MZtara estiloak eta gaiak asko aldatu direla dio, MZtako poemek errealitatea gogoratuz dihardutela eta kartzelako miseriak esplizituki azaltzen dituztela gaineratuz. Halere, Ibargutxiren aburuz, poetak beti eusten dio tonu lirikoari nahiz eta gai gogor eta krudelez aritu. Aldekoak (1989a: 69) dioenez, Sarrionandiaren narrazioetan,

salbuespenak salbuespen, poetaren tonu lirikoa ere nabarmentzen da, narratzailearen ahotsari gainjarritz.

Iñaki Aldekoaren (1989b: 8) ustez, liburu honetako ahotsa “berea” eta aurreko liburuetatik bestelakoa da, “ahots desengainatu eta gogorra da”. Horretaz gain, Aldekoak liburu honetan ironiak eta metaforek tokirik izan ez dutela azpimarratzen du.

KPri dagokionez, kritikoek behin eta berriro azpimarratu dute liburu honi darion garraztasuna eta gordintasuna.

Kartzelan kokatzen diren olerkiez gain, munduan barrena eta denboran zehar izan diren hamaika poesia moldek isla gardena daukate: klasizismo latinoaren ukituak sumatuko ditugu, elezahar eta tradizio arturikoaren bristadak han-hemen, Txinako poesiaren edo Japoniako haikuak, etab.

Aurrez aurre dauden indarrak, sentimendu kontrajarriak eta kontraste jokoak erraz aurki daitezke; nahiaren eta ezinaren, errealitatearen eta desioaren arteko leizea nabarmentzeko. Kultismoa eta herri-tradizioa batzen dira lan honetan.

Planoen, irudien edo esanahien kontrasteen bitartez, metafora eta konparazio joko joriak lagun hartuta, ebokaziorako eta enpatiarako gaitasun ikaragarria dago liburuan zehar (Otamendi 2011). Pentsamendu sakonak, esanahia askotarikoak, kontzeptu abstraktu eta deskribapen xeheenen arteko gurutzaketak daude.

Amaitzeko, denbora eta itsasoa dira liburuaren ardatz nagusi bi, maila erreal zein simbolikoan Otamendiren (2011) esanetan.

Idazle iurretarraren azken poesia liburua (**HINMY**) da Jon Kortazarren (2009) aburuz, poesia sailean Joseba Sarrionandiaren bildumarik borobilena, hamar urteko lana biltzen duena. Otaegik (2000: 32) dioenez, autoreak ordura arteko olerkigintzaren hautapena egiten du, eta berredizio bat prestatzen poetika berri baten argitan, sinbolo eta joera berriekin.

Aipatutako poesia hautaketa, Jose Luis Otamendiren (1996) iritziz, *tratatu moral* bat da, eta Aitzpea Azkorbebeitiaren (1998) ustetan ikuspegi humanista baten ezaugarri diren gaiak eta sentimenduak erakusten/adierazten dira.

Gaiei dagokionez, Kortazarren (1997) aburuz, tema zabaldu egiten da liburu honetan eta autobiografiatik aldentzen. Liburu honetan ere aurreko liburuetako hainbat irudi eta gai aurki daitezke: heroia eta haren heriotza, erbestea, marinel zaharra, itzaropena, errebeldia, etorkizuneko herri proiektua etab.; halere, gai horien artean

maitasuna eta lirikotasuna baloratzen dituzte kritikariek (Otaegi 2000: 34). Horretaz gain, poemen hurrenkerak ez dio hurrenkera kronologikoari jarraitzen, eta *denbora* eta *aurrerapena* kontzeptuekin hausten da. Historiak ez du egokierarik. Bizitza bera erbestea da Sarrionandiarentzat, sinbolo eta metafisika bihurtuta. Bertold Brechtenaren antza du, berriz ere bere poesiak; narrazioa errealista da, eta poemaren haria zentzuari buruzko gogoetan eta paradoxan datza (Otaegi 2006).

Olerkigintza modernoa, tradizio sinbolistaren oinordekoa, bere hizkerak jasan duen higaduraren jakitun da. Ondorioz, *pastiche* edo *collagera* eta metapoesiara jotzen da. XX. mendean poesiari onenak, tradizioetatik heldutakoa errefraktatu eta xurgatzeaz gain, ironia ukitu bat ere izan behar du, poeta edozein tradizioetik aldenduz (Aldekoa 1989a: 69). Hori egin zuten, besteak beste, Kavafisek eta Pessoa eta horiek izan ziren Sarrionandiaren gustukoena. Aldekoak (ibid.: 69) azken idazle honekin Sarrionandiak bere ahots poetikoa aurkitu zuela dio.

Koldo Izagirre (2002) aburuz, hiru etapa nagusi antzeman daitezke idazle iurretarraren poesian: lehenik, literaturaren aurkikuntza goiztiarrak eragindako kultismoa, intertestualitateak markatzen duena; bigarrenik, egora pertsonalak (kartzelak eta erbesteak) eragindako itxituraren eta urruntasunaren aurkako lirika; eta azkenik mundutar anonimo bilakatzeak sorturiko aro dialektikoa.

Horretaz gain, Izagirrek (2002) hiru aroetan asimilaturiko tradizio poetikoaz gain, metaforak, kontrasteak eta biribiltasun formala aurki daitezkeela dio. Gainera, Sarrionandiaren obrari melankolia darion arren, biktimismorako joerarik ez dagoela uste du, bere oinazean sentsibilitate kolektibo bat ordezkatzeko duen heinean.

Ezaguna denez, Sarrionandiaren ibilbidean zehar, hizkuntzarekiko mesfidantza konstante bat da. Lengoaiaren mugei aurre egiteko Sarrionandiak darabilen ihesbideetako bat lengoia metaforikoa erabiltzea da (Rodriguez 2013b: 188), horrek hizkuntza berri bat proposatzera eraman zuen. Ez da ahaztu behar hiztegi bat ere egin zuela (*Hitzen Ondoeza*) hitzen esanahia garbiago emateko. Izan ere, poetaren eginbidea, Stéphane Mallarmék esan zuenez (Sarrionandiak behin baino gehiagotan aipatuko duen autoreak), “tribuaren hitzei zentzu garbiagoa ematea da: zentsu garbiagoa, osoagoa, irekiagoa, munduaren eta kontzientziaren artean hitzen bidez erlazio aproposagoak sortzeko eta horren bidez gauzen eta situazioen ezagumen berri argiagoa lortzeko” (Sarrionandia 2006a: 173).

Hitzen ondoeza, liburu antzeko hiztegia, helburu horrekin egina da. Jakak dioenez (2012: 226), ondoezak jota edo gaixorik dauden hitzak birpentsatuz “hitzen, mintzaireren eta lengoaiaren higadura eta akidura” gainditzeko, eta esanahi berriak sortuz eta lengoaia hobetuz “gizarte erlazioen hobekuntza” lortzeko (Sarrionandia 1997:8) helburua du.

Azkorbebeitiaren (1998: 98-99) ustetan, Sarrionandiak irakurle aktiboa bilatzen du, eta idazle iurretarraren lanen ezaugarririk funtsezkoenetakoa eta urteekin nabarmenduz joan den ezaugarria da irekitasuna. Hori horrela, batzuetan, olerki batzuek irakurketa anitzak izan ditzakete, literala eta metaforikoa.

Asko izan dira idazle bizkaitarraren ibilbide literarioan eragina izan duten autoreak: Fernando Pessoa, T.S. Eliot, Herman Melville, Edgar Allan Poe, Lauaxeta, Aresti, Jon Mirande, Samuel Taylor Coleridge etab.

Mari Jose Olaziregik (2006) dioenez Sarrionandiari euskal letren istorioan leku aipagarria eman diona, bere ibilbide poetikoa izan da. Bestalde, Koldo Izagirreraren ustetan (2002) asko eta garrantzitsuak dira Sarrionandiaren lanak euskal literaturaren garapenari ekarri dizkion onurak: joera kultistaren abiatzaile izen zen, M. Iburguren eta X. Izaga bezalako poetak bideratu dituen kartzelako poesiaren sortzaile, erbestea eta inoneza ezaugarri pertsonal bihurtu zituen... Baina, horien gainetik dago balio moral, etiko, eta azken finean iraultzaileen aldarria da Sarrionandiak egiten duena.

3.4. Justifikazioa

Marko teorikoan esan bezala, kritika genetikoak, orokorrean, eskuizkribuekin lan egiten du. Beraz, eskuizkribuen mundura lerratzen da, beren hizkerara. Horretarako, genetista orri inprimatuaz bestelako materialez baliatzen da: testua gauzatu den materiala (koadernoak, orri solteak, filigrana etab.); idazketarako erabili diren instrumentuak (tinta, boligrafoa, koloretako boligrafoak, arkatza eta pluma) etab.

Hala ere, gorago esan bezala, arazo terminologikoak daude kritika genetikoaren baitan. Berririo ekarriko ditugu Almuth Grésillonon (2012: 39) galderak lanera: zer da dokumentu genetiko bat? Nahitaez eskuizkribu bat izan behar du? Zer da zehatz-mehatz edizio genetiko bat? Zer da aurre-testu bat?

Olaziregik dioenez, eskuizkribuak ez ezik argitaratutako lanak ere konpara

daitezke. Horretarako *aldaera* terminoa erabiliz. Izan ere, aldaerez mintzo garenean, egileek eurek literatur lan “beraren” *berridazketa/laburtze/moldatze...* eragiketen ondorioz atontzen dituzten argitalpenei egin diezaiekegu erreferentzia (Olaziregi 2009: 290). Uste berekoa da Ayerbe (2016: 67), bere esanetan sorkuntza-prozesu baten bilakaera jarraitzeko, batzuetan, edizioak erabiltzea zilegi izan daiteke, eskuizkribuen beharrik gabe. Izan ere, askotan testu baten lehen edizioa ez da “definitiboa” izaten, eta ondorengo berrargitalpenetan idazleak berak zuzenketak edota moldaketak eginda bertsio eraberrituak egiten ditu.

Hori da, hain zuzen ere, aztertuko dugun kasua, Joseba Sarrionandiarena. Izan ere, agortuta zeuden bere lanen errebisioa egin eta berrargitalpenetan aurreko lanetako akatsak zuzendu/moldatu eta berridatzi ditu, era honetan olerki bakoitzaren aldaerak aurkitu daitezkeelarik.

Gainera, kontuan hartzekoa da, marko teorikoan esan bezala, kritika genetikoaren bitartez denbora dimentsioa ere aztergai dela. Argitalpenez argitalpen eta edizioz edizio egindako aldaketei erreparatuta ere denboran zehar testu batek izandako bilakabidea antzeman daiteke. Horretaz gain, idazle iurretarraren argitalpenetan begi bistakoak dira aldaketak, eta bertsio inprimatuez ari baldin bagara ere, askotan esan izan da etengabeko berridazketen aurrean gaudela. Horrek guztiak, zilegi egiten du aurkeztutako *corpusean* kritika genetikoaren metodologia aplikatzea.

Esan bezala, argitaratutako lanei bakarrik erreparatuko diegu. Biasik (1998, 2011) genesiaren bilakaeran lau aldi nagusi bereizi zituen (erredakzio aurreko aroa, erredakzio aroa, argitaratze aurreko aroa eta argitalpen garaia) baina, kasu honetan argitaratuta dagoen testu bat beste idazlan baten zirriborro bilakatu da, eta ondorioz Grésillonek (2008: 32 apud Ayerbe 2016: 19) dioenez, amaierako emaitza hastapen testuaren oso bestelako testua da. Hori horrela, Biasik proposaturiko taxonomia, eta eskuizkribu eta inprimatuaren genetikaren arteko banaketa irauli egingo litzateke. Izan ere, argitalpen garaiko testu batek aurre-testu izaera bereganatzen du.

4. ARGITALPENEZ ARGITALPEN ETA EDIZIOZ EDIZIO EGONDAKO ALDAKETAK

Sarrionandiaren errebisioak ez dira errebisio tekniko hutsak, baizik eta poeman edukiak indarrean dirauen ala ez erabakitze frogak (Rodriguez 2013a: 171).

4.1. Urratsei jarraituz ibilbidea (berr)eraikiz

–ez kezkatu– esan zion Hanselek –,
ilargia irten bezain laster
ikusi ahalko ditugu bidean utzi ditudan ogi-mami zatiak,
eta haiei jarraituz aurkituko dugu etxera itzultzeko bidea.
Grimm anaiak

Ogi-mami zatiak bezala olerki bakoitzaren arrastoari jarraituz, poema bakoitzak izan duen ibilbide autonomoa eta beregaina taulan islatuta ikus daiteke. Ondorengo lerroetan poemaren ibilbideari erreparatuko diogu.

	IADEP		<i>Susa</i>	<i>Marinela</i>	MZ	GP	IADEP		HINMY		IADEP		HINMY	
	IABB	1985					1993	1995	HDEOG	XXPK	2006	KP	2013	
Urte giroak ene begietan	X				X	X							X	
Epaiketarako bidaia	X				X	X							X	
IV. galdera	X				X	X							X	
Esperantza	X					X							X	
Afrika Iparraldean		X				X	X					X	X	
Esklabu erremintaria			X		X	X							X	
Zuziak eta Aizkorak			X		X	X							X	
Hilarri izkribua I			X		X	X							X	
Lau bost sei harresi			X		X	X					X		X	
Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik				X	X	X			X				X	
Preso egon denaren gogoia					X	X		X	X	X			X	X
Joseba Asensio					X	X		X					X	X
Itsasoaz gogoeta					X	X							X	
Lagun presoak					X	X		X					X	X
Bake beltza					X			X	X					X
Gutun galduak					X	X							X	
Krabelin gorriak harma kanoietan					X	X							X	
Leonardo da Vinci					X									
Gartzelako goiza					X	X							X	
Bakardade gogoeta					X	X							X	
Kaleko kronika					X	X			X				X	
Hau da udaberria					X	X							X	
Armen kanoiak					X	X							X	
Palestinar presoak					X	X					X		X	
Haurtzaroko erretratua					X	X							X	
Hilarri izkribua III					X	X							X	
Neguko paisaia					X	X							X	
Gerla hondartzan					X	X							X	
O sentimento do mundo					X	X			X				X	
Itsaso debekatuak					X	X							X	
Elurreko hegaztia da gure bihotza, Eorann					X	X							X	
Itzulera					X	X							X	
Hau da negua					X	X							X	
Presoen amak					X	X							X	
Itsaso barea					X	X							X	
Munduak gezurra diyotsu, bihotza					X	X							X	
Hau da udagoiena					X	X							X	
Bihotz iluna					X	X							X	
III. galdera					X	X			X				X	
II. galdera					X	X			X				X	
Tortura egunak					X	X							X	
Elurra bezain isil badator illuna					X	X							X	
Misterio fiskala						X							X	
Territorio librea						X			X				X	

	IABB	IADEP 1985	Susa	Marinela	MZ	GP	IADEP 1993	HINMY 1995	HDEOG	XXPK	IADEP 2006	KP	HINMY 2013
Galtzetan gordetzeko koblak						X						X	
IX. galdera						X						X	
Ezkutuko gutunak						X						X	
Gogoeta matematikoa						X						X	
Erresistentzia						X						X	
Gose grebako hogeigarren egunean						X				X		X	
Besamotzaren besoa						X			X			X	
Oroimeneko portua						X			X			X	
Jolasa						X						X	
Beste mundua						X				X		X	
Sortaldeko orratzak						X						X	
Gaiherdiko ametsa						X						X	
Elurra ereriko da gauzez						X						X	
Begi urrunei bertsoa						X						X	
Amodio protopoema						X			X			X	
Galkortasunaz gogoeta						X						X	
Hilarri izkribua V						X						X	
Hau da ene ondasun guzia						X			X			X	
Zurian beltz						X						X	
Gauzez lo egin ezinik						X						X	
Txinatar poema						X						X	
Itzulpen literala I						X						X	
Itzulpen literala II						X						X	
Itzulpen literala III						X						X	
Erdi mina						X						X	
Protopoetika						X						X	
Marioneten aitzakiarekin gogoeta						X						X	
Borrokan hildako lagunak						X						X	
Hemen gaude eta jarraitzeko asmoarekin						X						X	
Haiku II						X						X	
Haiku IV						X						X	
Gutaz esanen dutena						X						X	
Mikel Lopategi						X		X				X	X
Kirofanoa						X		X				X	X
Egunen batean						X		X				X	X
Aspaldian utzitako zelda						X		X		X		X	X
XI. gutuna						X		X	X	X		X	X
Esnaerak								X					X
Bainera								X					X
Ipuina												X	
El Palomar												X	
XI. galdera												X	
Alturaren neurria												X	
Inozenteen eguna												X	

1. Taula: KPko poemen ibilbidea, lehen argitalpenetik hasita eta kronologikoki ordenatuta. Taulan agertzen diren izenburuak KPko izenburuak dira (olerki batzuek beste bildumetan beste izenburu batzuk dituzte).

Aztertzen ari garen liburuen artean bildumarik osoena KP genuke. MZ liburuko “Gartzelako Poemak” atalari hogeita hemeretzi olerki gehitzen zaizkio GPn, eta edizio horretatik KPera beste sei gehitzen dira, baina beste bat kentzen da. Horretaz gain, taulari begirada bakar bat botatzea nahikoa da “Preso egon denaren gogoia” olerkia argitalpen ugarien izan dituen dela ikusteko.

4.1.1. OLERKI INTERMITENTEAK

Taulan ikus daitekeenez, olerki batzuen ibilbidea etena da, olerki bat bilduma batean agertu arren, hurrengoan ez dagoelako, baina hurrengo bilduma batean berriro ere agertzen delako. Rodriguezek (2011: 150 apud Ayerbe 2016: 109) dioenez, olerki bat “erreskatatua izatearen arrazoia erreskatatua ez izana bezain esanguratsua da”. Izan ere, Sarrionandiaren ustez poema hori (dena delako arrazoia dela medio, estiloa, edukia...) indarrean dagoen ala ez dagoen adierazten du. Hori horrela, has gaitezen poemak ibilbidea hasieratik aztertzen.

IABB liburuan gerora KPn agertuko diren lau poema daude. Horietatik hiru MZ liburuan ere argitaratu ziren. Hala ere, “235²⁷” izeneko MZean ez da agertzen, baina bai, ordea, KPn. IABB bilduma argitaratuta dagoenez, ez dirudi olerkia eskuratzeko zailtasuna izan zitekeela MZean ez agertzeko arrazoia. Olerkiak erabiltzen duen izenordaina izan liteke horretarako zioa. Izan ere, beste hiru olerkiekin alderatzen baldin badugu, hurrengo argitalpenean pertsona-izenordainak aldatzen dituen bakarra da. *Ni* eta *zu* horren arteko elkarrizketa nolabait despersonalizatu egiten da *gu* eta *huraren* artean. Gainera, IABBko *zu* horrek preso bati egiten dio erreferentzia, askotan irakurlearekin bat egingo ez duen kondikzioarekin alegia.

Horretaz gain, beste arrazoi bat olerkia elkarrizketa moduan egituratuta egotea izan liteke. Izan ere, MZeko gainontzeko olerkietan arreta jarrita, ez dago elkarrizketa darabilen beste olerkirik. KPko bilduman baten bat aurki daitekeen arren (“Gogoeta matematikoa” edo “Inozenteen eguna”) oso gutxi dira.

Etendako ibilbidearen beste adibide bat “**Afrika Iparraldean**” genuke. Taulan ikus daitekeenez, IADEP liburuan agertzen bada ere, MZean ez da ageri, bai ordea GPn eta KPn. Sarrionandiaren itzulpenari buruzko teoria erabaki horren atzean egon litekeela uste dut. MZeko poemetan ez dago itzulpen/sasi-itzulpenik, bai ordea KPn. MZetik

27 KPean “Esperantza”

KPera gehitzen diren hogeita hemeretzi poemetik zazpi itzulpenaren eta sorkuntzaren *originaltasunaren* inguruko hausnarketa daramate. Horren adibide dira esaterako “Itzulpen literala I”, “Itzulpen literala II” eta “Itzulpen literala III”. Aiora Jakak (2012: 328) dioenez, ustezko itzulpen horien iturri izan den sorburu-testurik ez da inon aipatzen, eta Sarrionandiak berak asmatutako olerkiak izan litezke.

“Afrika Iparraldean” olerkiaren kasuan, Sarrionandiak berak idatzitako olerki baten egiletza beste autore bati egozten dio: *Mohamed Al-Kali*, egile fiktizio bati. Horrela sorkuntzaren eta itzulpenaren arteko bereizketa garbiaren ideia tradizionalarekin apurtuz (ibid.: 264). Mohamed Al-kali, beraz, Sarrionandiaren heteronimotzat joko genuke kasu honetan.

MZean itzulpen/sasi-itzulpenik ez dagoen arren, imitazio edo bariazioak badaude (“Esklabu erramintaria”, “Munduak gezurra diotsu” eta “Elurra bezain isil badator illuna”). KPean itzulpenaren eta sorkuntzaren arteko muga lausoekin jolasten du egileak, itzulpenak eta beste tradizio literarioetako moldeei jarraituz. Beraz, aurreko bilduman baino errazagoa da KPean sasi-itzulpen bat tartekatzea. Dena den, beranduago helduko diegu itzulpenei eta Sarrionandiak horiei buruz duen teoriari.

Beste adibide bat “**Bake Beltza**” izenekoa genuke. Taulan ikus daitekeenez, MZean lehen aldiz agertu zen arren, KPean ez dago. Bai ordea HINMYn. Olerki horretan kritiko azaltzen da gizartearen esparru zabal batekin, erosotasunean iltzatutako gizarte sektorearekin alegia. Poema hau bilduman ez sartzeko arrazoia liburuko gainontzeko poemak gaitatik nahikotxo urruntzen dela izan liteke. Liburuko poema gehienetan kartzela, presoak, denboraren iragaitea islatzen dira. Kasu honetan, ordea gizarteko sektore zabal bati zorrotasunez zuzentzen zaio egilea, eta muina ez da kartzela. Gizarte kapitalista, zentralistan estankatutako gizarteari erreferentzia egiten dio eta kritiko agertzen da haien aurrean. Gainera, aurrerago ikusiko dugun bezala, gizarte sektore baten irudi berri bat aurkitzen da olerki horretan.

Ibilbidea gauzatzen ez duen azken olerkia “**Leonardo da Vinci**” da. Taulan ikus daitekeenez poema guztiak berrargitaratuak izan dira. Denak bat izan ezik. “Leonardo da Vinci” MZean baino ez zaigu agertzen, “Gartzelako Poemak” atalaren baitan. Baliteke gaietatik bilduma honetatik kanpo geratu izana. Izan ere, poema honen gai nagusia “mundu bisiblea esploratzen duen gizon”-a ulertu ezina izango litzateke. Jende arruntak jeinuak ulertu ezin izateaz dihardu olerkiak. KPeko gainontzeko poemak

kartzelaz, denboraren igarotzeaz, haurtzaroko nostalgiaz etab. dihardute. Beraz, kasu honetan olerkiaren gaia liburuko ildo tematikoetatik urrun dagoela izan liteke baztertua izateko arrazoia.

4.1.2. MZetik GPera GEHITUTAKO OLERKIAK

MZean KPeko hogeita hemeretzi poema agertzen dira eta beste horrenbeste dira GPean gehitutako olerkiak. *Corpusa* aurkeztean esan bezala, editoreek *Izuen gordelekuetan barrena* berrargitaratzeko proposamena egin zioten, baina Sarrionandiak nahiago izan zuen hango poema batzuk moldaturiko poemekin argitaratu. Edozein kasutan ere, liburu honetan, *Izuen gordelekuetan barrena* liburuan ez bezala, “Kartzelako Poemak” atal bat dago eta aztertzen ari garen poemetatik askok argia ikusiko zuten bertan lehen aldiz.

Begi bistakoa da gure korpusa MZetik KPera nabarmen hazi dela; 38 poema gehiago. Ardatz gisa, kartzelan sortutako poemak eta kartzelaz diharduten poemak dira gehitutako guztiak. Gehitutako olerkien temari erreparatuz, ez dago alde nabarmenik (gorago aipatutako sorkuntza eta itzulpen kontua alde batera uzten bada, behintzat). Badirudi KPeko gainontzeko olerkiak ez gehitzeko arrazoia eskuragarritasunarekin lotura izatea. Izan ere, hori iradokitzen du autoreak MZeko “Irakurleentzako Abisua”-n. Sarrionandiaren hitzak zuzenean hartuz: “[...] ez dut materiale guzia esku artean eta, aukera zehatz bat egin ezinik, dudanarekin moldatu dut behin behineko bilduma hau” (Sarrionandia 1987: 8). Material guztia eskura ez izateaz gain, beste poema batzuk bildumatik kanpo uztearen erabakia kontzientea izango litzateke MZean: “Bilduma honetatik aparte utzi ditut, finean, lehen liburuko orri ugari, gartzelan egindako kobla eta sonetoak, eta *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan agerturiko apokrifoko batzu” (Sarrionandia 1987: 8).

4.1.3 KPean BAINO EZ DAUDEN POEMAK

Etendako ibilbidea duten poemez gain, badira KPean baino agertzen ez direnak (“Ipuina”, “El palomar”, “XI. galdera”, “Alturaren neurria”, “Inozenteen eguna” eta “Vis a Vis”). KPeko poemak 1980-1985 bitartean idatzitakoak direnez, hauek ere aurreko bildumetan agertu ez arren, garai horretan sortuak direla pentsatzekoa da. Horrek ondorengo galdera planteatzera garamatza: Zergatik ez daude aurreko bildumetan? Zenbait arrazoi posible egon litezke.

Alde batetik, kartzelan idatzi zirela kontuan izanda, baliteke horiek gordetzeko arazoak izatea. Izan ere, beranduagokoak izango balira, “Post Scriptum” atalean egongo ziratekeen.

Beste alde batetik, erabaki kontzientea ere izan liteke. Egileak bildumarako egokiak ez izatea pentsatzeagatik alde batera utzitakoak izatea alegia. Hala ere, ez dirudi poema hauen kasua denik. Izan ere, guztietan kartzelaren gaia jorratzen da antzeko ikuspegitik. Aukera hori alde batera uzteko arrazoiak ondorengoak dira:

Lehenik eta behin, aurreko poemetako irudi eta gai berak dituzte. Esate baterako, harresia eta hizkuntzarekiko mesfidantza agertzen dira, KPeko poemetan zehar konstanteak direnak. Horretaz gain, funtzionarioen jazarpena eta indarkeria ere poema horietan islatzen dira.

Bigarrenik, badago “XI. galdera” izeneko poema bat. Izenburu honek bat egiten du aurreko argitalpenetako “II. galdera”, “III. galdera”, “IV. galdera” eta “IX. galdera” izenburuekin. Beraz, izenburuei dagokionez, ildo berean jarraitzen duela dirudi.

Hirugarrenik, “Alturaren neurria” izeneko olerkian idazle iurretarra, singularreko bigarren pertsonari zuzenduz, txikitik aititek zenbat hazi zen kalkulatzeko neurtzen zuela gogoratzen da. Espetxera sartzean, berriro neurtzen dute metalezko aparatu bat erabiliz, baina espetxeko egonaldian ez dute berriro neurtuko aititek egiten zuenaren kontrara. Adibide honetan ikus daitekeenez, haurtzaroko irudi batez baliatzen da egilea kartzelako errealitatearekin kontrajartzeko. Beste horrenbeste gertatzen da lehen aldiz MZean kaleratu zen “Haurtzaroko erretratua” olerkiarekin. Beraz, aurreko poemaren ildo berari jarraitzen diote hauek ere.

Arrazoi hauek lehenengo hipotesiaren alde egitera garamatzate, gehitutako poemetan ez baita teman/estiloan/gaietan aldaketarik sumatzen.

“El Palomar” izeneko olerkiaren kasua, ordea, bestelakoa da. Poemaren bukaeran honako ohar hau dago: “*El Palomar* deitzen zieten presoek Puerto de Santa Mariako kartzelako zigor-zeldei. Hantxe idatzi zen testu hau 1983an, gazteleraz” (Sarrionandia 2011: 33). Sarrionandiak berak onartzen duenez, 1983an idatzitako testua da. Halere, ez zen 2011. urtera arte argitaratu. Gainera, edizio horretan txertatu ziren olerkien artean egilearen azalpena, eta sortze-leku eta dataren berri ematen duen bakarra da. Aurreko edizioan agertu ez izanaren arrazoiak gazteleraz idatzita egotea izan liteke. Izan ere, idazle iurretarra kritiko agertu izan da euskal literaturak eta gaztelaniak izan

ditzaketen harremanen artean. Hasier Etxebarriak 2002an egindako elkarrizketan Sarrionandiak euskarazko kalitatezko literatura guztia gaztelerara itzultzeak euskal literatura literatura espainiarraren apendizetzat jotzearen arriskuaz ohartarazten du (Sarrionandia 2002: 33 apud Jaka 2012: 234).

Poema hau ia bi hamarkada beranduagora arte argitaratua ez izateko arrazoia gazteleraz idatzia izatea pentsaraztera eraman gaitzakeen beste arrazoi bat honakoa da: Jakak (2012: 255) dioenez, Sarrionandiak munduko idazleen hautaketa zabala egiten duen arren, leku gutxi dute espainiar literaturak eta autoreek. Jakaren iritziz, espainiarrekiko eta haien literaturarekiko erresistentzia litzateke, euskaldunekiko xurgatzailea izan den espainiar kultura baztertzeke saiakera bat. Beraz, gazteleraz idatzirako olerki bat argitaratzearen aurka egon zitekeela pentsatzea zilegi litzateke.

4.1.4 “POST SCRIPTUM” ATALEKO OLERKIAK

Arestian esan bezala, KP liburua bi ataletan banatzen da: alde batetik, “Kartzelako Poemak 1980-1985”, eta bestetik “Post Scriptum”. Atal honetako poemei dagokionez, KPean sortze urtearen berri ematen zaigu: 1986-1991 urteen bitartean eginikoak dira (“Preso egon denaren gogoia”, “Joseba Asensio” eta “Lagun Presoak” 1986an idatziak dira; “Mikel Lopategi” 1988an; “Kirofanoa” eta “Egunen batean” 1990ean eta “Aspaldian utzitako zelda” eta “XI. gutuna” 1991. urtean).

1986an idatzitako poemak lehen aldiz MZ liburuan agertu ziren (1987. urtean), hots, poemak idatzi eta argitaratu zuen lehenengo liburuan. Gainontzeko bost poemek ordea, GPean ikusi zuten argia lehen aldiz, hauek ere argitaratu zitezkeen lehen liburuan. Beraz, kartzelatik ihes egin eta gero idatzitako poemak argitaratu ahal izan zituen lehen liburuan argitaratu zituen, eta horrek azalduko luke MZean zergatik ez dauden “Mikel Lopategi”, “Kirofanoa”, “Egunen batean”, “Aspaldian utzitako zelda” eta “XI. gutuna”.

Hala ere, esan beharra dago Sarrionandiak MZeko “Irakurleentzako Abisua”-n “1985eko udaraz geroztikoak [olerkiak] ere ez dira egundaino argitaratu” esaten duela (Sarrionandia 1987: 8). Nahiz eta esan bezala, MZean 1986an idatzitako “Preso egon denaren gogoia”, “Joseba Asensio” eta “Lagun Presoak” liburu horretan argitaratu.

4.1.5 HINMYn GEHITUTAKO OLERKIAK

HINMY liburuko “Hutsik geratu ez ziren zeldak” izeneko atalean “Post Scriptum”-eko poemez gain bi berri gehitu dira (“Esnaerak” eta “Bainera”), eta berriro agertu da MZetako olerki bat (“Bake Beltza”). Liburu honen lehen argitalpena eta gero, KPren beste argitalpen bat egon arren, aipatutako bi poema berriak ez ziren gehitu, ez “Kartzelako Poemak” atalean ez “Post Scriptum” izenekoan.

Lehen aldiz bilduma honetan agertzen den “Esnaerak” izeneko olerkian ikuspuntu aldaketa bat genuke, lehen aldiz emakume preso baten ahotsa helarazten zaigu.

“Bainera” izeneko olerkia, berriz, “Kirofanoa” izenekoaren aldaera genuke. Bietan torturak kontatzen dira. Antzeko hasiera eta amaierak dituzte, eta horretaz gain poemen goiko aldean agertzen den paratestuak bata bestearen bigarren partea dela iradokitzen du. Izan ere, “Kirofanoa” izenekoan “Inquisitio, -onis I” agertzen da eta “Bainera”-n “Inquisitio, -onis II”. Hala ere, esan beharra dago HINMYn baino ez dela agertzen paratestua, eta nahiz eta HINMYren 1995eko edizioan agertzen den KPeko “Kirofanoa” poeman ez dagoela (paratestua).

4.1.6. ANTOLOGIETARAKO POEMA HAUTATUAK

Corpusean ikusi bezala, hiru liburu hauetan badaude KPeko poemak. Halere, antologiak diren heinean, poema hautatuak baino ez daude. Lehenengo bi liburuak Sarrionandiak berak egin ditu, hirugarrena, ordea, Koldo Izagirrek. Beraz, lehenengo bietan egilearen asmoak/nahiak irudikatuta egongo diren arren, baliteke Koldo Izagirrearenean ez egotea. Horretaz gain, kontuan hartzekoa da antologia hauen helburua ez dela espetxealdian igarotako uneen lekukotza ematea, baizik eta beste gai batzuen artean kartzelako poemak ere ematea.

Esan beharra dago HDEOG liburu musikatuan badaudela Sarrionandiak berak irakurritako poemak²⁸, baina horietako bat ere ez da KP liburukoa.

Ondorengoak dira antologietan agertzen diren poemak:

28 “Harriak eta herriak”; “Ilunntasuna nehurtzen”; “Heriotza”; “Zaramalogia”; “Mundua zabala eta arrotza da” eta “Geografia” dira Sarrionandiak liburu-musikatu honetan irakurtzen dituen olerkiak.

	HINMY	HDEOG	XXPK
Lau bost sei harresi			x
Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik		x	
Preso egon denaren gogoia	x	x	x
Joseba Asensio	x		
Lagun presoak	x		
Kaleko kronika		x	
Palestinar Presoa			x
O sentimento do mundo		x	
III. galdera		x	
II. galdera		x	
Territorio librea		x	
Gose grebako hogeigarren egunean			x
Besamotzaren besoa		x	
Oroimeneko portua		x	
Beste mundua			x
Amodio proto poema		x	
Hau da ene ondasun guzia		x	
Mikel Lopategi	x		
Kirofanoa	x		
Egunen batean	x		
Aspaldian utzitako zelda	x		x
XI. gutuna	x	x	x
Esnaerak	x		
Bainera	x		
Bake beltza	x	x	

2. taula: Antologietarako hautatutako testuak. Lehenengo bi bildumetako olerkiak Sarrionandiak aukeratu ditu, hirugarrena berriz, Koldo Izagirrek.

Lehenengo bi antologiei arreta bereziz erreparatuko diegu, egileak berak aukeratuko poemak direnez, poema horiek berarentzat esanahi berezia dutela pentsatzekoa da eta.

“Preso egon denaren gogoia” da hiru antologietan agertzen dena. Ez da harritzekoa, izan ere Sarrionandiaren olerkirik ospetsuenetarikoa izateaz gain, liburuetan zehar gehien argitaratu den olerkia ere bada: MZean lehen aldiz argia ikusi zuenetik

ondorengo guztietan agertu da, guztira zazpi aldiz. Gainera, KPean atzeko azalean ere agertzen da. Horrek liburu osoaren laburpen moduko bat izan daitekeela iradokitzen digu, hori izan daitekeela liburuaren mezu nagusia. Horretaz gain, behin baino gehiagotan esan bezala KPeko olerkiak etengabeko berridazketa tailerrean daude; “Preso egon denaren gogoa” olerkia salbuespen bakarrenetarikoa genuke. Egileak olerki honetan ez du ia aldaketarik egin (“bere” (MZ/ GP /HINMY 1995 /HDEOG) → “haren” (KP, HINMY 2013) eta “juje” (MZ/ GP/ HINMY 1995/ HDEOG/ KP) → “epaile” (HINMY 2013) izan dira aldaketa bakarrak).

Olerkiak poeta lehengo pertsona bera ez dela esaten du. Espetxetik ihes egin ostean askatasuna eskuratu duela uste arren, bertan bizi izandakoak (er)aldatu egin duela. Eider Rodriguezen hitzak zuzenean hartuz (2013a: 255): “ihesarekin batera askatasuna eskuratu duelakoan egon daiteke irakurlea, baina oker dabil, izan ere poetaren gorputza ez baitago preso, baina bihotza, bitan partituta duen horixe bera, kondentatuta dago”. Kritikari gehiagok ere ideia bera errepikatu dute. Mendigurenek (1988) esaterako, bizitza eta poesia lehengo berberak izango ez direla dio, espetxea, tortura eta zapalketa ezagutu eta gero. Idazle bizkaitarraren bizitza laburbil dezake olerki horrek, espetxeak bere bizitza (er)aldatzeaz gain, ezin izan baita sekula sorterrira itzuli.

Bada hiru antologietan agertzen den beste olerki bat, “XI. gutuna” izenekoa. Kasu honetan, egilea espetxetik kanpo kokatzen da eta gizartean presoaren egoeraren berri eman eta haien askatasuna aldarrikatu beharra nabarmentzen ditu, eginkizun zailtan elkarrekin aritu ahal izateko. Gai nagusiaz gain, bestelakoak ere aurki daitezke, hizkuntzarekiko mesfidantza esaterako: “hitzez esan nahi dutena geroago/ eta gutiago diotenean; / alemanezko hitz ikaragarriak ere ez omen dira/ erabat zehatzak”. Poema hau hiru antologietan agertzea ere ez da harritzekoa. KPeko olerki guztien ibilbidea laburbiltzen duen taulari begiratuta (37-38 or.) lehenengo argitalpenaz geroztik gainontzeko guztietan agertzen da. Halere, aurreko olerkian ez bezala, honetan idazlea ez da bere kondizio pertsonalari buruz ari, gizartean zabaldu nahi duen mezu bat bidaltzen ari da, presoaren askatasun aldarri bat egiten ari da.

Sarrionandiak egindako bi hautaketetan agertzen den beste olerki bat “Bake Beltza” izenekoa da. Ikusi dugunez, olerki hau ez dago KPean, baina, bai, ordea, irakurle zabalagoa izatea espero zitekeen liburuetan. Horren arrazoa gizarteari

zuzenduta egotea liteke. Poema horren bidez gizartearen sektore bat kritikatu arren sektore horren aktibazioa bultzatu nahi izango luke egileak.

Idazle bizkaitarrak HINMY eta HDEOG bildumetarako aukeratutako gainontzeko olerkiak ez datoz bat, hots, ez dira poema berak aukeratu bi bildumetarako.

HDEOG bildumarako aukeratu diren olerkiei dagokionez, karga politiko argia egon arren, ez dago beste poema batzuetan antzeman daitekeen krudeltasuna, biolentzia. Poema hauetan, gatazka edo bere ondorioak zuzenean kontatu beharrean iradokizunak egiten dira. Herri baten sufrimenduaren berri ematen da: euskal gizartearen sektore batean orokortutako ideiak adierazi, egunerokotasunean, kalean gertatzen diren gauzen berri ematen da. Horretaz gain, irudi bisualak sortzen dituzten poemak dira (“II. galdera” eta “III. galdera”). Liburuaren izaerarekin lotuta daude testuak, HDEOG liburu-musikatuak dibulgazio izaera du.

HINMY libururako aukeratutako poemetan, ordea, kontrako adibidea genuke. Bertako olerki guztiek, ikuspuntu anitzak erabiliz, kartzelako esperientzia traumatikoaren berri esplizitua ematen dute: espetxetik ateratzea lortu ez zuten bi euskal preso politikoren aipamenak daude (“Joseba Asensio” eta “Mikel Lopategi”); kartzelako torturak eta polizien jazarpenak biziberritzen dira (“Esnaerak”, “Kirofanoa” eta “Bainera”); kartzelatik irten eta gero ere preso izandakoaren gogoak han dirauela adierazten dute beste olerki batzuek (“Preso egon denaren gogoak” eta “Aspaldian utzitako zelda”); eta beste batzuetan preso jarraitzen dutenez gogoratzen da egilea (“Lagun presoak”, “XI. gutuna”).

Amaitzeko, Koldo Izagirrek hautatutako olerkietan askotariko gaiak jorratzen dira. Espetxea eta bertan bizitakoa modu inplizituen aipatzen duten olerkiak egon badauden arren, ez dago HINMYn aurki daitekeen gordintasuna.

4.2. Argitalpenez argitalpen egilearen aldaketak

Poema bakoitzak izan duen ibilbidea alde batera utzita, honako atal honetan poema berberak argitalpenez argitalpen izandako aldaketak erkatuko ditugu. Ayerbek (2016: 250) dioenez, Sarrionandiarengan etengabea izan da jatorrizko poemaren eraldaketa, moldaketa eta berridazketa. Beraz, poemak etengabeko berridazketa tailerrean daude. Halere, garrantzitsua da, aztertzen ari garen kasuan behintzat, bertsio batetik bestera olerkien gertakariak aldatu ez diren arren, estilistika aldatu egin dela

azpimarratzea: esaldien ordena, esaldien edo paragrafoen gehiketak, izenordainen desagerpena etab.

Bestalde, kontuan hartzekoa da (aski ezagunak diren bere biografiako gorabeherak hala eraginda) Sarrionandiak ezin izan duela bere lanen argitalpen prozesua jarraitu, nahiz eta prozesu horren garrantziaz kontziente izan. *Izuen gordelekuetan barrena* liburuko hitzaurrean esaterako ondorengoa irakur daiteke: “argitarazioari begira, poemagintza bera bezain garrantzitsua da liburuaren tankera eta aurkezpena, eta ezin izan ditut inprentalana eta enparauak ezertan zaindu” (Sarrionandia 1981: 5).

Prozesua jarraitzeko ezintasunaz gain, kartzelan edo erbestean lanak gordetzeko izandako zailtasunak ere aipatu beharrekoak dira. Ondorengo aipua *Marginalia* saiakeraren eskaintzakoa da: “ti es elioti buruzko saiakera ohostu zidan funtzionario putaseme ezezagunari” (Sarrionandia 1988: 5 apud Ayerbe 2016: 68). Horretaz gain, Hasier Etxebarriak egindako elkarrizketan kartzelan zein erbestean bere lanak gordetzeko izandako zailtasunez mintzatu zen:

Traba handiak izan nituen kartzelan, egoera batzutan ia ezinezkoa zen idaztea. Funtzionarioek, gauez argia kentzen zuten, paperak ostu egiten zizkidaten batzutan, trasladoetan gauzak eraman ezin, desastrea.

Erbestean ere berdin, batzutan idazmakinarik ez, bestetan boligraforik ez, eta leku batetik bestera aldatzean paperak galtzea, eta idazlan ia amaitua berriz hasi beharra edo, behin dena galduez gero, proiektua abandonatzea (Etxebarria 2002: 138).

Atal honetan, lehenik eta behin, hainbat orokortasunen berri emango da eta ostean, bi alderdiri erreparatuko diegu batez ere. Alde batetik, hizkerari begiratuko diogu eta bestetik, poema beraren argitalpenetan eman diren beste aldaketa batzuei (gehiketak, posesiboak ezabatzeko joera, singularretik pluralera egondako aldaketak, indefinituak definitura pasatzea, baieztapenen kuestionamendua, denboraren aldaketa, pertsonaren aldaketak, zehar estiloa, esaldien berregituraketa eta sinonimoak).

4.2.1. OROKORTASUNAK

Argitalpenez argitalpen poema bakoitzari begiratuz gero, badira arreta piztu dezaketen autorearen hainbat erabaki.

4.2.1.1. KP eta HINMY-k komunean dituzten olerkiak

Hasteko, badirudi poema bat bi bildumetan kaleratzen denean, poema bakoitzak ibilbide beregaina duela bilduma bakoitzean. KP eta HINMY liburuen kasua da hau. Gogora dezagun bi liburu hauek bina argitalpen izan dutela: GP, HINMY 1995, KP eta HINMY 2013 dira argitalpen horiek hurrenez hurren.

Hainbat kasutan, GPean argitaratutako poema batek aldaera bat dakar HINMYko 1995eko edizioan. Hala ere, aldaketa hori ez da ageri KPean baina bai, ordea, HINMYko hurrengo edizioan. Badirudi erabaki kontzientea dela, bilduma bakoitzean poema baten aldaera bat beste bat baino hobeto egokitzen dela pentsatu izana autoreak. Izan ere, bilduma bakoitzak helburu ezberdina izaki, poema batzuk bilduma baterako bai, baina, beste baterako ez erreskatatzea erabakitzen duen bezala, badirudi bertsio bat bilduma baterako eta beste bat beste baterako egitea.

Hori horrela, lehenik eta behin, HINMYren izaerari erreparatuko diogu. Jon Kortazarren (2001: 123) ustetan, HINMY zazpi liburuk osatzen dute. Bere hitzak zuzenean hartuz:

Egia da zenbait poema lehenago ere agertu zirela MZ eta GP deituriko lanetan. MZ, beste aldetik, ordura arte idatzitakoaren antologia kritikoa zen. HINMYk ordea, zazpi liburu biltzen ditu barrenean eta aurreko biak osorik agertu ditu bere orrialdeetan. *Summum* bat litzateke, bada: poemak bilduma oso legez aurkeztu zaigu liburua eta IGB utzi da soilik alde batera, dirudienez, berritzen ari den liburua (Kortazar 2001: 123 apud Rodriguez 2013a: 187).

Baliteke, HINMY irakurle talde zabalago bati zuzendua egoteagatik (gai gehiago jorratzen direnez irakurle gehiago izango dituela pentsatzetik abiatuta) bilduma honetan xehetasun gehiago eman behar direla pentsatu izana autoreak. Hori izan liteke bilduma desberdinetan poema beraren aldaerak egotearen arrazoia. Beraz, olerki beraren aldaerak izango genituzke bildumen arabera. Hori erakusteko asmoz “XI. gutuna” ekarriko dugu lanera eta zehaztasunez aztertuko.

GP

XI. GUTUNA

Hitzik gabeko gutuna izkiriatu nahi nizueke
zuen nahirik tipiena bete.
Gehiena esanda dago eta zer lotsagarria den
errepikatzen hasia
batez ere hitzek esan nahi dutena geroago
eta gutiago diotenean;
alemanerazko hitz ikaragarriak ere
ez omen dira erabat zehatzak.

Polizia, bankero, ugazaba eta apezak
'terrorista' esaten dizuete,
eta are barregarriagoa bestaldeko jendea
'heroe' deitzen,
zuei, estatuen harri gatibutza inola
ametitzen ez duzuenoi,
libertatearen aldeko burrukan libertatea
galdu duzuen giza zatiori.

Hemen eguna odolustutzen ari da
ortzemugan
zauri sakon bat bezala, nork daki
sendagarria den.
Guk beti bezala jarraitzen dugu, lore
eta polbora artean,
metafora eta logistikaren artean, Karl Marx
eta andere biluziaren artean.
Gauza bakoitzak bere zailtasuna,
batzutan mosu bat ematea
etsaiaren kuartel jeneralean lehergailua
jartzea baino zailagoa da.
Zuen askatasuna behar dugu, gauza zailak
elkarrekin egiten jarraitzeko.
Gure herriaren gorputz galdua bilatzea,
esate baterako.
Zuen askatasuna behar dugu, libre gaudenok
libreak izateko.
giza jendeak berez haragian itsasiak dituen
kate luze eta ilunekin
libre izan gaitezkeen nehurrian
behintzat.

[1991]

HINMY 1995/ HDEOG/ XXPK LAGUN PRESOEI GUTUNA

Nahiago nizueke izkiriatu gutuna
hitzik gabekoa:
Dena esanda dago eta zer akigarria den
errepikatzea,
batez ere hitzek esan nahi dutena geroago
eta gutiago diotenean;
alemanerazko hitz luze eta ikaragarriak ere
ez omen dira erabat zehatzak.

Polizia, bankero, ugazaba eta apezak
'terrorista' esaten dizuete,
eta are barregarriagoa da gure jendea ere
'heroe' deitzen,
zuei, estatuen harri gatibutza inola
ametituko ez duzuenoi,
askatasunaren aldeko burrukan askatasuna
galdu duzuen giza zatiori.

600 baino gehiago zaretela esaten da beti
eta zero horiek
eta dispersioak eta urtaldien amaigabeak
abstrakzio itxura ematen dizuete;
Zin egin behar zaio jendeari ez zaretela
batere abstraktuak,
nahiz eta hurrinak, nahiz eta zuen bizimodua
esanezineko modukoa izan.

Hemen eguna odolustutzen ari da
ortzemugan
zauri sakon bat bezala, nork daki
sendagarria den.
Guk betiko antzera jarraitzen dugu
polbora eta lore artean,
logistika eta metafora artean, Karl Marx
eta andere biluziaren artean:

Gauza bakoitzak bere zailtasuna,
batzutan mosu bat ematea
etsaiaren kuartel jeneralean lehergailu bat
jartzea baino zailagoa da...
Zuen askatasuna behar dugu, eginkizun zailtan
elkarrekin jarraitzeko.
Gure herriaren gorputz galdua bilatzea
esate baterako.

Zuen askatasuna behar dugu, libre gaudenok ere
libreak izateko.
giza jendeak berez haragian itsatsirik dituen
kate luze
eta ilunekin librea izan daitezkeen nehurrian
behintzat.

KP
XI. GUTUNA

Hitzik gabeko gutuna izkiriatu nahi nizueke,
zuen nahirik tipiena bete.
Gehiena esanda dago eta zer lotsagarria den
errepikatzen hastea
batez ere hitzek esan nahi dutena geroago
eta gutiago diotenean;
alemanezko hitz ikaragarriak ere ez omen dira
erabat zehatzak.

Polizia, bankero, ugazaba eta apezek
'terrorista' esaten dizuete,
eta are barregarriagoa bestaldeko jendea
'heroi' deitzen,
zuei, estatuen harri gatibutza inola
ametitzen ez duzuenoi,
libertatearen aldeko borrokan libertatea
galdu duzuen giza zatiori.

Hemen eguna odolusten ari da
hodeiertzean
zauri sakon bat bezala, nork daki
sendagarria den.
Guk beti bezala jarraitzen dugu, lore
eta bolbora artean,
metafora eta logistikaren artean, Karl Marx
eta andere biluziaren artean.
Gauza bakoitzak bere zailtasuna,
batzuetan musu bat ematea
etsaiaren kuartel jeneralean lehergailua
jartzea baino zailagoa da.
Zuen askatasuna behar dugu, gauza zailak
Elkarrekin egiten jarraitzeko.
Gure herriaren gorputz galdua bilatzea,
esate baterako.

Zuen askatasuna behar dugu, libre gaudenok
libreak izateko,
giza jendeak berez haragian itsatsiak dituen
kate luze eta ilunekin
libre izan gaitzkeen neurrian
behintzat.
[1991]

HINMY 2013
LAGUN PRESOEI GUTUNA

Nahiago nizueke izkiriatu gutuna
hitzik gabekoa.
Dena esanda dago eta zer gogaikarria den
errepikatzea,
batez ere hitzek esan nahi dutena geroago
eta gutxiago diotenean;
alemanezko hitz ikaragarriak ere ez omen dira
erabat zehatzak.

Poliziek eta bankariek, ugazabek eta apezek
'terrorista' esaten dizuete,
eta are desegokiago deitzen dizue zeuen
aldeko jendeak 'heroi',
zuei, estatuen harri-gatibutza inola ere
ametitzen ez duzuenoi,
libertatearen aldeko borrokan libertatea
galdu duzuen giza zatiori.

600 baino gehiago zaretela esan da beti
eta zero horiek
eta dispertsioak eta urtaldien amaiezinak
abstrakzio itxura ematen dizuete.
Argitu behar da ez zaretela batere abstraktuak,
nahiz eta urrunak,
nahiz eta zuen bizimodua esanezineko
modukoa izan.

Hemen, eguna odolusten ari da
hodeiertzean
Zauri sakon bat balitz bezala, nork daki
sendagarria den.
Guk beti bezala jarraitzen dugu, lore
eta bolbora artean,
metafora eta logistika artean, Karl Marx alde
batean eta andere biluzia bestean.

Gauza bakoitzak bere zailtasuna,
batzuetan musu bat ematea
etsaiaren kuartel jeneralean lehergailua
ipintzea baino zailagoa da.
Zuen askatasuna behar dugu, gauza zailak
elkarrekin egiten jarraitzeko.
Gure herriaren gorputz galdua bilatzea,
esate baterako.

Zuen askatasuna behar dugu, libre
gaudenok ere libreak izateko,
giza jendeak berez haragian itsatsiak dituen
kate luze
eta ilunekin libre izan gaitzkeen neurrian
behintzat.

Lehenengo irakurraldian erraz antzematen da poema berak bilakaera autonomoa izan duela bi bildumetan. Lehenik eta behin, olerkiak ez du izenburu bera: “XI. gutuna” da KPeko bi edizioetan, eta “Lagun presoiei gutuna” HINMYko bietan. Ayerbek ere joera berdina antzeman zuen *Izuen Gordelekuetan Barrena* liburuaren edizio berrituan:

Bestalde, nabarmendu behar da 2014ko edizioan [*Izuen Gordelekuetan Barrena* liburukoan] berrargitaratzen diren poemak 1981ko edizioan oinarriturikoak direla, salbuespenak salbuespen, MZ bildumarako eginiko aurrez aipatu ditugun aldaeran ez direla aintzat hartu IGBren edizio eraberrituan. Ondorioz, izenburuei dagokionez, “Alberto Caeiro-ren bisita” berriro deituko da horrela, MZeko “Fernando Pessoa” izenburua baztertuz (Ayerbe 2016: 111).

Aipagarria den beste aldaketa bat HINMYko edizioetan ahapaldi oso bat gehitzea da, edukian izan lezakeen eraginaz gain, begi-bistakoa da.

Gainera, badira edukian arreta jarrita norabide bera erakusten duten beste zenbait aldaketa:

- “Hitzik gabeko gutuna izkiriatu nahi nizueke / zuen nahirik tipierna bete” (GP, KP) → “Nahiago nizueke izkiriatu gutuna /hitzik gabekoa” (HINMY 1995, 2013).
- “Gehiena esanda dago” (GP, KP) → “dena esanda dago” (HINMY 1995, HINMY 2013).
- “Errepikatzen hastea” (GP, KP) → “errepikatzea” (HINMY 1995, 2013).
- “Libre gaudenok / libreak izateko” (GP, KP) → “libre gaudenok ere / libreak izateko” (HINMY 1995, 2013).

Halere, beste batzuetan aldaketek beste norabide bat daramate. HINMY 1995eko liburuan aldaera bat egon arren, HINMY 2013an eta KPean baztertu egiten da eta GPean bezala ematen:

- “Alemanerazko hitz ikaragarriak” (GP) → “alemanerazko hitz luze eta ikaragarriak” (HINMY 1995) → “alemanezko hitz ikaragarriak” (KP, HINMY 2013).
- “Estatuen harri gatibutza inola / ametitzen ez duzenoi” (GP) → “estatuen harri gatibutza inola / ametituko ez duzenoi” (HINMY 1995) → “estatuen harri

gatibutza inola / ametitzen ez duzuenoi” (KP, HINMY 2013).

- “Libertatearen aldeko burrukan” (GP) → “askatasunaren aldeko burrukan” (HINMY 1995) → “Libertatearen aldeko burrukan” (KP, HINMY 2013).
- “Guk beti bezala jarraitzen dugu” (GP) → “Guk betiko antzera jarraitzen dugu” (HINMY 1995) → “Guk beti bezala jarraitzen dugu” (KP, HINMY 2013).
- “Lore/ eta polbora artean,/ metafora eta logistikaren artean” (GP) → “polbora eta lore artean, / metafora eta logistikaren artean” (HINMY 1995) → “lore/ eta polbora artean,/ metafora eta logistikaren artean” (KP, HINMY 2013).
- “Gauza zailak/ elkarrekin egiten jarraitzeko” (GP) → “eginkizun zailtan/ elkarrekin jarraitzeko” (HINMY 1995) → “ gauza zailak/ elkarrekin egiten jarraitzeko” (KP, HINMY 2013).
- “Libre izan gaitzkeen nehurrian / behintzat” (GP) → “librea izan daitezkeen nehurrian / behintzat” (HINMY 1995) → “libre izan gaitzkeen nehurrian/ behintzat” (KP, HINMY 2013).

Beste kasu batzuetan ordea, HINMY 1995ean aldaera bat egon arren, liburu beraren hurrengo edizioan beste aldaera bat ematen da, aurreko ediziotik eta GP eta KPetik bestelakoa:

- “Zer lotsagarria den” (GP, KP) → “zer akigarria den” (HINMY 1995) → “zer gogoikarria den” (HINMY 2013).
- “Bestaldeko jendea” (GP, KP) → “ gure jendea” (HINMY 1995) → “zeuen aldeko jendea” (HINMY 2013).

Adibide batean olerki beraren lehenengo bi argitalpenetan aldaera bera dago, ez ordea hurrengo bietan. Beraz, kasu honetan aldaketak ordena kronologikoari jarraituko lioke:

- “Hemen eguna odolustutzen ari da / ortzemugan” (GP, HINMY 1995) → “hemen eguna odolustutzen ari da / hodeiertzean” (KP, HINMY 2013).

Amaitzeko, beste kasu batzuetan HINMYko azken edizioan baino ez daude aldaerak:

- “Karl Marx/ eta andere biluziaren artean” (GP, HINMY 1995, KP) → “Karl

Marx alde / batean eta andere biluzia bestean” (HINMY 2013).

- “Zauri sakon bat bezala” (GP, HINMY 1995, KP) → “zauri sakon bat balitz bezala” (HINMY 2013).

Esandakoa laburbilduz, aztertutako olerki honetan aldaketek bost norabide izan ditzakete:

1. norabidea: bildumaren araberakoa	GP = KP vs. HINMY
2. norabidea: baztertutako aldaera	GP = KP= HINMY 2013 vs. HINMY 1995
3. norabidea: bildumaren araberakoa eta bigarren bilduman aldaera berria	GP = KP vs. HINMY 1995 vs. HINMY 2013
4. norabidea: kronologikoa	GP = HINMY 1995 vs. KP = HINMY 2013
5. norabidea: azken argitalpeneko berrikuntza ²⁹	GP = HINMY 1995 = KP vs. HINMY 2013

3. **taula:** “XI. gutuna” olerkiaren aldaketen norabidea.

Aldaketa batzuetan KPeko eta HINMYko olerkien artean nolabaiteko homogeneousazioa antzeman daitekeen arren, egileak bien arteko ezberdintasuna mantendu nahi duela dirudi, berrikuntza nabarmenenak (izenburua edota gehitutako ahapaldia) ez baitira olerki beraren aldaera guztietara hedatu.

Beste horrenbeste esan liteke bi liburuek komunean dituzten gainontzeko olerkiez ere. “Joseba Asensio”renean esaterako, KPeko aldaeretan “hilko zirenak” *gu* baten bidez adierazten dira: “hilgo **ginela**” (GP), “hilko **ginela**” (KP). Hala ere, HINMY bilduman (MZean bezala) fokua aldatzen da, kasu honetan, hilko den subjektua hirugarren pertsonakoa da: “hilgo **zela**” (MZ, HINMY 1992), “hilko **zitzaizkigula** lagunak” (HINMY 2013). Lexikoaren alorrean ere adibideak aurki daitezke: “**konprenitu**” (MZ, GP eta KP) eta “**ulertu**” (HINMY 1995 eta HINMY 2013).

“Lagun presoak” olerkiak, “XI. gutunak” bezala, bi izenburu ditu, eta bi liburuen izate beregainekin bat egiten dute: “Lagun Presoak” (MZ, GP eta KP) eta “Aberriaren astuna paparrean” (HINMY 1995, HINMY 2013). Bi bildumak bereizten dituzten aldaketa batzuk egon badauden arren (“Mundua/ **galeria zarratua** besterik ez balitz bezala” (MZ, GP, KP) → “mundua **galeria zarratua eta zeldak/** eta besterik ez balitz bezala” (HINMY 1995, 2013) edota “patioa **balitz** bezala” (MZ, GP, KP) → “patioa

²⁹ Hau ere kronologikoa izan liteke ondorengo argitalpen batean HINMY 2013ko ildoari jarraitzen baldin bazaio.

bailitzen” (HINMY 1995, HINMY 2013)) beste aldaketa batzuek norabide berari jarraitzen diote:

- “**beren**” (MZ, GP) → “**haien**” (HINMY 1995, KP, HINMY 2013). Hala ere, esan beharra dago KP liburuan, orokorrean hitz eginda, izenordain asko kentzeko joera dagoela.
- “uhaina **legez**” (MZ) → “uhaina **lez**” (GP, HINMY 1995, KP eta HINMY 2013).
- “oinaze **isildua**” (MZ) → “oinaze **isileztatua**” (GP, HINMY 1995, KP, HINMY 2013).

Horretaz gain, HINMY 2013an, “XI. gutuna” olerkian gertatzen zen bezala, beste aldaera berri batzuk ere egon badaude.

“Mikel Lopategi” olerkian aldaera batzuek bildumen banaketari jarraitzen diote eta beste batzuek irizpide kronologikoari:

- “bulto / guti ziren denera” (GP, KP) → “ez ziren / bulto handia denera” (HINMY 1995) → “denak ere ez ziren bulto handia” (HINMY 2013).
- “maindire zurian bildu eta abiatu zen / mina abrigo zahar gisa jantziak” (GP, HINMY 1995) → “maindire zurian bildu / eta mina abrigo zahar gisa jantzirik / abiatu zen” (KP) → “izara zurian bildu / eta mina abrigo zahar gisa jantzirik / abiatu zen” (HINMY 2013).

“Kirofanoa” izenekoan HINMYkoek baino ez daukate paratesturik: *Inquisitio, -onis I*. Izan ere, liburu honetan badago “Bainera” izeneko beste olerki bat, olerki honen bigarren partea litzatekeena eta *Inquisitio, -onis II* oharra daramana. Kasu honetan ere bi norabidetako aldaketak antzeman daitezke. Alde batetik, esaldien egiturei/hurrenkerei begiratuta, bilduma bakoitzak bere egitura propioak ditu. Baina, beste aldaketa batzuek ordena kronologikoari jarraitzen diote:

- “telefono **listin** sendoaz” (GP, HINMY 1995) → “telefono **aurkibide** sendoaz” (KP, HINMY 2015).

Gainera berriro ere, berrikuntza/aldaketa gehienak HINMY 2015ean daude:

- “zangoarteak / **erre** zizkieten” (GP, HINMY 1995, KP) → “zangoarteak /

kiskali zizkioten” (HINMY 2013).

- “eta **burua handitu** zitzaien, ezin zuen / arnasarik hartu” (GP, HINMY 1995, KP) → “**Burua puzturik** sentitzen zuen, arnasarik ere / hartu ezinik” (HINMY 2015).

“Egunen batean” olerkian ere antzeko aldaketak soma ditzakegu. Aldaketa batzuk liburu bakoitzeko argitalpenetan baino agertzen ez diren arren, beste aldaketa batzuk beste arrazoi batzuetatik dira:

- “– gorrotoaren kortesiaz – / diosala eginen diegu” (GP, KP) → “saludatuko diegu / (gorroto gortesiaz)” (HINMY 1995) → “(gorrotoaren gortesiaz) agur esango diegu” (HINMY 2013).
- “nahinorantza” (GP) → “nahinorantz” (HINMY 1995, KP, HINMY 2013).
- “eta den edaririk bizigarriena / edanen dugu” (GP, KP) → “eta den edaririk bizigarriena / edanen” (HINMY 1995) → “eta diren edaririk bizigarrienak / edanen” (HINMY 2013).

Olerki honekin bukatzeko, aipatu beharrekoa da HINMY 1995ean aditz laguntzaile gehienak elidituta dauden arren, gainontzeko argitalpen guztietan egon badaudela.

“Aspaldian utzitako zelda” olerkian gainontzeko poemen kontrara, ez dirudi bilduma bakoitzean poemak bakoitzak ibilbide autonomoa duenik. Izan ere, antzematen diren aldaketak HINMY 2013koak dira. Bestela, bertso-lerroen antolaketa alde batera utzita, GP, HINMY 1995 eta KP berdin-berdinak dira.

Orain artekoa laburbilduz, aldaketek norabide asko jarrai ditzaketan arren, badirudi orokorrean bilduma bakoitzean olerki berak ibilbide autonomoa duela esateko arrazoiak daudela.

4.2.1.2. *Hau da ene ondasun guzia*

KP eta HINMY artean egon litezkeen ezberdintasunak alde batera utzita oraingo honetan HDEOG disko liburuari erreparatuko diogu. Jakina denez, liburu hau antologia da eta beraz, beste liburu batzuetako olerkiak agertzen dira bertan. Galdera, ordea,

honakoa da: Zein argitalpenetatik hartu ziren poemak? Badirudi zenbait argitalpenetako aldaerak erabili direla batera. Nahiz eta gehienetan erabili dena GPeko edizioa izan dela ondorioztatu daitekeen. Izan ere, zortzi poematan berdin berdinak dira HDEOGean eta GPean: “Kaleko Kronika”, “III. Galdera”, “II. Galdera”, “Territorio librea”, “Besamotzaren Besoa”, “Oroimeneko Portua”, “Amodio Protopoema” eta “Hau da ene ondasun guztia”. Hala ere, beste bilduma batzuetako olerkiak ere erabili dira. “Ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik” esaterako MZetik hartu da, izan ere, gainontzeko argitalpen guztiak bestelakoak dira.

“XI. gutuna” eta “Bake Beltza” HINMY 1995 liburutik hartuak dira. Amaitzeko, ezin dugu jakin “Preso egon denaren gogoa” olerkia nondik hartu zuen. Izan ere, berdin-berdina da MZ, GP eta HINMY 1995 bildumetan.

4.2.1.3. Koldo Izagirreraren XX. mendeko poesia kaierak: Joseba Sarrionandia

Arestian esan bezala, antologia hau Sarrionandiak gauzatu ez duenez, ezin dugu jakin bertako olerkiek autorearen borondatea betetzen duten. Hori horrela, atal honetan lerro batzuk eskainiko dizkiogun arren, ez dugu ondorengo atalean beste lanekin batera aztertuko.

KPeko zazpi poema bildu zituen beste lan batzuekin batera Koldo Izagirrek. Horietarik lau beste argitalpen batzuen berdin-berdinak dira: “Palestinar Presoa” MZ bildumatik hartua izango litzateke; “Beste Mundua” KP liburutik; “Aspaldian utzitako zelda” HINMY 1995etik eta “XI. gutuna” HINMY 1995 edo HDEOG liburutik.

Gainontzeko hiru poemetan ordea, beste bildumetan ez dauden aldaerak aurki daitezke. Aipatutako hiru olerki horietan jarriko dugu arreta.

“Preso egon denaren gogoa” olerkian esate baterako bi hitz aldatzen dira. Halere, poemaren esanahia bera da.

MZ/ GP /HINMY 1995 /HDEOG
PRESO EGON DENAREN GOGOIA

Preso egon denaren gogoia
Gartzelara itzultzen da beti.
Kalean juje, fiskal eta
Abokatuekin gurutzatzen da,
Eta poliziek, identifikatu ez arren,
Beste inori baino **gehiago**
Begiratzen diote, bere pausua
Sosegatua ez delako
Edo sosegatuegia delako.
Bere bihotz barruan
Betirako kondenatu bat **dago**.

XXPK
PRESO EGON DENAREN GOGOIA

Preso egon denaren gogoia
Kartzelara itzultzen da beti.
Kalean juje, fiskal eta
abokatuekin gurutzatzen da,
eta poliziek, identifikatu ez arren,
beste inori baino **luzeago**
begiratzen diote, bere pausoa
sosegatua ez delako
Edo sosegatuegia delako.
Bihotz barruan
Betirako kondenatu bat **darama**.

Lehenengo aldaeraren kasuan, bi hitzek testuinguru honetan esanahi bera dute. Hala ere, lehenengo aldaerak, fonetismoen aldetik, jolas gehiago ematen du, i bokalaren aliterazioa sortzen delako. Bigarren hitzaren kasuan ere ez dago esanahiaren aldetik aldaketa nabarmenik, nahiz eta bigarren aditzak mugimendua adierazi lehenengoak ez bezala.

“Gose grebako hogeigarren egunean” olerkian ere badaude beste aldaeretan ageri ez diren aldaketak. Hiru dira: lehenik eta behin, hurbiltze adlatiboa aldatu egin du: eskolar**untz** (GP) →eskolar**antz** (XXPK). Beste bi aldaketek pertsonarekin dute zerikusia GPeko edizioan lehen pertsona agertzen den kasuetan, Koldo Izagirre pertsona hori saihesten saiatzen da:

- “Beste leihoetan lagunak susmatzen ditut / neu bezala oinazean euriari begira” (GP) → “Beste leihoetan lagunak norbera bezala / oinazean euriari begira” (XXPK).
- “Begiak / lausotzen **zaizkit** (GP) → begiak / lausotzen **zaizkigu**” (XXPK).

Aldaketak dituen azken olerkia “Lau bost sei harresi” izenekoa da. Adibide honetan gertatzen dena bitxia da. Izan ere, badirudi zenbait argitalpenetako aldaerak aurki daitezkeela batera. Hiru dira XXPK bilduma baino lehenago poema honen argitalpenak: *Susa* aldizkarian, MZean eta GPean .Hala ere, Koldo Izagirrek ez du olerkiaren aldaera bat bakarrik erabili:

- XXPK liburuan “**bihotz bata**” agertzen da, aurreko argitalpenetan *Susan* eta

MZean agertzen da forma hori, GPean “bihotz bat” agertzen da.

- XXPK bilduman “**euria** **zorionari**” agertzen da, aurreko argitalpenetan MZean eta GPean agertzen da forma hori, *Susan* “zorionak euriari” agertzen da.
- XXPK bilduman “**hatzeman**” agertzen da, aurreko argitalpenetan *Susan* eta MZean agertzen da, GPean berriz “atzeman”.
- XXPK bilduman “**zer egin dezakegu? Paseatu,**” agertzen da, aurreko argitalpenen artean GPean baino ez da hori ageri. Izan ere, beste bietan “zer egin dezakegu? Paseatu egin gaitezke” agertzen da.

Aldaera hauek ikusita ez dirudi Koldo Izagirrek argitalpen bakar bat hartu eta bere antologiarako aldaketarik gabe erabili zuenik.

4.2.2. HIZKERAN ANTZEMAN DAITEZKEEN ALDAKETAK

Jakina denez, idazteko orduan Sarrionandiak ez zion Bizkaiko eredu klasikoari jarraitu, Mogeli alegia. Horren ordez, euskalki guztietatik edan zuen. *Hitzen Ondoeza* liburuan “euskalkiak” sarreran honakoa idatzi zuen autore iurretarrak: “Euskalki bakoitzak bere estetika du, eta euskara batuak ez du euskalki bakoitzaren estilo hori jaso oraindik. Euskalkiek euskara batua ikasi duten moduan, euskara batuak euskalkiak ikasi behar ditu”(Sarrionandia 1997: 309). Hori da hain zuzen ere idazleak egiten duena.

Asko izan dira Sarrionandiaren idazkerari buruz idatzi duten adituak: Gerardo Markuletak esaterako (1990a: 3) Sarrionandiaren hizkeraren oinarrian “hitz bilatzaile baten begiramenaz eginiko lexiko hautaketa, sintaxi garbi eta zaindua eta zenbait tematxo ortografiko” daudela dio.

Azkorbebeitiak (1998: 118) bestalde, lexikoaren hautaketari erreparatuz, Sarrionandiak fintasunera eta leuntasunera jo izan duela dio (Kortazar 1982a: 3) eta baita poetikotasunera ere, izan ere aldaera poetikoena da beti aukeratzen duena (*ipar* eta *ifar* artean bigarrena) (E. Jimenez 1997). Gainera, aditu beraren aburuz Pott bandakoek egindako ahozkoaren errebindikazioarekin bat egiten du Sarrionandiak eta euskalkien errebindikazioa egiten. Azkorbebeitiaren ustez, bi horiek izango lirateke idazle iurretarraren hizkeraren ardatz (1998: 118). Sarrionandiaren lanetan beti izan da nabarmena bazterretako hitzak erabiltzeko joera eta joera horren azpian exotismoaren bilaketa baino gehiago euskara batuari aurre egiteko nahia legoke (ibid.: 118).

Azkorbebeitiak (ibid.: 119) ondorengo hitzak erabilia laburbiltzen du idazle iurretarraren idazketa estiloa:

Sarrionandiaren hizkera xarmak ez ezik errebindikazioek ere zizelatu dela esan genezake: hizkera horren moldaketan berebiziko pisua du euskalkien errebindikazioak (euskara batuari erresistentzia eginez) eta baita idazleak bere lanerako behar duen autonomiaren errebindikazioak ere, horrek arauetikiko disidentzia dakarrela ere. Idazleak berea duen lan barrutian – bere 'unibertsoan' – nahi bezala mintzatzeko eskubidearen aldarrikapena da Sarrionandiaren bai hizkeran, bai poetikaren oinarrian.

Azkorbebeitiaren ildoari jarraituz, Jimenezek (1997) azaldu zuenez, idazle iurretarrak hizkuntzaren gaineko teoria dauka, eta horretan oinarritzen da bere hizkera eraikitzeko. Aurre egiten dio edozein joera arauemaileri, hitzak nahieran erabiltzeko eta sortzeko askatasuna aldarrikatzen du.

Lourdes Otaegiren ustetan (1998: 18) Sarrionandiaren idazkerak izaera nabarmenki literarioa du, eta aukera guztien arabera ikertua eta interpretatua izan behar dira erabiltzen dituen hitzak.

Bestalde, Kortazarrek (1997: 46) dioenez, Sarrionandiaren idazkeraren jatorrian euskal tradizio klasikoarekin lotu nahia eta Jon Miranderen hizkuntza poetikoaren hausnarketa eta sakontze saioa dago. Horretaz gain, modernismoak sorturiko hizkera bat dela eta Zuberoako herri kantek Sarrionandiaren hizkera poetikoaren tonua osatzen dutela dio (ibid.: 73). Hiru dira Kortazarrek idazle iurretarraren hizkeran bereizten dituen alderdiak:

Lehenik eta behin, hiztegia; fonetika eta musikalitatearen arabera hautatua. Bigarrenik, zehaztasuna joskera mailan, izan ere, esaldi nagusi baten adiera matizatzen du askotan hurrengo lerroko esaldian. Eta, hirugarrenik, maiz, esaldi baten errepikapena erabiltzen du, horrela olerkiari tonu lasaia emanez.

Guk, lan honetan, ez diogu Sarrionandiaren hizkerari erreparatuko, denbora zehar antzeman daitezkeen aldaketan zentratuko gara.

Adituek esandakoari dagokionez, kontuan hartzekoa da laurogeita hamarreko hamarkadako baieztapenak direla, eta aipatzen diren liburuek edizio berriak izan dituztela geroztik. KPeko edizioak eta HINMYren 2013koak gaurko grafiara egokitu zituen autoreak. Euskalkien errebindikazioarekin jarraitzen badu ere, azken edizioetan

joera arauemaileari men egin dio (“oroigarriak” GP, HINMY 1995 → “oroigarriak” KP, HINMY 2013), aldaera poetiko-exotikoa edota hizkera familiarrena alde batera utzita (“ifarraldean” GP → “iparraldean” KP “Afrika Iparraldean”).

Ondorengo lerroetan aztertzen ari garen poemetan ikus daitezkeen aldaketei erreparatuko diegu.

Hasteko, argi dago urteek aurrera egin ahala gero eta jarrera “garbizaleagoa” duela idazle iurretarrak, edo bestela esanda, hizkera estandar zaindura hurbiltzen dela lexikoari dagokionez; izan ere, erdal maileguak euskarazko ordainengatik ordezkatzeko dituzten, lehengo maileguez aurrekari literario garrantzitsuak izan arren, Etxepare, Mirande, Aresti edota Atxagaren poemetan. Ondorengo adibideek hori erakusten dute:

- “Juje” (MZ, GP, HINMY 1995, HDEOG, KP) → “epaile” (HINMY 2013) (“Preso egon denaren gogo”).
- “Ziudadera” (MZ) → “hirira” (GP, KP) (“Hau da udaberria”).
- “Inmortal” (GP) → “hilezina” (KP) (“Misterio Fiskala”).
- “Bentiladorea” (GP) → “haizegailua” (KP) (“Itzulpena III”).
- “Listin” (GP, HINMY 1995) → “telefono aurkibidea” (KP, HINMY 2013) (“Kirofanoa”).
- “Eternal” (GP, HINMY 1995, KP) → “betiereko” (HINMY 2013) (“Aspaldian utzitako zelda”).
- “Baso” (IADEP 1985, GP, IADEP 1993) → “edalontzia” (IADEP 2006, KP) (“Afrika Iparraldean”).
- “seinale” (MZ) → “aieru” (GP) → “susmo” (KP) (“Erretratua”).
- “pasilo” (MZ, GP) → “korridore” (KP) (“Bihotz Iluna”)³⁰.

Horretaz gain, euskara batura hurbiltzeko joera ere ikus daiteke, euskalkietako hitzak eta ezaugarriak orokorragoak direnez ordezkaturik:

- “Burruka” (MZ, GP, HINMY 1995) → “borroka” (KP, HINMY 2013) (“Joseba Asensio”).
- “Mosua” (GP, HDEOG) → “musua” (KP) (“Besamotzaren besoa”).
- “Xoriak” (GP) → “txoriak” (KP) (“Hau da negua”).

³⁰ Kasu honetan biak erdal maileguak izan arren, Hiztegi batuan zehazten denez, forma hobetsia “korridore” da.

- “Ximinia” (MZ, GP) → “tximinia” (KP) (“Hau da udagoiena”).
- “mini” (GP) → “ipini” (KP) (“Krabelin gorriak arma kanoietan”).
- “Garaun” (GP, HDEOG) → “ale” (KP) (“Besamotzaren besoa”).
- “Ainhelako” (GP) → “‘Aihene’ bezalako” (KP) (“Gauetz lo egin ezinik”).
- “haraindian” (GP) → “bestaldean” (KP) (“Borrokan hildako lagunak”).
- hurbiltze adlatiboa: -runtz→rantz: “eskolaruntz” (GP)→ “eskolarantz” (KP) (“Gose grebako hogeigarren egunean”).
-rantza → rantz: “heriotzerantza” (GP) →“heriotzerantz” (KP) (“Erdimina”).
- “daramazkiena” (IADEP 1985, 1993, 2006) → “daramatzana” (GP, KP) (“Afrika Iparraldean”).
- “ainendi” (IADEP, GP) → “nahi nuke” (KP) (“Afrika Iparraldean”).
- “seinala egiguzue” (MZ) → “seinala gaitzazue” (HINMY 1995, HINMY 2013, HDEOG) (“Defenda ezazue zuen bake beltza”).

Hala ere, kontrako adibideren bat ere aurki daiteke tarteka:

- “egon” (MZ) → “egondu” (GP, KP) (“Kartzelako Goiza”).

Badira edizio guztietan aurki daitezkeen euskalkietako hainbat hitz, euskara batuan onartuak dauden arren, bazterretan baizik erabiltzen ez direnak:

•**Izkiriatu.** *Orotariko Euskal Hiztegiak*³¹ zehazten duenez, XVII. mendetik aurrera lekukotzen da Iparraldeko testuetan eta XVIII. mende bukaeran testu gipuzkoarretan. Bizkaitarren artean Iturzaetak bakarrik erabili zuen. Hitz honen erabilera XX. mendean nabarmen gutxitu zen (erdialdeko idazleen artean batez ere) *idatzi* neologismoaren mesedetan.

•**Bentzutu.** OEHn azaltzen denez, erabilera orokorreko hitza da zubereran izan ezik. Bere erabilera nabarmen murriztu zen XX. mendean.

•**Eritu.** OEHn adierazten denez, Iparraldeko tradizio idatzian lekukotzen da Leizarragaz geroztik. Hegoaldean ere badira lekukotasunak: Mendiburu, Elkanoko Lizarraga, Iturriaga, Mokoroa, Irigarai eta B. Ayerberenak.

31 Aurrerantzean OEH.

•**Gerla.** OEHn agertzen denez, erabilera orokorrekoa da Iparraldean. Hegoaldean, egile moderno batzuetan baino ez da ageri.

•**Ukan.** OEHn aipatzen denez, Etxeparez geroztik lekukotua autore behe-nafarretan, erronkarikoetan eta zuberokoetan. XIX. mendeaz geroztik Lapurdiko autoreetan ere aurkitu daiteke eta XX. mendearen bigarren erdialdean erdialdeko autoreetan ere.

• **Erdu.** OEHn zehazten denez, Bizkaiko tradizio idatziaren berezkoa da. XVIII. mendean dagoeneko lekukotzen da.

•**Leitu.** OEHn hitz honen lekukotasunen berri ematen da. Bizkaian Arrigorriagan, Nafarroan Burundan eta Etxarri-Aranatzen, Gipuzkoan Bergaran dokumentatuta egoteaz gain, goi-nafarreran ere adibideak aurki daitezke.

Euskara batura hurbiltzeko nolabaiteko joera egon badagoen arren, ezin ukatuzkoa da Sarrionandiaren idazkeran badirela euskalki askotako ezaugarriak. Ezaugarriok euskara baturako onartuak egon arren, bazterreko erabilera izan ohi dute eta eremu anitzetako hitzak/ezaugarriak erabiltzean ukitu berezia ematen diote idazle iurretarraren idazkera moldeari.

4.2.3. IBILBIDEAN ZEHAR BURUTUTAKO ALDAKETAK

Hizkeran egondako aldaketez gain, badira *corpusean* zehar beste moldaketa batzuk ere, aurreko aldaketek ez bezala, zenbait kasutan olerkien irakurketan eta interpretazioan eragina izan dezaketenak. Horiek dira, hain zuzen ere, hurrengo orrialdeetan aztertuko ditugunak: gehiketak, posesiboak ezabatzeko joera, singularretik pluralera emandako aldaketak, indefinitutik definitura aldatzea, baieztapenen kuestionamendua, denboran aldaketa, pertsona aldaketak, zehar estiloa, esaldien berregituraketa eta sinonimoak.

4.2.3.1. Gehiketak

Gehiketa izango litzateke aldaketarik nabarmenena eta gehien erabiltzen dena. Askotan, bertso lerroak eta esaldiak gehitzen dira (gehienetan poemaren amaieran). Olerki askotan, gehiketak begi bistakoak diren arren, aipagarria da IABB liburuan

agertzen diren lau poemak askoz ere luzeagoak direla ondorengo bertsioetan (“91³²” izeneko poema bikoiztu egiten da ondorengo argitalpenean). Gainera, beste kasu batzuetan ahapaldi osoak dira gehitzen direnak, horren adibide izango litzateke gorago aztertutako “XI. gutuna” olerkia (ikus 50-51 orrialdeak).

Kasu gehienetan gehitzearen ondorioz, irudi berriak sortzen dira edota zehaztasunera jotzeko joera dago. Ondorengo adibide bat da:

MZ
OROITZEN ZAITUDANEAN

Oroitzen zaitudanean, ama,
sukaldean egoten zara
mahaia bostentzat atondu,
aulkian eseri eta
leihotik begira
kristala lausotzen duen lurrina kendu gabe
eta ni –badakit–
zeure begien hondoan nagoela

GP
PRESOEN AMAK

Oroitzen zaitudanean, ama,
sukaldean egoten zara
mahaia bostentzat atondu,
aulkian eseri eta leihotik
kristala lausotzen duen lurrina
ezabatu gabe neguari begira
eta ni – badakit –
zure begien hondoan nagoela.

**Patioan solasean eta lagun batek:
– Itolarria senditzen diat ...**

Zer den amaren begian egotea!

KP
PRESOEN AMAK

Oroitzen zaitudanean,
ama,
sukaldean egoten zara
mahaia bostentzat atondu,
aulkian eseri
eta leihotik,
kristala lausotzen duen lurrina ezabatu gabe,
neguari begira
eta ni
—badakit—
zeure begien hondoan nagoela.

**Patioan solasean eta lagun batek:
‘Itolarria sentitzen diat...’**

Zer den amaren begian egotea!

32 KPean “Urte giroak ene begietan”.

Askotan adjektiboak gehitzen dira zehaztasuna lortzeko helburuz ari balitz bezala. Ondorengoak dira horren adibide:

- “Ez da komunikatu bat” (IABB)→ “ez zen izkribu politiko arriskutsua” (GP, KP) (“Esperantza”).
- “Ez pornografia ere” (IABB)→ “ez errebista pornografiako eskuz dastatua” (GP, KP) (“Esperantza”).
- “Zein da auto blindatuko jende hori?” (MZ) → “nortzuk dira auto blindatuko gizon uniformatuok?” (GP, HDEOG, KP) (“Kronika”).
- “Hargin enanoek / errautsezko katedral bat eraikiko dute” (MZ) → “hargin nanoek / zeure gorputzetik erauzitako adreiluz/ errautsezko katedrala eraikiko dute” (GP, KP) (“Tortura egunak”)
- “Eta definizio hori onartu da egunok arte” (MZ, GP) → “eta azalpen edo identifikazio hori onartua da” (KP) (“Bakardade gogoeta”).
- “Alemanezko hitz ikaragarriak” (GP, KP) → “alemanezko hitz luze eta ikaragarriak” (HINMY 1995, HDEOG, HINMY 2013) (“XI. gutuna”).
- “zirrikituetarik begiratu” (IABB) → “zirrikitu herdoildutik so egin ditugu” (MZ, GP, KP) (“Epaiketarako Bidaia”).

Kasu honetan adjektiboak gehituz zehaztasunera doa idazle iurretarra. Gainera, adjektiboak pilatzearen ondorioz irudiak sortzen ditu.

Aipatutakoez gain, badago beste gehikuntza mota bat, aipuen gehiketa, alegia. IABBean ez dago aipurik eta urteek aurrera egin ahala gero eta ugariagoak dira. Aurrerago arreta gehiagoz erreparatuko diogu gehiketa mota honi.

Kontuan hartzekoa da olerkietan ez ezik, ipuinetan ere badagoela gehikuntzarako joera. Ayerberen (2016: 104) hitzak zuzenean hartuz: “liburuetako jatorrizko bertsioekin alderatuta, nabaria da eraldaketa nagusiak gehiketa bidezkoak izan zirela, hots, jatorrizko testua oinarri izanik hainbat testu atal erantsi direla berridazketan”.

4.2.3.2. Posesiboak ezabatzeko joera

Zenbait kasutan pertsona izenordainak desagerten dira. “Beste Mundua” olerkian adibidez, GP ediziotik KPekora ezabatu egin dira:

GP	KP
[...]	[...]
Ene bila helduko dira funtzionarioak beren giltza-porra eta morroi begiekin, zeldan ez naute aurkituko, [...]	Bila helduko direnean funtzionarioak giltza-porrak eskuan eta morroi begiak aurpegian, ez naute zeldan aurkituko, [...]

Adibide honetan *ni* eta *besteen* arteko oposaketa nabarmenagoa/argiagoa da GPeko bertsoan hurrengoan baino. Pertsona izenordainen bidez pertsonaien arteko kontrastea gehiago markatzen da. Aipatutako aldaketa oso emankorra da:

- “Gure poesiak ez du inor ilusioz betetzen/ **bere desirak** ekintza bihurtzeraino” (GP) → “Gure poesiak ez du inor ilusioz betetzen/ **desirak** ekintza bihurtzeraino” (KP) (“Protopoetika”).
- “Hilen gauza galduen buruz **bere egiak** klik klik / klik kokteleko izotza bezala eraginez” (GP) → “hildakoen gauza galduen buruz **egiak** klik klik / klik kokteleko izotza bezala eraginez” (KP) (“Borrokan hildako lagunak”).
- “Hil orduko **bere iloba** bisitatu nahi duen” (MZ, GP) → “Hil orduko **iloba** bisitatu nahi duen amamarekin” (KP) (“Elurrezko hegaztia da gure bihotza, Eorann”).
- “**Bere gelaren** mugatan, gauez” (MZ, GP) → “**ziegaren** esparruan gauez” (KP) (“Bihotz iluna”).
- “**Beren azienden** eta **beren hirien**” (GP) → “sukalde zokoetan **azienden** eta **hirien**” (KP) (“Sortaldeko orratzak”).
- “Harmen kanoiak **beren** gorputzen aurka” (MZ) → “Harmen kanoiak **haien** gorputzen aurka” (GP) → “Armen kanoiak **euren** gorputzen aurka” (KP) (“Armen kanoiak”).
- “Burrukan ari dira hondartzan gerlariak / **beren herri onagatik** odola isuriaz” (MZ) → “burrukan ari dira gerlariak, / odola isuriaz, **beren herriagatik**” (GP) → “borrokan ari dira oraindik gerlariak, / odola isuriz, / **herriagatik**, edo

aginduagatik” (KP) (“Gerla hondartzan”).

Adibideetan ikus daitekeenez, aurreko argitalpenetan posesiboak egon badauden arren, KPeko edizioan hauek ezabatzeko joera dago. Aurrekoetan nolabait markatzen zena despertsonalizatzen da. Aldaketa GPetik KPera gertatu da.

Halere, aldaketa hau bestela ere interpreta daiteke: hizkera jatorragoaren alde alegia. “Bere” posesiboaren erabilera kasu horietan guztietan ez da jatortzat ematen gaur egungo estandarrean, erderetatik euskarari erantsitako joera morfosintaktikotzat ematen da.

Amaitzeko, esan beharra dago, azken adibidea bestelakoa dela. Hiru aldaeretan pluraleko hirugarren pertsonaren izenordaina erabiltzen den arren, kasu guztietan izenordain ezberdina da.

4.2.3.3. Singularretik pluralera

Edizio edo bildumetan aurkitu daitekeen beste aldaketa bat singularrak plural bihurtzea da:

- “Horma iragan ezina” (MZ) → “horma iragan ezin**ak**” (GP, KP) (“Bihotz iluna”).
- “Han aurrean pasatutakoen ilea” (HINMY 1995) → “handik lehenago pasatutakoen ile**ak**” (HINMY 2013) (“Bainera”).
- “Pasarte hau, adibidez: **gure laguna**/ estimatzen genuenagatik **hilgo zela**” (MZ) → “pasarte hau adibidez: **laguna** estimatzen / genuenagatik **hilgo zela**” (HINMY 1995) → “pasarte hau, adibidez, estimatzen genuenagatik/ **hilgo ginela**” (GP) → “pasarte hau adibidez: estimatzen genuenagatik / hilko ginela” (KP) → “pasarte hau / adibidez: estimatzen genuenagatik / hilko **zitzaizkigula lagunak**” (HINMY 2013) (“Joseba Asensio”).
- “Eta den edaririk bizigarriena/ edanen dugu” (GP, HINMY 1995, KP) → “eta diren edaririk bizigarrien**ak** / edanen” (HINMY 2013) (“Egunen batean”).

Adibide hauetan ikus daitekeenez, pluralaren bidez larritasun sentipena areagotzen da. Kontuan hartzekoa da normalean pluralera igarotzeko aukeratu diren

pasarteak gogorrek direla, eta inpaktua areagotzeko helburua izan dezakeela pluralaren bidezko anplifikazioak. Aurrekoetan aldiz, “Muraila, ilea, laguna, edari biziena” singularra diren arren, sinekdoke bidez bakarra izendatu arren, askori buruz ari da poeta jadanik. Sinekdokeak indar literarioa du, pluralak berriz inpaktu zuzenagoa hizkera estandarrean.

4.2.3.4. Indefinitutik definitura

Beste aldaketak mota bat indefinitua definitura aldatzea da. Ondorengoak dira aipatutako aldaketaren zenbait adibide:

- “Esperantza altzairuzko **orratz bat besterik ez da**” (MZ) → “esperantza altzairuzko **orratza da**” (GP, KP) (“Bihotz iluna”).
- “Bihotz iluneko **tigre baten** antza” (MZ) → “bihotz iluneko **tigrearen** antza” (GP, KP) (“Bihotz iluna”).
- “Leihoaren zirrikitu **batetatik**” (MZ) → “leiho **zirrikitutik**” (GP, KP, HDEOG) (“III. galdera”).
- “Zintzilikatu eta **hari bat** / luzatuaz jaisten da” (MZ) → “zintzilikatu eta **haria** luzatzen jeisten da” (GP, KP, HDEOG) (“II. Galdera”).
- “Gutun **bat** berehala igortzeko amorantearen/ promesa ez da batere konplitu” (MZ) → “gutuna berehala igortzeko / amorante promesa konplitu gabea” (GP, KP) (“Hau da negua”).
- “Puerto de santa maria gorrira itzultzeko” (“IABB”) → “Puerto de Santa Maria / beti gorri **batetara** itzultzeko” (MZ) → “El Puerto de Santa Maria / beti gorrira itzultzeko” (GP, KP) (“Epaiketarako Bidaia”).

Adibideetan ikus daitekeenez, indefinitua definitura pasatzeko joera dago. Aurreko argitalpenetan indefinitua erabili arren, KPen definituan agertzen da. Zehaztasunera hurbiltzeko baliabide bezala uler daiteke eta irudiak sortzen ere lagun dezake. Halere, kasu honetan beharrezkoa da gogoratzea “bat” Izen Sintagmetan gehiegi sartzea gaztelaniaren eragintzat jotzen dela. *Galdezkan* zehazten denez, “bat” Izen Sintagma zuzena da soilik ondorengo erabileretan: elementu ezezaguna adierazteko; kontakizun-hasieran, pertsonaia aurkezteko; definizioetan/deskribapenetan; izen ezagun baten atzetik, indartzeko; etenik gabeko ekintza adierazteko; adjektiboaren atzetik/

aurretik; bat egin duten kontzeptuen ordez, erakuslea *ondotik* duela; gauza biren (edo gehiagoren) arteko identitatea adierazteko; *elkarrekin* hitzaren ordez; *jakin*, *zehatz* hitzen ordez eta *zerbait* hitzaren ordez (Ikus IVAP *Galdezka*, 60-64).

4.2.3.5. Baieztapenen kuestionamendua

Sarrionandiak hainbatetan zalantzarako joera erakusten du, aurreko aldaeretan aurkitu daitezkeen zenbait baieztapen galdera edota eztabaidagai bihurtzen ditu:

- “denak ala inor ez” (GP, KP, HINMY 1995) → “denak ala inor ez?” (HINMY 2013) (“Aspaldian utzitako zelda”).
- “baina zer axola zaio zigor zeldetan / higatzen denari urtaroen aldaketa” (IABB) → “baina zer axola zaio zigor zeldetan / dagoenari urtaroen aldaketa?” (MZ, GP, KP) (“Urte giroak ene begietan”).
- “baina zer egiten duzu hor maitea / zergatik ezabatzen zara ni hurreratzean” (IABB) → “baina zer egiten duzu hor, maitea, zergatik desegiten zara ni hurrertzean?” (MZ) → “eta zer egiten duzu hor, maitea, / eta zergatik desegiten zara / ni hurreratzean?” (GP, KP) (“IV. galdera”).

Azkorbebeitiak (1998: 107-108) azaltzen duenez, egia absoluturik ez dagoelarik, egia dialektikoa delarik, poesia dialektikoak ere kontradikzioekin eta zentzu kontraesankorrekin egin behar du lan, eta hori da, hain zuzen, Sarrionandiak aldaketa hauek eginez bilatzen duena.

Gainera, ez da ahaztu behar Sarrionandiaren lanak testu irekiak direla, irakurlearen parte-hartzeari erabat irekiak (Azkorbebeitia 1998: 99). Irakurlearen parte-hartze inplizitua bultzatzeko baliabide bat galderak erabiltzea da. Aitzpea Azkorbebeitiak (ibid.: 105) dioenez, HINMYn funtsezko betekizuna betetzen dute irakurleei zuzendutako galderek. Izan ere, pentsamendua bezala, poesia ere elkarriketatzen ulertzen da. Hori horrela, ez da harritzekoa Bertolt Brecht-en baieztapen famatua HINMYn galdera bihurtuta ikustea.

Bestalde, gero eta galdera gehiago egotea idazle-irakurle harremanarekin ere lotuta egon liteke. Jakina denez, Sarrionandiak irakurle parte-hartzailea³³ bilatzen du, eta

33 Ildo honetan ulertu behar da esaterako 2010. urtean kaleratutako *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako*.

horretarako beste baliabide batzuen artean (irakurketa aniztasuna, paradoxak, ironia edota indeterminazioa eta hutsuneak) galderez ere baliatzen da. Beraz, adibideak ikusita esango genuke gero eta irakurle aktiboagoa bilatzen duela.

4.2.3.6. Denboraren aldaketa

Argitalpenetan zehar aurkitu daitekeen beste aldaketa bat denbora da. Batzuetan olerki osoko denbora aldatzen bada ere, beste batzuetan pasarte jakin batekoa besterik ez:

- “Lanbroak goroldioa usteltzen **du** / eta ugaltzen **du**” (GP) → “lanbroak goroldioa usteltzen **zuen** / eta ugaltzen **zuen**” (KP) (“Sortaldeko orratzak”).
- “Baina esperantza zer **den** / galdetzen **dizut**” (IABB) → “Baina esperantza zer da? / galdetzen **genion**” (GP, KP) (“Esperantza”).
- “Areago, Fernando Pessoa izan naiteke, / pertsona hori Alberto Caeiro **zen** legez, / Eta itzalen istorioa konda **nezake:**” (*Susa*, MZ) → “Areago, Fernando Pessoa izan naiteke / pertsona Alberto Caeiro **zen** lez./ Eta itzalen elezaharra konda **dezaket:**” (KP) → “Areago, Fernando Pessoa izan naiteke / Edozein pertsona Alberto Caeiro **den** lez. / Eta itzalen elezaharra konda **dezaket**” (KP) (“Zuziak eta Aizkorak”).
- “Bizitza luze bat? Ez, ez dut **nahi**” (IADEP 1985) → “Bizitza luze bat? Ez, ez **nuke** nahi” (IADEP 1993, GP, KP) (“Afrika Iparraldean”).

Lehenengo bi adibideetan poema osoko denbora aldatu da. Lehenengo adibidean, “Sortaldeko orratzak” izenekoan, egileak denboraren astuntasunaz, moteltasunaz dihardu. GPeko edizioan orainaldian eta KPekoan iraganaldian egoteak garai jakin batean motel igarotzen zen denbora jadanik motel igarotzen ez dela pentsatzera garamatza.

Bigarren adibidean, ordea, kartzelako gertakari bat kontatzen duenez pentsatzekoa da urteen poderioz oroitzapenekiko distantzia areagotu dela. Izan ere, denbora ez da alferrik iragaten.

Denbora orainalditik iraganera pasatzean, gertakariak urruntzen ditu eta orainaldian aurkezten dituen “eszenak” deskribatzen haiek “narrazio” bihurtzera jotzen

du. Lehen aroan beti deskripzioek eta “eszena” geldiek dute nagusitasuna, bere gaitasun pintatzailea aprobetxatzen dute: estatismoa eta gelditasuna faboratzen. Iraganean, ordea, narrazio izatera pasatzen dira gertaerok eta denboraren dinamismoaren menpe jartzen dira. Joera hori Sarrionandiaren ipuinetan ere antzeman daiteke.

Hirugarren adibidean, ez da poema osoaren denbora aldatu, pasarte bakarra aldatu da. Gainera, kasu honetan iraganetik orainaldira aldatu da. Kontuan hartzekoa da, halaber, pasarte jakin honek ez duela egilearen izaera/nortasun/egoerarekin inolako harremanik. Horretaz gain, Fernando Pessoa eta Alberto Caeiroren arteko harremanaz ari denez eta Caeiro Pessoaeren heteronimoa dela aintzat hartuta, baieztapen hori orainaldira eramateak ez du olerkiaren mamian aldaketarik suposatzen. Aurreko denbora aldaketekin alderatuta, kasu hau bestelakoa da, denbora aldaketa hipotetikotik orainaldiko ahalerara gertatzen da. Honen bidez konkretutasuna, zehaztasuna... ematen zaio olerkiari. Aurreko aldaketetan ikusi dugun joera bera alegia.

Azken adibidean aldaketa orainalditik hipotetikora aldatu da. Halere, aurreko adibidean bezala, aldaketa ez da olerki osoan zehar gauzatu, pasarte jakin batean baizik. Aldaketa honek ere zehaztasuna du helburu.

4.2.3.7. Pertsona aldaketak

Sarrionandiaren aldaeretan aurki daitekeen beste aldaketa mota bat pertsonen aldaketa da. Ondorengoak dira adibidea batzuk:

•“Erromara ekarri **zinduten**, esklabua” (*Susa*, MZ) → “Erromara ekarri **hinduten**” (GP, KP) (“Esklavo erramintaria”).

Lehenengo adibide honetan erregistroa da aldatzen dena, zukatik hikara. Aldaketa honen bitartez esklavo errementariarekiko hurbilpena areagotzen da, pertsona horrekiko afinitatea, kidetasuna, enpatia. Jakak (2012) Sarrionandiak itzultzeko aukeratzen dituen autore eta tradizioen bidez herri zapalduerari nolabaiteko errekonozimendua eta solidaritatea adierazten diela uste du. Aldaketa hau ildo horretan kokatu liteke, esklaboari egindako konplizitate keinu gisa.

- “Baina esperantza zer den / galdetzen **dizut**” (IABB) → “Baina esperantza zer da? / galdetzen **genion**” (GP) (“Esperantza”).

- “Malkorik isurtzeko lotsatu dira **ene begiak**” (*Marinelak*) → “**Ene begiek** ez dute malko isurtzeko gogorik” (MZ, HDEOG) → “**Gure begiek** ez dute malko isurtzeko gogorik” (GP, KP) (“Gure begiek ez dute malko isurtzeko gogorik”).

Lehenengo adibideari dagokionez, olerkian helarazten zaigun ahotsa aldatzen da (lehenengo pertsona singularretik pluralera) baita hartzailearen pertsona ere. Poema osoan zehar mantentzen da pertsona aldaketa.

Bigarren adibideko aldaketa ere poema osoan zehar mantentzen da. Gutasunaren erabilera *ni*-ari uko egiteko saiakera gisa ere uler liteke. Izan ere, Aitzpea Azkorbebeitiak (2002) dioenez, Pott Bandan bazegoen modernotasunari lotutako irizpide bat, eta horri jarraiki debekatuta zegoen lehenengo pertsonan mintzatzea (Rodriguez 2013a: 142). Arrazoi biografikoek ere eraman ahal izan dute *ni* horri uko egitera. Beraz, autodebeku bat genuke *ni*-aren ausentzia. Ayerberen (2016: 114) ustetan, MZetik GPera egondako eraldaketarik deigarrienetarikoa da “Gure begiek ez dute malko isurtzeko gogorik” olerkiarena. Izan ere, aipatutako aldaketaren bitartez espetxeko gainontzeko presoekiko kontzientzia sozial bat adierazten da.

Horretaz gain, Iratxe Retolazak (2014) kartzelako euskal literaturari buruzko hitzoste batean, kartzelako testuinguruan idatzitako olerkietan, nitasunak testuinguru sozial, historiko eta politikoa gorpuzten duela dio, ez subjektu liriko hutsa. Autore beraren esanetan, Sarrionandiaren KP bilduman ere hori da joera nagusia: olerki-bildumak kolektibitate bati egiten dio dei. Subjektuak kolektibo izateko gogoia eta asmoa baditu ere, kritikak, ordea, subjektu liriko, desideologizatu eta deskontestualizatu gisa interpretatu du (Retolaza 2014: 149). Iratxe Retolazaren hitzak zuzenean hartuz (ibid.: 149): “hitz poetikoak banakako subjektuaren eta haren banakako kezken adierazpen gisa interpretatzen dira, eta praktika poetiko horiek jarrera kolektibo batera eramateko duten ahalmena ukatu”.

- “Pasarte hau, adibidez: **gure laguna** / estimatzen genuenagatik **hilgo zela**” (MZ) → “pasarte hau adibidez: **laguna** estimatzen / genuenagatik **hilgo zela**” (HINMY 1995) → “pasarte hau, adibidez, estimatzen genuenagatik / **hilgo**”

ginela” (GP) → “pasarte hau adibidez: estimatzen genuenagatik / hilko ginela” (KP) → “pasarte hau / adibidez: estimatzen genuenagatik / hilko **zitzaizkigula lagunak**” (HINMY 2013) (“Joseba Asensio”).

Kasu honetan ez da olerki osoan pertsonaz aldatu, fokua da momentu jakin batean aldatzen dena.

- “**Hiruretarik** batek ere ez du susmatzen” (MZ) → “Hiruretarik inork ez du susmatzen” (GP) → “Umeak ez du susmatzen” (KP) (“Haurtzaroko erretratua”).

Kasu honetan ere fokua aldatu egiten da une jakin batean. Fokua umearengan jartzean trajikotasuna areagotzen da. Izan ere, inozentziaz beteriko ume baten irudia datorkigu burura, aspaldian ateratako argazki hura aitite-amamek eramango diote kartzelara.

- “‘ea nabegazio liburua aurkitzen dudan' **dio haur harek**” (GP) → “Ea nabegazio liburua / aurkitzen dudan', **diot**” (KP) (“Jolasa”).

Azken adibide honetan, aldaketa momentu horretan bakarrik gertatzen da. Gainontzeko pertsonak berdin diraute.

4.2.3.8. Zehar estiloa

KPeke olerkietako argitalpenetan zehar errepikatzen den beste aldaketa bat galderak zehar estilotik estilo zuzenera igarotzea da:

- “Noiz arte galdetu dio” (MZ) → “galdetzen dio 'Noiz arte?’” (GP, HDEOG) → “galdetu dio: 'Noiz arte?’” (KP) (“II. Galdera”).
- “Baina esperantza zer den / galdetzen dizut” (IABB) → “baina esperantza zer da? / galdetzen genion” (GP) → “Baina zer da esperantza?’ / galdetzen genion” (KP) (“Esperantza”).
- “Heltzear den gauza onaren seinale dela / esaten didazu batzutan” (IABB) → “heltzear den zori onaren seinalea / zioen batzutan irribarrez” (GP) → “heltzear

den zori onaren seinalea' / zioen batzuetan irribarrez” (KP) (“Esperantza”).

- “Bapatean masta gainetik begiralearen oihua / uhain handiak datozela” (GP) → “Bat-batean, begiralearen oihua mastaren gainetik: / 'Uhin handiak datoz!’” (KP) (“Jolasa”).

Diskurtso moduei dagokionez, orokorrean hitz eginda (poesia liburu honi buruz ez) pertsonaiaren diskurtsoa, gehienetan, kontalariaren diskurtsoan txertatuta agertzen da. Harreman hierarkiko bat dago haien artean, kontalaria eta bere ahotsa da unibertso diegetikoaren antolaketaren arduraduna, eta pertsonaiak bakarrik hitz egiten du hark hitza ematen dioenean.

Adibide hauetan arreta jarrita, diskurtso mota aldatu egiten da. Poemen lehen argitaraldian, orokorrean, diskurtso narratibizatua erabiltzen da. Kontalariak pertsonaien elkarrizketak edota pentsamenduak laburtzen ditu bere hitzen bitartez. Hurrengo argitalpenetan ordea, diskurtso zuzenaren aldeko apustua egiten da, eta, horren bidez, kontalariak pertsonaien elkarrizketa edo bakarrikzeta beraien ahotsean ematen du. Erabaki honen ondorioz, pertsonaien ahotsa entzunarazteaz gain, irakurlea ere gehiago sartzen da olerkian, gehiago inpaktatzen du.

Kasu honetan, adibide guztietan zehar estilotik estilo zuzenerako aldaketa dago. Hala ere, Ayerbek aztertutako narrazioetan jatorrizko elkarrizketek aldaketa asko izan dituztela dio, baina, estilo zuzenetik zehar estilora eta alderantzira eginiko eraldaketak dira (2016: 105).

4.2.3.9. Esaldien egituraketa

Amaitzeko, aipatu beharrekoa da askotan esaldiaren hurrenkera aldatzen dela. Hona hemen zenbait adibide:

- “Branka berunezko itsasoan aurrera-dena / marinelak karelean” (GP) → “Aurrera-dena doa branka itsaso barean, / marinelak karelean” (KP) (“Jolasa”).
- “maindire zurian bildu eta abiatu zen / mina abrigo zahar gisa jantziaz” (GP) → “maindire zurian bildu / eta mina abrigo zahar gisa jantzirik/ abiatu zen” (KP) (“Mikel Lopategi”).
- “eta gure lengoaia arrunteko hitzak / atzean utzi zituen” (GP, HINMY 1995) →

“eta atzean utzi zituen gure lengoaia / arrunteko hitzak” (KP, HINMY 2013) (“Mikel Lopategi”).

- “ eta entzuten du / aideak dakarkionean, / bere sorlekuko iturrien hotsa” (MZ) → “eta aideak dakarkionean bere sorlekuko / iturrien hotsa aditzen [du]” (GP) → “ eta sorlekuko iturrien hotsa aditzen du / aireak dakarkionean” (KP) (“Palestinar preso”).
- “Edozein kabaretetan traxedun lodia aitakiro eta / gogogaiztoz mintzo da” (GP) → “trajedun lodia aitakiro eta gogo gaiztoz mintzo da / edozein kabaretetan” (KP) (“Borrokan hildako lagunak”).
- “Hitzik gabeko gutuna izkiriatu nahi nizueke” (GP, KP) → “Nahiago nizueke izkiriatu gutuna / hitzik gabekoa” (HINMY 1995, HDEOG, XXPK, HINMY 2013) (“Lagun presoai gutuna”).
- “entzuten da nahinon” (MZ) → “nahinon entzuten da” (GP, HINMY 1995, KP) (“Lagun presoak”).

Esaldien egituraketa maiz aldatzen bada ere, ez dirudi patroia jakin bati jarraitzen dionik: batzuetan aditza aurrera pasatzen da, beste batzuetan atzera, osagarria batzuetan aditzaren aurrean agertzen da, beste batzuetan atzean (gutuna izkiriatu vs. izkiriatu gutuna), adjuntuekin beste horrenbeste gertatzen da (hitzik gabeko gutuna izkiriatu vs. izkiriatu gutuna hitzik gabea) etab.

4.2.3.10. Sinonimoak

Aipatutako aldaketez gain, askotan hitz bat sinonimo batengatik aldatzen da. Askotan mota honetako aldaketarik nabarmenenak HINMY 2013 liburuan aurkitu daitezke:

- “jarri” (GP, HINMY 1995, HDEOG, XXPK, KP) → “ipini” (HINMY 2013) (“Lagun presoai gutuna”).
- “begiratu” (IABB) → “so egin” (MZ, GP, KP) (“Epaiketarako bidaia”).
- “hanitz” (GP, XXPK) → “asko” (KP) (“Gose grebako hogeigarren egunean”).

Horretaz gain, hizkeraren atalean ikusi dugun maileguak euskal ordainengatik

ordezkatzeko joerak norabide bera jarraituko luke. Joana Pochelu-k Sarrionandiaren *Akordatzan*-en, oroitzapenez osaturiko obra biografikoaren, eskuizkribua aztertu zuen sorkuntza lanari buruzko informazioa lortzeko. Pocheluk dioenez, hainbat kasutan Sarrionandia sinonimoak aurkitzen saiatzen da. Pocheluren hitzak zuzenean hartuz:

A lo largo del dactiloescrito, el autor incluye varias notas instruccionales en el margen, que cumplen la función de auto-exhortaciones. Por ejemplo, busca sinónimos de «bien tonto: idiota: absurdo: deplorable» [ondo tontoa: idiota: absurdoa: tamalgarria], indicación que se hace a sí mismo para una eventual sustitución (Pochelu 2010: 242).

Sinonimoak edo beste hitz batzuk bilatzeko asmoa beherago aipatuko den hizkuntzarekiko mesfidantzarekin lotu beharko genuke.

4.3. Urteetan zehar antzeman daitezkeen ikuspuntu aldaketak

Orain arte ikusi ditugun aldaketak poema berarenak izan dira. Hau da, olerki batek liburu edo edizioetan zehar izan dituen aldaketei erreparatu diegu. Atal honetan, ordea, zenbait poematan agertzen den konstante bat urteen poderioz nola eraldatzen den aztertuko dugu.

4.3.1. PERTSONA IZENORDAINEN BILAKAERA

Liburua osatzen duten olerkiak urte askotakoak direnez gero, ez da harritzekoa pertsona izenordainek talde askori erreferentzia egitea. Atal honetan hori izango dugu mintzagai.

4.3.1.1. Gu vs. besteak

Aztertzen ari garen olerkietan bi motatako pertsonaiak kontrajartzen dira: alde batetik, *guren* bitartez adierazitakoak eta bestetik, *besteak*.

KPen lehen pertsonaren izenordain plurala poemaren arabera aldatzen da. Ez da harritzekoa, izan ere Jon Benitoren (2006: 133) hitzak gogora ekarriz, “gatazka guztiek dakarte, gutasun, talde edo bandoen sorrera. Gutasuna sortzen da ez ideologiarekin bakarrik, baizik eta sufrimenduarekin eta jarreraren muturreratzearekin. Gutasunak asko dira”. Sarrionandiak berak ere *gu* horren izaera gatazkatsua azpimarratzen du *Lapur Banden etika ala politika* (2015) izeneko saiakeran: “Arazoa ez da bakarra:

izenordaintzat 'gu' erabiltzen dugunean, 'gu' hori aldakorra da [...] Ni 'gu' askotako partaidea naiz aldi berean” (Sarrionandia 2015: 72). Gutasunak olerkiari eman diezaiokeen kolektibitate ikuspuntuaz gain, Aitzpea Azkorbebeitiak (2002) dioena hona ekarrita, gutasunaren erabilera *ni*-ari uko egiteko saiakera gisa ere uler daiteke.

KPen askotan agertzen da lehenengo pertsona pluraleko izenordaina, *gu* horrek gehienetan presoei erreferentzia egiten die. Beste batzuetan *ni* erabiltzen du, eta *laguna* izena gehitzen du metonimikoki beste presoei erreferentzia egiteko, biek batera *gu* bat osatzen dutelarik (“Gose grebako 20. egunean”).

Hala ere, beste poema batzuetan hirugarren pertsona erabiltzen du *presoaz* hitz egiteko, horrela distantzia sorrarazten duelarik (“II. galdera”, “III. galdera” etab.).

Presoez eta kartzelan duten egunerokotasunaz hitz egiteko erabiltzen duen *gu* hori, idazlearena bakarrik ez, gainontzeko presoen egoeraren erakusgarri ere izateko helburuarekin hartutako erabakia izan liteke. Beraz, IABB anonimoa izateko arrazoiarekin lotu dezakegu. Ondorengo aipua IABBeko aitzin solasekoa da: “Anonimoak dira gure lan tipi hauek, gartzela hau ez da batek edo bik baizik eta hainbestek sofritzen dugunez, paper hauek ere guzision ahotsa izan nahi lukeelako, guzision askatasunaren aldeko burrukan” (IABB: 6).

Poema gehienetan, *gu* hori momentu jakin batean preso daudenak dira. Lehenago beste batzuk egon direla eta egongo direla aditzera ematen da: “Lehenagokoen urratsak jarraitzen ditugu / ia oharkabean, / eta jarraituko dizkigute oraindik, eskolarantz / barrikaden albotik jakin-minez doazen haurrek” (“Gose grebako hogeigarren egunean”). Esaldi horren bidez bidea etengo ez dela iradokitzen da, herentzia badagoela eta egongo dela.

Esan bezala, orokorrean presoez hitz egiteko erabiltzen da *gu* izenordaina, eta askotan espetxearen egunerokotasunaz edo pairatzen duten jazarpena azaleratzen da. Halere, muturreko gertakariak kontatzen direnean (torturak, heriotzak kasu) hirugarren pertsona (izen eta abizenak emanez “Mikel Lopategi”, “Joseba Asensio” kasu) edo lehenengoa (“Gogoeta matematikoa”) erabiltzen da, eta gainontzeko poemetan nekez aurki daitekeen zehaztasuna (“Kirofanoa”). Subjektua urruntzen da eta deskripzioa, narrazioa zehatzago bilakatzen.

“Post Scriptum” izeneko atalean, ordea, *gu* hori aldatu egiten da, gutasunaren bidez helarazten zaigun ahotsa jada ez da preso batena, espetxetik kanpoko norbaitena

baizik. Baina, haren gogoan presoek elkarrekin diraute: “zuen askatasuna behar dugu, gauza zailak / elkarrekin egiten jarraitzeko” (“XI. gutuna”). Azken adibide honetan, *gu* horrek euskal gizarteko kolektibo zabalago bati egingo dio erreferentzia. Borrokatzeko, lan egiteko prest dagoen kolektibo bati, alegia. Beste adibide bat ematearren, “Lagun Presoak” izeneko poeman argi ikusten da bera dagoeneko ez dela preso kolektiboaren partaide. Kontuan hartzekoa da “Post Scriptum”-eko poemak espetxetik ihes egin eta geroakoak direla, beraz, poemak ikuspuntuak biografiarekin bat egingo luke.

Gutasunaren bidez adierazitako pertsonaiez gain beste pertsonaia batzuk ere agertzen dira, hala nola, funtzionarioak, espainol poliziak, borreroak eta Guardia Zibilak. Aipatutako horiek estatuaren ankerkeria eta indarkeria gorpuzten dute. Horiek dira presoak torturatzen dituztenak, epaiketetara eramaten dituztenak, “quien viliga y castiga”, etengabe zelatatzen dituztenak, gutunak kentzen dizkietenak, katxeok egiten dizkietenak etab.

Gainera, horiek ez dute soilik presoan aurka jarduten, Euskal Herriaren kontrako jazarpena egiten dute. Hori, esaterako, “Tortura Egunak” poeman ikus daiteke. Gainera, olerki honen agerpenek aurrera egin ahala tragedia sentsazioa areagotzen da. 1987ko bertsioan mutila “armekin” harrapatu dute, baina bigarreanean, “edozer gauzarekin” harrapatu duten arren, atxilo hartu dute mutila:

1987	2011
Espainiar poliziek gure herrian	Espainiar poliziek Euskal Herrian
behelaino zatiak ere preso hartzen dituzte	Behelaino zatiak ere preso hartzen dituzte,
infernuaren hamaikagarren zirkuluan gatibatzeko	Infernuaren hamaikagarren zirkuluan gatibatzeko.
Harmakin harrapatu duten mutilak	Edozer gauzarekin harrapatu duten mutilak
lagun torturaturen baten azalpena oroitzen du.	Lagun torturatuaren baten azalpena oroitzen du,
[...]	[...]

Hala ere, esan beharra dago (gu/zuek) talde horretako partaideez bereizten direnak ez direla bakarrik poliziak edo segurtasun indarrak. Batzuetan, banaketa estrapolatu eta talde zabalago bati egiten zaio erreferentzia, eliteak eta klerikoak sortutako taldeari, alegia (“XI. gutuna”). Bi taldeen arteko konfrontazioa ondorengo pasartean argi eta garbi ikus daiteke (“XI. gutuna”):

[...]
 Polizia, bankero, ugazaba eta apezak
 'terrorista' esaten dizuete,
 eta are barregarriagoa **bestaldeko jendea**
 'heroi' deitzen
 [...]

Beraz, hori guztia ikusita, liburuaren poema gehienetan presoak eta funtzionarioak elkarren artean kontrajartzen diren arren fokua gehiago zabaldu daiteke, bi multzotan banandutako euskal gizartea adieraz dezakeelarik. Alde batetik, ETAko preso/militanteen arteko taldeak, “heroi” izendatzen dituztenak eta, beste aldetik, haien kontrakoak. Hau da, goraiatzaileak eta ohiko etsaiak dira aipatzen direnak. Baliteke horrela, presoan bakardadea azpimarratzea, haien benetako izaera definitzeko ezintasuna erakutsiz. Oposaketa hau are garbiago ikus daiteke poema beraren beste argitalpen batzuetan:

(HINMY “Lagun presoiei gutuna”)

[...]
 Poliziek eta bankariek, ugazabek eta apezek
 'terrorista' esaten dizuete,
 eta are desegokiago deitzen dizue
zeuen aldeko jendeak 'heroi'
 [...]

(HDEOG “Lagun presoiei gutuna”)

[...]
 polizia, bankero, ugazaba eta apezek
 'terrorista' esaten dizuete,
 eta barregarria da **gure jendea** ere
 'heroe' deitzen
 [...]

Poema gehienak kartzelan kokatuta daude. Hala ere, “Kaleko Kronika” poeman aipatutako kontrastea kalean ere antzeman daiteke. Baina, *besteak* multzo berak gorpuztuko lituzke: “auto blindatuko gizon uniformatuak”.

Amaitzeko, aldaketa nabarmena antzeman daiteke MZean eta HINMYn agertzen den “Bake beltza”³⁴ izeneko poeman. Izan ere, poema honetan *besteak* multzoa osatzen dutenak zuzenean seinalatzen dira, eta zuzenean hitz egiten zaie *zuek* pertsona izenordainaren bidez. Kasu honetan, ez zaie Guardia Zibil, funtzionario, apez edota bankeroei erreferentziarik egiten, hitz gutxitan bilduta, boteredunak eta haien zerbitzariak. Gizarteko talde bati egiten zaio erreferentzia zuzenean, erosotasunean egokitutako gizarte talde bati, alegia. Kirola ikusteko, otoitz egiteko edota amets goxoak izateko bake beltza defendatzen dute gizarte sektore horretako partaideek. Antitesiz betetako olerki honetan kritiko agertzen da gizartearen alderdi batekin eta horien kontra egiten du. Azkorbebeitiaren hitzetan (1998: 116) Sarrionandiaren poesiak betidanik izan ditu ironia ukituak; ukitu sotilak hasierako lanetan, gero eta bortitzagoak hurrengoetan. Poema hau horren adibide genuke. Gainera, Iñaki Aldekoak (1993: 25), MZetako “Zuek lore paper ederreko logelan” (Sarrionandia 1987: 30) olerkiaz ari dela,

34 HDEOG liburu-musikatuan “Defenda ezazue zuen bake beltza” izenburupean agertzen da.

“literatura burgesaren” edo “traidorearen” kontrako erasoak ikusten ditu Joseba Sarrionandiaren poetikan. Beste horrenbeste esan liteke “Bake Beltza” izeneko poemaz. Izan ere, bi olerkiek antzekotasun nabariak dituzte, bai estiloan bai gaiaren tratamenduan ere.

Gu eta *besteak* artean dagoen aurkakotasuna eta denboran zehar izan duen bilakabidea ondoko taulan laburbildu daiteke:

	<i>Gu</i>	<i>Besteak</i>
KP eta aurrekoetan	-Presoak	-Polizia, Guardia Zibila, funtzionarioak... segurtasun indarrak
“Post Scriptum”	-Ihes egin zutenak -Herriaren alde borrokatzeko/lan egiteko prest daudenak	-Segurtasun indarrak -Eliteak eta klerigoak
HINMY	-Ihes egin zutenak -Herriaren alde borrokatzeko/lan egiteko prest daudenak.	-Gizarte eroso batean bizi direnak

4. Taula: *Gu* eta *besteak* taldeen kontrajartzearen bilakaera.

4.3.1.2. *Ni*

Poema batzuetan *ni*-aren gertaera konkretu bat agertzen da, *gu* (presoak) ere antzeko egoeran daudela esateko, eta hortik abiatuta gogoetaren bat egiteko, gehienetan existentziala. Beste batzuetan, beste ahotsak dira gailentzen direnak. Esaterako, “Marioneten aitzakiarekin gogoeta” izeneko olerkian *gu* bat da gailentzen dena, eta momentu batean idazlearen ahotsa agertzen da baimen eske: “-serio paratzen eta filosofo / frantsesa zitatzen uzten badidazue-”.

Eider Rodriguezek (2013a: 272) dioenez, KPean aurreko liburuetan baino presentzia handiagoa du nitasunak, eta modu inplizituan ez ezik, itsas iruditegiaren bitartez ere hitz egiten da *ni*-az (baita ni horren parte den kolektiboaz ere). Rodriguezen hitzak zuzenean hartuz: “itsas irudiak *ni*-az hitz egiteko modu gordea bilakatzen dira modu nabarmenean, edo zehazkiago esateko, bera bezalako askoz osaturiko kolektibitatearen, ontziaren, borrokaldiaren egoeraz hitz egiteko modu gordea” (ibid.: 272). KPean badira itsasoaz diharduten poemak.

Hala ere, *ni* hori gutasunera eramateko saiakera ikus daiteke. MZ liburuko “Ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik” poema KP liburuan “Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik” izenburupean agertzen da, eta poemaren barruko lehen

pertsona singularreko izenordain guztiak lehen pertsona pluraleko izenordainaz ordezkatu dira. Kasu honetan, nitasuna gutasunera eramatea ez da harritzekoa. Izan ere, kartzelako sufrimenduaz hitz egiten da hizkera metaforikoaren bidez, askok eta askok sufritzen duten mina kolektibizatzen du. Poema honetan, espetxea eta espetxearen inguruko hitzik behin ere aipatu gabe, “espetxe” eta “mina”-z hitz egiten du. Gainera, Rodriguezek (ibid.: 193) dioenez, kondenaren zama ondoko hiru metaforatan gutxienez aurki daiteke adierazita: “denbora, idi gorrien gurdi hori”, “erlojuetako orratzak unean uneka herdoiltzen” eta “erlojua, gurgil ahula da”. Horretaz gain, bakardadea jasotzen du “gure desirak ez dira jada habia abandonatuak besterik” metaforak, eta inpotentzia adieraz lezake “zenbat aldiz galdu garen behelainotan/basoilar izateko ametsetan dabiltzan kurloiekin” metaforak.

4.3.2. EMAKUMEAREN IRUDIA

KPeko eta MZetako olerkietan presoaz hitz egitean etengabeak dira gizonetzkoen irudiak:

- “Ez zara gehiago izango tente ipini eta, altura neurtzeko, / burua altxatzen zuen **mutikoa**” (“Alturaren neurria”).
- “Edozer gauzarekin harrapatu duten **mutilak** / lagun torturaturen baten azalpena oroitzen du” (“Tortura egunak”).
- “Zer da hormaren kontra zapaltzen nauen oinaze hau? / galdetuko dio gero **mutilak** bere buruari” (“Tortura egunak”).
- “eta **barrabiletan** jotzen zidaten” (“Gogoeta Matematikoa”).
- “Hiru urtetan lehenengoz dago **mutila** barruan katxeoaren zain” (“Vis a Vis”).
- “Biluzteko agin dio **mutilari** / funtzionarioak” (“Vis a Vis”).
- “Behin munduan, asko legez, mutil bat / harrapatu / eta gaztelu handiko ziegarik ilunenean / giltzapetu zuten” (“Ipuina”).

Beraz, preso gizonetzko irudiaren bidez gorpuzten da: bere buruaren proiektzioa da. Hala ere, esan beharra dago “II. Galdera” olerkian aldaketa garrantzitsu bat gertatzen dela MZetik KPera:

MZ

Zelda bazterrean geratu da
Gizona, bakarrik mintzo dela dirudi
[...]

GP / HDEOG / KP

Presoa zelda bazterrean,
bakarrik mintzatzen bezala
[...]

Poema honen lehen argitalpenean presoa gizona bakarrak izan daitekeela dirudi, gizona eta presoa sinonimoak direla, ez ordea hurrengo argitalpenetan, non presoa ni biografikoaren proiektzioa izatetik kolektibo baten sinekdokea izatera pasatzen den.

Beraz, ikusi dugun bezala, kartzelako testuinguru honetan gizon militantearen irudia da helarazten zaiguna. Emakumeak ez dira ia agertzen, eta agertzen direnean beraien irudia oso bestelakoa da. Mendebaldeko kulturaren tradizionalki egon den emakumearen irudia liburu honetan ere ikus daiteke. Izan ere, aztertzen ari garen poemetako emakumeak bi multzo nagusitan banatu daitezke: ama eta maitalea. Alde batetik, amaren irudia oso presente dago: “amari emandako azken adioa gogoan” (“Erdi Mina”), presoa amaz oroitzen da (“Presoen amak”) etab. Alderdi humanoa, sentimendua da erakusten dena, amaren irudiaren bitartez. Beste aldetik, erotismorekin lotutako irudiak heltzen zaizkigu: “zer dela eta oldartzen eta —kanpai/hotsen artean — / okupatzen didate gogoia Maria Lauraren / bular ikaragarriek?”, “IX. Galdera”, “ohe estutan etzaten ginen itsas-laminen altzora” (“Oroimeneko Portuga”) etab. Horretaz gain, pasibotasunarekin lotzen dira emakumeak:

- “Nortzuk dira solasean doazen bi mutilok? / Nortzuk dira auto blindatuko gizon uniformatuok? / Nor da leihotik begira dagoen **anderea**?” (“Kaleko Kronika”).
- “Borrokan ari dira oraindik gerlariak [...] / **mutikoek** / uraren ertzean maskorrak bil ditzaten, / **neskatilek** / itsas zalditxoek oroiminik gabeko / ametsak egin ditzaten” (“Gerla hondartzan”).
- “[...] gure bihotza / mugaldeko edozein larretan tirokatzen dute karabineroek, / muga iraganez gero, **neska** alaiaren alboan **esertzeko**” (“Elurrezko hegaztia da gure bihotza, Eorann”).
- “Edonondik heldu eta errenkadan **itxaroten** dute **emakumeek**, / haien **ama-amek** 39an errazionamendua **bezala**” (“Vis a Vis”).

Ekintza gizona, militantea, emakume estatikoaren irudiarekin kontrajartzen da. Pertsonaia nahiko marjinalak ditugu emakumeak, fokua beti gizonezkoengan ezartzen den aldetik.

Hala ere, “Post Scriptum” ataleko “Lagun Presoak” poeman aldaketa antzematen has daiteke, lehen aldiz emakume presoek izenak agertzen zaizkigu gizon izen batzuen ondoan:

Joserra/**Miren**/Josu
Julen /Ixidro/**Mertxe**
Julio/Iñaki/Pakito
Apolinar/Josean/Andoni
Itziar/ Jon/ Josemari

Aztertzen ari garen poemetan lehen aldiz emakume militantearen/presoaren irudia datorkigu “Lagun Presoak” olerkian. Beraz, emakume berri baten irudia dago. MZetik GPera presoek izenak aldatzen dira, Ayerberen (2016: 14) ustetan horrek lagun preso horiekiko harremanen aldaketa iradokitzen du. Nolanahi den ere, edizio guztietan emakumeek izenak agertzen dira.

Aldaketarik nabarmenena ordea, HINMYko “Esnaerak” olerkian ikus daiteke. Izan ere, bertan lehen aldiz emakume baten espetxeko egonaldia islatzen da protagonista femenino baten bitartez. Emakume militantearen bidez, gorago aipatutako pasibotasunarekin amaitzen da, emakumea jadanik ez dago leihotik begira edota beste emakumeekin bisitarako itxaroten, eta izen zerrenda bateko partaide izatetik harantzago dago.

Hala ere, aurreko olerkiekin alderatuz, poema honetako presoak bestelako kezkak ditu: senarra eta alaba. Amatasunari hertsiki lotutako irudia heltzen zaigu berriro ere, alabatxoaren babeslea den emakumearena. Kontrara, liburuko olerki batean ere ez da aitaren irudia agertzen. Gainera, etxeko lanak bere gain hartzen dituela iradokitzen da. Bera ez dagoenez, bere senarrak egon behar ditu lanak: “senarra nahiko itxuraldatuta dago aspaldian: etxeko / beharrak egiten. Beste baten senarra balitz bezala”. Gizarte patriarkalak egotzitako rolean agertzen zaigu, beraz, emaztea da eta haurrak zaintzeko rola betetzen du. Ondorioz, estereotipatutako irudia datorkigu. Beraz, kasu honetan, goian aipatutako amaren eta presoaren nolabaiteko fusioa gertatzen da.

Horretaz gain, aipatu beharrekoa da funtzionarioek berarekiko duten jarrera ere

bestelakoa dela. Aurreko olerkietan biolentzia fisikoa (tortura) erakusten da, eta hitzezkoa denetan mehatxu forman agertzen da: “klarionezko X lez borratuko nindutela” (“Gogoeta matematikoa”). “Esnaerak” olerkian, hitzeko biolentzia erabiltzen da baina, emakume kondizioarekin lotuta dago. Funtzionarioek “puta” esaten diote.

Narrazioetan ere antzeko joera nabarmenduko litzateke. Izan ere, Ayerbek (2016: 106) dioenez “Mezurik gabeko heriotza” narrazioan pertsonaiak ijitoen ohiturez mintzatzerakoan, bertsio eraberrituan ez da gizonaren ikuspegia soilik ematen lehenengo bertsioan bezala. Bertsio berrian senar-emazteak aintzat hartzen diren ikuspegi parekideagoa gailenduko da. Horretaz gain, Eider Rodriguezek (2014: 362-363) *Lagun Izoztua* liburuan emakumeek Sarrionandiaren aurreko obretan baino presentzia handiagoa dutela dio, baita aurreko lanen kontrara ekintza pertsonaiak ere direla. Rodriguezen hitzak (2014: 362) zuzenean hartuz:

Podría decirse que en la obra del autor que nos ocupa existe una clara línea divisoria entre la acción, que pertenece al hombre, y la inacción, que pertenece a la mujer. Los hombres luchan, hacen, se emborrachan, van y vienen, matan, son encarcelados, son torturados... mientras que las mujeres aman, esperan, son madres, se divierten, lloran, se enamoran, miran por la ventada, se dejan llevar por el placer o cobran por darlo... En su última antología de poemas (*Hnuy illa nyha majah yahoo, 1995*) sin embargo, en prólogo-relato que precede al poemario aparece por vez primera en la obra de Sarrionandia un personaje femenino que además de estar es, un personaje femenino que forma parte de la acción que pone en marcha la trama. Pero no es hasta la novela que nos ocupa [*Lagun Izoztua*] que Sarrionandia construye un relato en el que los personajes masculinos están de lado de la inacción y los personajes femeninos del de la acción.

Beraz, ikusi dugunez, badirudi orokortasunez hitz eginez Sarrionandiaren obran zehar emakumeek gero eta presentzia handiagoa dutela, bai obretan zehar baita obra beraren edizioetan ere bai, dela txertatutako lan berrien bidez dela aldaeren bidez.

4.3.3. METAFORAK

Azpiatal honetan aztertzen ari garen *corpusean* aurki daitezkeen metaforez arituko gara, denboran zehar aldaketarik egon den jakiteko asmoz.

Ezaguna denez, Sarrionandiak beti agertu izan du hizkuntzarekiko mesfidantza

eta esanahi aurrefabrikatuei ihes egiten saiatu da (Rodriguez 2013b: 188). Lengoaiaren mugei aurre egiteko Sarrionandiak darabilen ihesbideetako bat lengoaia metaforikoa erabiltzea da. Rodriguezek (ibid.: 190) dioenez, lengoaiaren ahitzeaz eta mugez konbentzitura dagoen idazlearentzat aterabidea da metaforak erabiltzea, esanahi berriekin jolasteko aukera ematen duten heinean. Beraz, ez da harritzekoa Sarrionandiaren ibilbide literarioa metaforaz kargaturik egotea. Rodriguezek (ibid.: 192) “Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik” olerkiaren adibidea ematen du. Izan ere, bere ustetan, olerki honek kartzelak sortzen dion mina jasotzen du kartzela eta kartzelaren inguruko hitzik erabili gabe. Hori horrela, kondanaren zama “denbora, idi gorrien gurdi hori”, “erlojuetako orratzak unean uneka herdoiltzen” eta “erlojua, gurpil ahula da” metaforen bidez adieraziko litzateke (ibid.: 192).

Azpiatal honetan zenbait metaforek Sarrionandiaren kartzelako poemetan duten presentziaz arituko gara.

4.3.3.1. Itsasoa

Eider Rodriguezek bere tesian (2013) itsasoa militantziaren eta borroka armatuaren metafora gisa interpretatu daitekeela esan zuen, eta Sarrionandiaren ibilbide literarioan aurkitu daitezkeen itsasoak anitzak direla. Hau da, denboran zehar bilakaera izan dutela. Rodriguezek berak aitortzen duenez, Iñaki Aldekoaren “Joseba Sarrionandiaren poesia: itsasoa gartzelatua” (1989b) eta “J. Sarrionandia; poeta navegante” (1989a) artikuluak izan ziren bere lanaren inspirazio iturri. Gainera, Rodriguezen (2013: 192) ustetan, itsasoaren irudia hain da ugaria eta errepikakorra non bidaiaren eta itsasoaren metaforek testu paralelo bat osatzen duten. Hori horrela, gure *corpusean* dauden itsasoetan aldaketarik dagoen begiratuko dugu.

Lehenik eta behin, IABB bilduman, Eider Rodriguezen (2013a: 349) aburuz, ez dago ia itsasorik eta dagoeneko aurreko liburuan (*Izuen Gordelekuetan Barrena*) formulatutako ideiak lauki birformulatzen dira. Ondorioz, “burrukan segitzeko beharra” “nabigatzea” litzateke; “zulora erortzea” “naufragioa”; eta “istiluetan sartzea” “itsasoratzea”. Gure *corpusa* liburu honetako lau poemak osatzen dute eta bakar batean ere ez dago itsasorik, ez itsaso iruditegirik.

Bigarren liburuan, MZean, Rodriguezek (2013a: 350) dioenez, ontziratu izanaren arrazoiak aipatzen ditu eta idazleak erremediorik eza aipatzen du. Horretaz

gain, ETaren inguruko kezka eta zalantza agertzen dira, esaterako, “Itsaso debekatuak” olerkian. Rodriguezen (ibid.: 164) aburuz, idazle bizkaitarrak bost galderaren bitartez irakurlea gogoetara eraman nahi du. Aipatutako olerkian, itsas terminologiaren erabilpen sinbolikoa ordura arteko poemetan baino nabarmenagoa da. Rodriguezen (ibid.: 164) hitzak zuzenean hartuz:

Marinelek istorio bat baitaukate (“Nondik datoz marinela?”), untxiak norabide bar (“Nora doa untxia?”) eta aurrera egiteko motibo bat (“Zergatik?”) eduki behar baitu, marinela izateaz gain marinelek biografia propioa dute eta ez dira itsasoratu hain lanbidea hura delako bazik eta presente eduki beharreko arrazoiengatik (“Nortzu dira marinela?”) eta untxia ez da ente ukiezin bat baizik eta kuestionatu beharreko zerbait (“Zer da untxia?”).

Gure *corpusa* osatzen duten MZetako olerkien artean itsasoaren aipamena egiten duten olerkiak ondorengoak dira: “Itsas hegiko gogoeta”³⁵, “Itsasoaz gogoeta”, “Gerla hondartzan”, “Hierofania”³⁶, “Itsaso barea” eta “Palestinar preso”.

Aipatutako olerki guzti hauek KPean ere aurki daitezke, eta horretaz gain, itsasoari erreferentzia egiten dioten olerki berriak gehitzen dira: “Oroimeneko portua”, “Jolasa”, “Itzulpen literala II” eta “Beste mundua”. Eider Rodriguezek dioenez (ibid.: 177) espetxea KPeko paisaiarik nabarmena izan arren, ez dira itsasoari egindako erreferentziak falta. Itsasoaren presentzia KPeko olerkien artean areagotuz doala ikus daiteke.

Hala ere, HINMY bilduman, “Hutsik geratu ez ziren zeldak” izeneko atalean ez da itsasori egindako aipamen bat ere ageri.

Beraz, gure *corpusean* zehar, itsasoak gero eta presentzia handiagoa izan arren, azken poesia liburuko “Hutsik geratu ez ziren zeldak” atalean metafora baztertu egiten da. Kontuan hartzekoa da azken bildumako olerki horietan ez dela espetxean egotearen arrazoi/motiboez hitz egiten, gertakariak, egunerokotasuna, preso ohien egoera, kartzelan jarraitzen dutenei edo bertan hildakoei buruzko gogoetek betetzen dituzte orriak. Beraz, metafora honen bilakabideak Gaussen kanpaiaren forma bera izango luke.

35 KPean “Itsasoaz gogoeta”.

36 KPean “Itzulera”.

4.3.3.2. Harresia/horma

Aztertzen ari garen liburuan behin eta berriro agertzen den beste metafora bat horma edo harresiarena da. Hain da ugaria metafora honen baliabidea non Jon Kortazarren iritziz (1997: 97) horma KPeko metafora nagusia den, hizkeraren bitartez ispilu bilakatu daitekeen horma, zeinari esker bestaldera igarotzea posible den.

Aztertzen ari garen *corpusean* presoaren eta horma (eta zenbaitetan harresia) kontrajartzen dira. KPeko olerkiak agertzen diren lehen bildumatik azkenekora erabiltzen den metafora da horma/harresiarena.

IADEP liburuan “Afrikako Iparraldean³⁷” olerkian dagoeneko agertzen da. MZ liburuan, ordea, metafora hau darabilten poemen kopurua areagotu egiten da: “Lau bost sei harresi”, “Gartzelako goiza” eta “Bihotz iluna”. GPean, aipatutakoez gain, gehitutako olerki gehiagotan ere horma edo harresiaren metafora aurki daiteke: “Erresistentzia”, “Begi urrunei bertsoa”. Horretaz gain, KPetik GPera gehitzen diren sei olerkitatik bik harresiaren metafora dute: “XI. galdera” eta “IX. Galdera”.

“Post scriptum” izeneko atalean ordea, ez dago hormaren edo harresien aipamenik, ezta HINMYn ere.

Beraz, kasu honetan, itsasoaren kasuan bezala, esan genezake gure *corpusean* zehar gero eta presentzia handiagoa duen arren, une batean metafora horren erabilera eten egiten dela.

Modu orokorrean hitz eginda, esan liteke HINMY bildumako olerkietan hizkera metaforikoa nolabait alde batera uzten dela, bertako gertaeren gogortasunak hizkera zuzenago bat eskatzen duela, apaingarririk gabekoa.

4.3.4. GAIK

Atal honetan KPean zehar gai ezberdinek duten presentzia eta bilakaerari erreparatuko diogu.

4.2.4.1. Hizkuntzarekiko/poesiarekiko mesfidantza

Hizkuntzarekiko/poesiarekiko mesfidantza oso gai errekkurrentea da Sarrionandiarengan, eta aztertzen ari garen *corpusean* behin eta berriro agertuko da, intentsitate gehiago edo gutxiagorekin.

37 KPean “Afrika Iparraldean”.

Otaegik (2006) dioenez, poesiaren funtzio sozialaren ikuspegia aldatu egiten da Sarrionandiaren lanean: IABBean Brecht aipatzen du; MZeak poesiarako garai guztiak txarrak ez ote diren galdetzen dio bere buruari; 1995ean “dena esanda dago eta metaliteratura soilik da posible” gainditzen saiatzen da. Azken aro honetan, idazle iurretara, egoerentzako eta garairako hitzik aproposenak bilatzen saiatzen da, poesiak gizartea aldatzen ez duela jakitun izanda. Hau horrela, gure *corpusean* emandako bilakaerari erreparatuko diogu.

Hasteko, IABBean *Eguberri Amarauna* atalari F. Holderlinen ondorengo aipuak ematen dio hasiera: “... baina zertarako egin poesia/ aro gaitz hauetan?”. Poesia egiteak zentsurik ez duela esaten da, antzua dela. Halere, ez dago gai honi egindako beste aipamenik liburu honetako *corpusa* osatzen dute lau olerkietan.

Bigarrenik, hurrengo bilduman, MZeako “Gartzelako Poemak” atalean, ez dago hizkuntzarekiko mesfidantza adieraz dezakeen ezer, ez aipuen bidez, ez olerkien edukian ere. Halere, liburuaren hitzaurrean, honako hau irakur daiteke: “Zertarako poesia hondamen aro hauetan” (Sarrionandia 1987: 8). Liburu horretan, poesiarentzat garai guztiak ez ote diren makalak galdetzen dio bere buruari.

Liburu horretan, hizkuntza nolabait presente dago, euskarari egindako erreferentzien bidez. Euskara “hizkera sekretua” dela dio “Lagun presoak” izeneko olerkian. Askotan erabiliko dira horrelako adjektiboak euskarari erreferentzia egiteko. Zernahi gisaz, kontuan hartzekoa da ez garela MZ liburu osoa kontuan hartzen ari, atal bat soilik.

Rodriguezen (2013a: 156) esanetan, MZ IGBeako metaliteraturaren eta IABBeko errealitate gordinaren artean kokatzen da. Ordura arteko poesiaren bi ahotsek bat egiten dute: alde batetik, literaturgintzara daraman korrontea eta bestetik militantziara daramana. Gure *corpusean* bizitzaren eta literaturaren arteko talka erakusten duen olerkirik egon ez arren MZ bildumako “Literatura eta Iraultza” olerkiaren gai nagusia hori da. MZ liburuan IGBean literaturarengan ezarritako fedea apalduz joan da.

Hirugarrenik, GPean, asko dira hizkuntzari/poesiari eta euskarari egiten zaizkion erreferentziak. Hainbat dira hizkuntzaren/poesiaren antzutasuna erakusten duten olerkiak. Esaterako, “Protopoetika”-n poesiak egin ezin ditzakeenak zerrendatzen dira, poesiak mundua eta errealitatea aldatzeko duen ezintasuna erakusteko asmoz;

“Borrokan hildako lagunak” olerkian hildakoei buruz hausnartzen ari delarik “utzi egizue poema hau gaua zeharkatzen duen / alarguna bezala pasatzen” irakur daiteke, poesiak ezer aldatzen ez duela adieraziz. Ondorengo esaldiek ildo berari jarraitzen diote: “desolazioa poesia deritzan hori bihurtu? It looks well/ on the page / but never well enough” (“Gauetz lo egin ezinik”); “Gure artera bueltatuko zaituen hitzik / ba al da?” (“Mikel Lopategi”); “Gehiena esanda dago eta zer lotsagarria den/ errepikatzen hastea/ batez ere hitzek esan nahi dutena geroago / eta gutiago diotenean” (“XI. gutuna”); “presoaren hitzak, harresiaren kontra, / tunelera sartzen den trena bezalakoak, / ezintasun guzien kontra, hizkuntzaren kontra. Noraino helduko zarete” (“XI. galdera”) eta “finean, hitza/ hutsik geratzen den zelda/ besterik ez da” (“Mikel Lopategi”).

Poesiaren eta hizkuntzaren antzutasuna alde batera utziz, asko dira euskarari egindako erreferentziak: “euskara da territorio libre bakarra”, eta funtzionarioak hurbiltzen direnean euskaraz ez ezik alderantziz ere hitz egin behar dute (“Territorio librea”); “Ezkutuko gutunak”-en berriz, funtzionarioek presoei gazteleraz idatzitako gutunak soilik irakurtzen uzten dietela esaten da; “baina maite zaitut’ eta ‘hurrengora arteak’ ere/ samurragoak dira euskaraz”. Amaitzeko, “Egunen batean” olerkian “legeaz landako gure mintzairan/ solastuko gar[el]a” esaten da.

Azkeneko bilduman, hots, HINMYn, bitan baino ez da agertzen hizkuntzarekiko mesfidantza (“Mikel Lopategi” eta “XI. gutuna”). Gainera, kontuan hartzekoa da bi hauek aurreko bildumetan ere aurkitu daitezkeela. Euskarari egindako erreferentzia bat ere aurki daiteke “Egunen batean” olerkian. Hiru poema hauetako batean ere ez da hizkuntza gai nagusia. Ondorioz, KPean hizkuntzaz diharduten olerki asko egon arren, HINMYrako asko baztertu egin dira eta beste gai batzuk nabarmendu.

Esan bezala, kontuan hartzekoa da erabiltzen ari garen *corpusak* ez dituela aztertzen ari garen liburuetako olerki guztiak hartzen, gerora KP bilduman agertu direnak baino ez ditugu aintzat hartu. Beraz, gai bat liburu horietakoren batean agertu arren, eta aztertzen ari garen olerkietan ez baldin bada agertzen, alde batera utzi delako da.

4.3.4.2. Urtaroen aldaketa/denboraren igarotzea

IABB bilduman oso presente dagoen gaia da, idazlea urtaroen aldaketez baliatzen da denboraren igarotzeaz aritzeko. “91”³⁸ olerkian esaterako, naturak denboran

38 KPean “Urte giroak ene begietan”.

zehir betetzen dituen zikloez dihardu. Kontuan hartzekoa da gerora olerki horren izenburua “Urte giroak ene begietan” izango dela, eta, beraz, Xabier Lizardiren izenburu bereko poemari aurkaritzen zaiola. Izan ere, pizkundeko olerkarien ikuspuntuarekiko ezberdintasuna azpimarratzen da. Preso dagoenarentzat naturaren zikloa eta giza bizitzaren zikloa ez datoz bat, presoaren bizitzan naturaren pautak ez du eragin existentzialik. Giza bizitzaren marko ez naturalean kokatzen da presoaren denbora.

MZ liburuan ere aurkitu daitezke urtaroen aldaketei eta denbora igarotzeari erreferentzia egiten dieten olerkiak: “Hau da udaberria”, “Hierofania³⁹”, “III. Galdera” eta “II. Galdera”.

KPean ere bai: “Sortaldeko orratzak”, “Misterio fiskala”, “Elurra eroriko da gaeuz” eta “Galkortasunaz gogoeta” gai honi buruzkoak dira.

Amaitzeko, HINMY bilduman ez dago gai horiek jorratzen dituen olerki bat ere ez. Beraz, gai honek denboran zehar gero eta pisu gutxiago du Sarrionandiaren lanean.

4.3.4.3. Funtzionarioen ankerkeria

Bildumetarako aukeratu diren kartzelako poemen artean funtzionarioen ankerkeria/krudeltasuna areagotzeko joera nabarmena antzeman daiteke.

Lehenik eta behin, IABB bilduman egiten den adierazpen bakarra “eta esposa hestuegiek/ marka ubelak utzi dizkigute” da (“119⁴⁰”).

MZ liburutik KPera gehitu diren poemetan funtzionario/zaintzaileen krudeltasuna nabariagoa da, indarkeria gordinago eta presenteago dago. MZ liburuko KP atalean presoaren egunerokotasunak du garrantzi handiagoa. Urtaroek, denborak aurrera egiten duela, baina, presoak kartzelan jarraitzen du. Hala ere, indarkeria erakusten duten poemak ere badaude “Harmen kanoiak beren gorputzen aurka”, “Hemen gaude eta jarraitzeko asmoarekin”, “Inozenteen eguna” eta “Tortura egunak” dira horren adibide. Gainera, KPean gehitutako poemetan torturen zehaztapen gehiago daude “Gogoeta Matematikoa” edo “Kirofanoa” poemetan ikus daitekeen bezala. Horretaz gain, bigarren liburu honetan borrokan aritutako lagunen aipamen gehiago egiten dira (“borrokan hildako lagunak”), eta kartzelatua izateko arrazoiak azaltzen dira.

39 KPean “Hau da udagoiena”

40 KPean “Epaiketarako bidaia”.

Azkenik, HINMYn, aurrekoetan baino askoz agerikoagoa da funtzionarioen ankerkeria. Torturak kontatzen dira (“Kirofanoa”); “Bainera” olerkia argitaratzen da lehen aldiz, “Kirofanoa”-ren bigarren zati bezala ulertu behar dena; “Esnaerak” izenekoan ere funtzionarioek emakumearen kontra duten jarrera bortitza ikusten da; Kartzelan hildako bi presori eskainitako olerkiak daude “Joseba Asensio” eta “Mikel Lopategi”. Beraz, modu progresiboan biolentzia gehiagotan agertzen dela ondoriozta daiteke.

Gainera, batzuetan argitalpenez argitalpen egindako aldaketen bidez ere gogortasuna eransten zaio olerkiari. Jazarpena areagotu egiten da:

MZ (“Tortura egunak”) [...] Harmakin harrapatu duten mutilak lagun torturatuaren azalpena oroitzen du [...]	GP/ KP (“Tortura egunak”) [...] Edozer gauzarekin harrapatu duten mutilak lagun torturaturen baten azalpena oroitzen du [...]
GP/HINMY 1995/KP (“Kirofanoa”) [...] oin zolak erre zizkioten, zangoarteak erre zizkioten [...]	HINMY 2013 (“Kirofanoa”) [...] oin zolak erre zizkioten, zangoarteak kiskali zizkioten [...]

4.3.5. KARTZELAKO ZELDATIK LITERATURA UNIBERTSALERA

Liburuaren izenburuak zehazten duen bezala, kartzelan kokatzen dira olerki hauek. Harresiz eta hormaz inguratutako leku txiki eta itxian. Hala ere, bertako poemetan, hasieran pentsa daitekeenaren kontra, urruneko toki eta kulturetara garamatza. Horretarako baliabide asko erabiltzen ditu autoreak: urrun zein gertuko autoreen aipuak bere lanera ekarri; autore batzuen poema zatien bariazioak egin; bere lanak beste autore batzuei egotzi; beste kultura batzuetako bertso-moldeak imitatu etab. Gainera, liburuetan zehar modu progresiboan gehituz doaz beste literatura/kulturei egindako erreferentziak.

Hasteko, IABBen ez dago ez beste lekuetako erreferentziarik, ez beste autoreren aipurik ere. Olerki guztiak espetxearen testuinguruan kokatzen dira.

Hurrengo poesia liburuan, ordea, euskal literatura beste literatura batzuekin harremanetan jartzen saiatzen da idazlea. MZeko olerkien artean “Esklabu

Erramintaria” edota “Palestinar Presoak” bezalakoak aurki daitezke. Biek, Euskal Herritik urrun kokatzen diren arren, tema bakar bati jarraitzen diote: leku askotako borrokak eta zapalkuntzak islatzen dituzte. Euskal Herriak bezala, herri eta kultura indartsuago baten zapalketa jasan duten herrien oihartzunak helarazi nahi ditu honen bidez.

“Esklabu Erramintaria” izeneko poemak, zeina liburuan zehazten denez “poeta latinoaren imitazioa”-n sortua den, urruneko leku eta garai ezberdin bateko zapalkuntza darama liburura. Poema osatzen duten irudiek -Erroma, esklaboa, ezpatak, erremintari ofizioa- antzinako erromatarren garaia gogorarazten dute. Era horretan, euskara eta latina harremanetan jartzen ditu, baita Erroma eta Euskal Herria ere, eta esklabo erromatarrak eta euskaldun menperatuak ere (Jaka 2012: 327).

“Palestinar Presoak” izeneko poeman, presoak ez da gainontzeko poemetako euskalduna, palestinarra baizik. Herri zapalduen egindako konplizitate keinua genuke hau, kultura indartsuago baten zapalketa jasan behar izan duten herriei ahotsa eman nahi izan die egileak. Jakina denez, ez da Sarrionandiak ahotsik ez dutenei ahotsa ematen dien aldi bakarra. Esate baterako, aipagarria da Sarrionandiak berak osaturiko koplak sorta bat dagoela marijesiak moduan osatua. Koplak haur bat Palestinan jaiotzeaz dihardu, Jesusen jaiotzarekin alderatuz. Aipatutako lana, “Belengo Albisteak”⁴¹, 2014an eman zen ezagutzera *Gose* taldeak egindako *Gosariak* diskoan, zeinetan Sarrionandiak eginiko letrak eta Juan Luis Goikolearen eta Iñigo Arregiren ilustrazioak zeuden.

Horretaz gain, bi euskal idazleren lanen *bariazioak* ere aurki daitezke. Alde batetik, Federiko Krutwig euskal idazle eta politikariaren “Bihotza”⁴² olerkiaren lehenengo bertso-lerroa erabiliz “Munduak gezurra diyotsu, Bihotza” sortu zuen Sarrionandiak:

Bihotza

Munduak gezurra diyotsu, Bihotza

Federiko Krutwig,
bariazioak

Munduak gezurra diyotsu, bihotza.

Gezur-gezurra bere argi indartsuez,

Nigarretan miña inork ere aditzen

Eztuela derakhus.

[...]

Gezurak mundua diotsu, bihotza

Munduak bihotza diotsu, gezurra

Gezurak bihotza diotsu, mundua

Bihotzak mundua diotsu, gezurra

bihotzak gezurra diotsu, mundua

41 Eranskin gisa atxikita dago (2. eranskina).

42 *Egan* aldizkarian argitaratu zen 1949an.

Beste horrenbeste egin zuen Sarrionandiak Orixeren *Euskaldunak* liburuko “Olantzaro” olerkiarekin. Olerkiko bertso-lerro bat hartu eta hortik abiatuta izenak lekuz aldatuta olerki bat eratu zuen:

Olantzaro

Elurra bezain isil badator illuna

Nikolas Ormaetxea,
bariazioak

[...]

Elurra bezain isil ba dator illuna;

jun da argitu orduko gabon-il-eguna.

Berriro leiora da gure Etxeko-jauna

elurrak ein ote dun koska ezaguna.

[...]

Isila bezain ilun badator elurra

Elurra bezain ilun badator isila

Isila bezain elur badator iluna

Iluna bezain elur badator isila

Iluna bezain isil badator elurra.

Beraz, MZeko olerkietan euskal kulturako idazleekin eta herri zapalduekin lotura txikiak ezartzen hasten da. Orixeren eta Federiko Krutwigen lanen bariazioak egiteak garrantzi handia du bi pertsona hauek euskal munduan izan duten garrantziagatik. Koldo Mitxelena Orixen “euskal letretako garai jakin bateko idazlerik adierazgarriena” izan zela esan zuen (Mitxelena 1991: 142 apud Aldekoa 2008: 211). Gainera, Sarrionandiak *Euskaldunak* liburuko pasarte bat erabiltzen du bariazioak egiteko. Liburu horrek bete-betean erantzuten dio poema nazionala ontzeko asmoari.

KPean, ordea, mugak areago zabaltzen dira. Alde batetik, “Afrika Iparraldean” poema gehitzen da, lehenagotik IADEP liburuan agertu zena, baina, MZ bildumarako baztertutakoa. Poema honetan “Palestinar Presoak” poeman bezala, euskaldunena ez, baina beste borroka batengatik preso dagoen pertsona baten irudia helarazten zaigu. Kartzelari buruzko gogoetak ikus daitezke bertan, era honetan zapalduetako kulturen arteko lotura, elkartasun keinu bat egiten da. IADEP bilduman horrela egiten da Mohamed Al-Kaliren aurkezpena:

Eman dezagun duela mila urte sortu izan zela, desertuan, oihal mehe baten azpian.

Eman dezagun, gero gamelu eta zaldi zurien gainean ibiltzen zen gerlari urdin hark poema batzuk izkiriatu zituela. Eman dezagun, hirugarrenik, buruzagi hark hiri bat eraiki nahi izan zuela beste lur konkistatuetan. Eman dezagun, finean, gizon traizionatu

hark bere azken urteak Afrika aldeko gazteluan gatibu galdu zituela (Sarrionandia 2006: 104).

Hitz horietan Sarrionandiak “eman dezagun” behin eta berriro errepikatzearen poderioz norbaiten izatea asmatzen ari dela dirudi. Hala ere, GPean “Afrika Iparraldean” poeman “apokrifoak, Mohammed Al-Kali poetari atxekia” dela esaten du (Sarrionandia 1992: 37). KPean ideia berarekin jarraitzen du, izenburuaren azpian autoreak Mohammed Al-Kali dela esanda. Hala ere, MZ liburuaren “Irakurleentzako abisua”-n IADEP liburuan apokrifo batzuk daudela esaten du, nahiz eta zein poemari buruz ari den ez zehaztu.

Edozelan ere, Aiora Jakak dioenez, Sarrionandiak berak idatzitakoa da. IADEP liburuan hiru poemaren egiletasuna Mohamed Al-Kaliri egozten eta beste olerki itzuli batzuen artean aurkezten dituen arren, olerkiok Sarrionandiarenak dira, nahiz eta irakurleari beste autore baten lanen aurrean dagoela sinestarazi (Jaka 2012: 263). Ondorioz, kasu honetan behintzat, Mohammed Al-Kali Sarrionandiaren heteronimoa genuke.

Sarrionandiak kasu honetan beste izen bat erabiltzea ez da harrigarria Fernando Pessoaen eragina izan duela eta bere hainbat obra itzuli dituela jakinda. Izan ere, Pessoaak heteronimo asko erabiltzen zituen idazteko, horietatik famatuena (askoren ustez, orthonominoa) Alberto Caeiro zelarik. Horretaz gain, Sarrionandiaren olerki bateko pasarte batean jolas horren berri ematen da: “Gela barru honetan, mundutik lekora,/ zuziak aizkora bihur ditzaket./ Areago, Fernando Pessoa izan naiteke/ pertsona hori Alberto Caeiro zen lez”. Horretaz gain, aipagarria da *Izuen gordelekuetan barrena* izeneko liburuan badela “Alberto Caeiro-ren bisita” izeneko olerkia, zeinetan Sarrionandia Pessoaarekin konparatzen den: “«—Egun enauzu neu etorri/ Alberto Caeiro baino» erraiten zautan /Fernando Pessoa”.

Ekialdera ere salto egiten da hiru poemaren bidez. Hasteko, “Txinatar poema” izenekoa daukagu. Jakaren (2012: 326) esanetan, ez dakigu Sarrionandiak poema txinatar jakin bat ote zuen gogoan poema labur hori idatzi zuenean, edo aurretik leitutako txinatar poesiak inspiratuta sortu zuen. Hala ere, ukaezina da izenburuak txinatar literaturarekin jartzen duela harremanetan poema.

Ekialdeko tradizioarekin ere lotura ezartzen da haikuen bidez. IADEP liburuan

haikuei buruzko informazioa ematen du. Sarrionandiaren hitzak zuzenean hartuz:

Estetika eta filosofia desberdinekoak dira mendebaldeko poesia eta sartaldekkoa. Mendebaldeko poeta sortzaile eta artisaua izan ohi da. Japoniar poetak, berriz, ez du deus ere egiten, begiratu baino. Baina bat-batean zer edo zer gertatu da, ingurua une batez ustekabeen harritu duen zerbaiten lekukoa izan da bera, eta poema labur batean jasoko du gertaera harrigarri hori, mundura itzuli den isiltasuna hautsi gabe.

Japoniar poesian ez dago errimarik, ez azentu **tankerarik**, silabarik silaba neurtzen dira poemak. Poesia motarik klasikoena **waka** edo **tanka** delakoa da: bost lerro, lehenengo hiru eta gero bi, 5-7-5 eta 7-7- neurriekin. **Tanka** kate jarraitu eta luzeak egiten hasi zirenean renga izena eman zitzaien; autore desberdinak elkartzen omen ziren **renga haikai** hauek egiteko. **Renga** atal bakoitzaren hasierari **hokku** izena ematen zitzaion. Gero, 5-7-5 neurriko poema arinak egiten hasi ziren eta, **haikai** eta **hokku** izenak batuaz, **haiku** izena eman zitzaien.

(Letra lodiak testuarenak dira. Sarrionandia 2006: 148).

Beraz, imitazioz sortuak genituzke KPean agertzen diren haikuak. Jakaren (2012: 325) esanetan, IADEP libururako itzuli zituen hiru lerroko haiku labur horien molde berean eginak daude. Gainera, Sarrionandiak berak sortutako poemei haiku izena ematea esanguratsua da. Izan ere, euskaraz sortuak izan arren, irakurleari haiku batzuen aurrean dagoela esatean, poema horiek japoniar hizkuntzarekin eta literaturarekin jartzen dira harremanetan (ibid.: 325) eta, ondorioz, beste tradizio literario batekin ere bai.

Aipatutakoez gain, kasuren batean izenburuez baliatzen da erreferentziak egiteko, eta gainera ez du lehen argitalpenetik egiten: IABBn “91” izenburua zuen poema, MZean “Urtaroen aldaketa” da, eta KPean, berriz, “Urte giroak ene begietan” izenburua darama. Azken izenburuak Lizardiren “Urtaroak ene begietan” gogorarazten digu, baina, ez aurreko biek. Beraz, denboran aurrera egin ahala erreferentzia metaliterarioak areagotzeko beste estrategia bat genuke izenburuak aldatuz lortutakoa.

HINMY bilduman arreta jarrita, ez dago beste herri edo literaturei egindako erreferentziarik. Kontuan hartzekoa da “Hutsik geratu ziren zeldak” izeneko atalean poema hautatu gutxi batzuk baino ez daudela. Bestela esanda, HINMYko “Hutsik geratu ziren zeldak” izeneko atala kartzelaz diharduten poemen antologia antzeko bat

litzateke, ziurrenik horregatik utzi dira alde batera beste tradizio batzuetako poemak.

Amaitzeko, arestian aipatu bezala, argitalpenetik argitalpenera egondako aldaketarik esanguratsuena/nabarmenena gehiketa da. Goian ikusitakoez gain, beste gehiketa mota bat aipuen eta paratestuen bidez egiten da.

Aipuok ideologia askotako pertsonenak dira eta Literatura unibertsalera hurbiltzeko baliabidetzat jo behar dira. Izan ere, Aitzpea Azkorbebeitiak (1998: 91) gogorarazten duenez, Pott Bandako partaideek euskal kultura mendebaldeko kulturaren txertatzen dela azpimarratu zuten, beste herri/kulturekiko loturak izan direla eta badirela aintzat hartuz, eta, ondorioz, Euskal Herrian arreta jartzean gain, mundu zabalean ere kokatu behar dela defendatu zuten.

Horretaz gain, kontuan hartzekoa da beste egile batzuk edo haien lanak aipatzea irakurlearen partehartzea bultzatzeko mekanismo bat ere dela. Hala ere, Azkorbebeitiak (1998: 88) gogorarazten duenez, partehartzea irakurlearen ezagutzaren araberakoa izango da, irakurleak obra eta egile horiek ezagutzen dituen heinean aberastuko baita bere irakurketa.

IABB bildumari dagokionez, hasierako aipuaz gain (lehenago aipatutako F. Holderlinen galderaz gain) ez dago besterik. Poema hauetan zitarik egon ez arren, berauen ondorengo bertsioetan egon badaude. Esan beharra dago, olerki guztiek ez dutela aipurik, baina aipua dagoen kasuetan, beti bera dela.

IABB, IADEP eta *Marinela* liburueta olerkiek ere ez dute paratesturik. Bai, ordea, bertako olerkien ondorengo bertsioek.

Susa aldizkarian argitaratutako olerkiei dagokionez, bertako lau olerkietatik bik paratestuak dituzte. “Esklabu erramintaria⁴³” olerkian “Latinoen gisan” eginda dagoela zehazten da. Aipu bat ez izan arren, kasu horretan, funtzio bera beteko luke. Izan ere, gorago esan bezala, urruneko lurraldera garamatza eta beste tradizio batekin lotzen gaitu. Beste horrenbeste esan liteke “Zuziak eta Aizkorak” olerkiaz, bertan “«O Marinheiro» itzultzean” egin zela zehazten da. Aipatutako zehaztasunaren bidez, kasu honetan ere beste tradizio batekin zubia eraikitzen du egileak.

Paratestuak askotan lehen bertsioetik eta aldaketarik gabe agertzen diren arren, badaude salbuespenak. Batzuetan denboran zehar gehituz doaz eta zenbaitetan aldaketa txikiak antzeman daitezke:

43 Argitalpenetik argitalpen aldaketarik jasan ez duten paratestuak dituzten olerkiak: “Elurra bezain isil badator illuna”, “Bainera”, Gaiherdiko ametsa” eta “Munduak gezurra diyotsu, bihotza”.

Lehen adibidea “Afrika Iparraldean” olerkikoa genuke. Esan bezala, IADEP liburuan paratesturik ez daraman arren, GPean “Apokrifoa, Mohammed Al-Kali poetari atxekia” dela esaten da. Hurrengo bertsioan, hots, KPeana, ordea, “Autorea, Mohamed Al-Kali” izan dela esaten da. Edukian aldaketarik egon ez arren, gainontzeko paratestuetan ez bezala, aldatu egiten da.

Bigarren salbuespena “Oroimeneko portua” da. Izan ere, GP eta HDEOG liburuetan paratesturik izan ez arren, KPeana “Imanoli, eskerrekin” irakur daiteke.

Azkenik, “Kirofanoa” olerkiak GP eta KPeana paratesturik izan ez arren, HINMY bildumako bi argitalpenetan “Inquisitio, -onis I” dago. Era honetan, liburu bereko “Bainera” olerkiarekin loturak ezartzen dira. Izan ere, “Bainera”-ren paratestuan honakoa irakur daiteke: “Inquisitio, -onis II”.

Aipuetan arreta jarrita, kasu guzti guztietan aipuaren lehen agerpenetik aurrera, gainontzeko argitalpen guztietan olerki horrek beti aipu bera izango du, eta ez du inolako aldaketarik pairatuko.

MZ libururako aukeratutako aipuak idazle ospetsuenak dira: Cesar Vallejo, Hego-Amerikako poeta nagusienetakoaren aipua du “Joseba Asensio” poemak; Victor Hugo idazle frantsesaren aipua dago “Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik” olerkian; Fernando Pessoren aipua darama “Zuziak eta aizkorak” olerkiak; Herman Melvilleren “Itsaso debekatuak”; Dante Alighieriren “Epaiketarako Bidaia”-k, eta Ho Chi Minh-ena “Urte giroak ene begietan” olerkiak. Hauen artean ideologia ezberdinetakoak egon arren, aipagarria da Cesar Vallejo kartzelan egon zela amerindiarren aldeko jardura politikoa zela eta, Victor Hugok eta Dante Alighierik erbestea ezagutu zutela eta Ho Chi Minhek kartzelako egonaldian liburu bat idatzi zuela.

KP liburuan, MZeako aipuez gain, beste aipu batzuk gehitzen dira: Albert Einstein, João Guimarães Rosa, Carlos Drummond de Andrade eta Alfred de Vigny. Horretaz gain, Dante Alighieriren aipu berri bat gehitzen da. Kasu horretan, ez dira idazleen aipuak bakarrik aukeratu.

Amaitzeko, aipagarria da HINMY bildumako “Hutsik geratu ez ziren zeldak” atalaren hasieran dauden bi aipuen izaera. Ondorengoak dira aipuak: “Giro nella cella come una mosca che non / sa dove morire” Antonio Gramsci-rena eta “Ez dut gatibuaren uniformeak jantziko, / bizkarrean josten ez badidazue behintzat” Ciaran

Nugent-ena. Bi aipuak beste lurralde batzuetako espetxeetan daudenenak dira, eta espetxeko bizitzarekin lotura zuzena dute. Aipatutako bi aipuez gain, Alfred da Vigny eta Cesar Vallejorenak daude.

5. ONDORIOAK

Lan honetan zehar Joseba Sarrionandiaren kartzelako poemen kritika genetikoak egin dugu, autore bizkaitarraren idazketan antzeman daitekeen bilakaera azaleratzeko asmoz. Aipatutako metodologia kritikoak idazkuntza prozesu “amaigabetzat” ulertzen du, eta, idazleak hilabeteetan/urteetan egindako aldaketei erreparatuta, ibilbide bat antzeman daitekeela defendatzen du; estilo jakin baten aztarnak aurkitu; erabakiak; maniak edota ohiturak antzeman daitezkeela (Arcocha et al. 2010: 12). *Dinamika* kontzeptua erabiltzearen ondorioz, dimentsio tenporala sartzen da ikasketa literarioetan, eta hori da, hain zuzen ere, kritika genetikoaren helburua, obraren formakuntza progresiboa ikusaraztea.

Hori horrela, lehen atalean (1) lanaren planteamendu orokorraren berri eman dugu (1.1.), helburu eta lan hipotesiak aurkeztu (1.2.), eta aurrekariak eta gaur eguneko egoera zertan den (1.3.) azaldu dugu.

Bigarren atala marko teorikoak (2) osatu du. Bertan, kritika genetikoaren sorrerari (2.1.), helburuei (2.2.), kritikei (2.3.), eta aurrekariari (2.4.) buruzko datuak bildu ditugu.

Hirugarren atalean (3), mintzagai izan dugun autoreaz eta *corpusaz* aritu gara. Lehenik eta behin, Joseba Sarrionandiaren biografiaren daturik aipagarrienak ekarri dira lanera (3.1.); ondoren, *corpusa* osatzen duten liburu eta aldizkariak aurkeztu dira (3.2.); hurrengo azpiatalean hainbat adituk (Izagirre, Aldekoa, Otaegi) Sarrionandiaren poesiagintzaz esandakoak labur ekarri dira lanera (3.3.); hirugarren atalarekin amaitzeko, kritika genetikoaren metodologia aurkeztutako *corpusean* aplikatzeko justifikazioa egin da (3.4.).

Laugarren atalean, berriz, testuetan zentratu gara, argitalpenez argitalpen eta edizioz edizio egondako aldaketetan alegia. Lehenengo azpiatalean (4.1.) poema bakoitzak izan duen ibilbideari erreparatu diogu. Hasteko, ibilbide etena izan duten olerkietan jarri dugu arreta (4.1.1.); ostean, MZetik KPera gehitutako olerkietan (4.1.2.);

hurrengo azpiatalean KPean soilik aurki daitezkeen olerkiak aztertu ditugu (4.1.3.); ondoren, “Post Scriptum” atalekoak (4.1.4.); HINMY liburuan gehitutako olerkiak ere izan ditugu mintzagai (4.1.5.); eta, amaitzeko, antologietarako poema hautatuak zeintzuk izan diren ikusi ditugu eta hautatuak izatearen arrazoiak ematen saiatu gara (4.1.6.).

Laugarren ataleko bigarren azpiatalean, olerki beraren bertzioak elkarren artean erkatu dira, argitalpenez argitalpen egilearen aldakei buruzko informazioa lortzeko asmoz (4.2). Lehenik eta behin, hainbat orokortasun eman dira bildumetan aurki daitezkeen aldaerei buruz (4.2.1.); honen ostean, hizkeran antzeman daitezkeen aldaketetan zentratu gara (4.2.2.); ondoren, ibilbidean zehar burututako aldaketak aztertu ditugu (4.2.3.): hala nola, gehiketak (4.2.3.1); posesiboak ezabatzeko joera (4.2.3.2.); singularretik pluralera egondako aldaketak (4.2.3.3.); indefinitutik definitura egondako aldaketak (4.2.3.4.); baieztapenen kuestionamendua (4.2.3.5.); denboran antzeman daitezkeen aldaketak (4.2.3.6.); pertsona aldaketak (4.2.3.7.); zehar estilotik estilo zuzenera emandako aldaketak (4.2.3.8.); esaldien berregituraketa (4.2.3.9.); eta sinonimoen ordezkatzeari (4.2.3.10).

Laugarren ataleko azken azpiatalean urteetan zehar antzeman daitezkeen ikuspuntu aldaketetan jarri dugu arreta (4.3.): hala nola, pertsona izenordainetan (4.3.1); emakumeen irudian (4.3.2); metaforetan (4.3.3); gaietan (4.3.4.); eta, kartzelatik literatura unibertsalera egiten duen jauzian (4.3.5.).

Azken atal honetan, ondorioei buruz mintzatuko gara, eta lanean zehar aipatutako zenbait puntu hartuko ditugu berriro, arreta bereziaz erreparatzeko.

Hasieran planteatutako hipotesietara bueltatuz, bi izan dira. Alde batetik, abiapuntuko hipotesi nagusia denbora aurrera joan ahala biolentzia areagotzeko/agerikoago egiteko joera dagoela izan da. Bai poemen gaiagatik bai poemen baitan egiten diren aldaketengatik ere. Orain, hipotesia betetzen dela baieztatu dezakegu. Izan ere, denborak aurrera egin ahala, gero eta gehiago dira indarkeria esplizituki erakusten duten olerkiak. Kasu gehienetan, biolentzia funtzionarioen ankerkeriaren bidez erakusten da.

IABB bilduma espetxeko testuinguruan kokatu arren, ez dira, beste bildumetan bezala, torturak, hildako lagunak etab. agertzen. Aurrera egin ahala, hauen presentzia areagotuz doa, eta HINMYn, ukazinezko garrantzia dute. HINMY bilduma osatzen

duten hamaika olerkietatik, bik kartzelan hildako lagunak oroitzen dituzte (“Joseba Asensio” eta “Mikel Lopategi”); beste bik torturak kontatzen (“Kirofanoa” eta “Bainera”); “Esnaerak” izeneko olerkian, ikusi dugun bezala, funtzionarioek emakume presoarekiko duten joera ankerra ikus daiteke; “Preso egon denaren gogoa” eta “Aspaldian utzitako zelda” olerkietan idazleak, fisikoki aske egon arren, kartzelatuta jarraitzen du bere baitan. Beste olerki batzuetan preso daudenak gogoratzen ditu, haien sakrifizioa goratu eta haien askatasuna eskatzen (“Aberriaren astuna paparrean⁴⁴” eta “XI. gutuna”); beste olerki batean, idazlea bera preso zegoen garaiaz gogoratzen da eta espetxetik alde egiteko unea imajinatzen du (“Egunen batean”). Amaitzeko, “Bake beltza” olerkian ere gogortasuna eta “gu/zuek” kontrasteak euskal gizarte osoari eragiten diola nabari da.

Nahiz eta bilduma honetan hamaika olerki baino ez egon, gainontzeko bildumetan baino presentzia handiagoa du kartzelak, eta gainontzekoak baino gogorragoa da bai estilo aldetik (“Bake beltza”) bai gaien aldetik. Gainera, lehenago esan bezala, bilduma honetako “Hutsik geratu ez ziren zeldak” atalean metaforek eta irudiek ez dute lekurik, tropoen arloa gutxienera dator. Ez da itsasoaren edo hormaren aipamen bakar bat ere egiten. Ondorioz, lan honetarako erabili dugun *corpusa* bakarrik aintzat hartuta, idazle bizkaitarra zuzenago bilakatu da, eta hizkera metaforikoa alde batera utzi du edo gutxienera ekarri du kartzelako gaiak modu zuzenagoan aritzekoan.

Horretaz gain, 4.3 atalean ikusi dugunez, badira aztertu dugun ibilbidean zehar presentzia izan duten gaiak, baina azken bildumara heldu ez direnak. Horren adibide dira esaterako, hizkuntzarekiko edota poesiarekiko mesfidantza, eta urtaroen aldaketa eta denboraren igarotzea. Gai hauek denboran zehar intentsitate gutxiagoz agertzeak indartu egiten du abiapuntuko hipotesia. Izan ere, hauek gutxiagotan agertzean, irudi eta tropoen bidezko adierazpena gutxitu, eta pairatutako biolentzia gehiagotan agertzen da, hizkera esplizituagoaz.

Hasierako hipotesiaren aldeko beste argudio bat, zenbaitetan poema batek berak jasandako aldaketen bidez biolentzia areagotzen dela da. Hori da, hain zuzen ere, “Tortura egunak” olerkiaren aldaeretan ikusi duguna (74. orrialdea).

Abiapuntuko hipotesiaren aldeko azken argudioa singularretik pluralera eta indefinitutik definitura egindako aldaketak dira. Esan bezala, sinekdoke bidez bakarra

44 KPeana “Lagun Presoak”

izendatzen den arren, pluralak eragin zuzenagoa du. Joera honek bat egiten du indefinitua definitura aldatzarekin. Zehaztasunera joz larritasun sentipena, gogortasuna areagotzen da. Bai pluralen bidez (orokorrean plurala gehitzen den pasarteak gogorrak dira) bai, definituaren bidez (zehaztasuna lortzen da). Gainera, bi baliabide hauek erabiltzearen poderioz lortutako irudiak bisualagoak dira.

Hori guztia kontuan hartuta, lehenengo hipotesia bete dela esan dezakegu. Beste aldetik, hasieran planteatutako bigarren hipotesiari dagokionez, idazleak urteen poderioz garbizaleago izateko joera erakusten duela esan dugu, erdal maileguak euskal ordainengatik ordezkatzan dituela, eta euskara batura hurbiltzeko joera duela. Lanean zehar ikusitakoa kontuan hartuta, hipotesi hau ere betetzen dela esan daiteke.

Ikusi dugunez, idazle iurretarrak hainbat baliabide erabiltzen ditu euskara batura hurbiltzeko: erdarazko mailegua alboratu eta euskal ordainengatik aldatzea, euskalkietako hitz eta ezaugarriak orokorrak direnengatik aldatzea, euskara batuko arau ortografikoei jarraitzea, eta euskara estandar berrian gaztelaniaren interferentziatzat jotzen diren “bat” izenordaina eta “bere” posesiboa eliditzea.

Sarrionandiaren hizkerari buruz aritu garenean (4.2.2. atala) zenbait adituk Sarrionandiak euskara batuari eta edozein joera arauemaileri aurre egiteko nahia (Azkorbebeitia 1998) edota aldaera poetikoena aukeratzeko (Jimenez 1997) joera duela ikusi dugu. Horretaz gain, hitzak nahieran erabiltzeko eta idazteko askatasuna ere aldarrikatzen zuen (Azkorbebeitia 1998: 119). Hala ere, 4.2.2. atalean esan bezala, aipatutako baieztapenak laurogeita hamarreko hamarkadakoak dira, eta olerki horiek gaur egunera arteko ibilbidean izan duten bilakabidean joera arauemailerara lerratu direla ondoriozta daiteke.

Kontuan hartzekoa da batzuetan maileguak euskal ordainengatik ordezkatzan dituenean, ordezkatzutako hitz horiek euskara batuan onartuta daudela. Esate baterako, “juje” hitza “epaile” hitzagatik ordezkatu da, baina, biak daude euskara baturako onartuta, nahiz eta Euskaltzaindiak “juje” hitza Iparraldean erabiltzen dela zehazten duen. Gainera, bi hitzek dute tradizioa euskal letretan. OEHN zehazten denez “juje” Iparraldeko tradizioko berezkoa da, eta “epaile” erdialdeko tradizioan lekukotzen da XIX. mende amaieratik aurrera.

Beste horrenbeste gertatzen da “baso” hitzarekin. Euskara baturako onartuta dago, eta OEHN batez ere erdialdeko testuetan agertzen dela zehazten da. Iparraldean

Etxeberri Ziburukoak erabiltzeaz gain, kontu liburu batean ere ageri da. Tradizioa izan eta euskara estandarrerako onartua egon arren, “edalontzi” hitzagatik ordezkaten da.

Bi adibide horietan ikus daitekeenez, garbizaletasunera jotzeko joera dago, hitz batek tradizioa izan eta euskara baturako onartua egon arren, erdal hitzen baten forma baldin badu baztertu egiten da. “Inmortal” hitza ere lekukotuta agertzen da XIX. mende erdira arte, baina baztertua izan da. Bestalde, Euskaltzaindiak dioenez, “eternal” hitza gaur egun gutxi erabiltzen bada ere, onartuta dago, eta OEHren esanetan Iparraldeko tradizioan Leizarragaz geroztik erabilia izan da ia modu orokorrean XIX. mende amaierara arte. Hegoaldean, berriz, Elkanoko Lizarragak, Etxenikek eta Lasak erabili dute eta Gernikako Marijesietan ere badago. Halere, “betiereko”-gatik ordezkatu da.

“Bentiladorea” hitzaren kasua, ordea, bestelakoa da. Izan ere, Euskaltzaindiak dioenez, “forma okerra edo euskara batuan saihestu beharrekoa” da, eta horren orde “haizegailua” erabiltzea proposatzen da. Hori da, hain zuzen ere, Sarrionandiak egiten duena.

Hori guztia ikusita, badirudi euskara batura lerratzeaz gain, erdal tankera izan dezaketen hitzak alde batera uzten dituela idazle iurretarrak. Beraz, egiaztatu egiten da garbizaletasunerako edota lexiko jatorragoaren aldeko joera duela. Euskarak inguruan dituen hizkuntz handien hitzak baztertzeko nahia duela, alegia.

“Bat” determinatzaileari dagokionez, esan bezala, Izen Sintagmetan gehiegi sartzea gaztelaniaren eragintzat jo izan da. Ildo berean, “bere” posesiboa eliditu egiten da euskara jatorragoaren mesedetan.

Joera arauemailera lerratzeko arrazoiak euskara estandarraren finkatzearekin eta tradizio literario oparagoa izatearekin zerikusia izan dezaketelakoan nago. Izan ere, *Sautrelan* 2015ean egin zioten elkarrizketa batean Sarrionandiak dioenez, dagoeneko badago euskarazko idazkera estilo eta obra nahikoa. *Sautrelan* egindako elkarrizketan Sarrionandiak euskara batuaz eta literatur hizkuntzaz duen ikuspegia azaldu zuen. Bere hitzak zuzenean hartuz:

Dena dela literaturan iada obra zabala egin da. Badugu, gutxi gora behera, idazkera eredu bat eta liburutegia gure hiper hizkuntza txikian (ere bai). Nire ustez, gure literaturaren erronketako bat da bestelako barietateak inkorporatzea. Horregatik interesatzen zait Antton Lukuren idazkera, esate baterako, edo Patziku Perurena edo Aingeru Epaltzarena, edo bizkaieratik datozen aportazioak.

Beste erronka larri bat errealismo linguistikoarena da, nire ustez. Nire belaunaldikoek, guk, hizkuntza utopiko batean egin dugu literatura eta oso ondo (dago hori), edozein literatura da utopikoa. Baina literatura utopiaren eta errealismoaren artearen mugitzen da eta gure errealitate linguistikoa literaturan seguru islatuko dela gero eta gehiago.

Tradizio literarioa egokitzen hasteaz gain, euskara batua egonkortutako hizkuntza da dagoeneko. Sarrionandiaren beraren hitzak zuzenean hartuz: “erdi asmatzen ari ginen hizkuntzak jadanik trafikoarena bezalako arautegi bat duelako, obedi dezaketena anarkistek ere” (Ayerbe 2016: 71 Sarrionandia *Narrazio Guztiak*).

Hala ere, ukazina da Sarrionandiaren hizkerak baduela gainontzeko idazleengandik bereizten duen kutsu berezia, bazterretako hitzak eta ezaugarriak erabiltzeak ematen diona. Aipatutako hitzok, euskara estandarrean onartuta dauden arren, ez dira erabilera esparru handikoak. Bere aurreko tradizio literarioko idazleen eragina da.

Hasieran planteatutako hipotesiez gain, lanean zehar agertutako beste ondorio zenbait ere ekarriko ditugu ondorioen atalera.

Sarrionandiaren olerkien artean gehien nabarmentzen den aldaketa adjektibo, sintagma, esaldi edota ahapaldi osoen gehiketa da eta zehaztasuna, konkretutasuna lortzea du helburu aldaketa honek. Mikel Ayerbek (2016: 75) joera bera antzeman zuen Sarrionandiaren narrazioetan: “nabarmendu behar da bertsio berridatzian bereziki gehiketa bidezko aldaerak aurkituko ditugula, egileak xehetasun gehiago erantsiko ditu, oro har, ipuinaren bertsio berrituan”.

Arestian ikusi dugunez, autore iurretarra, beste mekanismo batzuez baliatuz ere zehaztasunera hurbiltzen da. Batez ere, gehiketen bidez eta askotan adjektiboez baliatuz. Horretaz gain, denbora aldaketa batzuekin ere efektu bera lortzen du. Hori da, esaterako, “Zuziak eta Aizkorak” olerkiaren kasua. Izan ere, aditz denbora hipotetikotik orainaldiko ahalerara igarotzean konkretutasuna, zehaztasuna bilatzen da. Beraz, aldaketetako askok helburu bera jarraitzen dutela ondoriozta dezakegu.

Olerki beraren aldaeretan denboran aldaketak antzeman daitezke. Zenbait kasutan poema osoaren denbora aldatzen da, beste zenbaitetan, ordea, pasarte jakin batekoa. Hala ere, ikusitako adibideetan (70. orrialdea) aldaketek beti jarraitzen diote norabide berari: orainalditik iraganera aldatzen dira. Baliabide horren bidez, gertaerak

denboran urrutzen ditu, eta orainaldian aurkezten dituen “eszenak” “narrazio” bihurtzera jotzen du. Joera bera ipuinetan ere antzeman daiteke. Lehen aroan deskripzioak eta “eszena” geldiek dute nagusitasuna, bere gaitasun pintatzailea aprobetxatzen dute: estatismoa eta gelditasuna laguntzen. Aldiz, iraganean, narrazio izatera pasatzen dira gertaerok, eta denboraren dinamismoaren menpe jartzen dira. Kontuan hartzekoa da denbora aldaketa jasaten duten olerkiak (“Sortaldeko orratzak” eta “Esperantza”) espetxeko testuinguruan kokatzen direla. Idazlearen kondizio pertsonalarekin zerikusia izan dezakete aldaketok, dagoeneko preso ez dagoenez, baliteke horregatik iraganera aldatzea olerkiak. *Gu* eta *besteak* atalean ikusi bezala, idazlearen kondizio pertsonalak horrela eraginda, momentu batetik aurrera egileak ez du bere burua presoen kolektiboaren partetzat jotzen.

Olerki beraren aldaerek argitalpenetan izandako bilakabideari dagokionez, ikusi dugun bezala, badirudi poemak bildumaren arabera bilakabide autonomoa duela. Hori da, hain zuzen ere, KPean eta HINMYn argitaratu diren olerkien kasua. Izan ere, zenbait kasutan HINMY 1995ean GPean bestelako aldaketak aurki daitezke. KPean berriro ere GPean bezala agertzen da, eta HINMY 2013ko bertsioa HINMY 1995ekoa bezalakoa da. Hori gertatzen da, esaterako, aztertu dugun “XI. gutuna” olerkian. KPean eta HINMY liburuek izaera bera ez dutela kontuan harturik, baliteke bilduma baterako aldaera bat gehiago egokituko zela pentsatu izana egileak. Izan ere, KP eta HINMY bildumen argitalpenak denboran zehar tartekatu direnez, autoreak aukera izan du HINMY 1995eko aldaera hurrengo bertsioetara hedatzeko.

Bi bildumek komunean dituzten olerkiak aztertu ditugunean ikusi dugunez, bertsio batetik besterako aldaketek norabide asko izan ditzakete. Halere, aldaketa asko bildumaren araberrakok dira. Izenburuak esaterako horren adibide dira: bilduma batean “Lagun presoak” (MZ, GP eta KP) izenburupean agertzen dena, beste bilduma batean “Aberriaren astuna paparrean” (HINMY, 1995, 2013) deitzen da. Beste horrenbeste gertatzen da “XI. gutuna” (GP, KP) eta “Lagun presoek gutuna” (HINMY 1995, 2013) izenburuekin.

“XI. gutuna” aztertzean ikusi bezala, bi bildumetan olerki berak bilakabide beregaina duela esateko beste arrazoi bat, HINMYko bi argitalpenetan ahapaldi oso bat gehitu dela izan da. Horretaz gain, beste aldaketa batzuek ere norabide bera jarraitzen dute, hitzen aukeraketak esaterako.

Hala ere, bi bildumetako olerkiak alderatu ditugunean, aldaketek beti norabide bera jarraitzen ez dutela ikusi dugu: aldaketa batzuek ordena kronologikoari jarraitzen diote (hau da, GP eta HINMY 1995ean era batera eta KP eta HINMY 2013an beste era batera), batzuetan argitalpen batean berrikuntza bat gehitzen da, eta gero berriro ere hasierako forma agertzen da hurrengo argitalpenetan, etab.

Aldaerarik nabarmenenak bildumaren araberrakok direla esan dugu. Ez da harrizkoa, bilduma bakoitzak helburu/izaera/batasun ezberdina duela kontuan hartzen baldin badugu. Jon Kortazarren (2009) esanetan, HINMY da poesia sailean Joseba Sarrionandiaren bildumarik borobilena, hamar urteko lana biltzen duena. Baliteke, bilduma hau KP baino irakurle talde zabalago bati zuzenduta egotea eta, ondorioz, egileak bere burua zehaztaperen gehiago ematera behartuta ikustea.

Urteetan zehar antzeman daitezkeen ikuspuntu aldaketetan arreta jarritz, ikusi dugun bezala, emakumeek gero eta presentzia handiagoa dute. Emakumeen presentzia agerikoagoa izateaz gain, pertsonaia horiek duten funtzioa ere aldatu egiten da: lehenengo olerkietan, presoa gizonezko irudiaren bidez gorpuzten da, idazlearen proiektzioa egiten da. Emakumearen irudia, ordea, beste motakoa da: amarena edota maitalearena. Gizon militantearen irudia emakume estatikoaren irudiarekin kontrajartzen da.

Halere, “Post Scriptum” atalean aldaketa antzematen has daiteke “Lagun Presoak” izeneko olerkian lehen aldiz emakume presoaren izenak agertzen zaizkigu. Aldaketarik nabarmenena, ordea, HINMYko “Esnaerak” olerkian gertatzen da. Bertan, emakume militante bat agertzen zaigu eta bere espetxealdia erakusten.

Aztertutako joera horrek, emakumeen presentzia areagotzea eta betetzen duten funtzioa aldatzea alegia, bat egiten du Mikel Ayerbek eta Eider Rodriguezek antzemandako aldaketekin.

Sarrionandiaren olerkien hainbat bilakabideri erreparatu ondoren, berriro bueltatuko gara kritika genetikora. Erabilitako metodologiaren marko teorikoan (2) eta justifikazioan (3.4) aipatu denez, eta Almuth Grésillonek (2012: 39) dioenez, terminoak definitzeko orduan ez dago adostasunik. Beste batzuen artean, galdera hauek planteatzen ditu: zer da dokumentu genetiko bat? Nahitaz eskuizkribu bat izan behar da? Zer da zehatz-mehatz edizio genetiko bat? Zer da aurre-testu bat? Esan bezala, galdera horiek interesgarriak dira gure kasuan, *corpusa* argitaratutako olerkiek osatu

dutelako.

Esan bezala, ez zaio poemen bilakabide osoari erreparatu, hots, ez dira argitaratutako testuen aurrekari diren lekukotasun idatziak erabili. Erabilitako material bakarra orri inprimatua izan da, ez dira koaderno, orri solte edo filigranak erabili. Ez gara eskuizkribuaren mundura lerratu, eta ez dugu idazketarako erabili diren instrumentuen (tinta, boligrafoa, arkatza, pluma etab.) berri izan, ezta idazlearen eskuak egindako zirriborroen berri ere ez. Hori guztia kritika genetikoaren metodologiaren kontra doa.

Hala ere, lanean zehar dimentsio tenporala kontuan hartu da, denboran zehar egondako bilakabidea aztertu den aldetik. Eta, horretaz gain, autoreak berak egindako aldaketak izan dira erkatu direnak. Beraz, kasu honetan bai, kritika genetikoaren metodologiari jarraitu zaio.

Biasik (1998, 2011) genesiaren bilakaeran lau aldi nagusi sailkatu zituen. Labur-labur ekarrita:

Lehenengoa, erredakzio aurreko aroa da. Bertan, erredakzio lanerako beharrezkoak diren materialen aurre-bilaketa: dokumentazio ikerketa, lehenengo esaldien, paragrafoen eta orrialdeen balizko zirriborroak aztertzen dira. Bi urrats bereiz daitezke: esplorazioaren garaia eta erabakiena (Ayerbe 2016: 16).

Bigarrena, erredakzio aroa da. Ayerberen (ibid.: 16) esanetan, “obraren sormen prozesuko hainbat materialek zein zirriborrate bidean aurki daitezkeen askotariko mailakatze urratsek definitzen dute aro hau”. Erredakzio aroaren baitan hiru multzo egin daitezke: lehenik, erredakziorako dokumentazio dosierra: erredakzio aurreko aroan sorturiko dosierraren garapena eta aurreko aroko elementuen sakontzea da. Bigarrenik, erredakzio dosierra edo obraren zirriborroa, Ayerberen (ibid.: 17) esanez erredakzio aroko prozesu esanguratsuenak. Idazketa/berridazketa saioak etengabekoak dira aro honetan. Aurrez zehaztutako eskema orokorra osatzen da, egitura eta antolakuntza definituz. Une honetan obraren idazketa estiloa garatzen hasiko da. Eta azkenik, zuzenketa eta garbira pasatzeko unea. Aro horretan idazketaren bertsio ia definitiboa taxutzen hasten da (Ayerbe 2016: 17).

Hirugarren aroa argitaratze aurrekoa da. Aro horretara arte eskuizkribua idazlearen esparru pribatuan landu da. Argitaratze aurreko aroan, ordea, eskuizkribuak tipografia jakin bat bereganatzen du, eta zirriborro izaera galtzen (ibid.: 18). Halere,

azken zuzenketa garaia da, eta eskuzko zuzenketa apografoekin batera iradokizun apografoek lekua izan dezakete. Amaitzeko, aro horretan, inprimatuko den testuari onespina ematen zaio. Aro horretan eskuizkribua testu bilakatuko da: inprenta frogak egingo dira, azken uneko zehaztasunak zuzenduko dira etab.

Azkeneko aroa argitalpen garaia da, eta bertan, eskuizkribua obra definituko duen testua bilakatzen da (ibid.: 18). Halere, zenbaitetan, lehen bertsioa ez da definitiboa izaten, ondorengo argitalpenetan idazleak zuzenketak/moldaketak egin ditzake. Ayerbek (ibid.: 18) dioenez, “testu-aldaera gisa aztertu izan dira moldaketok eta bertsio eraberrituok, eta idazleak bizirik eginiko azken moldaketen bertsioa izan da horrenbestez testu “definitibotzat” hartu beharko dena”. Baina, gerta liteke argitaratutako testu bat hurrengo testu baten zirriborroa izatea.

Guk argitalpen garaia baino ez diogu so egin. Hala ere, Sarrionandiaren egoera pertsonak eraginda ezin da informazio hori jaso. Gorago esan bezala, idazle iurretarrak zailtasunak izan ditu bere lanen zirriborroak gordetzeko, bai kartzelako egonaldian, baita erbestean ere. Gainera, kontuan hartzekoa da aztertutako *corpusa* garai horretakoa dela.

Horretaz gain, Sarrionandiak berak aitortu duenez, ezin izan du argitaratze aurreko aroa jarraitu, nahiz eta garai horren garrantziaz kontziente izan (*Izuen gordelekuetan barrena* liburuaren hitzaurrean adierazi bezala).

Olaziregik (2009) eta Ayerbek (2016) sorkuntza-prozesu baten bilakaera jarraitzeko, batzuetan, edizioak erabiltzea zilegi izan daitekeela uste dute. Izan ere, zenbait kasutan, argitaratutako lehen edizioa ez da “definitiboa” izatean eta ondorengo argitalpenean zuzenketak eta moldaketak egon daitezke.

Lan honetan ikusi dugunez, Sarrionandiaren KPeko olerkietako argitalpenak alderatuz errepikatzen diren konstanteak antzeman ahal dira eta hortik abiatuta aldaketok interpretatu. Aurkitutako aldaketak direla eta, agerikoa da Sarrionandiaren olerkiek mugimenduan dagoen testu bat erakusten dutela. Egia da prozesu osoa jarraituz gero, informazio gehiago lortuko litzatekeela eta, ziurrenik, Sarrionandiaren idazketa prozesuaren eboluzio eta joeren berri sakonagoa izango genukeela eskuizkribu, kaiera eta antzeko aurretuez baliatu ahal izan bagenu. Halere, argitalpenak bakarrik erabiliz zenbait joera adierazgarriren berri izan dugunez, argitalpenetan aldaerak baldin badaude kritika genetikoaren metodologia kritikoa erabil daitekeela baieztatu daitekeela dirudi.

Etorkizunerako lanei dagokionez, metodo hau beste lan batzuetan aplikatuz lortutako emaitzak berresten diren ala ez aztertu beharko litzateke. Bestela esanik, Sarrionandiaren poesia *corpus* osoan aipatu diren prozedurak berresten diren frogatu ahal izango da. Gure ekarpen honek ibilbide horretarantz emandako urratsa izan nahi du.

6. BIBLIOGRAFIA

- ALDEKOA, I. (1989a): “J. Sarrionandia: Poeta navegante”, in *Leer*, 26. zenb.; 68-69.
- _____ (1989b): “Joseba Sarrionandiaren poesia: Itsaso gartzelatua”, in *Hegats*, 1. zenb.; 5-10.
- _____ (1993): *Zirkuluaren hutsmina. Jatorrizko erromantizismotik euskal poesia modernora*, Irun: Alberdania.
- _____ (1997): “Paganismo y última poesía vasca”, in *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca*, 5. zenb.; 315- 323.
- _____ (2008): *Euskal literaturaren historia*, Donostia: Erein.
- AYERBE, M. (2016): *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai*. EHU, 2016ko uztailaren 14ean Gasteizen defendaturiko tesi doktora. Argitara gabea.
- ARCOCHA-SCARCIA, A.; LLUCH PRATS, J. & OLAZIREGI, M. J. (2010): “Un lugar de encuentro: la reconstrucción de la escritura”, in ARCOCHA-SCARCIA, A.; LLUCH PRATS, J. & OLAZIREGI, M. J. (arg.), *En el taller del escritor. Génesis textual y edición de textos*, Zarautz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua; 11-17.
- ARKOTXA, A. (2008): “Kritika Genetiko” in A.A, *Literatura terminoen hiztegia*, Bilbo: Euskaltzaindia; 487-491.
- AZKORBEBEITIA, A. (1998): *Joseba Sarrionandia: irakurketa proposamen bat*, Bilbo: Labayru ikastegia/Amorebieta-Etxanoko Udala.
- _____ (2002): “Sarrionandia irakurriz: hau izanik hona da”, Bilbo Zaharra Forumean emandako hitzaldia.
- BARBANCHO, I. (2009): “Izuen gordeleketan barrena (1980)” [sarean]. Donostia: euskara institutua. *Euskal Literaturaren Hiztegia (ELH)*: <<http://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=685>>. [Kontsulta: 2016/07/23].
- BENITO, J. (2006): “Ibilbide ideologiko-poetikoa gatazkaren euskal poesian”, in EGAÑA, I. & ZELAIETA, E. (arg.), *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea; 107-134.

- BIASI, P. M. de (2011): *Génétique des textes*, Paris: CNRS Éditions.
- ETXEBARRIA, H. (2002): “Joseba Sarrionandia”, in *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Irun: Alberdania; 126-149.
- EUSKALTZAINDIA (s.v.): “Orotariko euskal hiztegia” [sarean]. Bilbo: euskaltzaindia. *Orotariko euskal hiztegia*: <http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu>. [Kontsulta: 2016/07/21].
- GRÉSILLON, A. (1994): *Éléments de critique génétique. Lire les manuscrits modernes*, Paris: P.U.F.
- _____ (2012): “La critique génétique: origenes et perspectives”, in VAUTHIER, B. & CORRADINE J.G. (arg.), *Crítica genética y edición de manuscritos hispánicos contemporáneos*, Salamanca: Ediciones Universidad de Salamanca; 35-43.
- IVAP (2003): “Bat”, in *Galdezka*, Zarautz: Itxaropena; 60-64.
- IBARGUTXI, F. (1987): “Urrutiko parajeetatik hemengo oinazera”, in *El diario vasco, Zabalik*, 1987-12-18.
- ITURRALDE, J. M. (1992): “Epilogo”, *Gartzelako Poemak*, Iruñea: Susa; 115-116.
- JAKA, A. (2012): *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*, IKER, 28. zenb. Bilbo: Euskaltzaindia.
- JIMENEZ, E. (1997): “Sarri, Ona eta Handia” in *Sarrionandia, urteurrenik gabe hitzaldia*, Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea, 1997-12-1.
- JUARISTI, F. (1992): “Gartzelan ere libre”, in *El Diario Vasco, Zabalik*, 1992-11-07.
- KORTAZAR, J. (1982): “Joseba Sarrionandiaren *Izuen gordelekuetan barrena*”, in *Jakin*, 23. zenb.: 133-141.
- _____ (1989): “Joven poesía vasca. Un acercamiento a la última producción poética”, *Congreso de literatura*, Madrid: Ed. Castalia; 287-299.
- _____ (2009): “Hnuy nyha majah yahoo poemak 1985-1995” [sarean]. Donostia: euskara institutua. *Euskal Literatura Hiztegia (ELH)*: <<http://www.ehu.eus/ehg/literatura/?p=610>>. [Kontsulta: 2016/ 07/ 22].
- _____ (2001): *Oroimenaren eszenatokia. Pott bandaren poesia*, Bilbo: Labayru-BBK.
- _____ (1997): *Lurra eta Luma. Euskal poesia 80ko hamarkadan*, Bilbo:

Labayru Ikastegia.

- LLUCH-PRATS, J. (2010): “Los estudios de génesis textual”, in ARCOCHA-SCARCIA, A., LLUCH-PRATS, J. & OLAZIREGI, M.J. (arg.), *En el taller del escritor. Génesis textual y edición de textos*, Bilbo: UPV/EHU; 19-54.
- MARKULETA, G. (1990): “Sarrionandiaren samurra zertan den”, in *El diario vasco, Zabalik*, 1990-2-28.
- MENDIGUREN, X. (1988): “Marinel zaharrak”, in *Argia*, 1988-02-14.
- OLAZIREGI, M. J. (2009): “Testuak mugimenduan. Iruzkina laburrak egungo euskal literatur lan zenbaitez”, in *Lapurdum*, 13. zenb.; 289-295.
- OTAEGI, L (1998): “Joseba Sarrionandia y el destino del viejo marino”, in *Insula*, 623. zenb.; 16-18.
- _____ (2000): *Joseba Sarrionandia. Marinel Zaharren kantua*, Bilbo: Labayru Ikastegia/BBK.
- _____ (2006): “XX. mendeko euskal poesia” [sarean]. Donostia: Euskal Literaturaren ataria. *XX. mendeko euskal literatura: poesia*. <<http://www.basqueliterature.com/basque/historia/hogeimende/poesia>>. [Kontsulta: 2016/08/22].
- OTAMENDI, J.L. (2011): “Ezikusia egin ote dakioke itsasoari?”, in *Kartzelako Poemak*, Zarautz: Susa; 7-16.
- PASTOR, E. (2008): “La crítica genética: avatares y posibilidades de una disciplina”, in *Genética textual*, Madril: Arco; 9-32.
- POCHELU, J. (2010): “El manuscrito de *Akordatzen* de Joseba Sarrionandia: la imposible crítica del olvido”, in ARCOCHA. A., LLUCH, J. & OLAZIREGI, M.J. (arg.), *En el taller del escritor*, Zarautz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua; 239- 247.
- RETOLAZA, I. (2014): “Kartzela-kronikak eta kartografiak. Subjektu kartzelatutik kartzela-subjekturantz” in *Hemen naiz, ez gelditzeko baina*, Tafalla: Txalaparta; 141-160.
- RODRIGUEZ, E. (2013a): *Joseba Sarrionandiaren “Lagun Izoztua” eleberriko itsasoak. Irakurketa proposamen bat*, Bilbo: EHU/UPV.
- _____ (2013a): “Literatura eta lengoaiaren mugak: Joseba Sarrionandiaren kasua”, in *Lapurdum*, 17. zenb.; 187-199.

- _____ (2014): “Las mujeres de *El amigo congelado* de Joseba Sarrionandia: la utilización de personajes femeninos para hacer frente a los límites del lenguaje”, in *Fontes Linguae Vasconum*, 118. zenb.; 359-366.
- SARRIONANDIA, J. (1981): *Izuen gordelekuetan barrena*, Bilbo: Bilbo Aurrezki Kutxa.
- _____ (1983): *Intxaur azal baten barruan/Eguberri amarauna*, Lizarra: Amnistiaren Aldeko Batzordea.
- _____ (1985): “Esklabu erramintaria”, in *Susa*, 14-15. zenb.; 34-35.
- _____ (1985): “Hilarri Izkribua I”, in *Susa*, 14-15. zenb.; 34-35.
- _____ (1985): “Lau bost sei harresi”, in *Susa*, 14-15. zenb.; 34-35.
- _____ (1985): “Zuziak eta Aizkorak”, in *Susa*, 14-15. zenb.; 34-35.
- _____ (1985): *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Iruñea: Alberdania [Berrarg.: 1993, 2006].
- _____ (1987): *Marinel Zaharrak*, Donostia: Elkar.
- _____ (1992): *Gartzelako poemak*, Zarautz: Susa [Berrarg.: *Kartzelako poemak*, 2011].
- _____ (1997): *Hitzen ondoeza*, Tafalla: Txalaparta.
- _____ (1995): *Hnuy illa nyha majah yahoo (Poemak 1985-1995)*, Donostia: Elkar [Berrarg.: 2013].
- _____ (1995): *Marinela*, Zarautz: Susa.
- _____ (1999): *Hau da ene ondasun guzia*, Tafalla: Txalaparta.
- _____ (2015): *Lapur Banden etika ala politikak*, Iruñea: Pamiela.
- _____ (2015): “Poeta erraria (4): hizkuntzarenak” elkarrizketa, *Sautrela*. [Sarean] <<http://zuzeu.eus/euskal-herria/joseba-sarrionandiari-elkarrizketa/4>>.

ERANSKINAK

LABURDURAK

Ondorengoak dira eranskinetan aurki daitezkeen laburdurak:

GP= *Gartzelako Poemak* (1992).

HDEOG = *Hau da ene ondasun guzia*.

HINMY 1995 = *Hnuy illa nyha majah yahoo* (1995).

HINMY 2013= *Hnuy illa nuha majah yahoo* (2013).

IABB = *Intxaur azal baten barruan / Eguberri amarauna*.

IADEP 1985 = *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1985).

IADEP 1993 = *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (1993).

IADEP 2006 = *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* (2006).

KP = *Kartzelako Poemak* (2011).

MZ= *Marinel Zaharrak*.

XXPK= *XX. mendeko poesia kaierak*.

1. ERANSKINA: POEMEN IBILBIDEAREN TAULA

	IADEP						IADEP		HINMY		IADEP		HINMY
	IABB	1985	Susa	Marinela	MZ	GP	1993	1995	HDEOG	XXPK	2006	KP	2013
Urte giroak ene begietan	X				X	X						X	
Epaiketarako bidaia	X				X	X						X	
IV. galdera	X				X	X						X	
Esperantza	X					X						X	
Afrika Iparraldean		X				X	X				X	X	
Esklabu erremintaria			X		X	X						X	
Zuziak eta Aizkorak			X		X	X						X	
Hilarri izkribua I			X		X	X						X	
Lau bost sei harresi			X		X	X				X		X	
Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik				X	X	X			X			X	
Preso egon denaren gogoia					X	X		X	X	X		X	X
Joseba Asensio					X	X		X				X	X
Itsasoaz gogoeta					X	X						X	
Lagun presoak					X	X		X				X	X
Bake beltza					X			X	X				X
Gutun galduak					X	X						X	
Krabelin gorriak harma kanoietan					X	X						X	
Leonardo da Vinci					X								
Gartzelako goiza					X	X						X	
Bakardade gogoeta					X	X						X	
Kaleko kronika					X	X			X			X	
Hau da udaberria					X	X						X	
Armen kanoiak					X	X						X	
Palestinar presoak					X	X				X		X	
Haurtzaroko erretratua					X	X						X	
Hilarri izkribua III					X	X						X	
Neguko paisaia					X	X						X	
Gerla hondartzan					X	X						X	
O sentimento do mundo					X	X			X			X	
Itsaso debekatuak					X	X						X	
Elurreko hegaztia da gure bihotza, Eorann					X	X						X	
Itzulera					X	X						X	
Hau da negua					X	X						X	
Presoen amak					X	X						X	
Itsaso barea					X	X						X	
Munduak gezurra diyotsu, bihotza					X	X						X	
Hau da udagoiena					X	X						X	
Bihotz iluna					X	X						X	
III. galdera					X	X			X			X	
II. galdera					X	X			X			X	
Tortura egunak					X	X						X	
Elurra bezain isil badator illuna					X	X						X	
Misterio fiskala						X						X	
Territorio librea						X			X			X	

	IADEP				MZ	GP	IADEP HINMY		HDEOG	XXPK	IADEP		HINMY
	IABB	1985	Susa	Marinela			1993	1995			2006	KP	
Galtzetan gordetzeko koblak						X						X	
IX. galdera						X						X	
Ezkutuko gutunak						X						X	
Gogoeta matematikoa						X						X	
Erresistentzia						X						X	
Gose grebako hogeigarren egunean						X				X		X	
Besamotzaren besoa						X			X			X	
Oroimeneko portua						X			X			X	
Jolasa						X						X	
Beste mundua						X				X		X	
Sortaldeko orratzak						X						X	
Gaiherdiko ametsa						X						X	
Elurra eroriko da gauetz						X						X	
Begi urrunei bertsoa						X						X	
Amodio protopoema						X			X			X	
Galkortasunaz gogoeta						X						X	
Hilarri izkribua V						X						X	
Hau da ene ondasun guzia						X			X			X	
Zurian beltz						X						X	
Gauetz lo egin wzinik						X						X	
Txinatar poema						X						X	
Itzulpen literala I						X						X	
Itzulpen literala II						X						X	
Itzulpen literala III						X						X	
Erdi mina						X						X	
Protopoetika						X						X	
Marioneten aitzakiarekin gogoeta						X						X	
Borrokan hildako lagunak						X						X	
Hemen gaude eta jarraitzeko asmoarekin						X						X	
Haiku II						X						X	
Haiku IV						X						X	
Gutaz esanen dutena						X						X	
Mikel Lopategi						X		X				X	X
Kirofanoa						X		X				X	X
Egunen batean						X		X				X	X
Aspaldian utzitako zelda						X		X		X		X	X
XI. gutuna						X		X	X	X		X	X
Esnaerak								X					X
Bainera								X					X
Ipuina												X	
El Palomar												X	
XI. galdera												X	
Alturaren neurria												X	
Inozenteen eguna												X	
Vis a Vis												X	

1. **Taula:** KPeo poemen ibilbidea, lehen argitalpenetik hasita eta kronologikoki ordenatuta. Taulan agertzen diren izenburuak KPeo izenburuak dira (olerki batzuek beste bildumetan beste izenburu batzuk dituzte).

2. ERANSKINA: “BELENGO ALBISTEAK” OLERKIA

“Belengo Albisteak”

Hahor kortatxu zar bat huriaren kabuen
abere gitxi batzuk kabietan barruen
Seinak nabegau ei dau beratzi illabetien
mundu gatx honetako itxasuen ganien
Euzkidxe zelan doien kristelaren artetik
seme hori sortu da amaren sabeletik

Hain etxalde pobrien jaidxo da gixajue
lastotxue almueda ogetzat pesebrie
Hara umie billosik lur hotzaren ganien
eta ama belauniko maittez haren aurrien
billosik egon arren zu ezara pobrie
zeruen jositte dau zeuretzako trajie

Maria eta Jusef seaskaren albuen
Belenen jaidxo da gabon gabaren erdidxen
Ixenik pe ondiño seinak eztekon arren
munduko esperantza hortxe dau apaindduen
“Ai Juse gure Jusef zuez dendara bille
zuez kontu haundixaz ume mantarren bille”

Badue Jusef kanpora goizalde illunien
Zisjordanian bonbak sarritten die jausten
negar baten hasi da infantetxo barridxe
maittez diñotso amak: “Ixil neure semie”
Astue eta ididxe dekoz aldamenien
arnasaz berotzeko ai hotzitzen danien

Kortatxure ezta helduko Errege Magorik
Gaur behintzat ezta izengo urre intsentsu mirrarik
entzuten da zarata eztator ba Jusefik
eztator be bakerik behintzat kale horretatik
Zisjordanian Belen ezta herri eztidxe
tankiek datozela hau da larrialdidxe!

Zer dabil soldaduek hor bertan ataridxen?
Maria billurrez dau Jusef eztala etxien
Ate bentanak danak barrutik dauz zarratzen
gixonak indderka sartu eztaittezen
donteilla ez ikaratu etxatortzu gixonik
Palestinan gaur egun iñokpe ezteko onik

Etxie botatzeko emon dau aginddu

ezer ordu da be ume esnearen ordue?
Makiña haundi bategaz albotxuen tankie
ezta gatza botatzen bum pozozko etxie
arrantzaka astue muumuka ididxe
billurrez dardaraka ai barruko jentia

Jausi da tellatue ta jausi da hormie
harripien ama dau bularpien umie
Segundutxutan hil da hango jente guztidxe
Hilez bete da laster eskonbruen azpidxe
Et “Nobiscum Deus” diño hiltzaileen buruak
[Non dauz] eszena pintatzeko pintore holandarrak?

[Non dauz!]

Non dauz erreportero ausart amerikarrak?
Bizikleta zar baten eskapau dot nik handik
Legiñuek latinez deike “Nobiscum Deus!”
Gaur bertan be Israelek hoge etze bota dauz
Halan hill zan umie jalantxe Jaungoikue
Ume bat hiltzen bada hiltzen da Jaungoikue

Nobiscum deus baña hildde dau Jaungoikue
Ume bat hiltzen bada hiltzen da Jaungoikue

Nobiscum deus baña hildde dau Jaungoikue
Ume bat hiltzen bada hiltzen da Jaungoikue

3. ERANSKINA: KPko OLERKIEN BERTSIO ARGITARATUEN EDIZIO KRITIKO-GENETIKOA

OLERKIEN AURKIBIDEA

Urte giroak ene begietan.....	121
Epaiketarako bidaia.....	122
IV. galdera.....	124
Esperantza.....	125
Afrika Iparraldean.....	127
Esklabu erramintaria.....	131
Zuziak eta aizkorak	132
Hilarri izkribua I	133
Lau bost sei harresi	134
Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik.....	135
Preso egon denaren gogoa.....	138
Joseba Asensio.....	139
Itsasoaz gogoeta.....	143
Lagun Presoak.....	144
Bake beltza.....	147
Gutun galduak.....	149
Krabelin gorriak harma kanoietan.....	150
Leonardo da Vinci.....	152
Gartzelako goiza.....	153
Bakardade gogoeta.....	154
Kaleko kronika.....	156
Hau da udaberria.....	157
Armen Kanoiak.....	158
Palestinar Presoa.....	160
Hautzaroko Erretratua.....	162
Hilarri izkribua III.....	163
Neguko paisaia.....	164
Gerla hondartzan.....	165
O sentimento do mundo.....	166
Itsaso debekatuak.....	167
Elurreko hegaztia da gure bihotza, Eorann.....	168
Itzulera.....	170
Hau da negua.....	171
Presoen amak.....	172
Itsaso barea.....	173
Munduak gezurra diyotsu, bihotza.....	174
Hau da udagoiena.....	175
Bihotz iluna.....	176
III. galdera.....	177
II. Galdera.....	178
Tortura egunak.....	179

Elurra bezain isil badator iluna.....	182
Misterio Fiskala.....	183
Territorio librea.....	185
Galtzetan gordetzeko koblak.....	186
IX. Galdera.....	187
Ezkutuko gutunak.....	188
Gogoeta matematikoa.....	190
Erresistentzia.....	191
Gose grebako hogeigarren egunean.....	192
Besamotzaren besoa.....	195
Oroimeneko portua.....	196
Jolasa.....	197
Beste mundua.....	199
Sortaldeko orratzak.....	201
Gaiherdiko ametsa.....	202
Elurra eroriko da gauez.....	203
Begi urrunei bertsoa.....	204
Amodio protopoema.....	205
Galkortasunaz gogoeta.....	207
Hilarri izkribua V.....	208
Hau da ene ondasun guzia.....	209
Zurian beltz.....	210
Gauez lo egin ezinik.....	211
Txinatar poema.....	213
Itzulpen literala I.....	214
Itzulpen literala II.....	215
Itzulpen literala III.....	216
Erdi mina.....	217
Protopoetika.....	218
Marioneten aitzakiarekin gogoeta.....	219
Borrokan hildako lagunak.....	220
Hemen gaude eta jarraitzeko asmoarekin.....	222
Haiku II.....	224
Haiku IV.....	225
Gutaz esanen dutena.....	226
Mikel Lopategi.....	227
Kirofanoa.....	230
Egunen batean.....	233
Aspaldian utzitako zelda.....	234
XI. gutuna.....	238
Esnaerak.....	242
Bainera.....	244
Ipuina.....	246
El palomar.....	247
XI. galdera.....	248
Alturaren neurria.....	249
Inozenteen eguna.....	250
Vis a Vis.....	251

URTE GIROAK ENE BEGIETAN⁴⁵

IAAB
91

neguaren bihotzean elurra mara mara
neguko bihotzean erortzen so egin ezik
ezin udaberria lora daitekeela sinetsi
baina zer axola zaio zigor zeldetan
higatzen denari urtaroen aldaketa

MZ
URTAROEN ALDAKETA

«Estropezu egin eta
amildegi ertzera erori nintzen»
Ho Chi Minh

Udaberriko euriteak jasan ezik
ezin udako eguzkia gozatu,
Udako sargorietan erre gabe
ezin udazkeneko horbela zapaldu,
Udazkenean aidea urdintzen ezagutu gabe
ezin neguko elurra soegin,
Neguko haize hotzak bizi ezik
ezin udaberria loratzen dela sinetsi,
Baina zer axola zaio zigor zeldetan
dagoenari urtaroen aldaketa?

GP
URTE GIROAK ENE BEGIETAN

*Estropozu egin eta
amildegi ertzera erori nintzen
(Ho Chi Minh)*

Udaberriko euriteak jasan ezik
ezin udako eguzkiak gozatu,
udako sargorietan erre gabe
ezin udazkeneko horbela zapaldu,
udazkeneko aidea urdintzen ezagutu gabe
ezin neguko elurra soegin,
neguko haize hotzak bizi ezik
ezin udaberria loratzen dela sinetsi.
Baina zer axola zaio zigor zeldetan dagoenari
urtaroen aldaketa?

KP
URTE GIROAK ENE BEGIETAN

Estropezu egin eta amildegi
ertzera erori nintzen,
HO CHI MINH

Udaberriko euriteak jasan ezik
ezin udako eguzkiak gozatu,
udako sargorietan erre gabe
ezin udazkeneko orbela zapaldu,
udazkeneko airea urdintzen ezagutu gabe
ezin neguko elurra so egin,
neguko haize hotzak bizi ezik
ezin udaberria loratzen dela sinetsi.
Baina zer axola zaio zigor zeldetan dagoenari
urtaroen aldaketa?

45 Izenburu gisa KP bildumakoak erabiliko dira.

EPAIKETARAKO BIDAIA

IABB
119

noizean behin carabanchelera bidaia
zirrikituetarik begiratu
urrundik eta arin arinean
cordobako kotoi biltzaileak
jaengo olibadiak
despeñaperros eta amildegietako astigarrak
izotzaren lurralde biluziak
madrid non haur baldresak
zarama gainetan jolastu ohi diren

ez dugu neskatarik ikusi
eta esposa hestuegiek
marka ubelak utzi dizkigute

zakur eta asto argalen bidea egin eta
hurrengo astean desegingo dugu berriro
puerto de santa maria gorrira itzultzeko

MZ
EPAIKETARAKO BIDAIA

*«Dicono e odono, e poi
son giù vòlte»*

Dante Alighieri

Noizean behin Carabanchelera bidaia.
Neguko egunsentian
Goarda Zibilen metrailetak, bultzadak
Eta, furgoi berdearen barruan,
Hamabi orduko gasoil usaina.
Zirrikitu herdoildutik soegin ditugu:
Cordobako kotoi biltzaileak,
Jaengo olibadiak,
Despeñaperros, amildegiko astigarrak,
La Mancha, mahai zabal abandonatu bat,
Eta Madrid, non haur baldresak
Zarama gainetan jolastu ohi diren.
Ez dugu neskatarik ikusi,
Ez udaberri seinalerik,
Eta esposa hestuegiek
Marka ubelak utzi dizkigute.
Zakur eta asto argalen bidea egin eta
Hurrengo astean deseginen dugu berriro
Puerto de Santa Maria
Beti gorri batetara itzultzeko.

GP
EPAIKETARAKO BIDAIA

*Dicono e odono, e poi
son giu volte
(Dante Alighieri)*

Noizean behin Carabanchelera bidaia.
Neguko egunsentian
guardia zibilen metrailetak,
bultzakadak eta
furgoi berdearen barruan
hamabi orduko hestura
eta gasolio usaina.
Zirrikitu herdoildutik soegin:
Cordobako kotoi biltzaileak,
Jaengo olibadiak,
Despeñaperros amildegiko astigarrak,
La Mancha mahi zabal abandonatua
eta Madrid, non haur baldresak
zarama gainetan jolasten diren.
Ez dugu neskarik ikusi,
ez udaberri seinalerik,
eta esposa hestuegiek eskumuturretan
marka ubelak utzi dizkigute.
Zakur eta asto argalen bidea egin eta
hurrengo astean deseginen digute berriro
El Puerto de Santa María
beti gorrira itzultzeko

KP
EPAIKETARAKO BIDAIA

Dicono e odono, e poi
son giu volte...
DANTE ALIGHIERI

Noizean behin Carabanchelera bidaia.
Neguko egunsentian
guardia Zibilen metrailetak,
bultzadak eta,
furgoi berdearen barruan,
hamabi orduko estura
Eta gasolio usaina.
Zirrikitu herdoildutik so egin:
Kordobako kotoi biltzaileak,
Jaengo olibadiak,
Despeñaperros amildegiko astigarrak,
La Mancha mahai zabal
abandonatua balitz bezala,
eta Madrid, non haur baldresak
zarama gainetan jolasten diren.
Ez dugu neskarik ikusi,
ez udaberri seinalerik.
Esposa estuegiek marka
ubelak utzi dizkigute eskumuturretan.
Zakur eta asto argalen bidea egin eta
hurrengo astean deseginen digute berriro,
El Puerto de Santa María
beti gorrira itzultzeko.

IV. GALDERA

IABB

134

Hormako lohi gunetara begiratu eta
irudiak imajinatuez gero
tuareg urdinak beren gameluetan
funanbulo enanoak erortzear
gerlari etrusko bat zerraldo
baina zer egiten duzu hor maitea
zergatik ezabatzen zara ni hurreratzean
hurreratzean?

GP

IV. GALDERA

Hormako itzal gunetara begiratu eta
irudiak antzemanenez gero:
tuareg urdinak beren gameluekin,
funanbulo nanoak erortzear,
erortzear,
trabestiak zebrabidea zeharkatzen,
gerlari etrusko batzu zerraldo.
Eta zer egiten duzu hor, maitea,
eta zergatik desegiten zara
ni hurreratzean?

MZ

IV. GALDERA

Hormako itzal gunetara begiratu eta
Irudiak imajinatuez gero,
Tuareg urdinak beren gameluetan,
Funanbulo enanoak erortzear,
Gerlari etrusko bat zerraldo.
Baina zer egiten duzu hor, maitea,
Zergatik desegiten zara ni

KP

IV. GALDERA

Hormako itzal gunetara begiratu eta
irudiak antzematen dira:
tuareg urdinak gameluen gainean,
funanbulo nanoak haritik

trabestiak zebrabidea zeharkatzen,
gerlari etruskoa zerraldo.
Eta zer egiten duzu zuk hor, maitea,
eta zergatik,
Zergatik desegiten zara
ni hurreratzean?

ESPERANTZA

IABB
235

ez da komunikatu bat
ez pornografia ere
Sakelean gordetzen duzuna
badakit esperantza dela

baina esperantza zer den
galdetzen dizut

Heltzear den gauza onaren seinale dela
esaten didazu batzutan

inoiz bide saihetsetan bildu
lore ustelak direla esan duzu

Bestetan igurikatzea dela diozu
egunik egun igurikatzea soilik

GP
ESPERANTZA

*Lasciate ogni speranza,
voi ch'entrate!
(Dante Alighieri)*

Gauzak ezkututzen trebea zen, eta
beti aldean zeraman arren
funtzionarioek katxeoetan ez zioten
hatzeman egundo.

Ez zen izkribu politiko
arriskutsua,

ez errebista pornografiko
eskuz dastatua,

ez ihesbidea zulatzeko
tresna baliotsua.

Guk bagenekien aldean zeramana
esperantza zela.

Baina esperantza zer da?
galdetzen genion.

Heltzear den zori onaren seinalea
zioen batzutan irribarrez,

hor patio ertzean hazten den lorea
zioen bestetan ironiaz.

Gaur, itxadotea dela esan du,
esperantza

egunik egun itxadotea besterik
ez dela.

KP
ESPERANTZA

Lasciate ogni speranza,
voi ch'entrate!

DANTE ALIGHIERI

Gauzak ezkututzen trebea zen, eta
beti aldean zeraman arren
funtzionarioek katxeoetan ez zioten
atzeman egundo.
Ez zen izkribu politiko
arriskutsua,
ez errebista pornografiko
eskuz dastatua,
ez ihesbidea zulatzeko
tresna baliotsua.
Guk bagenekien aldean zeramana
esperantza zela.
'Baina zer da esperantza?'
galdetzen genion.
'Heltzear den zori onaren seinalea'
zioen batzuetan irribarrez.
'Hor patio ertzean hazten den lorea'
zioen bestetan, trufaz.
Gaur, 'itxarotea' dela esan du.
Esperantza
egunik egun itxarotea besterik
ez dela.

AFRIKA IPARRALDEAN

IADEP 1985

AFRIKAKO GARTZELAN

AFRIKAKO ifarraldean ez dago hare muinorik
Ez palmondorik ene begientzat. Behiala
Nahi beste lore eduki nuen esku artean
Eta arranoen askatasun guzia bihotzean,
Baina gela hertsu honetan zahartzen naiz orain.
Amodioa? Ene bihotza beste bihotzek eritu dute
Mila aldiz, oheetan loa kendu didatenak
Lo daude, haien masailetakoa larrosak
Sasoiak aldatu ditu, eta amets egiten dute.
Ardaia? Mahats urak odolberri nau hainbestetan,
Hilargia baso barruan gatibatzen jolasten nintzen,
Bakarrik hitzegiten nuen. Orain egarriak nago,
Gerla? Ezpaten aurrean ez dut sekula atzera egin, ,
Badakite hori bentzitu ditudanek, eta
Bentzitu nautenek ere bai, odolez lohi dut besoa,
Garbitzeko eta ahaztutzeko ez bait dut urik.
Gartzela? Kateak daramazkiena ez da zorionsua
erdibiturik dadukat bihotza eta sinetsi
Ene begietan itsasoan baino gatz gehiago dagoela,
Ezin dut hare muinorik ez palmondorik ikusi.
Bizitza luze bat? Ez, ez dut nahi. Gauean
Basamortuko haizea sartzen da, kandelaren
Sugarra ikartzera. Ainadi berarekin batera itzal.

GP

AFRIKA IFARRALDEAN

Apofrifoa, Mohammed Al-Kali poetari atxekia

Afrika ifarraldean ez dago harea muinorik
ez palmondorik ene begientzat. Behiala
nahibeste lore eduki nuen esku artean
eta arranoen askatasun guzia bihotzean,
orain zelda hertsia honetan zahartzeko.
Amodioa? Ene bihotza beste bihotzek eritu dute
mila aldiz, eta oheetan loa kendu didatenak
oheetan lo daude, eta sasoiak haien masailak
Zimurtu dituzten arren amets egiten dute.
Ardaa? Mahats urak mila bider odolberritu nau,
hilargia baso barruan gatibatzeraz jolasten nintzen
hustua berriz bere artean, orain berriz egarriak.
Gerla? Ezpaten aurrean ez dut sekula atzera egin,
hori badakite bentzutu ditudanek eta
bentzutu nautenek, odolez lohia dut besoa
garbitzeko eta ahaztutzeko aski urik gabe.
Gartzela? Kateak daramatzana ez da zorionsua,
erdibiturik dadukat bihotza eta sinetsi
ene begietan itsasoan baino gatz gehiago dagoela.
Afrika ifarraldean ez dago harea muinorik
Ez palmondorik ene begientzat zelda hertsia bakarrik.
Bizitza luze bat? Ez, ez nuke nahi. Gauean
basamortuko haizea sartzen da, kandelaren sugarra
ikartzera. Ainendi berarekin batera itzal.

IADEP 1993

AFRIKAKO GARTZELAN

AFRIKAKO ifarraldean ez dago hare muinorik
palmondorik

Ez palmondorik ene begientzat. Behiala
Nahi beste lore eduki nuen esku artean
artean

Eta arranoen askatasun guzia bihotzean
Baina gela hertsu honetan zahartzen naiz orain.
Amodioa? Ene bihotza beste bihotzek eritu dute
Mila aldiz, oheetan loa kendu didatenak

Lo daude, haien masailetakoko larrosak
Sasoia aldatu ditu, eta amets egiten dute.
besoa,

Ardaa? Mahats urak odolberritu nau hainbestetan,
Hilargia baso barruan gatibatzena jolasten nintzen,
Bakarrik hitz egiten nuen. Orain egarriak nago,
Gerla? Ezpaten aurrean ez dut sekula atzera egin,
Badakite hori bentzitu ditudanek, eta
Bentzitu nautenek ere bai, odolez lohi dut besoa,
Garbitzeko eta ahaztutzeko ez bait dut urik.
Gartzela, Kateak daramazkiena ez da zoriontsua
erdibiturik dadukat bihotza eta sinetsi
Ene begietan itsasoan baino gatz gehiago dagoela,
Ezin dut hare muinorik ez palmondorik ikusi.
Bizitza luze bat? Ez, ez nuke nahi. Gauean
Basamortuko haizea sartzen da, kandelaren
Sugarra ikaratzera. Ainadi berarekin batera itzal.
sartzen da

IADEP 2006

AFRIKAKO IPARRALDEAN

Afrikako iparraldean ere ez dago

ez harea muinorik ene begientzat.
Behiala, nahi beste lore eduki nuen esku

eta arranoen askatasun guzia,
ziega hertsu honetan zahartzen naiz orain,
argi errainurik heltzen ez dela.
Gerla? Ezpaten kontra ez dudala atzera egin

badakite bentzutu ditudanek
eta bentzutu nautenek, odolez lohiturik dut

garbitzeko urik gabe.
Amodioa? Oheetan loa kendu zidatenak
lo daude,
beste ametsetako beste oheetan galdurik
behar bada.

Ardoa? Edalontzian ilargia itotzen
jolasten nintzen,
mahats uraren egarritz higitzen naiz
eta ilargi gosez.

Kartzela, kateak daramazkiena
ez da zoriontsua,
itsasoan baino gatz gehiago pilatzen da
ene begi lausoetan.
Bizitza luze bat? Basamortuko haizea

gauetan
kandelaren sugarra ikaratzera. Ainendi
berarekin batera itzal.

KP

AFRIKA IPARRALDEAN

Autorea, Mohamed Al-Kali

Afrika iparraldean ez dago harea muinorik
ez palmondorik ene begientzat.
Behiala nahi beste lore eduki nuen esku artean
eta arranoen askatasun guzia bihotzean,
orain zelda hertsu honetan zahartzeko.
Amodioa?
Ene bihotza beste bihotzek eritu dute
mila aldiz,
eta oheetan loa kendu didatenak oheetan
lo daude,
eta amets egiten dute, denborak haien masailak
zimurtu dituen arren.
Ardaoa? Mahats urak mila bider odol berritu nau,
ilargia edalontzian sartzera jolasten nintzen
edandakoak edanda, orain berriz egarriak
itotzen nau.
Gerla? Ezpaten aurrean ez dut sekula atzera egin,
hori badakite bentzutu ditudanek
eta bentzutu nautenek, odolez lohiturik dut besoa
eta ez dut ez garbitzeko ez ahazteko urik nahikoa.
Kartzela? Kateak daramatzana ez da zoriontsua,
erdibiturik daukat bihotza
eta sinetsi ene begietan itsasoan baino
gatz gehiago dagoela.
Afrika iparraldean ez dago harea muinorik
ez palmondorik ene begientzat.
Ziega estuko espazioa eta hormak bakarrik.
Bizitza luze bat?
Ez, ez nuke nahi. Gauean basamortuko
haizea sartzen da,
kandelaren sugarra ikaratzera. Harekin batera
nahi nuke amatatu.

ESKLABO ERREMINTARIA

Susa

ESKLABU ERRAMINTARIA

(Latinoen pisan)

Euskal Herriko basoetan gatibaturik
Erromara ekarri zinduten, esklabua,
Erremintari ofizioa eman zizuten
Eta kateak egiten dituzu.
Labetik ateratzen duzun burdin gorria
Nahieran molda zenezake,
Ezpatak egin ditzakezu
Esklaboek kateak kauts ditzaten.
Baina zuk, esklabu horrek,
Kateak egiten dituzu, kate gehiago.

GP

ESKLABO ERREMINTARIA

Poeta latinoen imitazioa

Sartaldeko oihanetan gatibaturik
Erromara ekarri hinduten,
esklaboa,
erremintari ofizioa jaso
eta kateak egiten dituk.
Arragoko burdin gorria
nahieran molda hezake,
atxurrak eta ezpatak
egin ditzakek
hire herritarrek kateak
hauts ditzaten.
Baina hik, esklabo horrek,
kateak egiten dituk,
katea gehiago.

MZ

ESKLABU ERREMINTARIA

Poeta latinoaren imitazioa

Sartaldeko oihanetan gatibaturik
Erromara ekarri zinduten, esklabua,
Erremintari ofizioa eman zizuten
Eta kateak egiten dituzu.
Labetik ateratzen duzun burdin gorria
Nahieran molda zenezake,
Ezpatak egin ditzakezu
Zure herritarrek kateak hauts ditzaten,
Baina zuk, esklabu horrek,
Kateak egiten dituzu, kate gehiago.

KP

ESKLABO ERREMINTARIA

Poeta latinoen imitazioa

Erromara ekarri hinduten,
sartaldeko oihanetan gatibaturiko
esklaboa.
Erremintari ofizioa jaso
Eta, aginduak obedituz,
kateak egiten dituk.
Arragoko burdin gorria
nahieran molda hezake,
aitzurrak eta ezpatak egin ditzakek
kateak hausteko. Baina hik,
esklabo horrek, kateak egiten dituk,
kate gehiago.

ZUZIAK ETA AIZKORAK

Susa

ZUZIAK ETA AIZKORAK

(«O Marinheiro» itzultzen)

Zelda barru honetan, mundutik lekorean,
zuziak aizkora bihur ditzaket.
Areago, Fernando Pessoa izan naiteke,
pertsona hori Alberto Caeiro zen legez.
Eta itzalen istorioa konda nezake:
argiaren aurka errebelatu ziren
Eta hor daude orain akiturik,
abrigo zaharren moduan.
Neu ere itzal bat naiz, zuzi eta aizkora artean,
Oroimenak gauzak edertzen dituela
Uste dugu itzalek, horregatik dugu nahiago
denbora iragaten uztea, geroan oroitzeko.

GP

ZUZIAK ETA AIZKORAK

'O Marinheiro' itzultzean

Gela barru honetan, mundutik lekora,
zuziak aizkora bihur ditzaket.
Areago, Fernando Pessoa izan naiteke
pertsona Alberto Caeiro zen lez.
Eta itzalen elezaharra konda dezaket:
argiaren aurka errebelatu ziren
eta hor daude orain hertsiduraz akiturik
abrigo zaharren moduan.
Ni ere itzala naiz, zuzi eta aizkora artean,
oroimenak gauzak edertzen dituelakoan
nahiago dut denbora iragaiten uztea
geroan oroitu ahal izateko.

MZ

ZUZIAK ETA AIZKORAK

«O Marinheiro» itzultzean

Gela barru honetan, mundutik lekora,
Zuziak aizkora bihur ditzaket.
Areago, Fernando Pessoa izan naiteke,
pertsona hori Alberto Caeiro zen legez.
Eta itzalen elezaharra konda nezake:
argiaren aurka errebelatu ziren
Eta hor daude orain akiturik,
Abrigo zaharren moduan.
Ni ere itzal bat naiz, zuzi eta aizkora artean,
oroimenak gauzak edertzen dituelarik
Nahiago dut denbora iragaiten uztea
Geroan oroitu ahal izateko.

KP

ZUZIAK ETA AIZKORAK

'O Marinheiro' itzultzean

Gela barru honetan, mundutik lekora,
zuziak aizkora bihur ditzaket.
Areago, Fernando Pessoa izan naiteke
edozein pertsona Alberto Caeiro den lez.
Eta itzalen elezaharra konda dezaket:
argiaren aurka errebelatu ziren
eta hor daude orain hertsiduraz akiturik
abrigo zaharren moduan.
Ni ere itzala naiz, zuzi eta aizkora artean,
denborari pasatzen uzten.
Oroimenak gauzak edertzen dituelakoan,
Geroan oroitu ahal izateko.

HILARRI IZKRIBUA I

Susa

HILARRI IZKRIBUA

Halan suertatu eta hil banaiz,
Goroldio eta lur azpiko
Zoko honetara sartu banaute,
Hegoaizeak ene
 lekua aurkitzen ez badu,
Belar sustrai tipiek ere
 ene hazkure badute,
Bene benetan hilda banago
 bizitza ez zait hainbeste axola.

GP

HILARRI IZKRIBUA I

Halan suertatu eta hil banaiz,
goroldio eta lur azpiko
zoko honetara sartu banaute,
hegoaizea ene etzan lekura
inola ailegatu ezin bada,
belar sustrai tipien
hazkura ere senditzen ez badut,
bene benetan hilda banago,
orduan bizitza ez zait
 hainbeste axola.

MZ

HILARRI IZKRIBUA I

Halan suertatu eta hil banaiz,
Goroldio eta lur azpiko
Zoko honetara sartu banaute,
Hegoaizeak ene
Lekua aurkitzen ez badu,
Belar sustrai tipien
Hazkurea ere senditzen ez badut,
Bene benetan hilik banago
Bizitza ez zait hainbeste ardura.

KP

HILARRI IZKRIBUA I

Hala suertatu eta hil banaiz,
 goroldio eta lur azpiko
zoko honetara sartu banaute,
 hego haizea ene etzan lekura
inola ailegatu ezin bada,
 belar sustrai tipien
azkura ere sentitzen ez badut,
 bene-benetan hilda banago,
orduan bizitza ez zait
 hainbeste axola.

LAU BOST SEI HARRESI

Susa

LAU BOST SEI HARRESI

Lau, bost, sei harresi gure inguruan
Bihotz bata bestearen barruan bezala.
Zorionak euriari eragindako kantua
Laku zaharren batetan ito zen,
Haizeak ez dakar ezer. Begiratu,
Hegaztien itzal hatzeman ezinak lurrean.
Zer egin dezakegu? Paseatu egin gaitezke.
Urrats bakoitzean errauts apur bat utziaz;
Mundua ere geure antzera biratzen da, preso,
Bere buruaren giltza aurkitu ezinik.

GP

LAU BOST SEI HARRESI

Lau, bost, sei harresi gure inguruan
bihotz bat bestearen barruan bezala.
Euriak zorionari eragindako kantua
laku zaharren batean ito zen,
haizeak ez dakar ezer. Begiratu,
hegaztien itzal atzeman ezinak lurrean.
lurrean.
Zer egin dezakegu? Paseatu, urrats
bakoitzean errauts apur bat utziaz;
utziaz;
mundua ere geure antzera biratzen da
bere buruaren giltza aurkitu ezinik.

KP

LAU BOST SEI HARRESI

Lau, bost, sei harresi gure inguruan
bihotz bat bestearen barruan bezala.
Euriak zorionari eragindako kantua
laku zaharren batean ito zen,
haizeak ez dakar ezer. Begiratu hegaztien
itzal atzeman ezinak lurrean.
Zer egin dezakegu? Paseatu, urrats
bakoitzean errauts apur bat utziz:
mundua ere geure antzera biratzen da
bere buruaren giltza aurkitu ezinik.

MZ

LAU BOST SEI HARRESI

Lau, bost, sei harresi gure inguruan
Bihotz bata bestearen barruan bezala.
Euriak zorionari eragindako kantua
Laku zaharren batetan ito zen,
Haizeak ez dakar ezer. Begiratu,
Hegaztien itzal hatzeman ezinak lurrean.
Zer egin dezakegu? Paseatu egin gaitezke,
Urrats bakoitzean errauts apur bat utziaz;
Mundua ere geure antzera biratzen da
Bere buruaren giltza aurkitu ezinik.

XXPK

LAU BOST SEI HARRESI

Lau, bost, sei harresi gure inguruan
Bihotz bata bestearen barruan bezala.
Euriak zorionari eragindako kantua
laku zaharren batean ito zen,
haizeak ez dakar ezer. Begiratu,
Hegaztien itzal hatzeman ezinak
lurrean.
Zer egin dezakegu? Paseatu,
urrats bakoitzean errauts apur bat
utziaz;
mundua ere geure antzera biratzen da
bere buruaren giltza aurkitu ezinik.

GURE BEGIEK EZ DUTE MALKO ISURITZEKO GOGORIK

*Marinelak*⁴⁶

MALKORIK ISURTZEKO LOTSATU DIRA ENE BEGIAK

Malkorik isurtzeko lotsatu dira ene begiak,
Den bizitza bakarra bizi dutelako. Entzun,
Astiro doa denbora, idi gorrien gurdi hori.
Begiraerlojuetako orratzak uneka herdoiltzen.
Zenbat gauza utzi dudan estarta bazterretan
Edo laku urdinen hondoan, bizitza bakarra dudalako,
Eta zenbat aldiz galdu naizen behelainotan
basoilar izateko ametsetan dabilzan kurloiekin.
Orain, ene desirak ez dira habia abandonatuak baino
ene bihotzean. Eguzkia gurpil ahul bat da.
Ez dezadan gehiago entzun, begiratu; pentsatu,
bizitza hau bakarra delako, gal ez dadin, ibili ez
eta senditu ere ez, harriak bezala izan nahi dut,
mendea eta segundua gurutzatzen diren lekua,
lekua besterik ez izan, hurrin deritzan aberrian.

⁴⁶*Marinelak* (1985) liburuaren hitzaurrean honakoa irakur daiteke: “Liburu honen epilogotzat hogeita zazpi inguru ohar erantsi ditut, hitz eta esaldi konkretuen komentarioak eginaz batzutan eta Fernando Pessoaen texto zatiak argibide eta osagarritzat emanez bestetan. Fernando Pessoaen obra den sare zabal hori haritxo buru hoietan antzematen hasi daiteke behar bada”. Horretaz gain, honakoa irakur daiteke 27. oharrean: “Obra amairu eta gurdi kexati eta xirrinkaria aditzean izkiriaturako poema”.

MZ / HDEOG

ENE BEGIEK EZ DUTE MALKO ISURITZEKO GOGORIK/ ENE BEGIEK⁴⁷

«une charrette de Biscaye à deux
boeufs et deux roues pleines qui tournent
avec l'essieu dans et font un bruit
effroyable qu'on entend d'un lieu dans
la montagne»
VICTOR HUGO

Ene begiek ez dute malko isurtzeko gogorik
Denik eta bizitza bakarra bizi dutelako. Entzun,
Astiro doa denbora, idi gorrien gurdi hori.
Begira erlojuetako orratzak uneka herdoiltzen.
Zenbat gauza utzi dudan estarta bazterretan
Edo laku urdinen hondoan, bizitza bakarrean,
Eta zenbat aldiz galdu naizen behelainotan
Basoilar izateko ametsetan dabiltzan kurloiekin.
Ene desirak iada ez dira habia abandonatuak besterik
Ene bihotzetan. Eguzkia gurpil ahul bat da.
Ez dezadan gehiago entzun, begiratu, ez pentsatu,
Bizitza hau bakarra delako, gal ez dadin, ibili ez
Eta senditu ere ez, harriak legez izan nahi dut,
Mendea eta segundua gurutzatzen diren lekua,
Lekua besterik ez izan, hurrin deritzan aberrian.

GP

GURE BEGIEK EZ DUTE MALKO ISURITZEKO GOGORIK

*Une charrette de Biscaye a deux
boeufs et a deux roues pleins qui
tourment avec l'essieu dans et font
un bruit effroyable qu'on entend d'un
lieu dans la montagne
(Victor Hugo)*

Gure begiek ez dute malko isuritzeko gogorik
denik eta bizitza bakarra bizi dutelako. Entzun,
astiro doa denbora, idi gorrien gurdi hori.
Begira, erlojuetako orratzak unean uneka herdoiltzen.
Zenbat gauza utzi dugun estarta bazterretan
edo laku urdinen hondoan, bizitza bakarrean,
eta zenbat aldiz galdu garen behelainotan
basoilar izateko ametsetan dabiltzan kurloiekin.
Gure desirak iada ez dira habia abandonatuak besterik
gure bihotzetan. Eguzkia gurpil ahula da.
Ez entzun, ez begiratu, ez pentsatu gehiago,
bizitza hau bakarra delako. Gal ez dadin ibili ez
eta sentitu ere ez, harriak lez izan nahi genuke,
mendea eta segundua gurutzatzen diren lekua,
lekua besterik ez izan, hurrin deritzan aberrian.

47 Izenburua da bi argitalpenetan aldatzen den bakarra.

KP

GURE BEGIEK EZ DUTE MALKO ISURTZEKO GOGORIK

Une charrette de Biscaye a deux
boeufs et a deux roues pleines qui
tournent avec l'essieu dans et font
un bruit effroyable qu'on entend d'un
lieu dans la montagne.

VICTOR HUGO⁴⁸

Gure begiek ez dute malko isurtzeko gogorik
denik eta bizitza bakarra bizi dutelako. Entzun,
astiro doa denbora, idi gorrien gurdi hori.
Begira, erlojuetako orratzak unean uneka herdoiltzen.
Zenbat gauza utzi dugun estrata bazterretan
edo laku urdinen hondoan, bizitza bakarrean,
eta zenbat aldiz galdu garen behelainotan
basoilar izateko ametsetan dabiltzan kurloiekin.
Gure desirak ez dira jada habia abandonatuak besterik
gure bihotzetan. Eguzkia gurpil ahula da.
Ez entzun, ez begiratu, ez pentsatu gehiago,
bizitza hau bakarra delako. Gal ez dadin, ibili ez
eta sentitu ere ez, harriak lez izan nahi genuke,
mendea eta segundoa gurutzatzen diren lekua,
lekua besterik ez izan, urrun deritzan aberrian.

48 Hona hemen Victor Hugoren Pirinioetako bidaia baten memorietaatik hartutako zatia osorik: « C'est le 27 juillet 1843, à dix heures et demie du matin, qu'au moment d'entrer en Espagne, entre Bidart et St-Jean de Luz, à la porte d'une pauvre auberge, j'ai revu une vieille charrette à bœufs espagnole. J'entends par-là la petite charrette de Biscaye à deux bœufs, et à deux roues pleines qui tournent avec l'essieu et font un bruit effroyable qu'on entend d'une lieue dans la montagne. Ne souriez pas, mon ami, du soin tendre avec lequel j'enregistre si minutieusement ce souvenir. Si vous saviez comme ce bruit, horrible pour tout le monde, est charmant pour moi ! Il me rappelle les années bénies. J'étais tout petit quand j'ai traversé ces montagnes et quand je l'ai entendu pour la première fois. L'autre jour, dès qu'il a frappé mon oreille, rien qu'à l'entendre, je me suis senti subitement rajeuni, il m'a semblé que toute mon enfance revivait en moi, je ne saurais vous dire par quel étrange et surnaturel effet, ma mémoire était fraîche comme une aube d'avril, tout me revenait à la fois, les moindres détails de cette époque heureuse m'apparaisaient nets, lumineux, éclairés comme par le soleil levant. À mesure que la charrette à bœufs s'approchait avec sa musique sauvage, je revoyais distinctement ce ravissant passé, et il me semblait qu'entre ce passé et aujourd'hui il n'y avait rien. C'était hier. Oh ! Le beau temps ! Les douces et rayonnantes années ! J'étais enfant, j'étais petit, j'étais aimé. Je n'avais pas l'expérience, et j'avais ma mère ! (Hugo V. Voyage aux Pyrénées. In: Œuvres complètes, tome VI, ([10], p. 868).

PRESO EGON DENAREN GOGOIA

MZ/ GP/HINMY 1995 /HDEOG/
PRESO EGON DENAREN GOGOIA

Preso egon denaren gogoia
Gartzelara itzultzen da beti.
Kalean juje, fiskal eta
Abokatuekin gurutzatzen da,
Eta poliziek, identifikatu ez arren,
Beste inori baino gehiago
Begiratzen diote, bere pausua
Sosegatua ez delako
Edo sosegatuegia delako.
Bere bihotz barruan
Betirako kondenatu bat dago.

XXPK
PRESO EGON DENAREN GOGOIA

Preso egon denaren gogoia
Kartzelara itzultzen da beti.
Kalean juje, fiskal eta
abokatuekin gurutzatzen da,
eta poliziek, identifikatu ez arren,
beste inori baino luzeago
begiratzen diote, bere pausoa
sosegatua ez delako
Edo sosegatuegia delako.
Bihotz barruan
Betirako kondenatu bat darama.

KP
PRESO EGON DENAREN GOGOIA

Preso egon denaren gogoia
kartzelara itzultzen da beti.
Kalean juje, fiskal eta
abokatuekin gurutzatzen da,
eta poliziek, identifikatu ez arren,
beste inori baino gehiago
begiratzen diote, haren pausoa
sosegatua ez delako
edo sosegatuegia delako.
Haren bihotz barruan
betirako kondenatu bat dago.

HINMY 2013
PRESO EGON DENAREN GOGOIA

Preso egon denaren gogoia
kartzelara itzultzen da beti.
Kalean epaile, fiskal eta abokatuekin
gurutzatzen da
eta poliziek, identifikatu ez arren,
beste inori baino
gehiago begiratzen diote,
haren
Pausoa sosegatua ez delako.
edo sosegatuegia delako.
Haren bihotz barruan
betirako kondenatu bat dago.

JOSEBA ASENSIO

MZ

JOSEBA ASENSIO

«Registrándole, muerto,
sorprendieronle
en su cuerpo
un gran cuerpo, para
el alma del mundo»
CESAR VALLEJO

Sekula hil behar ez balitz bezala bizi ginen.
Presa genuen estimatzen genuenaren alde
bizitzeko: amodiorako, burruka
Harmaturako, libertaterako, liburuak leitzeko,
Eta agian ez genituen lerro guziak ondo konprenitu.
Pasarte hau, adibidez: gure laguna
estimatzen genuenagatik hilgo zela.
Hiltzeko gogorik gabe, gorputzak jostailu gisa
arriskatu genituen.
Beti, egunak beruna bezain astiro zihoaztenean ere
Presa genuen estimatzen genuenaren alde burrukatzeko,
Lurrak, berekoi, gure laguna estimatzen zuela

jakin gabe,
Lurrak ere presa zuela igarri gabe.

KP

JOSEBA ASENSIO

Registrándole, muerto,
sorprendieronle en su cuerpo
un gran cuerpo, para el alma
del mundo.

CÉSAR VALLEJO

Sekula hil beharrik ez balitz bezala
bizi ginen.
Presa genuen estimatzen genuenaren alde
bizitzeko: amodioa, borroka armatua,
libertatea, liburuak leitzea. Baina, agian
ez genituen lerro guziak ondo konprenitu,
pasarte hau adibidez: estimatzen genuenagatik
hilko ginela.
Hiltzeko gogorik gabe, gorputzak jostailu gisa
arriskatu genituen.
Beti, egunak beruna bezain astiro zihoazenean ere
presa genuen,
estimatzen genuenaren alde ekiteko
presa genuen,
lurrak, berekoi, gu estimatzen gintuela jakin gabe,
lurrak ere presa zuela igarri gabe.

[1986]

ITSASOAZ GOGOETA

MZ ITSAS HEGIKO GOGOETA

Gure oroitzenak
Itsas galeretako oholak bezala
Ez dira
Itsas hondoan ezabatzen
Ez dute
Inongo porturik helburu,
Gure oroitzenak
Itsas galeretako oholak bezala
Ur gainean linburtuz doaz
Uhainek eraginak
Desegin ezin eta
xederik gabe.

GP ITSASOAZ GOGOETA

Gure oroitzenak
itsas galeretako oholak bezala
ez dira itsas hondoan
ezabatzen,
ez dute inongo porturik
helburu,
gure oroitzenak
itsas galeretako oholak bezala
ur gainean linburtuz doaz,
jitoan, uhainek eraginak
desegin ezin eta
xederik gabe.

Lar hurrin kalatxori hezurrez
osaturiko hondartzak.

KP ITSASOAZ GOGOETA

Gure oroitzenak
itsas galeretako
oholak bezala
ez dira
itsas hondoan
ezabatzen,
ez dute inongo porturik
helburu,
gure oroitzenak
itsas galeretako
oholak bezala
ur gainean
limurtuz doaz,
jitoan,
uhainek eraginak,
desegin ezin eta
xederik gabe.

Lar urrun kalatxori hezurrez
osaturiko hondartzak

LAGUN PRESOAK

MZ

LAGUN PRESOAK

Iraultza ala hil izkiriatzten dute, esposaturik,
furgoi berde ilunen barrukaldean,
Anjel/Mitxel/Koldo, patioetako beren urratsak
entzuten dira, mundua
beren patioa balitz bezala,
Joserra/Koldo/Julen, beren amodio antsia
oztoporik eta bazterrik aurkituko ez duen uhaina legez
entzuten da,
Josu/Ixidro/Mertxe, beren arrazoi sakonak
entzuten dira, beren hizkera sekretuan,
Julio/Iñaki/Pakito, ateak kolpatzen dituztenean
entzuten da, mundua
galeria zarratua besterik ez balitz bezala,
Apolinar/Josean/Andoni, beren oinaze isildua
entzuten da nahinon,
Itziar/Jon/Josemari, euskal preso guzien sakrifizioa
eta duintasuna ikusten da
kristal bakoitzaren bestaldean: aberriaren astuna paparrean
papagorriek bezala daramatelarik.

GP

LAGUN PRESOAK

Iraultza ala hil izkiriatzten dute, esposaturik,
furgoi berde ilunen barrukaldean,
Anjel /Mitxel /Koldo/ patioetako beren urratsak
entzuten dira, mundua
beren patioa balitz bezala,
Joserra/ Miren/ Josu/ beren amodio antsia
oztoporik eta bazterrik aurkituko ez duen
uhaina lez entzuten da.
Julen/Ixidro/Mertxe/ beren arrazoi sakonak
entzuten dira, beren hizkera sekretuan,
Julio/Iñaki/Pakito/ ateak kolpatzen dituztenean
han eta hemen entzuten da, mundua galeria zarratua
besterik ez balitz bezala.
Apolinar/ Josean/ Andoni/ beren oinaze isileztatua
nahinon entzuten da,
Itziar/ Jon /Josemari/ euskal preso guzien sakrifizioa
eta duintasuna ikusten da
kristal bakoitzaren bestaldean, aberriaren astuna paparrean
papagorriek bezala daramatelarik.

[1986]

HINMY 1995

ABERRIAREN ASTUNA PAPPARREAN

Iraultza ala hil izkiriartzen dute, esposaturik,
furgoi berde ilunen barrukaldean,
Anjel/ Mitxel/ Koldo/ patioetako haien urratsak
entzuten dira, mundua haien patioa bailitzen,
Joserra/Miren/ Josu/ haien amodio antsia oztoporik
eta bazterrik aurkituko ez duen uhaina lez entzuten da.
Julen/ Iñaki/ Pakito/ atea kolpatzen dituztenean han
eta hemen entzuten da,
mundua galeria zarratua eta zeldak eta
besterik ez balitz bezala,
Apolinar/ Josean/ Andoni/ haien oinaze isileztatua
nahinon entzuten da,
Itziar/ Jon/ Josemari/ euskal preso guzien sakrifizioa eta
duintasuna ikusten da burdin guzien artetik,
kristal bakoitzaren bestaldean, aberriaren astuna papparrean
papagorriek bezala daramatelarik.

KP

LAGUN PRESOK

Iraultza ala hil izkiriartzen dute, esposaturik,
furgoi berde ilunen barruko aldean,
Anjel / Mitxel / Koldo / patioetako ibilaldien
urratsak entzuten dira,
mundua patioa balitz bezala, Joserra / Miren / Josu /
haien amodio antsia
oztoporik eta bazterrik aurkituko ez duen
uhina lez entzuten da.
Julen / Ixidro / Mertxe / arrazoi sakonak entzuten dira,
hizkera sekretuan, Julio/ Iñaki
Pakito / atea kolpatzen dituztenean, han eta hemen
entzuten da,
mundua galeria zarratu hori besterik ez balitz bezala.
Apolinar / Josean / Andoni /
haien oinaze isileztatua nahinon entzuten da,
Itziar / Jon /
Josemari / euskal preso guzien sakrifizioa
eta duintasuna ikusten da kristal
bakoitzaren bestaldean, aberriaren astuna papparrean
papagorriek bezala daramatela.

[1986]

HINMY 2013

ABERRIAREN ASTUNA PAPPARREAN

'Iraultza ala hil' izkiriartzen dute, esposaturik,
furgoi berde ilunen
barrualdean /Anjel /Mitxel/Koldo/ patioetako
haien urratsak entzuten dira,
mundua haien patioa bailitzen /Joserra/Miren
/Josu/ haien amodio antsia
oztopoak eta bazterrak gaindituko dituen
uhina lez imajinatzen da.
/Julen/Ixidro/Mertxe/ haien arrazoi sakonak
konprenitzen dira,
haien hizkera sekretuan /Julio/Iñaki/Pakito/
ateak kolpatzen dituztenean han
eta hemen aditzen dela, mundua galeria zarratua
eta zeldak
eta besterik ez balitz bezala, /Apolinar/Josean/
/Andoni/
haien oinaze isileztatua entzuten da nahinon,
Itziar/Jon/Josemari/
euskal preso guztien sakrifizioa eta duintasuna
agertzen da burdina guztien artetik,
kristalen barrualdean, aberriaren astuna papparrean
papagorriek bezala daramatelarik.

BAKE BELTZA

MZ

DEFENDA EZAZUE ZUEN BAKE BELTZA

Defenda ezazue uso zuriz, banko biletz
Eta harma astunez ereindako zuen atsedena,
Defenda ezazue zuen libertate beltza
Lan egiteko, kirol egiteko, otoitz egiteko,
Defenda ezazue zuen aitaren etxe beltza
Telebisioko foiletoirik batere ez galtzeko,
Defenda ezazue zuen lo beltza, zuen
Amets goxoek amets goxoak erdi ditzaten,
Defenda ezazue larritasuneraino perfumaturiko
Zuen bihotzen sosegua, eta zuen asteburua,
Defenda ezazue zuen bake beltza
Eta zuen orratz bakarreko erlojua:
Gu otsanda ilunen baten semealabak gara,
Tenorea da, seinala egiguzue zuen hatz luzeaz,
Zuen poliziek tiro egin dezaten.

HINMY 1995/ HDEOG

BAKE BELTZA / DEFENDA EZAZUE ZUEN BAKE BELTZA

Defenda ezazue uso zuriz
banko biletz eta harma astunez
ereindako zuen atsedena
defenda ezazue zuen libertate beltza
lan egin erazteko kirola ikusteko
otoitz egiteko defenda ezazue
zuen aitaren etxe beltza
telebisioko foiletoirik
batere ez galtzeko defenda ezazue
zuen lo beltza zuen amets goxoek
amets goxoak erdi ditzaten
defenda ezazue larritasuneraino
perfumaturiko zuen bihotzen sosegua
eta zuen asteburua defenda ezazue
bake bel beltza
eta zuen orratz bakarreko erlojua:
Gu otsanda gorriren baten semealabak gara
tenorea da seinala gaitzazue
zuen hatz luzeaz
zuen poliziek tiro egin dezaten.

HINMY 2013
BAKE BELTZA

Defenda ezazue uso zuriz
banku billetez eta arma astunez
ereindako zuen atsedena
defenda ezazue zuen libertate beltza
besteei lan eginarazteko kirola ikusteko
otoitz egiteko defenda ezazue
zeuen aitaren etxe beltza
telebisioko foilletorik
batere ez galtzeko defenda ezazue
zuen lo beltza zuen amets goxoek
amets goxoak erdi ditzaten
defenda ezazue larritasuneraino
perfumaturiko zuen bihotzen sosegua
eta zuen asteburua defenda ezazue
zuen bake bel-beltza
eta zuen orratz bakarreko erlojua.
Gu otsanda gorriren baten semealabak gara
eta tenorea da
seinala gaitzazue zeuen hatz luzeaz
zuen poliziek tiro egin dezaten.

GUTUN GALDUAK

MZ

V. GUTUNA

Euliek zeldetako ispilu tipiak
zikintzen dituzte.
Egunak galtzen ditugu, oskorriak
Bere kolore arauak galtzen dituen bezala.
Harresien bestaldean etxe batzu
desdefinitzen dira,
Balioen erlatibitateaz ez,
Balioen fatalitateaz mintzo garen artean.
Haizeak bere delirioa arrastatzen du
Mundua den manuskrito irakurtezinaren gainean.
Eta gure gutunak ez dira sekula iristen:
Helbidearen kaleraino ailegatzen da
Karteroa, baina han, taberna morera sartu
Eta mozkortuaz, gutun guziak galtzen ditu.

GP

GUTUN GALDUAK

Euliek zeldetako ispilu tipiak
zikintzen dituzte.
Egunak galtzen ditugu, oskorriak
Bere kolore arauak galtzen dituen bezala.
Harresien bestaldean etxe batzu
desdefinitzen dira.
Artean, balioen erlatibitateaz ez,
Balioen fatalitateaz
mintzo gara.
Haizeak bere delirioa arrastatzen du
mundua den eskuizkribu
irakurgaitzaren gainean.
Eta gure gutunak ez dira sekula iristen:
Helbideko kaleraino ailegatzean
karteroa, taberna morera sartu, mozkortu
eta gutun guziak galtzen ditu.

KP

GUTUN GALDUAK

Euliek zeldetako
ispilu tipiak zikintzen dituzte.
Egunak galtzen ditugu
oskorriak bere kolore arauak
galtzen dituen bezala.
Harresien bestaldean
etxe batzuk desdefinitzen dira.
Artean, balioen erlatibitateaz ez,
balioen fatalitateaz mintzo gara.
Haizeak bere delirioa arrastatzen du
mundua den eskuizkribu
irakurgaitzaren gainean.
Eta gure gutunak ez dira sekula iristen:
helbideko kaleraino ailegatzean
karteroa, taberna morera sartu,
mozkortu eta
gutun guziak galtzen ditu.

KRABELIN GORRIAK HARMEN KAINOIETAN

MZ

KRABELIN GORRIAK HARMA KAINOIETAN

Krabelin gorriak harma kainoietan. Badirudi
Iraultza maitasunez ere egin daitekeela,
Zapata bat galduaz bakarrik, esate baterako,
Edo negarrez, zorionagatik bakarrik negarrez, eta
Egunkari saltzaileak eskelarik ez duela salduko.
Baina gero ez da posible, oihuak eta tiroak,
Begira, orratz gorriek eritzen dute aidea,
Polbora usainak hestutzen ditu bihotzak
Eta zerraldo erortzen dira gorputz gazteak,
Eta beti dago norbait biluzik eta zutik
Bere herria ederregia eta krudelegia delako.

GP

KRABELIN GORRIAK HARMEN KAINOIETAN

Krabelin gorriak harma kainoietan. Badirudi
iraultza maitasunez ere egin daitekeela.
Krabelin gorriak harma kainoietan imini eta
iraultza berez azalduko dela kaleetan
Bere haur irribarrearekin, galera latzik gabe,
zapata bat galduaz bakarrik esate baterako,
eta egunkari saltzaileak eskelarik ez duela salduko.
Baina gero gauzak bestela dira, oihuak eta tiroak,
orratz gorriak aidea han eta hemen eritzen,
polbora usaina bihotza estutzen, eta
gorputz gazteak zerraldo erortzen.
Eta beri dago noredonor agerrean eta zutik
bere herria ederregia eta krudelegia delako.

KP

**KRABELIN GORRIAK
ARMA KANOIETAN**

Krabelin gorriak arma kanoietan. Badirudi
iraultza maitasunez ere egin daitekeela.
Krabelin gorriak arma kanoietan ipini eta
iraultza berez azalduko dela kaleetan
haur irribarrearekin, galera latzik gabe,
zapata bat bakarrik galduz esate baterako,
eta egunkari saltzaileak eskelarik
behintzat ez duela salduko.
Baina gero gauzak bestela gertatzen dira, oihuak
eta tiroak entzuten dira,
orratz gorriak agertzen dira han eta hemen
airea eritzen,
bolbora usainak bihotzak hertsatzen ditu, eta
zerraldo erortzen dira gorputzak.
Eta beti dago noredonor agerrian edo prest
bere herria ederregia eta krudelegia delako.

LEONARDO DA VINCI

MZ

LEONARDO DA VINCI

Bada mundu bisiblea esploratzen ari den
gizon bat.
Giza gorpuak irekiaz gorputz biziaren
sekretuak anatomia bihurtzen,
itsasoko uhain, marea eta korronteen
legeak bilatzen,
hegaztien hegatsez ibiltzeko manera ikertuz
gizona aidean garraiatzeko makina bat asmatzen
Munduko gauza eta jendearen itxuraz, koloreaz
eta itzalez Pintura Tratatu bat moldatzen,
Erregeek fortifikazio eta gerlarako
tresnak errekeritu dizkiote.
Bada gizon ezkergi bat misterioa argituaz
izkiriartzen ari dena,
baina bere testuak, eskuin ezker eginak,
Irakurleek (ispilu baten bidez irakurri beharrean)
lengoaia misteriotsuren bat delakoan uzten dituzte.

KARTZELAKO GOIZA

MZ

GARTZELAKO GOIZA

Hemen gaude guziak, hormaren kontra,
Beti hementxe egon bagina bezala,
Haizeak hautsa altzatu eta egunkariak
Aidean endregatuz hausten dituelarik.
Gezalak apurka apurka herdoilduko ditu
Leihoetako burdinak – esan du norbaitek
Basahate saldo bat doa hegatz
Alturan sokarik luzeenaren lerroa marraztuaz.
Gero isil isilik gaude guziak
Eta, batbatean, euria hasi da,
Gutariko bat hil zen egunean bezala.

GP

GARTZELAKO GOIZA

Hemen gaude guziak, hormaren kontra,
beti hementxe egondu bagina bezala,
haizeak hautsa altzatu eta egunkariak
aidean endredatuz hausten dituelarik,
harresietako goardiek balak errosarioaren
aleak bailiren kondatzen dituzten artean.
Gezalak apur apurka herdoilduko ditu
burdinazko barroteak- dio inork.
Basahate saldo bat doa alturan hegatz
sokarik luzeenaren lerroa marraztuaz.
Gero isil isilik geratu gara guziak
eta, batbatean, euria hasi da, aspaldian
gutariko bat hil zen goizean bezala.

KP

KARTZELAKO GOIZA

Hemen gaude guziak, hormaren kontra,
beti hementxe egondu bagina bezala,
haizeak hautsa altxatu eta egunkariak
airean endredatuz hausten dituelarik,
harresietako guardiek balak arrosarioaren
aleak bailiren kontatzen dituzten artean.
‘Gezalak apur-apurka herdoilduko ditu
burdinazko barroteak’, dio inork.
Basahate saldo bat doa alturan hegatz
sokarik luzeenaren lerroa marraztuaz.
Gero isil-isilik geratu gara guziak
eta, bat-batean, euria hasi da,
goiz hartan bezala, aspaldian
gutariko bat hil zen goizean bezala.

BAKARDADE GOGOETA

MZ

BAKARDADE GOGOETA

Antigualeko grekoek gizona *mikrokosmos*
izendatu zuten,
Eta definizio hori onartu da egunok arte:
Gizonak bere baitan unibertsoaren
Imajina oso bat daduka tamaina tipian.
Batzutan gizon baten figuran
Gainerako jendea ezagutzen da,
bera halako exenplo edo eredutzat hartuaz.
Bestetan gizonaren alde pertsonala, berezia,
intransferiblea bilatzen da,
Bakunean ere *kosmos* bat aurkituko delakoan.
Baina zelan ezagutu unibertsoaren
batasun organikoa
Bakardadean, gelan dena ausentzia,
dena falta denean,
Norbere burua ere apenas identifikatzen denean.

GP

BAKARDADE GOGOETA

*Só sabemos de nós mesmos
com muita confusão
(João Guimarães Rosa)*

Antigualeko grekoek mikrokosmos
izendatu zuten
eta definizio hori onartu da egunok arte:
gizakiak bere tamaina tipian
unibertso osoaren irudikoa dela.
Batzutan gizaki baten figuran
Gainerako jendea ezagutzen da,
bera halako exenplo edo eredutzat harturik.
Bestetan gizakiaren alde pertsonala,
berezia, intransferiblea bilatzen da,
bakunean ere kosmos bat suposatuz.
baina zelan igarri unibertsoaren batasun
eta orden organikoa
bakardadearen osinean, gelan dena ausentzia,
dena gabezia denean,
norbere burua ere apenas
identifikatu ahal denean.

KP
BAKARDADE GOGOETA

Só sabemos de nós mesmos
com muita confusiao
JOÃO GIMARÃES ROSA

Antigoaleko grekoek mikrokosmos
izendatu zuten
eta azalpen edo identifikazio hori onartu da
egunok arte:
gizakia, tamaina tipian, unibertso oso bat
bezalako delako.
Batuetan gizaki bakoitzaren figuran
gainerako jendea ezagutzen da,
delako hori halako etsenplu edo
eredutzat harturik.
Besteetan gizakiaren alde pertsonala,
berezia,
intransferiblea bilatzen da, bakanean ere
kosmos bat suposatuz.
Baina zelan igarri unibertsoaren batasun
eta orden organikoa
gizakiaren bakardadearen osinean,
gelan dena ausentzia,
dena gabezia denean, norbere burua ere
apenas identifikatu ahal denean.

KALEKO KRONIKA

MZ KRONIKA

Egunsentian erlojuak besterik ez du
bihotzik.

Nortzu dira solasean doazen bi mutilok?

Zein da auto blindatuko jende hori?

Nor da leihotik begira dagoen anderea?

Haizeak bere sekretu motelak darabiltza.

Zeozter gertatu behar da, udaberriko
Goiz arruntenean, eta inork ere ez daki.

GP/ HDEOG KALEKO KRONIKA

Egunsentian erlojuak besterik
Ez du bihotza.

Nortzu dira solasean doazen bi mutilok?

Nortzu dira auto blindatuko gizon
uniformatuok?

Nor da leihotik begira dagoen anderea?

Haizeak bere sekretu motelak darabiltza.

Zeozter gertatu behar da, udaberriko
goizik arruntenean, baina oraindik
inork ez daki ezer.

KP KALEKO KRONIKA

Egunsentian erlojuak besterik
ez du bihotza.

Nortzuk dira solasean doazen bi mutilok?

Nortzuk dira auto blindatuko gizon
uniformatuok?

Nor da leihotik begira dagoen anderea?

Haizeak bere sekretu motelak darabiltza.

Zeozter gertatu behar du, udaberriko
goizik arruntenean,

baina oraindik inork ez daki zer.

HAU DA UDABERRIA

MZ

HAU DA UDABERRIA

Hau da udaberria
Larretik ziadadera
Mitxeleta bat
Bere buztan hozkirri
Eta moltsuaz
Animalia salbaien larrua
Eta kale kantoietako itsuen
Loteria bileteak
Ukitu eta berriztatzen

GP

HAU DA UDABERRIA

Hau da udaberria-
Larretik hirira
mitxeleta bat
bere buztan hozkirri
eta amoltsuaz
animalia salbaien larrua
eta kale kantoietako itsuen
loteria bileteak ukitu
eta berriztatzen.

Dena kanpoan.
Barruan, leihorik gabeko
begiradak.

KP

HAU DA UDABERRIA

Hau da udaberria—
Larretik hirira
mitxeleta bat
buztan hozkirri
eta amoltsuz
animalia salbaien
larrua eta
kale kantoietako
itsuen loteria billeteak
ukituz
berriztatzen.

Dena kanpoan.
Barruan, leihorik gabeko
begiradak.

ARMEN KANOIAK

MZ

HARMEN KAINOIAK BEREN GORPUTZEN AURKA

Harmen kainoiak beren gorputzen aurka
zuzendurik daudela jakinaren gainean
bere aitamen baserrietatik irten dira,
aterdiak zabalik utzi eta badoaz
Ibarretan behera, biderik gabe bezala
belarra zapalduaz, atramadak saltatuaz,
Beren zauriak, suertatuez gero, paparrean
larrosak bezala sofrituko dituzte,
Urratsik gelditu gabe joanen dira
beti, oroimen zahar bat begietan
Eta, suertatuez gero, zergatik hiltzen
oihukatu gabe hilgo dira, isilean,
Bere herriagatik ez bada
beren duintasunagatik.

GP

HARMEN KAINOIAK HAIEN GORPUTZEN AURKA

Harmen kainoiak haien gorputzen aurka
zuzendurik daudela jakinaren gainean
aitamen baserrietatik irten, aterdiak
zabalik utzi eta badoaz
ibarretan behera, biderik gabe bezala
belarra zapalduaz, atramadak saltatuaz.
Urratsik gelditu gabe joanen dira beti,
oroimen zaharren bat begietan,
eta, hala suertatuez gero, zergatik hiltzen diren
zehaztu gabe hilgo dira, hitz hil
isilean, beren herriagatik ez balitz
beren duintasunagatik.

KP

ARMEN KANOIAK

Armen kanoiak euren gorputzen aurka
zuzendurik daudela jakinaren gainean
aitamen baserrietatik irten, aterdiak
zabalik utzi eta badoaz
ibarretan behera, biderik gabean bezala
belarra zapalduz, atramadak saltatuz.
Urratsik gelditu gabe joanen dira beti,
oroimin zaharren bat begietan.
Eta hala suertatuz gero, zergatik hiltzen diren
zehaztu gabe hilko dira, hitz hil
isilekin, herriagatik ez balitz, zerbaitengatik,
duintasunagatik.

PALESTINAR PRESOA

MZ / XXPK

PALESTINAR PRESO BAKARTIAK

Palestinar preso bakartiak
 irratia darama beti aldean
Eta entzuten du, gutienez,
 hurrintasunaren arrabotsa.
Patio eguzkitsuan paseatzen da
 kuadratuan zirkuluak eginez,
Eta entzuten du,
 aideak dakarkionean,
Bere sorlekuko iturrien hotsa;
 gartzelan ez da ura
Egunero bi aldiz besterik ematen
 eta presoa egarriak dago.
Egun sargorian emisora gehiago
 hatzeman ditzake
Eta bere besoetako zainak
 hantutzen dira; badirudi
odola ez zaiola gorputzean kabitzen
 eta, leherturik,
Bere zainetarik sortuko dela
 itsaso gorri bat eta
Palestinar preso bakartia
 odol itsaso horretan hondatuko dela,
Balaz eta hilez kargatuegi,
 bafora kargatuegi baten gisan

GP

PALESTINAR PRESOA

Palestinar preso bakartiak
 irratia darama aldean
eta entzuten du, betiere,
 hurrintasunaren arrabotsa.
Patio eguzkitsuan paseatzen da
 kuadratuan zirkuluak eginez,
eta aideak dakarkionean bere sorlekuko
 iturrien hotsa aditzen.
Gartzelan ura egunean birritan ematen da
 eta egarriak dago,
egun sargorian emisora gehiago
 hatzeman ditzakeela zihur
dialean xerka, bere besoetako zainak
 albisteak entzunala
hantu egiten dira; badirudi odola
 ez zaiola gorputzean kabitzen
eta, leherturik, bere zainetatik
 itsaso gorria eginen dela.
Eta palestinar preso bakartia odol
 itsaso horretan hondatuko dela,
balaz eta hilez kargatuegi,
 bafora lar kargatuen gisan.

KP

PALESTINAR PRESOA

Palestinatar preso bakartiak
 irratia darama aldean
eta entzuten du, betiere,
 urruntasunaren harrabotsa.
Patio eguzkitsuan paseatzen da
 koadratuan zirkuluak eginez,
eta sorlekuko iturrien hotsa aditzen du
 aireak dakarkionean.
Ura egunean birritan ematen da kartzelan,
 eta egarriak dago,
baina egun sargorian emisora gehiago
 atzeman ditzakeelakoan,
dialean xerka dabilela, besoetako zainak
 albisteak entzunala
hantu egiten zaizkiola; badirudi odola
 ez zaiola gorputzean kabitzen
eta, zainen bat pitzatuz gero
 itsaso gorria egingen dela.
Eta palestinatar preso bakartia odol
 itsaso horretan hondatuko dela,
balaz eta hilez kargatuegi, itsasontzi
 lar kargatuen antzera.

HAURTZAROKO ERRETRATUA

MZ ERRETRATUA

Idirik gabeko gurdi gainean eseri dira,
Aitaitak eta amamak ia hirurogei
eta haurrak bizpairu urte dituenean.
Fotografoak deitu diolarik
aitaita soloko lanak utzi eta
Alkondararen mangak luzatuz heldu da.
Amamak amantala kendu,
gurdian eseri eta altzoko haurrari
-Kamara seinalatuaz- xoria begiratzeko diotso.
Larunbat arratsaldean haizeak
Intxaur hostoak eragiten ditu beren gainean
Seinale igartezinak emanaz.
Hiruretatik batek ere ez du susmatzen
Hogei urte geroago, finean,
Presondegiko bisita kabinan
Paisaia zahar hura eskuetan
elkartuko direla berriro

GP HAURTZAROKO ERRETRATUA

Gurdi zaharraren gainean eseri dira,
aitaita eta amamak ia hirurogei
eta haurrak bizpairu urte dituenean.
Fotografoaren deira
aitaita soroko lanak utzi eta
Alkondararen mangak altzatuz heldu da.
Amamak amantala kendu,
gurdi ertzean eseri eta
Altzora jaso duen haurrari
-kamara seinalatuaz-
xoria begiratzeko diotso.
Larunbat arratsaldean, haizeak
intxaur hostoak eraginez
aieru igartezinak ematen ditu.
Hiruretarik inork ez du susmatzen
hogei urte geroago, azken aldikoz,
gartzelako bisita kabinan
antzinako paisaia hori eskuetan
elkartuko direla.

KP HAURTZAROKO ERRETRATUA

Aitaita eta amamak ia hirurogei,
haurrak bizpahiru urte ditu.
Gurdi zaharraren gainean eseri dira
fotografoak deiturik.
Aitaita soroko lanak utzi eta alkandora
mahukak luzatuz heldu da.
Amamak, amantala kendu,
gurdi ertzean eseri eta
—kamara seinalatuz— txoriari begiratzeko
diotso altzora jaso duen haurrari.
Larunbat arratsaldea da eta haizeak
intxaur hostoak eraginez
susmo igartezinak zabaltzen ditu
Garaizarren.
Umeak ez du susmatzen
hogei urte geroago
kartzelako bisita kabinan elkartuko dela
aitaita eta amamarekin
eta kristalaz bestaldetik erretratu hori
erakutsiko diotela.

HILARRI IZKRIBUA III

MZ

HILARRI IZKRIBUA III

Mundua ezaguna eta
Arrotza da beti,
Tipiegiak gara, orain ere
Hurrek bezala
Kexatu nahi genuke:
«Hemen hotzak nago, ama!»

GP

HILARRI IZKRIBUA III

Mundua ezezaguna eta
arrotza da beti,
tipiegiak gara, orain ere
hurrek bezala
kexatu nahi genuke:
'Hemen hotzak nago, ama!'

KP

HILARRI IZKRIBUA III

Mundua ezezaguna eta
arrotza da beti,
tipiegiak gara, orain ere
hurrek bezala
kexatu nahi genuke:
Hemen hotzak nago, ama!'

NEGUKO PAISAIA

MZ

NEGUKO PAISAIA

Zer berri ekarri behar diguzue?
Zein da daramazuen sekretua?

Esaidazue, egaberak, zergatik duzue
Pasatzean kate baten antza?

Noiz arte iraunen du gure esperoak?
Zergatik ez zarete pausatzen?

Ba da ifar aldean atsedetik?
Zeren bila zoazte hegorantza?

Ezagutzen duzue nonbait aberririk
Oinaze erreka bat ez denik?

nortzu garen gu? Gibleko minbiziarekin
Bizi diren elur liliak gara.

GP

NEGUKO PAISAIA

Zer berri ekarri behar diguzue?
Zein da daramazuen sekretua?

Esaidazue, hegaberak, zergatik duzue
Pasatuala katearen antza?

Noiz arte iraunen du gure esperoak?
Zergatik ez zarete pausatzen?

Ba da ifar aldean atsedetik?
Zeren bila zoazte hegorantza?

Ezagutzen duzue inon aberririk
Oinazearen errekek zeharkatzen ez duenik?

Nortzu garen gu? Gibleko minbiziarekin
Bizi garen elur liliak.

KP

NEGUKO PAISAIA

Zer berri ekarri behar diguzue?
Zein da daramazuen sekretua?

Esadazue, hegaberak, zergatik duzue
pasatuala katearen antza?

Noiz arte iraunen du gure esperoak?
Zergatik ez zarete pausatzen?

Bada ipar aldean atsedetik?
Zeren bila zoazte hegoalderantz?

Ezagutzen duzue inon aberririk
oinazearen errekek zeharkatzen ez duenik?

Nortzuk garen gu? Gibleko minbiziarekin
bizi garen elur-liliak gara.

GERLA HONDARTZAN

MZ

GERLA HONDARTZAN

Burrukan ari dira hondartzan gerlariak,
Beren herri onagatik odola isuriaz,
Edo agindu bategatik bakar bakarrik,
Eta orain badirudi mundua ez dela
Bezperakoa bezalakoa inoiz izango.
Baina itsas gorak gauez garbituko du dena,
Harearen zauriak soilduaz, eta bihar
Atzo bezain lisu eta isil egongo dira
Hondartzak, mundu zoriontsu baterako,
Mutikoek uraren ertzean kontxatxoak
Bil ditzaten, neskatilek itsas zalditxoez
Oroimin gabeko ametsak egin ditzaten.

GP

GERLA HONDARTZAN

Burrukan ari dira gerlariak,
odola isuriaz, beren herriagatik
edo aginduagatik bakar bakarrik,
eta orain badirudi mundua ez dela
bezperakoa bezalakoa inoiz izanen.
Baina itsas gorak garbituko du dena
harearen zauriak soilduaz, eta bihar
atzo bezain lisu eta isil geratuko dira
hondartzak, mundu zoriontsuren batetarako,
mutikoek uraren ertzean kontxatxoak
bil ditzaten, neskatilek itsas zalditxoez
Oroiminik gabeko ametsak egin ditzaten.

KP

GERLA HONDARTZAN

Borrokan ari dira oraindik gerlariak,
odola isuriz,
herriagatik, edo aginduagatik
bakar-bakarrik,
eta badirudi mundua ez dela inoiz
bezperakoa bezalakoa izango.
Baina itsasgorak garbituko du dena
hareetako zauriak soilduz,
eta atzo bezain lau eta isil geratuko dira
bihar hondartzak,
mundu zoriontsuagoren baterako,
mutikoek
uraren ertzean maskorak bil ditzaten,
neskatilek
itsas zalditxoez oroiminik gabeko
ametsak egin ditzaten.

O SENTIMENTO DO MUNDO

MZ

GP/ KP / HDEOG

NÃO ES TU FACULDADE DE SENTIR / O SENTIMENTO DO MUNDO

Tenho apenas duas mãos
e o sentimento do mundo
CARLOS DRUMOND DE ANDRADE⁴⁹

Não és tu —faculdade de sentir— um espaço
terminado por linhas ou superfícies
e não obstante chove sobre ti na cidade,
as gárgulas sorriem contra a tarde,
a fadista tece com fio de algodão
as suas lembranças, chove nas gretas,
os antiquários mudam de residência
e os pássaros abrigam-se nos fechamentos,
agacham-se fatigadas as folhas amarelas
e não estia, chove no molhado brando
da tua transparencia, teus lábios,
e tudo aquilo que é domínio do coração
encolhe-se no lago, no lago do tempo.

HDEOGean euskarazko itzulpena ere badago:

Ez zara zu -sentitzeko gaitasuna- lerroz
eta azalez osatutako gunea,
Eta hala ere euria ari du zure gainean, hirian,
Gargolek irribarre egiten dute arratsaren aurka,
Fadistak kotoizko hariarekin ehuntzen ditu
Bere oroitzapenak, euria ari du zirrikituetan,
antikuarioak egoitzaz aldatzen dira
eta txoriak zerreiletan babesten
nekatuta abailtzen dira hosto horiak
eta ez du atertzen, euria ari du zure
transparentziaren busti biginean, zure ezapinetan,
eta zure bihotzaren mende dagoen guztia,
ttikitu egiten da lakuan, denboraren lakuan.

49 Aipua GP eta KPean bakarrik dago.

ITSASO DEBEKATUAK

MZ/ GP

ITSASO DEBEKATUAK

«I love to sail
forbidden seas»
Herman Melville

Nondik datoz marinelak?
Nora doa untzia? Zergatik?
Nortzu dira marinelak?
Eta zer da untzia?

KP

ITSASO DEBEKATUAK

I love to sail
forbidden seas
HERMAN MELVILLE

Nondik datoz marinelak?
Nora doa ontzia?
Zergatik? Nortzuk dira marinelak?
Eta zer da ontzia?

ELURREZKO HEGAZTIA DA GURE BIHOTZA, EORANN

MZ

ELURREKO HEGAZTIA DA GURE BIHOTZA, EORANN

Elurrezko hegaztia da gure bihotza, Eorann, polborazko
Loreen gainean hegatsez Euskal Herrirantza.
Gure bihotza Bilboko etxe zaharrearan dago
Barruan zer dagoen inork ez dakiela, Eorann,
gure bihotza mugaldeko edozein larretan
tirokatzen dute karabinerook, aurpegi alaiko
neskatilaren alboan dago gure bihotza, Eorann,
Edo Eskiulako laborari mainguaeren kantuan,
Hegaztia, hegaztia izan nahirik aidera begira.
Hil orduko bere iloba bisitatu nahi duen
Amamarekin dago gure bihotza, eta Leitzako
Ur gardenetan, Eorann, edo beste edozein erreka
paperez betetan. Hilargiari so gaude, baina
zer axola hilargiari hornitzen duen mundu hau?
Amatatzen ari dira argi guziak, gure bihotza
Goardia zibilen kuarteletan kolpatzen dute gauero
Eta hegazti bilakatzen da ihes egiteko, Eorann,
Munduko kale amaigabeetan dabil gure bihotza,
Heroe zaharrak kantoietako izenetan herdoiltzen diren artean
Elurrezko hegazti bat besterik ez da, esperantzaz,
Esperantza doi batez aidean, eguzkitan urtzear,
Elurrezko hegaztia, Eorann, zeure bihotz barruan
Onartzen baduzu bakarrik ez da desegingo.

GP

ELURREZKO HEGAZTIA DA GURE BIHOTZA, EORANN

Elurrezko hegaztia da gure bihotza, Eorann,
polborazko loreen gainetik hegatsez Euskal Herrirantza.
Gure bihotza Bilboko etxe zaharrearan dago, Eorann,
barruan zer dagoen inork ez dakiela, gure bihotza
mugaldeko edozein larretan tirokatzen dute karabineroek,
muga iraganez gero neska alaiaren alboan eseritzeko,
gure bihotza Eskiulako laborari mainguaren kantura doa
hegaztia, hegaztia izan nahirik bezala aideratuaz.
Hil orduko bere iloba bisitatu nahi duen amamarekin
dago gure bihotza, eta Leitzako ur gardenetan, Eorann,
eta beste edozein erreka paperez betetan. Hilargiari
begira, baina zer axola hilargiari gure bihotza?
Amatatzen ari dira bana bana argi guziak, Eorann, gure
bihotza goardia zibilaren kuarteletan kolpatzen dute
gauero, eta hegazti bilakatzen da ihes egiteko, Eorann,
eta munduko kantai amaigabeetan galtzen da damurik gabe
heroe zaharrak elurrezko hegaztia da, Eorann,
esperantza doi batez aidean, eguzkitan urtzear.
Elurrezko hegaztia, Eorann, zure bihotz barruan
onartzen baduzu bakarrik ez da desegingo.

KP

ELURREZKO HEGAZTIA DA GURE BIHOTZA, EORANN

Elurrezko hegaztia da gure bihotza, Eorann,
bolborazko loreen gainetik hegatsez Euskal Herrirantz.
Gure bihotza Bilboko etxe zaharrearan dago, Eorann,
barruan zer dagoen inork ez dakiela, gure bihotza
mugaldeko edozein larretan tirokatzen dute karabineroek,
muga iraganez gero neska alaiaren alboan esertzeko,
gure bihotza Eskiulako laborari mainguaren kantura doa
hegaztia, hegaztia izan nahirik bezala aireratuz.
Hil orduko iloba bisitatu nahi duen amamarekin
dago gure bihotza, eta Leitzako ur gardenetan, Eorann,
eta beste edozein erreka paperez betetan. Ilargiari
begira, baina zer axola ilargiari gure bihotza?
Amatatzen ari dira banan-banan argi guziak, Eorann, gure
bihotza guardia zibilaren kuarteletan kolpatzen dute
gauero, eta hegazti bilakatzen da ihes egiteko, Eorann,
eta munduko kantai amaigabeetan galtzen da damurik gabe
heroi zaharrak kale izenetan herdoiltzen diren artean.
Gure bihotza elurrezko hegaztia da, Eorann,
esperantza doi batez airean, eguzkitan urtzear.
Elurrezko hegaztia, Eorann, zeure bihotz barruan
onartzen baduzu bakarrik ez da desegingo.

ITZULERA

MZ

HIEROFANIA II

Itsasuntziak lehorrera
Itzultzen dira beti.
Begira itzazu: uhainek
Hondartzara dakartzate
Ohol zatiak, balisa irekiak.

GP

ITZULERA

Itsasuntziak lehorrera
Itzultzen dira beti.
Begira itzazu: uhainek
hondartzara arrastatzen dituzte
ohol zatiak, balisa irekiak.

KP

ITZULERA

Itsasontziak lehorrera
 itzultzen dira beti.
Begira itzazu: uhinek
 hondartzara
arrastatzen dituzte ohol zatiak,
 maleta irekiak.

HAU DA NEGUA

MZ

HAU DA NEGUA

Hau da negua
Loteria saltzaile itsuak
Eskuak boltsikoan.
Komentua suak hartu eta
Serora guziak irten dira
Elurtzan barrena korrika.
Gutun bat berehala igortzeko amorantearen
Promesa ez da batere konplitu.
Neguak ez du Paradisuaren antzik
Ez bada lore zurietan.

GP

HAU DA NEGUA

Hau da negua-
Loteria saltzaile itsuak
eskuak boltsiloan.
Komentua suak hartu eta
elurtzan guziak korrika.
Gutuna berehala igortzeko
amorante promesa konplitu gabea.
Neguak ez du Paradisuaren antzik
ez bada lore zurietan.

Xoriak izozturik pausatzen dira
gure baitan.

KP

HAU DA NEGUA

Hau da negua—
Loteria saltzaile itsuak
eskuak poltsikoan.
Komentua suak hartu eta
elurtzan barrena
serora guziak korrika.
Gutuna berehala igortzeko
amorante promesa
konplitu gabea.
Neguak ez du Paradisuaren antzik
ez bada lore zurietan.

Txoriak izozturik pausatzen dira
gure baitan.

PRESOEN AMAK

MZ

OROITZEN ZAITUDANEAN

Oroitzen zaitudanean, ama,
Sukaldean egoten zara
Mahaia bostentzat atondu,
Aulkian eseri eta
Leihotik begira
Kristala lausotzen duen lurrina kendu gabe
Eta ni –badakit–
Zeure begien hondoan nagoela

GP

PRESOEN AMAK

Oroitzen zaitudanean, ama,
sukaldean egoten zara
mahaia bostentzat atondu,
aulkian eseri eta leihotik
kristala lausotzen duen lurrina
ezabatu gabe neguari begira
eta ni – badakit –
zure begien hondoan nagoela.

Patioan solasean eta lagun batek:
– Itolarria senditzen diat...

Zer den amaren begian egotea!

KP

PRESOEN AMAK

Oroitzen zaitudanean,
ama,
sukaldean egoten zara
mahaia bostentzat atondu,
aulkian eseri
eta leihotik,
kristala lausotzen duen lurrina ezabatu gabe,
neguari begira
eta ni
—badakit—
zeure begien hondoan nagoela.

Patioan solasean eta lagun batek:
'Itolarria sentitzen diat...'

Zer den amaren begian egotea!

ITSASO BAREA

MZ

ITSASO BAREA

Galerrena edo naufragio
Izugarria – esaten da.
Baina ez ote dira
Izugarriagoak
itsaso bare mutuetako galerak?

GP

ITSASO BAREA

Galerrena edo naufragio
izugarria- esaten da.
Baina ez ote dira izugarriagoak
itsaso bare mutuetako
galerak?

KP

ITSASO BAREA

Galarrena edo naufragio
izugarria – esaten da.
Baina ez ote dira izugarriagoak
itsaso bare mutuetako galerak?

MUNDUAK GEZURRA DIYOTSU, BIHOTZA

MZ/ GP/ KP
**MUNDUAK GEZURRA DIYOTSU,
BIHOTZA**

Federiko Krutwig,
bariazioak

Gezurak mundua diotsu, bihotza
Munduak bihotza diotsu, gezurra
Gezurak bihotza diotsu, mundua
bihotzak mundua diotsu, gezurra
bihotzak gezurra diotsu, mundua

HAU DA UDAGOIENA

MZ

HIEROFANIA I

Kehe urdindua ximinian gora
Larre gainetarantza. Udazkeneko
Hostoak deusere pentsatu gabe
Erortzen. Goizegi da oraindik.
Bide bazterreko belar ebakia
odola dariola.

GP

HAU DA UDAGOIENA

Hau da udagoiena-
Kee urdindua ximinian gora
larre gainetarantza.
Uda amaierako hostoak
deus pentsatu gabe
erortzen.
Goizegi da oraindik, baina
bide bazterretako belar ebakia
odola dariola.

Udagoiena heldu dela diote
irratian.
Denbora, leitzearen leitzez
zahartzen den gutuna da.

KP

HAU DA UDAGOIENA

Hau da udagoiena—
Ke urdina
tximiniatik gora
larre gainetarantz.
Uda amaierako
hostoak
deus pentsatu gabe
erortzen.
Goiz da oraindik,
baina
bide bazterreko
belar ebakia
odola dariola dago.

Udagoiena heldu dela diote
irratian.
Denbora,
leitzearen leitzez,
zahartzen den gutuna da.

BIHOTZ ILUNA

MZ

BIHOTZ ILUNA

Horma iragan ezina, bihotz iluna,
Zementuzko bertikalak eta horizontalak
Pasilo luzeak, burdinezko ate zarratuak,
Behin eta berriroko zarrailak,
Etxe errea, etxe hotza.
Hurrinegi, lakuetara hegalak zabalik
Sartzen dira basahateak. Bihotz iluna:
Noiz eginen duzu haien antzera jauzi?
Esperantza altzairuzko orratz bat besterik ez da
Hamaikagarren atean. Bihotz iluna:
Zenbat oilar ito dabil zure odolaren zirimolan?
Bere gelaren mugatan, gauez,
Preso bakoitzak marra bat egiten du horman,
Horregatik izaten du egunsentiak
Bihotz iluneko tigre baten antza.

GP

BIHOTZ ILUNA

Horma iragan ezinak, bihotz iluna,
zementozko bertikalak eta horizontalak,
pasilo luzeak, burdinezko ate zarratuak,
behin eta berriroko zarrailak,
Etxe errea, etxe hotza.
Hurrinegi, basahateak lakuetara
hegalak zabalik murgiltzen. Bihotz iluna:
Noiz eginen duzu haien antzera jauzi?
Esperantza altzairuzko orratza da
hamaikagarren atean. Bihotz iluna:
Zenbat oilar ito dabil zure odolaren zirimolan?
Bere gelaren mugatan gauez
preso bakoitzak marra bat egiten du,
horregatik ohi du egunsentiak
Bihotz iluneko tigrearen antza.

KP

BIHOTZ ILUNA

Horma iragan ezinak, bihotz iluna,
zementuzko bertikalak
eta horizontalak, korridore luzeak,
burdinazko ate zarratuak,
behin eta berriroko sarrailak,
etxe errea, etxe hotza.
Urrunegi basahateak lakuetara
hegalak zabalik murgiltzen.
Bihotz iluna: noiz eginen duzu
haien antzera jauzi?
Esperantza altzairuzko orratza da
hamaikagarren atean.
Bihotz iluna: zenbat oilar ito dabil
zure odoleko zirimolan?
Ziegaren esparruan gauez
preso bakoitzak marra bat egiten du.
Horregatik ohi du egunsentiak
bihotz iluneko tigrearen antza.

III. GALDERA

MZ

III. GALDERA

Leihoaren zirrikitu batetarik
Aidea sartzen. Gelditu egin da
Zigor zeldan bakarrik den presoaren
Erlojua. Denboraren barea!
Leiho alboko hari bat soilik
Gora beheraka mogitzen.
Presoak ea ordua dakien
Galdetu dio,
Eta hariak, aideak eragina,
Badirudi baietz, baietz,
Baietz erantzuten diola.

HDEOG

III. GALDERA

Leihoaren zirrikitutik
Haizea sartzen. Zigor zeldan
bakar bakarrik dagoen presoaren
Erlojua gelditu egin da.
Denboraren barea!
Leiho alboan hari soil bat
haizearen gora beheraka mogitzen.
Presoan hariari
ea ordua dakien galdetu dio.
Eta hariak, goruntz beherunzka eginez
badirudi baietz, baietz,
Baietz erantzuten duela.

GP

III. GALDERA

Leiho zirrikitutik
haizea sartzen. Zigor zeldan
bakar bakarrik dagoen presoaren
erlojua gelditu egin da.
Denboraren barea!
Leiho alboan hari soil bat
haizearen gora beheraka mogitzen.
Presoak hariari
ea ordua dakien galdetu dio.
Eta hariak, goruntz beherunzka eginez
Badirudi baietz, baietz,
baietz erantzuten diola.

KP

III. GALDERA

Leiho zirrikitutik
haizea sartzen.
Zigor-zeldan bakarrik dagoen presoaren
Erlojua gelditu egin da.
Denboraren barea!
Leiho alboan hari soil bat
Haizearen gora beheraka
mogitzen.
Presoak hariari galdetu dio
ordua.
Hariak, gora eta beheraka, baietz,
Baietz, baietz erantzuten dio.

II. GALDERA

MZ

II. GALDERA

Zelda bazterrean geratu da
Gizona, bakarrik mintzo dela dirudi
Baina ez, armiarma bati
Noiz arte galdetu dio.
Armiarma, berehala,
zintzilikatu eta hari bat
Luzatuaz jeisten da,
eta badirudi hari luze hori dela
armiarmaren erantzuna.

GP/ HDEOG

II. GALDERA

Presoa zelda bazterrean,
bakarrik mintzatzen bezala.
Baina ez, armiarma bati
Galdetzen dio 'Noiz arte?'.
Armiarma, berehala,
zintzilikatu eta haria
luzatzen jeisten da.
Eta badirudi hari luze hori dela
Armiarmaren erantzuna.

KP

II. GALDERA

Presoa zelda bazterrean,
bakarrik mintzatzen bezala.
Baina ez. Armiarma bati
galdetu dio: 'Noiz arte?'.
Armiarma, berehala,
zintzilikatu eta
haria luzatuz jaisten da.
Eta badirudi
hari luze hori dela armiarmaren
erantzuna.

TORTURA EGUNAK

MZ

TORTURA EGUNAK

Espainiar poliziek gure herrian
Behelaino zatiak ere preso hartzen dituzte,
Infernuaren hamaikagarren zirkuluan gatibatzeko.
Harmakin harrapatu duten mutilak
Lagun torturatuaren baten azalpena oroitzen du,
Ezer ez dakienak ez daki zergatik detenitu duten ere,
Eta inork ez du ateetan barrura daramatelarik
Sofrimenduaz kalkulo egokirik egiten,
Zer da hormaren kontra zapaltzen nauen oinaze hau?
Galdetuko dio gero mutilak bere buruari.
Zer da harrilako hutsune hau? Eta erantzuna
Kolore ubelaren metafisikari buruzko
Tratatu bat izanen da, mintzaira hil batean,
Borreroen itzalen artean. Honela da
Guti gora behera: odolak aurpegia borratuko dizu,
Hegazti itsuek inguratuko zaituzte,
Hargiak abandonatu egingen zaitu, hargin enanoek
Errautsezko katedral bat eraikiko dute;
Zure bizitza zeure fikzioa izanen da
Eternitatearen aspektoa den egun bakoitzean,
Materialismo dialektikoaren klasikoetan ez zen argitzen
Torturan gizona, modurik indibidualenean,
 munduaren epilogoia bihurtzen zela.

GP

TORTURA EGUNAK

Espainiar poliziek Euskal Herrian
behelaino zatiak ere preso hartzen dituzte
infernua hamaikagarren zirkuluan gatibatzeko.
Edozer gauzarekin harrapatu duten mutilak
lagun torturaturen baten azalpena oroitzen du,
beste batek ez daki zergatik detenitu duten ere,
eta inork ez du ateetan barrura daramatelarik
heldu den sofrimenduaz kalkulo egokirik egiten.
Zer da hormaren kontra zapaltzen nauen oinaze hau?
Galdetuko dio gero mutilak bere buruari.
Zer da harrilako hutsune hau? Eta erantzuna
kolore ubelaren metafisikari buruzko tratatua
izanen da, mintzaira hil batetan, borrero itzalen artean.
Honela guti gora behera: odolak aurpegia borratuko dizu,
hegazti itsuek inguratuko zaituzte, haragiak
abandonatuko zaitu eta hargin enanoek zeure
gorputz adreiluz errautsezko katedralea eraikiko dute,
eta zure bizitza zeure fikzioa izanen da
eternitatearen aspektoa den egun bakoitzean.
Materialismo dialektikoaren klasikoetan ez zen argitzen
torturaren gizakia, modurik indibidualenean,
 munduaren epilogoia bihurtzen dela.

KP

TORTURA EGUNAK

Espainiar poliziek Euskal Herrian
behelaino zatiak ere preso hartzen dituzte
infernuaren hamaikagarren zirkuluan gatibatzeko.
Edozer gauzarekin harrapatu duten mutilak
lagun torturaturen baten azalpena oroitzen du.
Beste batek ez daki zergatik detenitu duten ere,
eta inork ez du, ateetan barrura daramatelarik,
heldu den sufrimenduaz kalkulu egokirik egiten.
Zer da hormaren kontra zapaltzen nauen oinaze hau?
galdetuko dio gero mutilak bere buruari.
Zer da harria lako hutsune hau? Kolore ubelaren
metafisikari buruzko tratatua izanen da,
mintzaira hil batean, borrero itzalen artean.
Honela guti gora behera:
odolak aurpegia borratuko dizu,
hegazti itsuek inguratuko zaituzte,
haragiak abandonatuko zaitu eta argin nanoek
zeure gorputzetik erauzitako adreiluz
errautsezko katedrala eraikiko dute,
eta zure bizitza zeure fikzioa izanen da
eternitatearen aspektua den egun bakoitzean.
Materialismo dialektikoaren klasikoetan ez zen argitzen
gizaki torturatua, modurik indibidualenean, munduaren
epilogoia bihurtzen dela.

ELURRA BEZAIN ISIL BADATOR ILLUNA

MZ/ GP / KP
**ELURRA BEZAIN ISIL BADATOR
ILLUNA**

*Nikolas Ormaetxea,
bariazioak*

Isila bezain ilun badator elurra
Elurra bezain ilun badator isila
Isila bezain elur badator iluna
Iluna bezain elur badator isila
Iluna bezain isil badator elurra

MISTERIO FISKALA

GP

MISTERIO FISKALA

*The most profound human sensation
is the sensation of mystery...
(Albert Einstein)*

Gaur ailegatu da hurrengo epaiketarako
kondena eskaera: 99 urte.
Jaun traxedun eta serio batek ekarri dit
leitu gabe sinatu dudan sumarioa. 99 urte?
Ministerio fiskalaren asmoak betez gero
ez naute 2079 urtera arte hainduko.

Artean mundua aldatuz doa, bihar ia gaur da,
eternitatea karakol lez pasatzen da
eta errebeldeek ere denboraren eta hautsaren
legea obeditzen dugu.

Denborari utziko diogu gure larrua
tatuaz estaltzen?
Zer egin, goizero —marinel zaharra bezala—
jakintsuago eta tristeago jaikitzean?

Zer egin hainbeste denbora eta
hain leku gutirekin?
Zein poltsikotan sartu hainbeste
urtetako larderia?
Zer eginen zenuke zuk, baldin eta batbatean
inmortala zarela abisatuko balizute?

KP

MISTERIO FISKALA

The most profound human sensation
is the sensation of mystery...

ALBERT EISTEIN

Gaur ailegatu da hurrengo epaiketarako
Kondena eskaera: 99 urte.
Jaun trajedun eta serio batek ekarri dit
leitu gabe sinatu dudan sumarioa.
99 urte? Ministerio fiskalaren asmoak betez gero
ez naute 2079 urtera arte hainduko.
Artean mundua aldatuz doa, bihar ia gaur da,
eternitatea karakol lez pasatzen da
eta errebeldeek ere denboraren eta hautsaren
legea obeditzen dugu.

Denborari utziko diogu gure larrua
tatuaz estaltzen?
Zer egin, goizero —marinel zaharra bezala—
jakintsuago eta tristeago jaikitzean?
Zer egin hainbeste denbora eta
hain leku gutirekin?
Zein poltsikotan sartu hainbeste
urtetako larderia?
Zer eginen zenuke zuk, baldin eta bat-batean
hilezina zarela abisatuko balizute?

TERRITORIO LIBREA

GP/ HDEOG TERRITORIO LIBREA

Funtzionarioak zelatan ditugu beti:
bazterretik jarraitzen digute patioan,
atzetik jarraitzen digute komunera,
aurretik jarraitzen digute bisitara,
ateko mirilatik zaintzen gaituzte zeldan
eta gure loa ere zelatatzen dute.
Haiengandik ezin dugu aldegin
ez patioan, ez komunean, ez bisita
kabinan, ez zazpigarren loan.
Euskara da gure territorio
libre bakarra.

Euskaraz solasean hasiez gero
hara hor funtzionario bat berehala
ezkutuan gure ondora datorrela.
Zihur ez duela deus ulertzen euskaraz
Ziur ez duela deus ulertzen,
baina bertan geratzen da zelatan,
espioi filmetako espioiaren moduan.
Dena dela, guk ez diogu euskarazko
lehen ikasgaia ere emanen eta,
gutako batek oharkabea bezala dio:
'Emukatup tab kogaid erug naedlakezta
ae neztidnufnok nugud...'

KP TERRITORIO LIBREA

Funtzionarioak zelatan ditugu beti:
bazterretik jarraitzen digute patioan,
atzetik jarraitzen digute komunera,
aurretik jarraitzen digute bisitara,
ateko mirillatik zaintzen gaituzte zeldan
Eta gure loa ere zelatatzen dute.
Ezin haiengandik alde egin ez patioan,
ez komunean, ez bisita
Kabinan, ez zazpigarren loan.
Euskara da gure territorio
Libre bakarra.

Euskaraz solasean hasiz gero
hara hor funtzionario bat berehala
Ezcutuka gure ondora datorrela.

baina bertan geratzen da zelatan,
Espioi filmetako espioiaren moduan.
Dena dela, guk ez diogu euskarazko
lehen ikasgaia ere emanen.
Oharkabea bezala dio gutako batek:
'Emukatup tab kogaid erug naedlakezta
ae neztidnufnok nugud...'

GALTZETAN GORDETZEKO KOBLAK

GP GALTZETAN GORDETZEKO KOBLAK

Artizarra ortzantzean lehena da argitzen
Saguzahar zaharrena oraintxe da esnatzen
Teila gorri horma grisa ixilean laztantzen
Zoko beltzen hegaztiak gau berria ehuntzen

Hemen gautza ezin irten errautsen gaztelutik
Gaua sare erraldoia gugana abaildurik
Azpian nau gatibatzen tristurari loturik
Hemen natza hau zer denentz adierazi ezinik

Hau izuen gordeleku eta belar hitsena
Hau malkoen katedrala gizaseme hutsena
Hau eremu bezperage biharamun motzena
Hemen datza gorpu bizi herri bat izan zena

Hanitz lore sortzen omen hurruneko bizira
Gartzelara sartu oro heldua da hobira
Saguzar ehunleen urkabeen hegira
Zelan kulun-katzen garen bi begiez begira

Argi gabe ari nauzu giltzapean koblatan
Oinazea bisitari gogoaren zainetan
Zaindariak paper bila ari dira zeldetan
Erdu eta to zuretzat gorde itzazu galtzetan

KP GALTZETAN GORDETZEKO KOBLAK

Artizarra ortzantzean lehena da argitzen
Saguzar zaharrena oraintxe da esnatzen
Teila gorri horma grisa isilean laztantzen
Zoko beltzen hegaztiak gau berria ehuntzen

Hemen gautza ezin irten errautsen gaztelutik
Gaua sare erraldoia gugana abaildurik
Azpian nau gatibatzen tristurari loturik
Hemen natza hau zer denentz adierazi ezinik

Hau izuen gordeleku eta belar hitsena
Hau malkoen katedrala gizaseme hutsena
Hau eremu bezperage biharamun motzena
Hemen datza gorpu bizi herri bat izan zena

Anitz lore sortzen omen urruneko bizira
Kartzelara sartu oro heldu da hobira
Saguzar ehuleen urkabeen hegira
Zelan kulunkatzen garen bi begiez begira

Argi gabe ari nauzu giltzapean koblatan
Oinazea bisitari gogoaren zainetan
Zaindariak paper bila ari dira zeldetan
Erdu eta to zuretzat gorde itzazu galtzetan

IX. GALDERA

GP

IX. GALDERA

Eta orain, aberria hain hurrin
eta hain ezdeusa denean,

funtzionarioek, eta goardia zibilek,
eta harresiek, eta basamortuak
inguraturik,

berrehun egunetik gorako isolamendu
eta bakardadearen ondoren,

zer dela eta oldartzen eta —kanpai
hotsen artean—
okupatzen didate gogoia Maria Lauraren
bular ikaragarriek?

KP

IX. GALDERA

Eta orain, aberria hain urrun
eta hain ezdeusa denean,

funtzionarioek, eta guardia zibilek,
eta harresiek, eta basamortuak
inguraturik,

berrehun egunetik gorako isolamendu
eta bakardadearen ondoren,

zer dela eta oldartzen eta —kanpai
hotsen artean—
okupatzen didate gogoia Maria Lauraren
Bular ikaragarriek?

GOGOETA MATEMATIKOA

GP/ KP

GOGOETA MATEMATIKOA

Goizeko ordu 2ak izango ziren
detenitu nindutenean,
beste 2 edo 3 lagunekin.
Non daude
besteak? galdetzen zidaten,
Non daude falta diren
3 edo 2ak? errepikatzen zidaten
 ∞ aldiz.
Nik ez nuela ezagutzen beste
inOr,
eta haiek klarionezko X lez
borratuko nindutela.
Zuk 5 bat lagun duzu, 5 ken 2 edo 3
= 3 edo 2,
eta barrabiletan jotzen zidaten
2 + 7 ostikada.
Burua baineran sartu zidaten
n bider,
non eta n euskal nazioak ukanen dituen
herrialdeen kopurua baita da,
lehen itoaldia bizkaiagatik, 7garrena
zuberogatik.
Bizitzaren kontua oinazean
galduko nuelakoan:
2 gehi 3 bider 7 erdi ∞
kalkulatzeko nuen.
Azkenean alferrik galdutzat utzi eta
273. gelara sartu ninduten
eta orduan hasitako kontua ari naiz
—14, 672, 1189—
osatzen oraindik, gaur, hazilak
1457 egun dituen.

ERRESISTENTZIA

GP

ERRESISTENZIA

Arroz salda, tabako, desinfektante,
zerrailen gurin usaina.

Harresiak, harresiak, harresiak, ortze urdin
hori ere ez da beste harresi bat baizik.

Nork hausten ditu kristal botilak, harresien
gainean kristalezko haginak ereiteko?

Akaso ia ez gara albistea, aspaldian amataturiko
sutearen hondarra baizik.

Aberria zer hurrin eta zer ezdeus;
izarrak akiturik gure leihoetan.

Barruan dugun mundua ez da kabitzen
barruan gaituen gelan.

Harrigarria da hemen kurloien begira
gerla sufritzen dugula

eta, patioaren alde batetik bestera paseatuaz,
gerla ematen dugula.

KP

ERRESISTENTZIA

Arroz salda, tabako, desinfektante,
sarrailen gurin usaina.

Harresiak, harresiak, harresiak, ortzi urdin
hori ere ez da beste harresi bat baizik.

Nork hausten ditu kristal botilak, harresien
gainean kristalezko haginak ereiteko?

Akaso ia ez gara albistea, aspaldian amataturiko
sutearen hondarra baizik.

Aberria zer urrun eta zer ezdeus;
izarrak akiturik gure leihoetan.

Barruan dugun mundua ez da kabitzen
barruan gaituen gelan.

Harrigarria da hemen kurloiei begira
gerla sufritzen dugula

eta, patioaren alde batetik bestera paseatuaz,
gerla ematen dugula.

GOSE GREBAKO HOGEGARREN EGUNEAN

GP

GOSE GREBAKO HOGEGARREN EGUNEAN

Hotzak gaude ilunabarrean, gorputza ahul,
eskuak artega.
Duela hamaika mende kalera irten ez garela,
duela hamaika urte deusere jan ez dugula.

Leihoko barroteen bestaldean euria
isilean eta eten gabe.
Beste leihoetan lagunak susmatzen ditut
neu bezala oinazean euriari begira.

Zenbat garen? Bat, hiru, bost, zazpi....
Banan bana
isolaturik, baina hanitz gara eta inor ez da
tokatu zaion zeldatik pasatu den lehena.

Lehenagokoen urratsak jarraitzen ditugu
ia oharkabea,
eta jarraituko dizkigute oraindik, eskolaruntz
barrikaden albotik jakinminez doazen hurrek.

Hezurretan gaude, min zaharren batek gure baitan
hezurrezko xirulak jotzen ditu.
Noiz arte izanen da denbora hain amaitezina?
Bueltatuko ote zaigu haragia inoiz gorputzera?

Hatzamarretan indarririk ez, begiak
lausatzen zaizkit.
Poema baldar eta tristeak igual bai baina
koldar lekziorik ez diegu ondokoei utziko.

XXPK
**GOSE GREBAKO HOGEGARREN
EGUNEAN**

Hotzak gaude ilunabarrean, gorputza ahul,
 eskuak artega.
Duela hamaika mende kalera irten ez garela,
duela hamaika urte deusere jan ez dugula.

Leihoko barroteen bestaldean euria
 isilean eta eten gabe.
Beste leihoetan lagunak norbera bezala
 oinazean euriari begira.

Zenbat garen? Bat, hiru, bost, zazpi...
 Banan bana
isolaturik, baina hanitz gara, eta inor ez da
tokatu zaion zeldatik pasatu den lehena.

Lehenagokoen urratsak jarraitzen ditugu
 ia oharkabea,
eta jarraituko dizkigute oraindik, eskolarantz
barrikaden albotik jakinminez doazen hurrek.

Hezurretan gaude, min zaharren batek gure baitan
 hezurrezko xirulak jotzen ditu.
Noiz arte izanen da denbora hain amaitezina?
Bueltatuko ote zaigu haragia inoiz gorputzera?

Hatzamarretan indarrrik gabe, begiak
 Lausotzen zaizkigu.
poema baldar eta tristeak igual bai, baina
koldar lekziorik ez diegu ondokoei utziko.

KP
**GOSE GREBAKO HOGEGARREN
EGUNEAN**

Hotzak gaude ilunabarrean, gorputza ahul,
 eskuak artega.
Duela hamaika mende kalera irten ez garela,
 duela hamaika urte deus ere jan ez dugula.

Leihoko barroteen bestaldean euria
 isilean eta eten gabe.
Beste leihoetan lagunak erdikusten ditut
 neu bezala euriari begira.

Zenbat garen? Bat, hiru, bost, zazpi...
 Banan-banan
isolaturik, baina asko gara, eta inor ez da
 tokatu zaion zeldatik pasatu den lehena.

Lehenagokoen urratsak jarraitzen ditugu
 ia oharkabean,
eta jarraituko dizkigute oraindik, eskolarantz
 barrikaden albotik jakin-minez doazen haurrek.

Hezurretan gaude, min zaharren batek gure baitan
 hezurrezko xirulak jotzen ditu.
Noiz arte izanen da denbora hain amaiezina?
 Bueltatuko ote zaigu haragia inoiz gorputzera?

Atzamarretan indarrrik gabe, begiak
 lausoturik idatziz,
poema baldar eta tristeak igual bai, baina
koldar leziorik ez diegu ondokoei utziko.

BESAMOTZAREN BESOA

GP / HDEOG

BESAMOTZAREN BESOA

Lekuak zabaltzeko diren ateak guretzat lekuak
zarratzeko,
egunaren irrikitan iragandako gauen ondoren
gauaren zain hasitako egunak,
jan ez dugun ogia hurrineko mahai gainean
lizuntzen,
geografia liburuetan ageri ez den herri bat
gure herria,

erori gareneko zuloa hondatzen gaituen
zuloa,
jasotzen ez dugun mosua ematen ez ditugun mosuen
osinean itotzen,
esaten ditugun hitzak esaten ez ditugunak lako
mahats garaun garratzak,
ez ditugun zihurtasunak gure zihurtasun
bizi bakarra.

Dena eza, dena gabezia eta dena mingarria
besamotzaren besoa bezala.

KP

BESAMOTZAREN BESOA

Lekuak zabaltzeko diren ateak guretzat lekuak
zarratzeko,
egunaren irrikitan iragandako gauen ondoren
gauaren zain hasitako egunak,
jan ez dugun ogia urruneko mahai gainean
lizuntzen,
geografia liburuetan ageri ez den herri bat
gure herria,

erori gareneko zuloa hondatzen gaituen
zuloa,
jasotzen ez dugun musua ematen ez ditugun musuen
osinean itotzen,
esaten ditugun hitzak esaten ez ditugunak lako
mahats ale garratzak,
ez ditugun ziurtasunak gure ziurtasun
bizi bakarra.

Dena eza, dena gabezia eta dena mingarria
besamotzaren besoa bezala.

OROIMENEKO PORTUA

GP/ HDEOG OROIMENEKO PORTUA

Ifar aldeko portu zaharra
ekar dezagun kantara:
kale bustien sendimendua,
edalontzien ikara.

Marinelen hitz arrotzak baina
ginebra onaren dirdira,
gain biluzia sartzen zitzaigun
begi zabalen ninira.

Gau erdiaren eremuetan
laban ahoak aidera:
izar isilen argi azpian
odol beroa lurrera.

Txanpon berriez erosi eta
amodioen jokora,
ohe hestutan etzuten ginen
itsas lamien altzora.

Kanta lizunen alegrantzia,
akordeoien tristura:
ez gara egundo, ai, itzuliko
oroimeneko portura.

KP OROIMENEKO PORTUA

Imanoli, eskerrekin

Ipar aldeko portu zaharra
ekar dezagun kantara:
kale bustien sentimendua,
edalontzien ikara.

Marinelen hitz arrotzak baina
ginebra onaren dirdira,
gau biluzia sartzen zitzaigun
begi zabalen ninira.

Gau erdiaren eremuetan
labana ahoak airera:
izar isilen argi azpian
odol beroa lurrera...

Txanpon berriez erosi eta
amodioen jokora:
ohe estutan etzuten ginen
itsas-lamien altzora.

Kanta lizunen alegrantzia,
akordeoien tristura.
Ez gara egundo, ai, itzuliko
oroimeneko portura!

JOLASA

GP
JOLASA

Branka berunezko itsasoan aurrera-dena,
Marinelak karelean.
Bapatean masta gainetik begiralearen oihua
uhain handiak datozela.
Pilotoak nabegazio liburua izkiriartzea utzi
eta lema eutsi du,
uhain izugarria iadanik gainean dela, alferrik,
kroskoa ikaritzen,
gila zartatzen eta untzia olarruaren azpian
alderatu eta iraultzen denean.
Orduan, esku erraldoi batek bafora hartu,
aidera altzatu eta ura dariola...

'Galerrenak eskifaia guzia galdu du' dio haurrak
paperezko untzi hondatua begietara jasoaz
'ea nabegazio liburua aurkitzen dudan'
dio haur harek,
neuk, aintzina, hondartzan hareazko gaztelu eta
paperezko untzitara jolasten.
Eta nabegazio liburuaren, eta hurrengo untzia
egiteko paperaren, bila itsasertzean...

Marinelak, untzia, uhaina, haurra, jolasa? Oraina
paper zuria tolesdurarik gabe,
boligrafo urdina, ene eskua tinta zirriborroak
itsasorik gabe, haurtzarorik gabe...

KP
JOLASA

Aurrera-dena doa branka itsaso barean,
Marinelak karelean,
Bat-batean, begiralearen oihua mastaren gainetik:
'Uhin handiak datoz!'
Pilotuak nabigazio liburua izkiriatzea utzi
eta lemari eutsi dio,
olatu izugarria jadanik gainean dela. Alferrik,
kroskoa ikaritzen,
gila zartatzen eta ontzia ur-bagaren azpian
Alderatu eta iraultzen den artean,
Orduan, esku erraldoi batek hartu du barkua
airean ura dariola altxatzeko...

'Galarrenak eskifaia akabatu du...' dio haurrak
paperezko ontzi hondatua
begietara jasoz. 'Ea nabigazio liburua
aurkitzen dudan', diot,
neuk, antzina, hondartzan hareazko gaztelu eta
Paperezko ontzitara jolasten.
Nabigazio liburuaren eta hurrengo ontzia egiteko
paperaren bila itsasertzean...

Marinelak, ontzia, uhina, haurra, jolasa? Oraina
paper zuria tolesdurarik gabe,
boligrafo urdina, norberaren eskua, tinta zirriborroak,
itsasorik gabe, haurtzarorik gabe...

BESTE MUNDUA

GP/ XXPK

BESTE MUNDUA

Giltzari beste buelta bat ematen badiote hobe,
ez dadin inor sartu.

Mirila zelan halan lausotuko dut
inork ez begiratzeko.

Itzalpean ezkutatu nahi nuke, itzalaren
itzal izan, deus lez.

Baliteke beste mundu batzu izatea,
hau ez da.

Entseiatuko naiz deusetik beste bat
asmatzen.

Ene bila helduko dira funtzionarioak
beren giltza-porra
eta morroi begiekin, zeldan
ez naute aurkituko,
paperotako mintzairak itsas atx behelainoen
izua zabal dezala...

Beste mundu bat sortuko dut
aideango hiria bezain hatzeman ezina.

KP

BESTE MUNDDUA

Giltzari beste buelta bat ematen badiote hobe,
ez dadin inor sartu.

Mirilla zelan-halan lausotuko dut
inork ez begiratzeko.

Itzalpean ezkutatu nahi nuke, itzalaren
itzal izan, ezer ez izan.

Baliteke beste mundu batzuk izatea,
hau ez da.

Entseatuko naiz ezerezetik beste bat
asmatzen.

Bila helduko direnean funtzionarioak
giltza-porrak eskuan
eta morroi begiak aurpegian, ez naute
zeldan aurkituko,
itsas atx behelainoen izua zabal dezala
paperotako mintzairak...

Beste mundu bat sortu behar dut
aireango hiria bezain atzeman ezina.

SORTALDEKO ORRATZAK

GP

SORTALDEKO ORRATZAK

Lanbroak goroldioa usteltzen du,
eta ugaltzen du.
Haran geldoan, idiak bezain astiro doa
denbora, astun, xirrinkari, joankorra.
Bihotz oneko jendeei, sukalde zokoetan,
beren azienden eta beren hirien
zoriona josten ari zirela,
orratzak herdoildu zaizkie,
sortaldeko oihal gorriak eskegitzeko
egunsentiro usatzen dituztenak,
eta jostorratz heldoilduz loturik
Argitu da gaurko eguna, zaharra.

KP

SORTALDEKO ORRATZAK

Lanbroak goroldioa usteltzen zuen,
eta ugaltzen zuen.
Denbora idia bezain astiro zihoan
haranean, astun, kirrinkari, joankor.
Bihotz oneko jendeei orratzak
herdoildu zitzaizkien
sukalde zokoetan azienden eta hirien zoriona
josteko erabiltzen zituztenak,
sortaldeko goiz-oihal gorriak eskegitzeko
usatzen zituztenak.
Jostorratz herdoilduz loturik argitu da
Gaur ere eguna.

GAIHERDIKO AMETSA

GP / KP

GAIHERDIKO AMETSA

Xiberotar koblak

Gaiherdiko ene ametsian
zü laratzeko sü-garra:
mihi berotan altxatzen zira
hunki ezinezko plazerra.

Bena ametsa deseginik niz
iratzartzen ohantzian:
hotzez ikhara gela hertsian
bakhartarzün ülhünian.

Zü orhitzian, ene maitia,
ametsak oro galdürik:
intxaurra düt eztarrian eta
besuetan eztüt deusik.

ELURRA ERORIKO DA GAUEZ

GP

ELURRA ERORIKO DA GAUEZ

Elurra eroriko da gauez
eta otsoitsuak helduko dira.

Elurra eroriko da gauez,
laster ez da oreinik ezagutuko.

Artzaina bere etxolarantza doa,
korrika doa, ekaitza orduko iristeko,
eroa lez doa korrika.

Elurra eroriko da gauez
aztarnen isiltasuna babestera.

Eser gaitezen sutondoan eta esaidazu
zelan altxatuko den hezur zurien artetik
udaberria.

KP

ELURRA ERORIKO DA GAUEZ

Elurra eroriko da gauez
Eta otsoitsuak helduko dira.

Elurra eroriko da gauez,
Laster ez da oreinik ikusiko.

Artzaina etxolarantz doa,
korrika doa, ekaitza orduko iristeko,
eroa lez doa korrika.

Elurra eroriko da gauez
aztarnen isiltasuna babestera.

Eser gaitezen sutondoan
eta esadazu zelan altxatuko den
Hezur zurien artetik udaberria.

BEGI URRUNEI BERTSOA

GP/ KP

BEGI HURRUNEI BERTSOA / BEGI URRUNEI BERTSOA

Goizean goizik jaiki naiz eta
leiho parean eseri,
begira nago zure begiak
ea non diren ageri,
baina hormetan zehar ez diot
antzik ematen ezeri.
Zure begiak hurbil banitu
haietan nenbilke igeri.

AMODIO PROTOPOEMA

GP/ HDEOG

AMODIO PROTOPOEMA

Amodio poemarik xamurrena izkiriatu nahi nizuke
poeta erromantikoen xalotasun eta
erru gabeziarekin.

Zure zangoak luze luzeak balira
eta ene zangoak zureak lain luzeak
mahaipean luzatuko genituzke zangoak
zangalatrabatzera jolasteko.

Ene hatzamarrek zure larrua ukituez gero
pospolu antzera izekiko lirateke.

Mundua arrisku larrian jarriko genuke
gure besarkadagatik ikaratzen ez dakit zenbat
Richter eskalan.

Erdu harresia aihenbelarrak lez eskalatuaz, erdu
untziaren kubertara jauzten den olatuaren gisan,
erdu eremu lehorra hondatzera datorren
ekaitza bezala.

Erdu eta bihur ditzagun hitzak haragia.

Solda gaitzatela bata bestearen kontra.

Horrelako poema gogotsu bat eginen nizuke,
baina zer laburra den lirikarena.
Leioa zabaltzean, zeldara zure ordeztu,
errealitatea sartzen zait, bere altzairuzko
Hatzaparrekin, orroaka.

KP

AMODIO PROTOPOEMA

Amodio poemarik xamurrena
izkiriatu nahi nizuke
poeta erromantikoen xalotasun eta
erru gabeziarekin.

Zure zangoak luze-luzeak balira
eta ene zangoak zeureak bezain luzeak
mahaipean aurreratuko genituzke zangoak
zangalatrabatzera jolasteko.

Ene atzamarrak, zure larrua ukituz gero,
pospolo antzera izekiko lirateke.
Mundua arrisku larrian jarriko genuke,
gure besarkadagatik ikaratzen

ez dakit zenbat Richter eskalan.
Erdur harresia aihen-belarrak lez

erdu ontziaren kubiartara jauzten den
olatuaren gisan.
Erdur eremu lehorra hondatzera datorren
ekaitza bezala.
Erdur eta bihur ditzagun hitzak haragia.
Solda gaitzabela bata bestearen kontra.

Horrelako poema zoli bat eginen nizuke,
baina zer laburra den lirikarena.
Leioa zabaltzean, zeldara, zure orde
errealitatea sartzen zait, altzairuzko atzaparrekin
garrasika.

HILARRI IZKRIBUA V

GP

HILARRI IZKRIBUA V

Harmakin burukatu gara
gaztetasunak ematen duen
ausardiarekin. Onak eta
okerrak naharo egin ditugu.
Gutariko asko geratu da
bazterretan, hiltzeko gogorik
gabe, lore lehertuen gisan.
Bizi eta galdu dugu,
ametsak erein ditugu
ametsak biltzeko. Bizitza
zikoitza da gurekin.
Aldean geneukan guzia
eman dugu, eta dena eman dugunez
gero ez dugu deusere.

KP

HILARRI IZKRIBUA V

Armekin borrokatu gara
gaztetasunak ematen duen
ausardiarekin. Onak eta
okerrak naharo egin ditugu.
Gutariko asko geratu da
bazterretan, hiltzeko gogorik
gabe, lore lehertuen gisan.
Bizi eta galdu dugu,
ametsak erein ditugu
ametsak biltzeko. Bizitza
zikoitza izan da gurekin.
Aldean geneukan guzia
eman dugu eta, dena eman dugunez
gero, ja ez dugu deus ere.

HAU DA ENE ONDASUN GUZIA

GP/ HDEOG

HAU DA ENE ONDASUN GUZIA

Hau da ene etxea, hau da
ene aulkia, hau da ene ohea,
hau da ene ondasun guzia.
Bakardade eta isiltasun
hau da ene jabego bakarra.
Mila jostorratz herdoildu aldean,
leihorik gabeko begirada,
zafrada garratz bat bihotzean,
hauxe da nik dudan guzia:
hilda nagoela esan dezaket?
Amagandik irten nintzen bezala
irtengo naiz endregu honetatik.
Aterik zabaldu ezin eta
—ba dea hilobi hestuagorik?—
funtzionarioen begi kliskadek
mirilan igartzean bakarrik
ohartzen naiz bizirik nagoela.

KP

HAU DA ENE ONDASUN GUZIA

Hau da ene etxea, hau da
ene aulkia, hau da ene ohea,
hau da ene ondasun guzia.
Bakardade eta isiltasun
hau da ene jabego bakarra.
Mila jostorratz herdoildu aldean,
leihorik gabeko begirada,
zafrada garratz bat bihotzean,
hauxe da nik dudan guzia:
hilda nagoela esan dezaket?
Amagandik irten nintzen bezala
irtengo naiz endredo honetatik.
Aterik zabaldu ezin eta
—ba ote da hilobi estuagorik?—
funtzionarioen begi kliskak
mirillan igartzean ohartzen naiz
bizirik nagoela.

ZURIAN BELTZ

GP
ZURIAN BELTZ

Zure begietako irla beltzera
igerian ailegatzen ez naizenez
zure begietako zurian poemak
ikazten ditut.

KP
ZURIAN BELTZ

Zure begietako irla beltzera
igerian ailegatzen ez naizenez
zure begietako zurian poemak
Ikazten ditut.

GAUEZ LO EGIN EZINIK

GP

GAUEZ LO EGIN EZINIK

Brodatuen bestaldea/ Le paysage c'est un état
d'âme / Antzinako haurra
munduaren tamainako globoa puzten / Panpinak
hilekoa dariela / Arrainak nasa gainean /
Como são bonitos os marinheiros / Surik gabeko
sutondoa / Albiste onak itxarotea
dentistak hagina kentzen dizun artean / Rj rj rj/
Sutondorik gabeko etxea /
Etxerik gabeko bizilekua / Zakurraren belarri
zuloan gainbizitzea /
Betaurrekoak lurrean / Bizitzen ikasi orduko
hiltzen ikastea /
Saguak zelda bazterrean rj rj rj / Leku zikina
gainera ilunetan...
Denbora den dortoka hori pausarik ia egin gabe
pasatzen da.
Haren maskorpean bizi arren, haren aldentzeari
begiratzen diogu.

Erropa zikinak ikuztokian bezala pilatzen ditut
lerrook pospoluen argipean,
ea kabitzen zaizkidan heldu den goizeko trasladoan,
hogeita bost kiloko boltsan.

Dortokaren maskorra: urteen edalontzia.
Gezala, herdoila, koralak.

Ainhenelako hitz laburren bat asmatu:
zugabakarrik.
'zugabakarrik'.

Ahazturan oroitarrak altzatu: baserri fabrikak
gure herriko haran berdeetan.
Desolazioa poesia deritzan hori bihurtu? It looks well
on the page/ but never well enough

Alegra gaitezen ilunbeei begira, again goizalba da
Zelanda Berrian, antipodetan.

KP

GAUEZ LO EGIN EZINIK

Brodatuaren bestaldea / Le paysage c'est un état
d'âme / Antzinako haurra
munduaren tamainako globoa puzten / Panpinak
hilekoa dariela / Arrainak nasa gainean /
Como são bonitos os marinheiros / Surik gabeko
sutondoa / Albiste onak itxarotea
dentistak hagina kentzen dizun artean / Rj rj rj/
Sutondorik gabeko etxea /
Ettxerik gabeko bizilekua / Zakurraren belarri
zuloan gainbizitzea /
Betaurrekoak lurrean / Bizitzen ikasi orduko
hiltzen ikastea /
Saguak zelda bazterrean rj rj rj / Leku zikina
eta gainera ilunetan...
Denbora den dortoka hori pasatzen da pausarik
ia egin gabe.
Haren maskorpean bizi arren, haren aldentzeari
begiratzen diogu.

Arropa zikinak ikuztokian bezala pilatzen ditut
lerrook pospoloen argipean,
ea kabitzen zaizkidan heldu den goizeko trasladoan,
hogeita bost kiloko poltsan.

Dortokaren maskorra: urteen edalontzia.
Gezala, herdoila, koralak.

'Aihene' bezalako hitz laburren bat asmatu:
'zugabakarrik'.
Ahanzturan oroitarriak altxatu: baserri fabrikak
gure herriko haran berdeetan.
Desolazioa poesia deritzan hori bihurtu? It looks well
on the page /

but never well enough. Alegria gaitzen
ilunpeei begira,
agian goizalba da nonbaiten, antipodetan agian,
Zeelanda Berrian.

TXINATAR POEMA

GP/ KP

XINAR POEMA / TXINATAR POEMA

Lurraren ikurra. Uraren ikurra.

Bihotzaren ikurra. Suaren ikurra.

Errautsen ikurra. Haizearen ikurra.

ITZULPEN LITERALAI

GP

ITZULPENAI

Lurraren aldatz behera erreka
 geldiunerik gabe
Bazterrean sua eginda
 xori bihotzak afalduko ditut
Errauts puska bat izan nahi nuke
 haizeak hurrin eraman nazan

KP

ITZULPLEN LITERALAI

Lurra aldats beheran erreka
 geldiunerik gabe
Bazterrean sua eginda
 txori bihotzak afalduko ditut
Errauts puska bat izan nahi nuke
 haizeak urrunera eraman nazan

ITZULPEN LITERALA II

GP/ KP

ITZULPENA II / ITZULPEN LITERALA II

Lehorrera ailegatu ginen itsasoan
nabigatu ondoren

Sua egin genuen gogoak
berotzeko

Errautsak bertan behera utzita
haizea aldeko joan ginen

ITZULPEN LITERALA III

GP

ITZULPENA III

Lurrean etzunda esnatu naiz

bart edanarekin

Ura edateak ez dit kendu

bihotzerrea

Jo eta haustuta nagoenez gero

bentiladorea biztu dut

KP

ITZULPEN LITERALA III

Lurrean etzanda esnatu naiz

bart edanarekin

ura edateak ez dit bihotzerrea

kendu

Jo eta haustura nagoenez gero

haizegailua biztu dut

ERDI MINA

GP
ERDIN MINA

Iadanik harrapatua, polizien bultzakada
 eta kolpeen artean,
amari emaniko azken adioa gogoan,
 odolaren zaborea ezpainetan,
sinetsi egin nahi huke.

Biluzik, estekaturik, paparra dena erreta,
 ia deseginik,
naufragiorik gupida gabeenean ere
 azken eustarria atxikitzeko,
sinetsi egin nahi huke

hik oinaze bidaia horretan heriotzerantza
 emaniko pauso bakoitza
hire herriak bizitzara ematen duen
 urratsa dela.

KP
ERDI MINA

Jadanik harrapatua, polizien bultzakada
 eta kolpeen artean,
amari emaniko azken adioa gogoan,
 odolaren zaporea ezpainetan,
sinetsi egin nahi huke.

Biluzik, estekaturik, paparra dena erreta,
 ia deseginik,
naufragiorik gupidagabeenean ere
 azken eustarria atxikitzeko,
sinetsi egin nahi huke

hik oinaze bidaia horretan heriotzarantz
 emaniko pauso bakoitza
hire herriak bizitzara ematen duen
 urratsa dela.

PROTOPOETIKA

GP

PROTOPOETIKA

Gure poesiak ez du inor ilusioz betetzen
bere desirak ekintza bihurtzeraino.

Gure poesiak, bidazti desarmatua, ez du
harmada zapaltzailerik suntsitu.

Gure poesia ez da herriaren haurtzaroko
sutondo solasa.
solasa.

Gure poesiak, hitz zaharrak lotuez, ez du
gure mintzaira lehunduko.

Gure poesiak ez du hitza haragia bihurtzen,
ez du maitalea maitatzera bultzatzen.

Gure poesia zer ezdeusa den, mundua bezain
zabala den alor honetan.

Eta alferreko su hau bihotzean! Gure poesiak
bete ezinezko zenbat eginbide!

KP

PROTOPOETIKA

Gure poesiak ez du inor ilusioz betetzen
desirak ekintza bihurtzeraino.

Gure poesiak, bidazti desarmatua, ez du
armada zapaltzailerik suntsitu.

Gure poesia ez da herriaren haurtzaroko
sutondo

Gure poesiak, hitz zaharrak lotuz, ez du
gure mintzaira leunduko.

Gure poesiak ez du hitza haragia bihurtzen,
ez du maitalea maitatzera bultzatzen.

Gure poesia zer ezdeusa den, mundua bezain
zabala den sail honetan.

Eta alferreko su hau bihotzean! Gure poesiak
bete ezineko zenbat eginbide!

MARIONETEN AITZAKIAREN GOGOETA

GP

MARIONETEN

AITZAKIAREKIN GOGOETA

Hariren bati loturik gaude beti, bizkarretik
lotzen gaituzten hariak,
oinak erabiltzen dizkiguten hariak, burua
eusten diguten hariak,
oroimenaren hariak, errealitatearen hariak,
desiren hariak,
batzutan eten egiten dira hariak, korapilatu
eta lardaskatzen dira hariak,
eta hari endregatuetan
behaztopatzen gara.

Halaere — serio paratzen eta filosofo
frantsesa zititzen uzten badidazue—
arazoa ez da egiten digutena baizik eta
egiten digutenaz egiten duguna.

KP

MARIONETEN

AITZAKIAREKIN GOGOETA

Hariren bati loturik gaude beti, bizkarretik
lotzen gaituzten hariak,
oinak erabiltzen dizkiguten hariak, burua
eusten diguten hariak,
oroimenaren hariak, errealitatearen hariak,
desiren hariak,
batzuetan eten egiten dira hariak, korapilatu
eta lardaskatzen dira
hariak, eta hari endredatuetan
behaztopatzen gara.

Hala ere —serio paratzen eta filosofo
frantsesa zititzen uzten badidazue—
arazoa ez da egiten digutena baizik eta
egiten digutenaz egiten duguna.

BORROKAN HILDAKO LAGUNAK

GP

BURRUKAN HILDAKO LAGUNAK

Lotarako etzun orduko, hara hemendik hilak
ene zeldaraino helduak
oroimenaren maindire odoleztatuan
ene alboan etzutera.

Harako egun haretan, apenas gosaldu gabe,
erlojua begiratu eta,
itzulerarik gabeko estarta beltzean
barrena joan ziren.
Berebiziko balentriak egin omen zituzten
haraindian,
beren lastozko bihotza aidean altzaturik
fatua maitemindu nahirik bezala.
Baina bizitza zikoitza eta galkorra da,
bidea laburra, egun arteak zitalak,
eta menturan ausartu zirenak historiaren
gurpil azpira eroriko ziren,
beren begi ederrak haur jolaseko
kristal kanika lez galtzeko
Edozein kabaretetan traxedun lodia aitakiro eta
gogogaiztoz mintzo da
hilen gauza galduei buruz bere egiak klik klik
klik kokteleko izotza bezala eraginez.

Zuek, bizirik zaudetenok, bihar edo etzi zer egin
deliberatzen duzuenok,
gorde itzazue hilei buruzko zuen aburuak
barrabiletan!

Nik ere ez dakit hilei buruz deus, bisitan
heldu, isilik egon, eta joan dira
mezurik ez iraultzaz ez beste ezertaz
eman gabe.

Zer eginen dugu hainbeste gauza
galdurekin?

Utzi eginen dugu hainbeste gauza
alarguna gisa pasatzen.

Hilak iadanik lurraren boltsiloetan daude.

KP

BORROKAN HILDAKO LAGUNAK

Lotarako oheratu orduko, hara hemen hildakoak
ene zeldaraino heltzen
oroimenaren maindire odoleztatuan
ene alboan etzatera.

Harako egun hartan, apenas gosaldu gabe,
erlojua begiratu eta,
itzulerarik gabeko estrata beltzean
barrena joan ziren.
Berebiziko balentriak egin omen zituzten
bestaldean,
lastozko bihotza airean altxaturik
patua maitemindu nahirik bezala.
Baina bizitza zikoitza eta galkorra da,
bidea laburra, egun arteak zitalak,
eta menturan ausartu zirenak historiaren
gurpil azpira eroriko ziren,
begi ederrak haur jolaseko kristal-
kanika lez galtzeko.
Trajedun lodia aitakiro eta gogo gaiztoz mintzo da
edozein kabaretetan
hildakoen gauza galduer buruz egiak klik klik
klik kokteleko izotza bezala eraginez.

zuek, bizirik zaudetenok, bihar edo etzi zer egin
deliberatzen duzuenok,
gorde itzazue hilei buruzko zuen aburuak
gibelean, ezer ez dakizuelako!

Nik ere ez dakit hildakoei buruz deus, bisitan
heldu, isilik egon, eta joan dira,
ez iraultzaz ez beste ezertaz mezurik batere
utzi gabe.

Zer eginen dugu hainbeste gauza
galdurekin?
Utzi egizue poema hau gaua zeharkatzen duen
alarguna bezala pasatzen.

Hildakoak jadanik lurraren
poltsikoetan daude.

HEMEN GAUDE ETA JARRAITZEKO ASMOAREKIN

GP

HEMEN GAUDE ETA JARRAITZEKO ASMOAREKIN

Igual hasieran bertan ekibokatu ginen,
mundura euskaldun sortzean.
Gero ez genuen independentzia eta iraultzaren
burukatik apartatzen jakin.
Eman dezagun: esna kantu bat abestu genion
gure aberriaren seaska hutsari
Eta goiz batez El Puerto de Santa Mariáko
gartzelan esnatu ginen.

Zorionez edo zorigaitzez, hanitz euskaldun
ekibokatu ekarri ginduzten
Espainiako azken ipurdi honetan bizi edo
hiltzera.
Bizi, ozta ozta gainbizi gara, hestu,
larri, ia mirariz.
Eta bizi ez da guretzat lehen zen bezalakoa
harrezkero egundo izango.

Begirale uniformatuek ehortziko gaituzte
zulerik hurrin eta ilunenean,
idazkari ordainduek borratuko dituzte
gure urratsak.
Baina ekibokatuaren ohitura eta
ausardiarekin
zin egin dezakegu: maite genituen gauzengatik
erori ginen preso,
baina gure maitasuna oraindik
ez dago preso.

KP
**HEMEN GAUDE ETA
JARRAITZEKO ASMOAREKIN**

Igual hasieran bertan ekibokatu ginen,
mundura euskaldun sortzean.
Gero ez genuen independentzia eta iraultzaren
borrokatik apartatzen jakin.
Eman dezagun: esna kantu bat abestu genion
gure aberriaren sehaska hutsari.
Eta goiz batez El Puerto de Santa Mariako
kartzelan esnatu ginen.

Zorionez edo zorigaitzez, anitz euskaldun
ekibokatu ekarri gintuzten
Espainiako azken ipurdi honetan bizi edo
hiltzera.

Bizi, ozta-ozta gainbizi gara, estu,
larri, ia mirariz.
Eta bizi ez da guretzat lehen zen bezalakoa
harrezkero egundo izango.

Begirale uniformatuek ehortziko gaituzte
zulorik urrun eta ilunenean,
idazkari ordainduek borratuko dituzte
gure urratsak.

Baina ekibokatuaren ohitura eta
ausardiarekin
zin egin dezakegu: maite genituen gauzengatik
erori ginen preso,
baina gure maitasuna oraindik
ez dago preso.

HAIKU II

GP/ KP
HAIKU II

Jainkook otoi
Ez zaitezte sar gure
Bizimodura

HAIKU IV

GP
HAIKU IV

Haizea dator
Gure adatsak nahasi
Eta badoa

KP
HAIKU IV

Haizea dator
gure ileak nahasi
eta badoa

GUTAZ ESANEN DUTENA

GP GUTAZ ESANEN DUTENA

Haien bihotza odol garratzez
beterik zegoen
eta haien bizitza okerreko
estartean galdu zen.
Eta ez ziren beren indarra
nehurtzera gelditzen
eta are gutiago etsaiena.
Gure aurrekoak ziren
baina haiengandik ez dugu
oinorde onik jaso.

Haiek eraikitako espaloiak
haiek ereindako zuhaitzek
altzatu dituzte.

KP GUTAZ ESANEN DUTENA

Haien bihotza odol garratzez
beterik zegoen
eta haien bizitza okerreko
estratatn galdu zen.
Eta ez ziren beren indarra
neurtzera gelditzen
eta are gutiago etsaiena.
Gure aurrekoak ziren
baina haiengandik ez dugu
oinorde onik jaso.

Haiek eraikitako espaloiak
haiek ereindako zuhaitzek
altxatu dituzte.

MIKEL LOPATEGI

GP

MIKEL LOPATEGI

'Iragana', 'oraina', 'geroa', 'dena'
zauri zornatsua egin zitzaionean
hitzak galdu, 'zelan' eutsi ordez
 'zertarako' galdetu
eta suiziden lengoaia mutura
 lerratu zen...

'Oroitgarriak', 'euskal kantak', 'erneguak'
 'maite zaitut' guziak — bulto
 guti ziren denera—
maindire zurian bildu eta abiatu zen
 mina abrigo zahar gisa jantziaz.

Eta gure lengoaia arrunteko hitzak
 atzean utzi zituen;
hara hemen hatzamarren artetik harea fin lez
 galtzen zaizkigula.

Gure artera bueltatuko zaituen hitzik
 ba al da?

Finean, hitza
hutsik geratzen den zelda
Besterik ez da.
[1988]

HINMY 1995

MIKEL LOPATEGI

Iragana /oraina /geroa /dena

zauri zornatsua egin zitzaionean
hitzak galdu, *zelan* eutsi ordez/

zertarako galdetu
eta suiziden lengoaia mutura
lerratu zen...

Oroitgarriak /euskal kantak /erneguak

maite zaitut guziak (ez ziren
bulto handia denera)
maindire zurian bildu eta abiatu zen
mina abrigo zahar gisa jantziaz.

Eta gure lengoaia arrunteko hitzak

atzean utzi zituen:
hara hemen hatzamarren artetik harea fin lez
galtzen zaizkigula.

Gure/ artera/ bueltatuko/ zaituen/ hitzik/

Ba/al/ da?

Finean, hitza,

hutsik geratzen den zelda
besterik ez da.

KP
MIKEL LOPATEGI

'Iragana', 'oraina', 'geroa', 'dena'
zauri zornatsua egin zitzaionean
zitzaionean
hitzak galdu, 'zelan' eutsi ordez
'zertarako' galdetu
eta suiziden lengoaia mutura
lerratu zen...

'Oroigarriak', 'euskal kantak', 'erneguak'
'maite zaitut' guziak
—bulto guti ziren denera ere —
maindire zurian bildu
eta mina abrigo zahar gisa jantzirik
abiatu zen.

Eta atzean utzi zituen gure lengoaia
arrunteko hitzak:
hara hemen atzamarren artetik harea fin lez
galtzen zaizkigula.

Gure artera bueltatuko zaituen hitzik
ba al da?

Finean, hitza hutsik geratzen den zelda
Besterik ez da.
[1988]

HINMY 2013
MIKEL LOPATEGI

'Iragana', 'oraina', 'geroa', 'dena'
zauri zornatsua egin

hitzak galdu, 'zelan' eutsi ordez
'zertarako' galdetu
eta suiziden lengoaia mutura
lerratu zen...

'Oroigarriak', 'euskal kantak', 'erneguak'
'maite zaitut' guztiak
—denak ere ez ziren bulto handia—
izara zurian bildu
eta mina abrigo zahar gisa jantzirik
abiatu zen.

Eta atzean utzi zituen gure lengoaia
arrunteko hitzak:
hara hemen atzamarren artetik harea fin lez
galtzen zaizkigula.

Gure artera bueltatuko zaituen hitzik
ba al da?

Finean, hitza, hutsik geratzen den zelda
besterik ez da.

KIROFANO

GP

KIROFANO

Izugarri gogorra izan zen. Mahai gainean
Biluzik etzunerazi zuten, gerritik gorakoa
 ertzetik kanpora,
eta polizia bat bere belaunen gainean eserita.
Orduan urdailean kolpeka, barrabiletan
 kolpeka
Saman karate kolpeka, buruan telefono
 listin sendoaz kolpeka.
saman karate kolpeka, buruan telefono
 listin sendoaz kolpeka.

Gero poliziek zigarro bana biztu eta
 keerik kera
oin zolak erre zizkioten, zangarteak
 erre zizkioten,
eta lau zigarrokinak bere bularrean
 amatatu zituzten.
Gero listinaz buruan joka hasi ziren gong
 Gong gong berriro,
eta burua handitu zitzaion, ezin zuen
 arnasarik hartu,
begiak hertsu zituen enano saldoek bere
 gorputz gaztelua asaltatzen zuten artean,
mendetako lurrikarak, katu hilak zainen laberintoan,
 egunsenti zurbilak odola galtzen...
Hilargirantz aldentzen zen xori itsuaren labirintoan,
 hatzaparrak oratu zituen.
Behin eta berriro jo zuten orduan
 Eraman ezinezko moduan
eta oraindik ere —gaur egun— gupidarik gabe
 jotzen dute.

[1990]

HINMY 1995
KIROFANOA

Inquisitio, -onis I

Izugarri gogorra izan zen, gero. Biluzik
etzunerazi zuten,
Mahai gainean, gerritik gorakoa ertzetik
kanpora
eta polizia bat belaunen gainean
eserita
Orduan urdailean kolpeka, barrabiletan
kolpeka,
saman karate kolpeka, buruan telefono
listin sendoaz kolpeka.
Gero poliziek zigarro bana biztu eta
keerik kee
oin zolak erre zizkieten, zangarteak
erre zizkieten,
eta lau zigarrokinak amatatu zizkieten
bularrean.
Gero listinaz hasi ziren berriro gong
gong gong joka,
eta burua handitu zitzaion, ezin zuen
arnasarik hartu,
begiak hertsu zituen nano saldoek bere
gorputz gaztelua asaltatzen zuten artean
mendetako lurrikarak, katu hilak zainen estartan,
egunsenti zurbilak odola galtzen...
Hilargirantz aldentzen zen xori itsuaren
hatzaparrak oratu zituen
Behin eta berriro jo zuten orduan
eraman ezinezko moduan
eta oraindik ere (gaur egun) gupidarik gabe
jotzen dute.

Inquisitio, -onis I

Izugarri gogorra izan zen.
Mahai gainean
biluzik etzanarazi zuten, gerririk gorakoa
ertzetik kanpora,
eta polizia bat belauen gainean
eseri zitzaion.
Orduan urdailean kolpeka, barrabiletan
kolpeka,
saman karate kolpeka, buruan telefono
aurkibide sendoaz kolpeka.
Gero poliziek zigarro bana biztu eta
ketik kera
Oin zolak erre zizkioten, zangoartek
erre zizkioten,
Eta lau zigarrokinak bere bularrean
amatatu zituzten.
Gero telefono aurkibideaz buruan joka hasi ziren
berriro gong-gong-gong
eta burua handitu zitzaion, ezin zuen
arnasarik hartu,
begiak hertsu zituen nano saldoek bere
Gorputz gaztelua asaltatzen zuten artean,
Mendetako lurrikarak, katu hilak zainen labirintoan,
Egunsenti zurbilak odola galtzen...
Ilargirantz aldentzen zen txori itsuaren
atzaparrak oratu zituen,
behin eta berriro jo zuten orduan
eraman ezinezko moduan
Eta oraindik ere — gaur egun— gupidarik gabe
jotzen dute.

Izugarri gogorra izan zen, gero. Biluzik
etzunarazi zuten
gerritik beherakoa mahaiaren gainean,
polizia bat belauen gainean eserita,
eta gerririk gorakoa mahai ertzetik kanpora,
bizkarra airean eutsi ezinik.
Orduan urdailari kolpeka hasi zitzaizkion,
barrabilei kolpeka,
samari karate kolpeka, buruari telefono-
aurkibide sendoaz kolpeka.
Poliziek, zigarro bana piztu eta, mehatxu
aholku eta ke artean,
oin zolak erre zizkioten, zangoartek
kiskali zizkioten,
Eta haren bularrean amatatu zituzten ezari
ezarian lau zigarrokinak.
Gero telefono aurkibideaz hasi ziren berriro
gong gong gong joka.
Burua puzturik sentitzen zuen, arnasarik ere
hartu ezinik.
Begiak itxi zituen nano saldoek gorputza
gaztelua balitz bezala
erasotzen zioten artean. Mendetako lurrikarak
sentitu zituen bere baitan,
eta katu hilak zain-estrategian, egunsenti
zurbilak odolusten zirela...
Ilargirantz apartatzen zen hegazti itsuaren
atzaparrei heldu zien.
Behin eta berriro jo zuten orduan
eraman ezinezko moduan
eta oraindik ere (gaur egun) gupidarik gabe
jotzen dute.

EGUNEN BATEAN

GP EGUNEN BATEAN

Egunen batean mundua lehunagoa
eginen da gure inguruan
eta nahinorantza abiatuko gara
nahieran,
eta maite ditugun lagunak
besarkatuko ditugu,
eta den edaririk bizigarriena
edanen dugu,
eta legeaz landako gure mintzairan
solastuko gara,
eta munduko andere guziekin
oheratuko gara,

eta hamaika urteren ondoren lehenengoz
—gorrotoaren kortesiaz—
diosala eginen diegu gartzelan utziko ditugun
funtzionarioei.
[1990]

KP EGUNEN BATEAN

Egunen batean mundua leunagoa
eginen da gure inguruan
eta nahinorantz abiatuko gara
nahieran,
eta maite ditugun lagunak
besarkatuko ditugu
eta den edaririk bizigarriena
edanen dugu,
eta legeaz landako gure mintzairan
solastuko gara,
eta munduko andere guziekin
oheratuko gara,

Eta hamaika urteren ondoren lehenengoz
— gorrotoaren kortesiaz—
diosala eginen diegu kartzelan utziko ditugun
funtzionarioei.
[1990]

HINMY 1995 EGUNEN BATEAN

Egunen batean mundua lehunagoa
eginen da gure inguruan
eta nahinorantz abiatuko gara
nahieran
eta maite ditugun lagunak
besarkatuko
eta den edaririk bizigarriena
edanen
eta legeaz landako gure mintzairan
solastatuko
eta munduko andere guziekin
oheratuko gara,

eta hamaika urteren ondoren lehenengoz
saludatuko diegu
(gorroto gortesiaz) gartzelan
utziko ditugun funtzionarioei.

HINMY 2013 EGUNEN BATEAN

Egunen batean mundua leunagoa
eginen da gure inguruan
eta nahinorantz abiatuko gara
nahieran
eta maite ditugun lagunak estu
besarkatuko ditugu
eta diren edaririk bizigarrienak
edanen
eta legeaz landako gure mintzairan
solastuko gara
eta munduko andre guztiekin
oheratuko gara

eta hamaika urteren ondoren lehenengoz
(gorroto gortesiaz)
agur esango diegu kartzelan utziko ditugun
funtzionarioei.

ASPALDIAN UTZITAKO ZELDA

GP

ASPALDIAN UTZITAKO ZELDA

...et je n'entendrai plus
les verrous se fermer sur
l'éternel reclus
ALFRED DE VIGNY

Jakin nahi nuke nork betetzen duen orain
nik utzitako zelda.
Ea entelegatzen duen hormako izkribu tipia:
'Eroria burrukara'

Ea alboko zeldatik inork hots egiten dion
komuneko plastikozko tuberia soltatuaz
telefonoz bezala mintzatzeko.

Ea hango egunak eternal dirauen, gauak izotzezko
egunsentiak esne garratza diren.

Ea errekuentoan mirilatik soegiten duen begiak
-surveillir et punir-
inor ikusten duen edo iadanik inor ez,
denak ala inor ez.

Jakin nahi nuke ihes egin genuenok
benetan ihes egin genuen

ala ihes egitearena bizitzen irauteko atxakia
hutsa izan zen.

[1991]

HINMY 1995/ XXPK
ASPALDIAN UTZIRAKO ZELDA

'... *et je n'entendrai plus les verrous se fermer sur
l'eternal reclus*'

ALFRED DE VIGNY

Jakin nahi nuke nork betetzen duen orain
 nik utzitako zelda.
Ea entelegatzen duen hormako izkribu txikia:
 'eroria borrokara'
Ea alboko zeldatik inork hots egiten dion
 komuneko plastikozko tuberia soltatuz
telefonoz bezala mintzatzeko.
Ea hango egunak eternal dirauen, gauak izotzezko,
 egunsentiak esne garratza diren.
Ea errekuentoan mirilatik soegiten duen begiak
 (*surveillir et punir*)
Inor ikusten duen edo iadanik inor ere ez
 (denak ala inor ez).
Jakin nahi nuke ihes egin genuenok
 benetan ihes egin genuen

ala ihes egitearena bizitzen irauteko
 atxakia hutsa izan zen.

KP
ASPALDIAN UTZITAKO ZELDA

... et je n'entendrai plus
les verrous se fermer sur
l'eternel reclus
(Alfred de Vigny)

Jakin nahi nuke nork betetzen duen orain
nik utzitako zelda.

Ea endelegatzen duen hormako izkribu tipia:
'Eroria burrukara'.

Ea alboko zeldatik inork hots egiten dion
komuneko plastikozko tuberia soltatuz
telefonoz bezala mintzatzeko.

Ea hango egunak eternal dirauen, gauak izotzezko,
egunsentiak esne garratza diren.

Ea errekuentoan mirillatik so egiten duen begiak/
surveillir et punir /
inor ikusten duen edo jadanik inor ez /
denak ala inor ez.

Jakin nahi nuke ihes egin genuenok
benetan ihes egin genuen
ala ihes egitearena bizitzen irauteko atxakia
hutsa izan zen.

[1991]

HINMY 2013

ASPALDIAN UTZITAKO ZELDA

'... et je n'entendrai plus les verrous se fermer sur
l'eternal reclus'
ALFRED DE VIGNY

Jakin nahi nuke nork betetzen duen orain
Nik utzitako zelda.

Ea entelegatzen duen hormako izkribu txikia:
'Eroria borrokara'

Edo alboko zeldatik inork hots egiten dion
komuneko

plastikozko tuberia soltatuz telefonoz bezala
Mintzatzeko.

Ea hango egunak betiereko dirauen, gaua izotz,
egunsentiak esne garratz diren.
Ea errekuentoan mirillatik so egiten duen begiak
(*surveillir et punir*)

inor ikusten duen edo jadanik inor ere ez
(denak ala inor ez?).

Jakin nahi nuke ihes egin genuenok benetan
ihes egin genuen

ala ihes egitearena bizitzen jarraitu ahal izateko
aitzakia hutsa izan zen.

XI. GUTUNA

GP

XI. GUTUNA

Hitzik gabeko gutuna izkiriatu nahi nizueke
zuen nahirik tipierna bete.
Gehiena esanda dago eta zer lotsagarria den
errepikatzen hasia
batez ere hitzek esan nahi dutena geroago
eta gutiago diotenean;
alemanerazko hitz ikaragarriak ere
ez omen dira erabat zehatzak.

Polizia, bankero, ugazaba eta apezak
'terrorista' esaten dizuete,
eta are barregarriagoa bestaldeko jendea
'heroe' deitzen,
zuei, estatuen harri gatibutza inola
ametitzen ez duzenoi,
libertatearen aldeko burrukan libertatea
galdu duzuen giza zatiori.

Hemen eguna odolustutzen ari da
ortzemugan
zauri sakon bat bezala, nork daki
sendagarria den.
Guk beti bezala jarraitzen dugu, lore
eta polbora artean,
metafora eta logistikaren artean, Karl Marx
eta andere biluziaren artean.
Gauza bakoitzak bere zailtasuna,
batzutan mosu bat ematea
etsaiaren kuartel jeneralean lehergailua
jartzea baino zailagoa da.
Zuen askatasuna behar dugu, gauza zailak
elkarrekin egiten jarraitzeko.
Gure herriaren gorputz galdua bilatzea,
esate baterako.
Zuen askatasuna behar dugu, libre gaudenok
libreak izateko.
giza jendeak berez haragian itsatsiak dituen
kate luze eta ilunekin
libre izan gaitezkeen nehurrian
behintzat.

[1991]

KP

XI. GUTUNA

Hitzik gabeko gutuna izkiriatu nahi nizueke,
zuen nahirik tipierna bete.
Gehiena esanda dago eta zer lotsagarria den
errepikan hastea
batez ere hitzek esan nahi dutena geroago
eta gutiago diotenean;
alemanezko hitz ikaragarriak ere ez omen dira
erabat zehatzak.

Polizia, bankero, ugazaba eta apezek
'terrorista' esaten dizuete,
eta are barregarriagoa bestaldeko jendea
'heroi' deitzen,
zuei, estatuen harri gatibutza inola
ametitzen ez duzenoi,
libertatearen aldeko borrokan libertatea
galdu duzuen giza zatiori.

Hemen eguna odolusten ari da
hodeiertzean
zauri sakon bat bezala, nork daki
sendagarria den.
Guk beti bezala jarraitzen dugu, lore
eta bolbora artean,
metafora eta logistikaren artean, Karl Marx
eta andere biluziaren artean.
Gauza bakoitzak bere zailtasuna,
batzuetan musu bat ematea
etsaiaren kuartel jeneralean lehergailua
jartzea baino zailagoa da.
Zuen askatasuna behar dugu, gauza zailak
elkarrekin egiten jarraitzeko.
Gure herriaren gorputz galdua bilatzea,
esate baterako.
Zuen askatasuna behar dugu, libre gaudenok
libreak izateko,
giza jendeak berez haragian itsasiak dituen
kate luze eta ilunekin
libre izan gaitzkeen neurrian
behintzat.

ESNAERAK

HINMY 1995
ESNAERAK

Ohean lokametsetan dago.

Harrikoaren hotsa eta kexu batzu sumatu ditu, esnakeran, erdiloaren
Behelainotik irten orduko.

Senarra sukaldean harrikoa egiten ari da seguruasko, plater hotsa
Entzuten da behintzat.

Senarra nahiko itxuraldatuta dago aspaldian: etxeko beharrak egiten,
Beste baten senarra balitz bezala.

Luzatu du besoa eta, hain zuzen, senarra ez dago ohean. Harrikoa
egiten ari da sukaldean.

Alaba tipiaren kexua igartzen du, alabatxoa beste logelan dago,
kexuka, ametsetan akaso, amets txarren batean endregatua

beste batzuetan bezala.

Eta pasiloko horma erlojuaren dindil hotsa ere susmatzen du orain,

erlojuaren dindil hotsa entzunez geratzea gustatzen zaio begiak
zabaldur orduko.

umearen kexua susmatu du berriz eta jauzi batez jaiki da ohetik

umearengana joateko. Ez daki ze ordu izango den, gaua da oraindino

eta ilunetan haztamuka doa ateraino.

baina logelako atea itxita dago. Ez da posible,

gauetz ez dute inoiz ixten. Zergatik ote dago itxita...

Ate joka hasi da.

‘Isildu hadi, puta!’ erantzun dio errime, erdaraz,

Funtzionariaren abotsak,
Galeriatik.

HINMY 2013
ESNAERAK

Lokametsetan dago ohean, erdi lo erdi itzarrik.

Harrikoaren soinua eta kexu batxuk sumatu ditu, esnaeran, erdiloaren behelainotik irten orduko. Senarra sukaldean ari da seguru asko garbiketa egiten, plater hotsa entzuten da behintzat.

Senarra nahiko itxuraldatuta dago aspaldian: etxeko beharrak egiten. Beste baten senarra balitz bezala. Luzatu du besoa eta, hain zuzen, senarra ez dago ohean. Harrikoa egiten ari da sukaldean, seguru.

Alaba txikiaren kexua ere antzematen du. Alabatxoa beste logelan dago, auhenka, ametsetan akaso, amets txarren batean endredatua. Beste batzuetan bezala.

Pasilloko hormako erlojuaren dindil-hotsa ere antzematen du orain. Erlojuaren soinua entzunez geratzea gustatzen zaio begiak zabaldu orduko.

Umearen kexua barrundatzen du berriro eta jauzi batez jaiki da ohetik umearengana joateko. Ez daki ze ordu ote den. Gaua da oraindino, eta argirik gabe doa ateraino haztamuka.

Logelako atea itxita dago. Ez da posible. Gauetz ez dute inoiz ixten. Zergatik dago itxita? Burdinazkoa da atea. Ate joka hasi da.

-Zabaldu!-eskatu du.

-Isildu hadi, puta!- erantzun diote errime, erdaraz, funtzionarioek galeriatik.

BAINERA

HINMY 1995

BAINERA

Inquisitio, -onis II

Izugarri gogorra izan zen. Esposaturik
 bainera aurrean jarri zuten:
han aurrean pasatutakoen ilea, gonbitoak
 eta zigarrokinak zeuden.
Ileetatik oratu eta burua ur zikinetara
 sartu zioten.
Burua ateratzeko indarrak egin zituen
 alferrik,

arnasa falta zuen, itorik senditu
 eta ura edan zuen.
Konortea bueltatu zitzaionerako
 txiza eginda zegoen,
Gonbitoka ari zen, poliziek bularra sakatzen ziotela
 birikietako ura ateratzeko.
Begininiaren dilatazioa begiratu zioten
 eta berriz tiratu zizkioten ileak.

Urpean itorik senditu zen, eta txiza egin zuen,
 eta ura edan zuen.
Eta konortea galdurik atera zuten
 berriro,
Eta behin eta berriro ito zuten
 gupidarik gabe.
Eta oraindik ere (oraintxe bertan)
 ur zikinetan itotzen dute.

HINMY 2013
BAINERA

Inquisitio, -onis II

Itzela izan zen. Esposaturik galdararen
 aurrean ipini zuten:
handik lehenago pasatutakoen ileak, gonbitoak
 eta zigarrokinak ur-azalean.
Ileetatik oratu eta sartu zioten burua
 ur zikinetara.
Burua ateratzeko indarrak egin zituen,
 alferrik,

arnasa falta zuen, itorik sentitu eta ura
 irentsi zuen sudurretik.
Konortea bueltatu zitzaionerako txiza
 eginda zegoen,
gonbitoka ari zen, poliziek bularra
 kolpeka sakatzen ziotela
birikietako ura ateratzeko. Begi-niriaren
 dilatazioa neurtu zion

medikua omen zen batek, ileetatik tiraka
 hasi orduko berriro.
Urpean itorik sentitu zen eta txiza
 eta ura edan zuen berriro.
Konortea galdurik atera zioten burua
 berriro,
eta behin eta berriro ito zuten hala,
 gupidarik gabe.

Eta oraindik ere (oraintxe bertan)
 ur zikinetan itotzen dute.

XI. GALDERA

KP

XI. GALDERA

Patioan zehar alde batetik bestera
dabiltzan presoak bezala,
hitzak, ordurik ordu oinez. Kartzelatik
urrundu ahal izango duzue inoiz?

Presoaren hitzak, harresiaren kontra,
tunelera sartzen den trena bezalakoak,
ezintasun guzien kontra, hizkuntzaren kontra.
Noraino helduko zarete?

ALTURAREN NEURRIA

KP

ALTURAREN NEURRIA

Ez zara gehiago izango tente ipini eta, altura neurtzeko,
burua altxatzen zuen mutikoa,
Bi astetan hiru zentimetro hazi zinela esango zizun aititek
eta bazenekien hurrengorako ere haziko zinela.
Lapitz, boligrafo edo labana arrasto horizontalak
ikusten zenituen ateko marko zaharrear.
Ez zara berriro izango joko ondorio gabeetara
jolas daitekeen umea.
Kartzelara sartzean neurtu zintuzten metalezko aparatu hartan.
Heldu zara.
Inork ez dizu berriz altura neurtuko. Ez zara gehiago haziko,
baina zure altura jadanik zeure eskuetan dago.
Nahiz eta ez den inongo markotan apuntatzen makurkerien
artean zutitzen direnen garaiera.

INOZENTEEN EGUNA

KP

INOZENTEEN EGUNA

‘Bisitara deitu dizute, neska bat omen da...’
eta han doa inozentea
funtzionarioengana. Tranparen asmatzaileari
esan diote gero:

‘Bi edo hiru gutun dituzu gaur!’, eta karta
multzora inguratu da,
‘Zu zara zu inozentea!’ diotso burlaz
batak besteari.

Buruera horrekin jaitsi dira gaur patiora:
bestea amarruan harrapatzea,
bestearenean norbera erori gabe. Berehala
hartzen diote engainuari iruditua.

‘Trasladorako zure izena eman dute...’
Egilea susmatzaile:
‘Ez nauzu zakuan sartuko!’ Barre-gura lotu ezinik
lagunak sinesgabearen inguruan.

‘Asmatzen hasiz gero, asma zerbait
sinesgarriagoa!’
Baina guardia zibilaren furgoia zain dago
inozente hori beste kartzelara eramateko.
Nor noiz non fida? Ez da erraza inozenteen
jokotik eskapatzea.

Jakinaren ondo gainean egonda ere,
edozertarako dago jendea.
Izan ere, denak dira apur bat gaiztoak eta,
aldi berean, inozente hutsak.

VIS A VIS

KP
VIS A VIS

Arraroa da kanpoan hilean ordu beteko amodio eskubidea
erreklamatzeko egiten den ilara.
Edonondik heldu eta errenkadan itxaroten dute emakumeek,
haien ama-amamek 39an errazionamendua bezala.

Hiru urtetan lehenengoz dago mutila barruan katxeoaren zain,
Amodioaren bila
Arraroa eta ederra da umilazio hori. Urduri dago,
izerdia bezala dariola gogartea.

Imajinatzen du bi gorputzen biluztea, ezezagunen dardaraz
biluzten dira.
Ohearen armazoiaren kirrinka. Eta arropa lurrean,
zimurturik, ezikusiarena egiten duen lekukoa lez.

Arraroa da mutil horrek neska aurpegi bat behar izatea
bere burua ikusteko.
Neskari ez zaio ispilurik faltako, pentsatzen du mutilak.
Eta ez du horretaz pentsatu nahi.

‘Lekua ez da txarra, ezta?’ esango du neskak edo mutilak.
Itogina galdarara jausten, izkribuak horman.
Gurasoak nebarreba bihurtzen direneko gelak
bezain ona da.

‘Ondo zaude?’ ‘Badakit ez nizukeela hau esan behar,
baina jakin behar duzu...’
Pozgarria izango da, poza inoiz negar anpulu batzuek
ziprztindu arren.

Arraroa eta ederra da amodio eskubidea eskatzeko ilaran
zain egotea,
buruari bueltak ematen. Biluzteko agindu dio mutilari
funtzionarioak.

Arraroak da tinbrea, hasten hasi denaren amaiera
anuntziatzen bezala.

